



Brinkola gogoan

Apunte historiko eta
etnografikoak

Jose Luis **U**garte
Tere **M**adinabeitia
Maria Jesus **U**galde



Brinkola gogoan

Apunte historiko eta etnografikoak

Alkatearen agurra	11
Hitzaurrea	13
Laburpenak	15
Sarrera	17
I. Brinkolari kantuz	19
II. Gaztaroko oroitamenak	25
III. Zazpi begiko zubiari	35
IV. Pasadizoak	41
V. Etxez etxe	45
0. Brinkola edo Ergoena	47
1. Brinkolazar	49
<i>Argindegi, artzai ibiltaria</i>	53
<i>Brinkola burdinolaren amaia</i>	54
2. Aierdi-Jauregi	57
3. Aierdi-Iturbe	59
4. Gibelolagarakoa	61
<i>Frantsesaroa</i>	64
5. Gibelolaazpikoa	66
« <i>Brinkola-Zegama</i> » <i>herribidea</i>	67
6. Arabaolatzaneko tren-kaxeta	68
<i>Karrilleroak</i>	70
7. Arabaolatza	71
<i>Artzantza</i>	73
8. Etxeaundi	75
9. Ugalde	80
<i>Liñapitxiko iturria</i>	81
10. Guriditegi	83
<i>Guriditegiko taberna</i>	87
<i>San Agustin «ermandadea»</i>	87

11. Errotaburu	89
12. Turbina	91
13. Zubiaur	93
<i>Jaiotzaren inguruko ohiturak</i>	95
14. Ermentaria	97
15. Olazar-Joiategi	102
<i>Gaztañarre harrobia</i>	107
16. Olazar burdinola	108
<i>Fundición de plomo en Olazar</i>	109
17. Zubitxoeta	111
<i>Aitzondoko basoan</i>	112
18. Barrundiola	116
<i>Errenteroen betebeharrak</i>	120
19. Muntegi	122
<i>Eske-egunak</i>	125
20. Eguzkitzagoikoa	129
<i>Andres Elorza abadea</i>	131
21. Eguzkitzabekoa	133
<i>Ardazketa: errezo, lan eta festa giro</i>	134
22. Abadetxea	136
23. San Agustin eliza	140
<i>San Antonio camuflado</i>	142
24. Igeraldeerrota	144
<i>Noiztikakoa da gaurko Igeralde?</i>	146
25. Igeraldegarakoa	148
<i>Don Ignacio argazkilaria</i>	152
El pájaro azul	155
26. Igeraldeazpikoa	156
<i>Gregorio eta Cesar Hombrados Oñatibia</i>	159
<i>Jesus Peña Etxeberria</i>	160
27. Ziordi	162
28. Tren-geltokia	164
<i>Mikeleteak eta kontrabandoa</i>	165
« <i>Brinkola-Oñati</i> » garraio zerbitzua	166
<i>Arantzazura erromes</i>	168
29. Joanmarinea	169
30. Patxinea	171
<i>San Agustin eguna</i>	172
31. Josemarinea	174
<i>Nazionalistak eta errepublikanoak</i>	175
32. Alberdietxea eta Iraulika fabrika	177
33. Agirreburualde	181
<i>Emigrazioa</i>	183
34. Garroaundi	185
<i>Dantzaldiak</i>	188
35. Garroetxeberrí	191
36. Txuluplantegi	194
<i>Estraperloa</i>	196
37. Garrotxonea	197

38. Garrotxiki	200
39. Uarkalde	202
<i>Tantanporru</i>	204
40. Agirrezabal	205
<i>Autobiografia</i>	210
<i>Artzak, otsoak eta basahuntzak</i>	212
41. Bergaretxe	214
42. Ariztibekoa	217
<i>Otañu, jentilen lantegia</i>	219
43. Ariztigoikoa	222
<i>Gabonetako bixigua</i>	224
44. Kortaaazpikoa	225
<i>Brinkolako sagardoa</i>	227
« <i>Indoabak</i> » <i>garbitzeko makina</i>	228
45. Kortagarakoa	229
<i>Ezteiak</i>	232
46. Errautegi	234
<i>Patxineako «arrantxoak»</i>	236
47. Loitzaeta	238
VI. Pertsona izenak eta izengoitiak	241
VII. Iturriak	249
VIII. Izenen aurkibidea	265

ALKATEAREN AGURRA

Beti da ohore handia liburu baten aurkezpena egitearen ardura jasotzea. Bainan aurkeztu den liburuak, alkatea zaren herriarekin zerikusia duenean, eta gainera bertakoek eraginda, izugarria da sentitzen den poza.

Brinkola gogoan liburua, auzoaren historia jasotzeaz gain, une honetan auzoan dagoen dinamismoaren adierazlea da. Eta nahiz eta erreza ez izan, historian aurrera jarraitu ahal izateko ezinbestekoa da auzotarrek duten aurre egiteko gogoia.

Liburu honekin herriko altxor kulturala sendotzen dugulako, eskerrik beroenak egile guztiei. Eta auzoaren historiari buruzko lan bikain honek oraindik Brinkola hobeagoa eraikitzeko ilusioa indartzeko balio dezala.

Legazpi, 1999 Otsaila

Juan Ramón Larrañaga
Legazpiko Alkatea

HITZAURREA

Esku artean daukazun liburu hau Brinkolako Arriurdin Auzo Elkartearen babesean jaito eta mamituriko egitasmoa duzu.

Ohiko ibilbidean geldiune bat egin eta atzera begiratu nahi izan dugu jasotako ondare aberatsa hobeto ezagutu asmoz. Izan ere, ezinbestekotzat jotzen dugu aurrekoen bizimoduaz jabetzea egungo gizartearen nondik norakoa ulertu ahal izateko.

Horretarako memoria kolektiboan urratu nahi izan dugu ahozko testigantzak eta dokumentu zaharrak informazio-iturri erabiliz.

Belaunaldiz belaunaldi egindako bidea luzea izanik, denborarekiko muga ezarri beharrean aurkitu gara. Baserri-etxe bakoitzeko historiaren kontakizun bukaera gerra aurtxoan kokatu nahi izan dugu, hortik aurrerakoa hemendik urte batzuetara argitara ematea espero dugularik.

Esateko dago, hau guztia burutu ahal izateko hainbat lagunen lankidetzak estimagarria izan dugula. Kontu zaharrak gogora ekarriz edo bazterturiko argazki nahiz agiriak berreskuratzen ahaleginak egin dituzten guztiei gure eskerrik beroenak luzatu nahi dizkiegu.

Azken finean, hauek, Brinkolar guzti hauek izan dira gure auzoaren historiaren protagonistak eta, ondorioz, liburu honen ezinbesteko egileak.

Brinkolako Arriurdin Auzo Elkartea




Egileak	Jose Luis Ugarte Garrido Tere Madinabeitia Agirre Maria Jesus Ugalde Beain	Berriemaileak	Ines Inurritegi Aristimuño Juliana Zangitu Arsuaga Juan Ugalde Alustiza Ignacio Ojanguren Etxeberria Constantino Langarika Mantxola Marcelino Guridi Inza Tomas Arsuaga Lezeta Felix Legorburu Bergaretxe Candida Etxeberria Guridi Margarita Lizarazu Alustiza Pascual Zabaleta Zabaleta Maria Sagastizabal Etxeberria Angel Agirrezabal Ormazabal Cruz Agirre Aztiria Facundo Agirre Aztiria Maria Ormazabal Ormazabal Bittori Etxeberria Guridi Gaspar Agirre Zaldua Feliciano Zangitu Arsuaga Damaso Ugarte Bikuña Valentin Etxeberria Guridi Benito Inurritegi Zabaleta Patxi Azarola Zabalo Francisca Beain Barrena Eusebio Etxeberria Zaldua Severiana Arriaran Igartua Inurritegi-Arrizabalagatarrak Gregorio Zabaleta Larrea Clara Sagastizabal Etxeberria Agapito Gereñu Odria Miguel Iturbe Berasategi Tomas Legorburu Murua Justa Beain Arrizabalaga
Laguntzaileak	Joakin Balerdi Arriaran Maria Luisa Inurritegi Beristain Belen Madinabeitia Inurritegi Pello Agirrezabal Urzelai Esteban Alzelai Guridi Ramon Martin Sukia Juan Carlos Agirre Apaolaza Antton Inurritegi Beristain Jose Ramon Sarasola Lizarralde Urtzi Legorburu Anduaga Jesus Alberro Ugarte Martin Ugarte Azurmendi Gerardo Markuleta Gutierrez		
Bertsolariak	Iñaki Azarola Zangitu Simon Azarola Zangitu Jesus Alberro Ugarte Bittor Agirre Telleria Jokin Matxinandiarena Mugerza Estanislao Agirre Ugarte		
Argazkilariak	Pello Agirrezabal Urzelai Jose Luis Ugarte Garrido		
Lanaren Babesleak:	Arriurdin Auzo Elkartea Kutxa Legazpiko Udala Aranzadi Zientzi Elkartea Armuño Elkartea Goimen		

Liburu honetan Gipuzkoako Legazpi haranean kokatuta dagoen Brinkola auzoa deskribatzen da. Horretarako azken 500 urtetan izan diren 47 eraikuntza nagusiak hartu dira abiapuntu gisa, eta haietan ohar historiko eta etnografikoak pilatu hurrenkera kronologikoan. Lan hori lehengo eta oraingo argazki zahar ugarirekin osatu da. Antolaketari dagokionez, honako eskema errepikatu da atal desberdinetan: 1. eraikuntzaren estraineko datu historikoak; 2. bertan bizi izan diren familia eta bizilagunen bilakaera; 3. gai jakin baten inguruko idazlana, besteak beste: jentilak, burdinolak, dantzaldiak, eske-egunak, estraperloa, "frantsesaroa", pertsonai nabarmenen biografiak, pasadizoak... Artxiboak eta ahozko testigantzak izan dira erabilitako iturri nagusiak.

El presente libro describe el barrio de Brinkola, situado en el valle de Legazpi. A tal fin se ha tomado como punto de partida los 47 principales edificios de los últimos 500 años y en torno a los mismos se han dispuesto en orden cronológico distintos apuntes históricos y etnográficos. El trabajo se ha completado con gran cantidad de fotografías tanto antiguas como modernas. En lo que se refiere a la organización del libro, el siguiente esquema se repite en los distintos capítulos: 1. Primeros datos históricos en torno a los edificios; 2. Devenir de las familias y vecinos que han habitado en dichos edificios; 3. Texto sobre un tema concreto, tales como: gentiles, ferrerías, bailes, días de cuestación, el estraperlo, la "francesada", biografías de personajes importantes, sucesos... Archivos y testimonios orales constituyen las principales fuentes utilizadas.

Ce livre décrit le quartier de Brinkola, situé dans la vallée de Legazpi. Dans ce but les 47 principaux édifices des 500 dernières années ont été pris comme point de départ et l'on a disposé autour de ceux-ci diverses annotations historiques et ethnographiques. Une grande quantité de photographies aussi bien anciennes que modernes complètent le travail. En ce qui concerne l'organisation du livre, le schéma suivant se répète dans les différents chapitres: 1. Premières données historiques concernant les édifices; 2. Devenir des familles et voisins qui ont habité ces édifices; 3. Texte sur un thème concret, tel que: gentils, ferronneries, danses, journées de collecte, le marché noir, la "francesada", biographies de personnages importants, faits divers ... Archives et témoignages oraux constituent les principales sources de cet ouvrage.



Brinkolako plano toponimikoa (JLU).

SARRERA

Liburu hau irakurtzen hasi zareten gehientsuenok ez duzue Brinkolari buruzko argibide askorik beharko. Ondo jakingo duzue ziur asko Brinkola non dagoen eta zer den, bertan jaiotakoak, bizi izandakoak edo bizi zaretenak izango zaretelako.

Baina zuen artean izango da, bai, Brinkolari buruzko argibide horien beharra duena edo liburu honen nondik norakoaren berririk ez duenik eta horri bereziki zuzenduta daude hemendik aurrerako hitzak, bertakoek ere, brinkolarrek, probetxu aterako dietelakoan.

Brinkola baserri giroko auzo txiki bat da, 300 bat biztanle dituena. Legazpikoa da eta herritik bost bat kilometrora dago, Legazpitik Oñatira dagoen errepidetik ezkerraldera desbideraketa bat hartuz. Izen bera duen tren geltokia ere badu, beraz, trenez ere irits daiteke hara, Donostiatik ordu eta erdiko bidaia dagoelarik.

Auzoko paisaia berdea eta aldapatsua da, eta baserriak eta hirigunetxoak beherago Urola ibaia osatzen duten erreken arantetan. Tren geltoki, taberna, auzoko elkarte, eliza, baserri eta etxebizitza batzuek osatzen duten hirigune edo nukleo horrek badu, bestalde, ezaugarri berezi pare bat: zubiak. Ikusgarriak dira bi zubiok, altuera handikoak baitira biak eta gainera (kontrakoa pentsatzen dutenak ere egongo dira, noski) auzoko elementurik adierazgarrienak trenarekin batera.

Eta trena aipatu denez, horixe izan da, hain zuzen ere, auzoari orain duen izena eman diona. Baina horri buruz, auzoaren izenari buruz, aurrerago hitz egiten da liburu honetan.

Eta ez bakarrik Brinkola izenaren jatorriari buruz, baita auzoko jendeari buruz ere. Izan ere, brinkolarrek dira batik bat liburu honen protagonistak. Beraz, brinkolarrei buruzko kontuak eta brinkolarrek osatu duten Brinkolako historia izango dira esku artean duzun liburu honetan aurkituko dituzunak. Mendeetan atzera egin dugu gure aurrekoen kontu horiek jasotzeko. Bestalde, historia zati hori nolabait mugatu egin behar zela eta, mende honetako 30eko hamarkadan kokatu dugu muga, hortik aurrerakoa jasotzearen eginbeharra gure ondorengoei utzirik.

Gure auzoko historia zati hau osatzeko lan luze eta neketsua burutu behar izan dugu, eta ez bakarrik liburuaren egile gisara agertzen garen hirurok, baita hainbat eta hainbat laguntzailek ere.

Puntu honetara iritsita, liburua egiterakoan segitu dugun metodologia aipatu beharrean gaude.

Brinkola osatzen duten baserri eta etxe guztien zerrenda batetik abiatu ginen eta horri, batzuetan XVI. menderaino iristen zen biztanleen errolda erantsi genion. Hori eskuetan, baserri baserri eta etxez etxe ibili ziren lehen aipatutako hiru egile eta laguntzaileak, bertakoei familia eta baserriari buruzko ahalik eta datu gehien eskatuz. Ez dago esan beharrik lan horretarako ezinbestekoa izan zela gure auzokide zaharren eta ez hain zaharren testigantza,

etxean entzun edo ezagutu zutena kontatuz edota informazioa jasotzean bildu ziren argazkiak utziz eta argazki horietan agertzen zirenak identifikatuz. Jasota geratu dira liburu hone-tan testigantza horiek eman zituzten guztien izenak.

Eta horrelaxe osatu da *Brinkola gogoan* liburua. Bertsolari, artikulugile eta bestelako kolaboratzaileak ere ez dira ahaztu behar, hauek guztiek ere beren ekarpena egin diote eta liburuari.

Diruz lagundu dutenak ere aipatu behar dira, horien laguntzarik gabe zaila izango zela-ko horrelako proiektu bat aurrera eraman ahal izatea.

Baina aurrera eraman ahal izan dugu; eta eskuetan duzu, irakurle, hainbeste lagun-en artean idatzi dugun liburua, Brinkolako historia eta istorioak ezagutzeko aukera emango dizun liburua.



Igeralde auzunea (Enrique Ginea, Gasteizko udal artxiboa).

I.

Brinkolari kantuz



Iñaki **A**zarola

Bittor **A**girre

Jokin **M**atxinandiarena

Simon **A**zarola

Jesus **A**lberro

Estanis **A**girre

ERROMERIAK
(Iñaki Azarola)

Brinkolan beti izan dirade
lagun alai eta argiak;
auzoan zerbait egin behar bada
erantzuten du jendiak.
Hau beldur gabe esan daiteke,
nola diraden egiak
eta lekuko hortxe dauzkagu
bertako erromeriak.

Musikalari trebeak beti
deitzen genion jazbana
ta Patxiñeko Inaziok e
soinuarekin ze fama.
Dantza librean eta baltsian
hura jendean emana;
etxera pozik itzuli ohi zen
Brinkolara etortzen zana.

Dantza egin nahi etzutenentzat
hor zegon bolatokia
eta afari-meriendarako
leku berdinek gabia.
Neska-laguntze goxuak sarri
ta euskal giro garbia;
nahiago nuke ohitura hoiek
berriz piztuko balira.

«CORTE INGLESA»
(Bittor Agirre)

Aipatuzkeko Brinkolan ziren
tabernari ta dendari,
begirada bat eman beharko
gure gazte aroari.
Negoziante argiak ziren
Patxi eta Joxemari;
eleiza ere gertuan bainan,
beldurrikan ez berari.
Lapur bildurrak kentzen zioten (bis)
deskuidatutzen zanari.

Ez det esango ziradenikan
hain pertsona aldrebesak,
baina musutruk etziren inoiz
denda hoietako gauzak.
Zesaria eta Joxepa ere
engainatzen ez errezak;
goxo hitzeginaz biltzen zituzten
Brinkolako interesak.
Garai haietan berak baitziren (bis)
bertako Corte Inglesak.

Ez pentsa eman nahi diotarik
inori fama txarrikan;
denda kontuak nola ziraden
konta bakar bakarrikan.
Ardoa etxean egiten zuten
eta ipini barrikan;
gu berrez beti zerbaiten faltan
ta bertaraino korrikan.
Gure diruak zaintzeko etzen (bis)
diru-kutxa beharrikan.

TRENA (Jokin Matxinandiarena)

Trenari esker brinkolatarrok
aspaldi ginan mugitu,
Billaprankatik hamaika traste
asteazkenero korritu.
Nahiz-ta ordua zortzitan izan
hamarretako abitu;
nahiz Uerkaldeko malda parean
patinatuaz gelditu,
hobego nuen garai hartako
sasoiak orain banitu.

Korreo zaharra nolakoa zen
nork ez ote du goguan,
andre ta gizon, traste ta saski,
oilandaren bat barruan;
besteak, berriz, kanpokaldean
balkoi atari txokuan.
Gonak mugitzen zitun haizeak
orbel ostroen moduan;
bestela ezin ziren izterrak
ikusten gendun orduan.

Trenez kanpoko zenbait heldu zen
nago pentsatzen hasita;
gu kanpora jun behar gendula
egondu ginan etsita.
Trenetik jeisten ziren maletaz,
prakak poltsikun hautsita:
umil itxura ekartzen zuten
nahiz ez ahoa itxita;
gehienak harro aldegin zuten
sinka milla erositak.

ANTXERDIKO HARRIA (Simon Azarola)

Hamabost urte ziran
orduan neuzkanak
oparo genituen
asmo eta planak.
Nahiz ta entzun beharra
zaharraren esanak,
sasoiak gori-gori
apustu afanak;
gu pixkat domatzea
bazituzten lanak.

Apustua nola zen
noa kontatzera
Antxerdioko eilorran
harri-jasotzea.
Erreka-harria zen
zeken altxatzea,
laurogeita bi kilo
bizkarreratzea;
arratsaldeko bostak
zita, azaltzea.

Brinkola zaharreen
bokadiloekin,
galtzaile, irabazle
denok elkarrekin;
baina norbait joan zen
aurrerapenakin,
harria zatikatuz
joaz borrarekin.
Hura nork egin zuen
segituan banekin.

EDMUNDOREN FUDREA
(Jesus Alberro)

Oñati ta Brinkola
biak elkarturik
zubi bat egin zuten
ez dugu damurik.
Euskal Herriak ez du
harrizko zubirik
Brinkolakoak aina
urte edukirik,
antzekoak bai baina
ez ederragorik.

Alde batean trena
bestean fabrika,
harria erre eta
egin iraulika.
Zubi gainean dabil
jendea korrika
kintzena eguna da
dirua patrika,
Brinkolak ematen zun
ordun Amerika.

Olegario jefe
Cuebas kimiko
mikelelea, berriz,
hor zen ibiliko.
Brinkolatik jun ziran
hirurak betiko,
zeruan omen dabiltz
batekoz besteko:
Emundoren fudrea
nola bilatuko.

AIZKORRITIK BEGIRA
(Estanis Agirre)

Armuño-Amutxanda nere aurrean,
hainbat ola zahar izandako baserriak oraindik zutikan.
Aizkorrin artzaiak ere izan genituen garai batean,
olagizonak izango gure arbasoak etxe askotan,
ikazkinak ere bai mende batzuetan.
Oraintxoan, berriz, hainbat kultura desberdinak ikustean
aberastasun izugarria izan degu ulertzean,
zabalak izan bai-gera ori ongi eramatean.

Ikusten ditut eguzki!! Ikutzen haize-harro-hego!! aurpegian.
Bailera txiki bat aurrean:
Pagola, Antsumaitz, Aierdi jaiotzean,
Urola ibaia beheraka hor hasieran,
gero indartuko zera Telleriarte-Legazpira iristean.
Bitartean makina bat lan egingo zenuen urte askoetan,
zure uren indarrarekin olak ibiltzean
eta gizaldietan zehar istori asko gordetzean.
Guk gaur berriz hori esan behar egia dela nabaritzean.

Gauza asko ezin espikatu nola edo ala,
zuri zor diguzu gure bizi eta nortasuna!! Izan bedi apala!!
Saletzek deitzen zizun *Beaiñola*,
guk berriz beti Brinkola.
Zorionak hain txiki eta bitxi BRINKOLA.

II.

Gaztaroko oroitamenak



Martín **U**garte
"Saletxe"



Atzean: *Joxepa Andueza Zangitu* eta *Doroteo Arrazola*. Aurrean: *Ixidro Zangitu Arsuaga*, *Francisca Beain Barrena*, *Isabel Legorburu Agirrezabal* eta *Paxifiko Irastorza Etxeberria*.

Nere bizitzako urteetan, Erguen'go auzune ontan orpoz-orpo atzera-aurrera ibiliaz noski, norgandik ainbat kontakizun, edo-ta neurekiko amaika gertaera bitxi kaskarrera pillatua naitenez, eskolaroko oroitamenak oraindik bizi-bizirik ditudan zenbait pasarte, ta beste iñori entzunak, egungo auzotarroi nola-ala leenaren jakin bide liraken bakar batzuek kontatzera noakizue.

Egia aitortzeko, Brinkola-auzoari erantzun eziñeko zorra dagokiot. Aurtzaroan eskola-urteetatik asi-ta, ezkontzaz uztartu arterañokoan batik-bat ber-bertako «sagua» izana nazue, ta, gazteekin ez-ezik adiñeko edonorekin ere, senitarte bat osatu oi genduala sinistaidazue.

Bide batez, egin didaten eskakizuna onartuaz, iñoz ba'da zorrari erantzuna emateko aukera eskura etorri izanari, nik ezin uko egin dezaiket zenbaitzuen aalegiñez buruturiko liburu mardul ikusgarri onen orrietan bat bederen bete aal izateari, nere esakizun xinpleen batzuen bidez. Alegia, nik aittatu dezazkedan zerbaitzuen espaltxoren batzuek geigarritzat pillatzeari.

Bear ba'da ondoren aittatu dezazkedan esaldi bitxi auek norbaitentzat umekeri soillak izan daitezke, baiña nere iritzi xinplean ordea, egungo zenbait auzotarrendako nor-norekin kontakizun balioitsu gerta daitezke, ta ondorengo belaunaldiarentzat jakingarri.

Dana-dala, bakar batzuek izentatzera noa-ta, auzotarrok gogo onez artuidazue nere esku-erakutsi apal au zueri eskenia da-ta.

1. ERREKAUTXOAK

Sasoi batean beeko tabernako Joxe-Marik, auzoaldeko esneak bildu, ta trenez Altsasura bidali oi zituan.

Gure etxean, da auzoko beste bi etxeetan sortu oi ziren esneak eskolaruzkoan nik eraman oi nituen esne-ontziak asta-saski banatan sarturik.

Eta bideeran ba'zan etxeakoandre bat nere ibillorduak ederki asko neurtuaz beretzako errekauxoak eragiñerazteko baliatzen zena. Azukrea, txokolatea, jaboia, txikoria, olio ta antzerakoak asta-saskietan etxeruzkoan ekartzea, kasi-kasi asteroko eginkizuna izan oi nuan eta ekarraldi bakoitzerako aginpide berdiña oi zidan: "*Danak Joxepanetik ekarri ee...*".

Eta errekauxaz netorkionean ere sari berdina prest oi zuan: "*Milla esker, eta Gabonetan keixaak emango diat...!*".

Geroztik Gabonak urteoro etorri ta pasa dira baiña neri izentaturiko «keixak» oraindiño ez dira iritxi noski.

2. FRANTZESAROA

Guk ontan ezagutu degun trenbide au ebakitzea Prantsesen buruz egin omentzan. Garai ari «Frantzesaroa» deitu zitzakon noski, baña geroztik ere gure aurrekoak esaldi orrekin izentatzen zuten aldi ura.

Igitazko aginpidetza frantzesen esku zegoan noski, baiña bidea luzatuaz zeramaten ildoan, tokian-tokiko esku-langilleak artuaz trenbideari bukaera eman omen zitzakon.

Gure aurrekoak esan oi zutenez, langilleai egun-zorra urretan pagatzen omentzien, eta aro ortan urre-txanponak atzaparretan parra-parra erabiltzen omen zituzten lan-saria irabazten zutenak batik-bat. Eta diru iturriaren arabera gaztu-bideak ere. Adibidez tokian-tokian kantiñak eta jolas-tokiak ere ba'omen ziren da geiengoak kartatan txanponak dantzatzten omen zituzten. Nik leenei entzuna detanez, Bergaretxe'ko ateetan bolatokia omen zutela, ta jokuak ziraun arteraiño trabes egiteko urre-txanponak lur-estali ikusten omen ziran, bai, ta, ezaren kautan.

Gaur ez ote dago, ingurumari artan arbel-zirrikurenbat aro artandiko urre-gorritz beterik?

3. ARRAULTZ SALTZERA

Arizti-goiko Pedro-Mari zana, nik ez nuan ezagutu, baiña arren eriotz aztarran tristea oraindik gogoan det, ume-koxkorra nintzala aita zanari entzun-da.

Nolanai ere, Aizkorrondoan, Iturbeltz inguruan-edo, ikatz-gaia maneatzeko lantegia omen zeukan, da aste leenetan aste osorako joana omentzan, da larunbat gaberako etxeratu etzanez, gauz onik etzala-ta biaramon goiz-goizean bere billa irten omen ziran. Bere suia, Telleriarteko Joxe estankeroa, Joxe-Astaola, ta nere aita-zana bide-lagun arturik, eta zoribel-tzean, zotal-etxaolan baba-lapikoa teilla zati batekin estalia surik gabe noski, ta bera urruti gabe illa arkitu omen zuten. Geroago gorputza gurdiz beera jeetxi omen zuten.

Zanezko Pedro-Mari, bere seme gazteenak esan oi zuanez, gorpuzkeraz luze ta zabala omentzan, musu gorria ta illajez kizkur-gorrixka, ta izaeraz uztar-edeak bezain zimela. Faustiñok, bera etzala iñoiz, aitaren abarka-traillak lotzeko ere gai izan, esan oi zuan.

Faustiñok zionez, bere sasoiean aita, besa-saskie arraultzaz betea sorbalda gaiñean tente zuela, gauerdi ostein, ordu txikietan, etxetik irten-da oiñez Donostiko Bretxa azokara iñoiz joan oi omentzan, salmenta onaren itxaroz noski, Billaprankan baiña txakur-aundi bat geiagotan saldu oi zituela-ta.

Bein ala, Tolosaldean barrena tipi-tapa bixkor zijoala, norbaitzuek joera bizian zijoan muxu-gorridunaz konturaturik, elkarri ala esan omen zioten: *"tipo orrek, nun edo an amarretako ederra egin dik orratiok, arraiok ezpaitu...!"*.

Gauerako etxeraturik noski, ta aparitarako maian exeritzean, ala esan omen tzien etxeko-ei: *"Gaur Tolosan beera noala bidez bestera trikitx egin det bi gizasemerekin, da pauso batzuek alderandu geranerakoxe nere kautaz au ta au, esaten arittu dira. Baiña ez didate igarri...! Arraiopola! Biderako neraman ogitartekoa kolkoan osorik neukanez, artean etxetik irteeran artutako esne-txurrutarekin nengoan-da"*.

4. JOLAS ARRISKUTSUAK

Nere eskola urteetan, trenbideko estaziora etzan artean argitarako elektrika indarrik sartzten, eta gauzez bear izaten zuten burubidezko argia karburu-kinkeen bidez moldatu oi zuten,

da biaramon goizean karburu austua kenduaz aldameneko malkorrean kandillak ustu oi zituzten.

Gu, eskola-mutilok erne, austeke gelditzen ziren koxkortexoen billa, auspilloa aztarka zakur goseak zaborretan ezurren ondoren oi bezela ibili oi giñan, egunaren buruan piper-potoei metro betetsu saltarazteko baliatzen gendutzan-da.

Bein ala, Elorregi-Errota'ko Peillo ta biok alkarrekin eskolatik etxeruntz gondotzela, Kortako-zubia esaten zaion tokian ain juxtu, mazpilduriko iltze-zulodun piper-poto bat bideertzean ikusi gendun, norbaitek edo norbaitzuek ostikoka erabillia noski.

Bruxa poltxikuetan ba'genduzkan karburu zatixkarenbat edo beste, ta poxpolo-kaja ondarturenbat ere bai, ta potoa artu, maillatuak zerbaite konpondu, ta oi bezela lokatzatan lurrean zulonpoa egin genduan, ur apur bat errekatik eraman, da karburu zatitxoak uretan zirala, potoa ezpaiñez bera zala ipini ta abian iltze-zuloan poxpolo piztuaz ukuitzeaz-bat, gure «lurriñontziak» sekulako zartada egin zigun, ta barneko ur-lokazu ta lardaxka guziak metro bi altxatzearekin mutiko biori bete-betean, soifneko bruxak ezik, aurpegiak, eta batik-bat begi-zuloak erabat lokazturik utzi zizkigun.

Alabearrez une artan Korta-azpiko etxekoandre Prantxiska, ber-bertan errekan, lixiarrian arropak jotzen ari zan-da, gure egoeraz kupidaturik, uretan buruz beera kako egiñaz uretan aurpegi ta begi-zuloak garbitu zizkigun. Eskerrak berari, bestela eztakit zer atamarren artuko genduan...

5. UARKALDEKO MUTUA

Gure eskola urteetan, Uarkalde'n etxe inguruetako sasiz-sasi kataiaturik mantenu oi zuten auntza zuten.

Gorpuzkeraz larría zan, adar motza, ta kolorez zuri-beltz zaplataduna, ta laiñezaz jokaria.

Ez-ezagunak urreratzen ba'zitza-kion, atzeko anka bien gaiñetan txutik altxa-ta, buruz talkakoak emateko aduz-edo, sekulako zeifnuak egin oi zituan.

Gu ere eskolaumeak izaki, aingeru-txoak ez giñan-da, eskolara joan-etorrietan bideeran ba'zegon beiñepein, arekintxe jostatu nai izaten genduan.

Aren zaintzaillerik perkatxena etxeko Periko zan, izatez mutua zan errukarria, baiña auzoaldeko arrikaririk onentxoena ere bai noski. Eta gu, biurrikerian auntza tentari ikusten giñutzenean, bera, eskuak bete arkoxxorrekin, korrikatxikian gugana abiatu oi zan, eta gu, abiaduran aren-



Pedro Etxeberria Inurritegi, *Uerkaldeko mutue*.

gandik igesi giñotzelarik, asarre bizian arriak besape jaurtiz, iñoiz Zubiperaiño, edo-ta Zelaundiraiño jarraitu oi zigun.

6. LAPAPERAI

Eskolatik etxeruzkotan udaldian beiñepein, apreketa sokak alkarri lotu-ta, lepondotik zintzilik gendutzala, Zubiaundi pean uretan sartuta oiñutsik erreka-erreka Elorregi'ko zubiraiño-koa egin oi genduan.

Bein ala, lau-bost eskola-kide Zelaundiko errebultan beera gendozela, gaur añako trabarik bideetan etzan izan oi baiña, bidean beera zetorren kotxe bati nor izan zitekean ao-za-balik begira jarri giñan, da alajaiña, erriko mediku jauna zala zeatz ezagutu genduan.

Gu, Pello ez besteok, beldurrez jira-ta errekan gora jon genduan igeska ta Pello bakar-bakarrik, uraldiak ekarririko zaborra autsetan lapa-ondo ostoz zabal bat bertan zegoan-da, aren ostopean gorde zitzakon medikuari, ta onek zoro baten gisan, esku biak altxa-ta sekulako erritaldia egin zion esanaz: "*Zaiñetan odolik dekan artean, ez iñori trikuak bezela kuku egin, ta beste bein errekan ikusten ba'zaituzten, Guardia zibillak ekarri ta kartzelan sartuko zaituztegu aalik eta bizarra irten arteraiño*".

Pellori ondoren "*medikua!, medikua!*" esan ezkerok, berak, "*Lapapera!*" erantzun oi zigun.

7. PENTSUJALE AUSARTA

Onako gertaera au, nere gaztaroan pasatua da noski. Brinkola-Zaarren Erromaldo'ren bizitzan etxetik eguzkialderaka arrikada bidera, artegia, ardientzat negurako aterpea, zeukaten bere ganbara ta guzi. Ganbarak sarrerako atea mendialderantz lurraren berdiñean zeukalarik.

Ganbaratxo urteero-urteero gaztaiñaz betetzen omen zuten, negurako ardientzat pentsugarri izan zedin.

Alabeiñik, urte artan basoko gau-piztiei Aizkorondoko ezkurtza agortu zitzaikienean-edo, pentsu-usaiak aztoraturik noski, irikiera barrukaldera zeukan ganbarako atetzarrari muturka-muturka bultz egiten baliatuaz lortuko zuan iñolaz ere, morkotsean zeukaten gaztaiña pillara sartzea.

Sartu bai, baiña atea berekisa itxitzen omentzan-da, kanpora itzuli eziñik presondegian gelditu zan noski ustegabeko biztanle arrotza.

Zortzi-amar egun geroago ardi-azpigarritarako iñaurkiña zabaltzearren, Erromaldori bertara joatea egokitu omen zitzakon noski, ta ganbaran kurrunka otsa zala idiritu omen, da azpigarría zabaldu zuanean, zer izan ote zitekean kezkatí, sarrerako ateari ostikada bat emanaz, oi bezela bultz egiñaz bat-batean, ukulluko txekorria aiña zan basaurdetzarra ankartetik pasa-ta deabruak arturik Oribi-egalerako joeran alderandu omen zitzakon.

Geroago, morkots triskilduak aztertzen asi zirenean ikusi zutenez, tartean ale bakarrik ere ez omen zuan jateke utzi, pentsujale ausartak.

Kitto, negu artarako artaldeentzat zuten pentsugaia...!

8. GABON-ESKEAN

Zazpi-zortzi urte nituela, auzoko Balentin da biok kantuz etxez-etxe Gabon-eskean alkarrekin ibili giñanekoa, atzo izana bezain argi daukat gogoan.

Goizean goiztar ekin giñan eta Telleriarteko etxegunea aldez-alde bildu genduenean, Erguenerako bidea artu genduan. Ni arras lotsatia nintzan-da, laguna ausarta, aren esaneko egin genduan urte artako ibillaldia.

Kortan, trenbidea zubipetik pasata, Agerrezabalera igo gendun, an bizitza bietako sariak jaso-ta, eliz-bidean bera lgaralde-azpikoan, kantari asi giñan, zubi alderako atean. Baiña an andrazko bat naikoa gogor erderaz ekin zitzakun, eta guk tutik ulertzen ez eta, alkarri lutua izango zutela esanaz, Aita-gurea errezatu genion, baiña berak purrustada egiñaz atea itxi zigun. Gero jakin genduan estazioko guardabujasaren emaztea zana.

Azpikotik gorakora, ta an ere muturrekoa. Une artantxe beste bikote bat kantuz ari zan ateetan, da bigarrenari ezer emango etzigutelakoan bide ertzeko iturrian ur-zurruta bana egin-da, errekarroan goraka ekin giñan. Noraiño ta Gibolaraiño alajaiña!

An, tratamen ona eman ziguten txakur-aundi poltsarako, ta abian beera eliz-ondoraino. Andik lkaztegi burutik bidatxurrean zear Barrendiolara jo genduan, antxen, bizitza bietako txanponak jaso-ta bukatu ziran urte artako gure kontakizunak, eta oizko Gabon-eskea.

Eta zergatik ala jokatu?

Ain xuxen ere, nere kantu-lagunak aitaturiko iru etxe aietan izeko-osabak zeuzkan-da, betiere tarterikoei esku zabalagoa erakusten zitzaielako noski...

9. ZIRIA

Beeko tabernako Joxe-Mari tratalarie ez-ezik arotza ere bazan, eta bein, apaiz-etxe aurrean gurdi-gurpilei ardatza sartzen ari zala, Xexilio Sanpedro, bei gorritxo bat sokatik eta bere txaltxo ondoren zuela, zubian beera eliz-aurrera jetxi zanerako, irugarren bat lgaraldeko nagusia sorbaldan saskia auspez zuela inguratu zitzaikien, eta beiaeren tratubide artu zuten esangai.

Gu mutiko mukizuok, errekreo garaia zanez, ni beiñepein aien elkarrizka janaz ao-zabalik egon nintzan, eta Xexilio alde zuenean ala zion Joxe-Marik Islaori: *"Motellek...! Eztarek ganaduk merke. Milla erreal bei buztan orrek? Eta Islaok erantzun: "Faustiñok eiztxakurre alaxe paatu omen dik"*. Eta Joxe-Marik buruko txapela jiratzen zuan arriturik.

10. AZAK ETA SUSMOAK

Au, XIX'gn. gizaldi erdi aldera gertatua omen da. Brinkolazaarreko maiztarretan bat, ize-ize Tomax omentzan, eta bein ala, salmentarako beitxo bat sokatik zuela Urretxu'ko illeroko perira joan omentzan. Arratsalde osoa plaza baztarrean edukiarren, ez ementzion iñori begirik bete, ta illunabarrean etxerantza zijoala, beia ijarazuloak nabarmen zituela goserik, eta artean ukullua urruti. Bijabearen begiak tentari noski, ta Galdos'ko soro-barrenean azaburuak omentzeuden eta Tomax'ek itxituraz barrura salto egiñaz bi-iru aza-ondo kirtenetik autsi-ta, gosez iregitzen zeraman beiarri eman omen zizkion, eta tipi-tapa aurrera.

Urrengo goizean Peru, maizterra ura ere, konturatu omentzan gaiztakeriaz, eta etxeratu zanean ala esan omentzion emazte Joxepa-Anttoni'ri: *"Gure soro'barreneko azaak norbaiti begik bete die baa.. Bi-iru ondo bertan utzita buruan eraman digue..."*

Eta emazteak Peru'ri itza janaz Jesus batean erabaki omentzuan: *"Eraman dituena ez da Tomax-brinkola izango. Oillalurreko saga izango da... Jokatuko nizuke, ordu ontan Matxain'go lapikoan egon baietz...!"* Eta erriaren beste muturrekoaren juzkorik gabe, auzokoren bizkarrera bota omen zuten eran asarrealditxo.

Urrengo perikoz Urretxu'n bertan, Tomax'ek Galdos'ko Peru peritokian ikusi zuanean ala iztrukatu omen ziran alkarrekin:

– *Joantzan perikoan norbaitek okerra egin zizuna konturatuko ziñan noski? Ba... neu izan nintzan pekataria. Beitxo bat arratsalde santu osoan salmentan eduki nuan, da erostunik egokitu gabe atzera etxera neramala, gosez iregitzen zijoan beñari zure soro barrenetik artu-ta, bi-iru aza-ondo eman nizkion.*

– *Bai, konturatu giñan norbaitek eskua luzatu ziena, baiña bene-benetan esaten dizut, zure juzkorik ez genduela egin...*

– *Tira ba, gauza guziak dute eran balioa, ta esaidazu zer eman bear dizudan.*

– *Aza zirdin aiekatik ezertxo ere ez Tomax!*

lurretanean pitxartxo bat ardo alkarrekin ustu omentzuten, eta bapo... Leen bezain adis-kide beste baterako ere...

11. AXARIN UMEA, AXARIKUMEA

Basa-piztiek basarri bakartietara jo izan oi dute, eran kutiziak bete aal izatera, ta bein Erguengo Brinkolazarrera iñolaz ere begia luzatu omen zuan, da ara-ona gau illunean brin-koz zebillen axerriak bost oillo tegitik eraman omentzien.

Egindako zarraskiaz amorrazirik noski, gauerako oillategiko oillo-zuloan barrendik tranpa jarri omentzioten axeri-zaarrari, baiña axal-ameak bear aiña sena arekin izaki, ta bere ondo-ren zebilzkion umeetako bat, lelo-lelo lazoan erori omentzan. Eta geroztik aldi batean, axalko ura kokortu zan arte Juliana'ren sukaldean txakurtxo bat zirudilla luzaro egon zan.

Nik sarritan ikusi aal izan nuan, Antxumaitz aldera ardi ondoren nenbillela sarri joan oi nitzan Juliana'ren sukaldera, zeren, alabak amarentzat, eta amak alabandako, joanaldi bakoi-tzean alkarrenkiko errekauek egiñerazten zizkidaten-da. Arrigarria zan piztiaren portaera, koskabilu txintxarritxoa lepa-uztaian zinzilik zuela, panpox eta arras otxandua, etxekoa etzan norbait noiz elduko zai-zai egon oi zan, arrotzaren magalean jolasteko. Nere magalean ere iñoiz jolastu zan.

Baiña *"axarin umea, axarikumea"* ala esan oi zuten gure aurrekoek, eta esana, izana noski. Ain xuxen, Brinkolazarren jaso, ta ain gozatsu egozkizat zeukaten basa-pizti ausartak, norbaiten ardura ezak ate-zirrizkuaz baliaturik, gauez etxekoak oeratu ziranean anka egin omentzien, eta zortzialdia osatu aurretik, gauez, Barrendiola'ko ollategian, zazpi oillo triskildu omentzitu.

Eta egun batzuetara Garrotxenen, txintxarrotsera konturaturik, Tomas Intzak bere oillate-gira gauez sartu naiean, tiroz bota omentzuan zanezko basatia.



Ergoenoako taldea Aste Santuko prozesioan: Bitor Agirre Telleria, Tiburcio Beain Barrena, Jose Mari Agirrezabal Etxeberria, Patxi Andueza Zangitu, Martin San Pedro Aizpeolea, Angel Agirrezabal Ormazabal, Ricardo Erostarbe, Agapito Gereñu Odria eta Luciano Ugalde Guridi.

III.

Zazpi begiko zubiari



Jesus **A**lberro

Nire lehenengo irudiak haurtxo gehienek bezala amarenak izango ziren. Ondoren, berehala, amaren besoetan oraindik lehenengo aldiz kalera ateratzean, azalduko zitzaizkidan Brinkolako lehenengo irudiak: zerbait ikusiko nuen baina ez nuen ikusten nuena zer zenik bereiztuko.

Igaralde-Azpiko baserritik irten bezain azkar aurrez-aurre erreka honunztik intxaurrondo handi bat, erreka beste aldean intxaurdia, atzeko aldean pareta handi bat zuelarik. Ezkerretara zubi eder bat, eskubitara *Igaralde-Errota*.

Hirurogei urte pasa dira geroztik eta esan nezake nire lehenengo irudi haiek ezer gutxi aldatu direla. Orain zer eta zertarako eginak diren jakin ondoren esan nezake zerbait aldatu dena zubiaren itxura dela. Ez dauka garai hartako edertasun edo nortasunik, baina erakusten du ondo egiten dena iraunkorra izaten dela.

Bere zazpi begi ederrak hargorri bikain eta labratuarekin eginak. Oñatiarrak beraien garraio lanetarako jaso izan bazen ere, bera egin zutenak samurra da Brinkolatarrak izatea, entzuna baitut harria labratzen edo eleiz-dorreak jasotzen Brinkolak gizon trebeak izan dituela.

Naturaren eraso gogorak jasan ditu: euria, elurra, haizea... denari aurre egin beharra izan dio. Iparrak, hegoak... indar handiz bultza egin arren zutik dirau, ez lehen bezain tinko, baina bai beti bezain zerbitzari bere gainean alde batetik bestera udarako ilunabarrean ibili nahi duenarentzat.

Zazpi begiko zubi bikaina, zazpirak dute beren eginkizuna. **Lehenengoak** geltokitik hasita Telleriartetik trena hartzera zetorren jendea bere azpitik pasatuko zen garai batean, baita karril ertzean dagoen baratze bidea ere. Indobaba urte batetik besterako gordeleku eta nire haurtzaroko pasadizo jakina.

Bigarren begitik dute beraien gurdi-bidea *Artzal* baserrikoak. *Saloita* barrenetik hasi eta *Aitzei* iturri barren hori dena ere egur, belar eta garo hortik pasa izan dira, era berean zeraindarrak ere beraien astoak sagarrez kargatuta hor pasatzen ziren Oñatiko azokara.

Hirugarren begi honek badu bere parean beste zubi txiki bat, zubi handiaren umea ematen du zaharragoa bada ere. Bien azpitik pasatzen da *Urola* erreka. Erreka aipatzean mila esankizun datozkit burura baina beste batzuk aipatuko zituztelakoan uzten dut. Bi zubi horien azpian putzu bat dago, Iparraldera begira jarri eta eskubialdera koba handia esaten dioguna, ezkerretara koba txikia.

Gogoan dut putzu inguruan nenbilela bazterrean ikusitako gauza arraro bat, urarekin batera plisti-plasta eginez. Nola edo hala kanporatzea lortu nuen, tubo bat zen. Konturatu nintzen zerbait bazegoela barruan: alde bateko punta mazpildua zuen, ez zuen irteerarik, pixka bat bazterreratu eta iraungi nuen zuloa zeukan aldera. Hor dator egundoko amuarraina!, zer poza! Hura izan zen nire lehenengo amuarraina, ondoren beste asko etorri ziren.

Laugarren eta bostgarren begiek beste eginkizun batzuk osatu dituzte, oilategi, kotxe gordeleku eta abar luze bat.

Seigarren begian, Brinkolara ekarri eta eraman egiten gaituen kaminoa dago. Brinkolarrak beheko bidea esaten dioguna, geure betiko bidea. Bide horretatik gerra ondorenean kamioiak ibiltzen ziren ikatz karreoan, *Brinkolazar* inguruan zuten kargalekutik. Zumarragako *Orbegozo* fabrikara eramaten zuten. *Olazar* eta *Ermentaria* bitartean dagoen harrobitik harria eta hondarra ere berdin. Gari eta belar gurdikada asko pasatzen zen bertatik.

Zazpigarren eta azkena. Begi hori du txikiena, ez horregatik istoriorik gutxiena duena. Begi horretarako sarrera goiko aldetik zeukan, azpiko aldean pareta bat metro eta erdi inguruko altuera zuena, orain dauden eskaileren gain beste aldean beste hainbat behera jaisteko. Bere azpian etxola bat, han zegoen gordea fabrikari lana egiteko tresneria. Fabrikak porrot egitean hutsik gelditu zen dena eta berehala hasi zen jende berria etortzen. Zer jende? Ijitoak. Bai, garai bat izan zuen Brinkolak arraza horretako bisitari asko izaten zituena. Batzuk txartelik ez zutelako trenetik botatzen zituztenak ere hor izaten zuten lo egiteko tokia, baina batez ere ijitoak. Harrobi barranean ikusten bagenuen kabaleri edo karronen bat bagenekien non zuten hotela. Baziren bost edo hamar egun bertan pasatzen zituztenak ere, udaltzaingo eza, brinkolartarren harrera hona, beraien gaitasuna gauza askoz jabetzeko, eta abar... oso ondo jiratzen ziren.

Brinkolako zubiak dituen zazpi begi ederretan gertatu diren pasadizo txiki batzuk beste-rik ez dira. Baita zubiak bere orokorrean ematen zizkidan irudiak ere. Bere azpian begibista pasa eta han sakonean ikusten nuen zerbait azkar, hots handiarekin, txinpartak zeriola joaten zen. Laster jakin ahal izan nuen trena zela.

Gora begiratu eta han ikusi nuen zerbait handia alde batetik bestera zubigaina nola zeharkatzen zuen. Hura izan zen lehenengo aldiz motor indarraren bidez ibiltzen zen zerbait ikusi nuela.

Ordurako Brinkolan bazegoen autobusa ere, langileak Legazpira eraman eta ekarri egiten zituena. Goierriko eskursio gehienak ere berak egiten zituen.

Halaber, aipatzekoa da zubi handiak Brinkolako bizitzan izan duen eragina: zer izango zen Brinkola zubi hori gabe? Handiagoa, txikiagoa, behartsuagoa, aberatsagoa... ez dakit, gauza batetan bakarrik nago ziur: ezberdina izango zela. Ez du lehengo kolore hura, harri garbi haiek ematen ziotena: apaindu gabeko emakume eder bat bezala ikusten dut. Harri zirriztueta itsatsita larrak ditu; neguan burumakurka egon arren udaberrian berriro indartsu azaltzen dira. Goiko aldean, alde batetik bestera defentsarako pareta bat du. Zein brinkolatarrek ez du pareta horren kontra etzan pixka bat eta lar horiek ematen dituzten mazustaren bat jan?

Huntza, gizonak baztertuta uzten dituen gauza askoren laguna da; barren-barrenean sortu, paretari heldu eta gailurreraino berari ezarrita maitaleak izango balira bezalaxe igotzen dute. Paretarik ezean behera begira gelditzen dira, zer egin ez balekitez bezala airean zintzilikatuta; ondoren aldamenetara jotzen dute poliki-poliki zubi guztiaz jabetu arte.

Huntzak, larrak... era guztietako erasoak jaso dituzu. Hala eta guztiz ere hor jarraitzen duzu, Brinkolari zerbitzen apaltasunean.

Begi horietako baten azpian egon nintzen gora begira. Arku-harri handiak utzi eta zabalera beste harri batzuk jarraitzen diote. Bada, leku horretan etenak sortu zaizkio zauriak balira bezalaxe. Zirritu horietatik tantan handi batzuk erortzen dira lurrera. Oso kezkatu gel-

ditu nintzen. Euria egiten duenean goran, kaminoan, pilatzen diren urak poliki-poliki harri zirriz-tuetan pasatuz erortzen diren tantanak ote ziren, edota hainbeste urtetan gure zerbitzari zuena izan eta esker txarra besterik jaso ez duelako ixurtzen dituen negar malkoak ote diren.

Dena dela, nik honenbestez ondorengoak orain artekoak baino oparoagoak izango diren itxaropen osoarekin agurtzen zaitut, zazpi begi eder dituzun Brinkola zubi handia.



Brinkola (PA 1997).

IV.

Pasadizoak



Jesus **A**lberro

Ez dira konponduak edo denborarekin asmatuak, kontatu didaten bezalaxe kontatzen ditut. Nolanahi ere brinkolatarrak duten ironia edo azpianeko adarjotze umoretsu hori zerbait azaltzen dutela uste dut.

* Lehenago itxura denez baziren Brinkolan eguraldiaz arduratzen ziren gizonak. Haietako bati galdetu diote:

– *Bihar zer eguraldi egin behar dik?*

– *Bihar, ba... Hego haizeak jo daiketik, iparrak ere bai, ona egin daiketik, txarra ere bai, bihar esango diat.*

* Brinkolatar bat, hanka elbarrituta, lana utzi samar, etxe ingurutik zebilen, hala ere egun hartan poliki-poliki taberna aldera zihoala:

– *Zer sendatu al zaik hanka hori?*

– *Sendatu esaten dek? Para ir a trabajar estoy cojo, voy a la taberna poco a poco.*

* Brinkolatar batzuk enbor bat bide gainera atera ezinik, “*joooo!, ieup!, joooooo!, ieup!*”, enborra geldu. Halako batean hala dio batek:

– *Nola aterako diagu ba guk enborra oilo hanka baino beso meheagoak dauzkiagu eta!*

* Kalean ordu asko pasatzen zituen brinkolatarrari galdetzen diote:

– *Zer, gaur ere kalean?*

– *Bai, ahal den gehiena etxeko gastua murriztu egin behar dik!*

* Langile-taldea lanean eta seme-alaba askoren aita zen brinkolatarra kapataz:

– *Aizu! Pikatxoi honekin ez dago lan egiterik! Kirtena oso motza dauka!* – langile batek.

– *Kirtena motza daukala! Hori baino motzagoarekin makina bat egindakoak gaituk eta segi zak isilik lanean!*

* Bi talde sokatiran eta talde bateko erakustaileak bere mutilei:

– *Tira mutilak, etzan, etzan!*

Begira zegoen brinkolatarrak:

– *Etzan ez! Lo hartuko dute eta!*

* Buen Pastor ondoko plazan Rock jaialdia zegoen batean, brinkolatar bat denbora pasa inguruan. Hor dator egundoko punkia kukurra gorri-gorri duela eta galdetzen dio:

– *¿Oiga, sabe usted dónde está el Buen Pastor?*

– *¡El buen pastor, al lado de las ovejas!*

* Brinkolan elurtea zegoen batean beheko bidean bidetxur estu bat ebakita zegoen. Gizon bat gora eta bestea beheara; topo egitean batek:

– *Alto!*

Besteak:

– *Hi gaztea haiz eta bazterrera salto!*

* Kataberako putzu ondoan bi brinkolatar ogitartekoa jaten eta aldamenean, ardi batek:

– *Beeeeeee, beeeeeee!*

Batek besteari:

– *Ez dik puntu ederra jarri!*

* Brinkolatar batek kaskorik eraman ez eta motorrez istripu larri samarra izan zuen. Entzun behar izan zituen demandaldi larriak kaskorik ez eramatearren. Horrela, afalondo batean, kaskoa jantzi eta lotarako gertatzen da, inguruko jendearengan harridura sortaraziz.

– *Nora joan behar dek kaskoa jantzita? – galdetu zioten.*

– *Logelara nijoak, eskaileretan zerbait pasatuta ere, kaskoa jantzi diat!*



Brinkolako taldea egun pasa.

0. BRINKOLA EDO ERGOENA

Antzinatik, badirudi Legazpin bi auzo edo alderdi nagusi bereizi izan direla, 1533ko Legazpiko udal ordenantzetan, dagoeneko, garbi ikusten den bezala. Haietan, auzo bakoitzak «fiel» (neurriak eta pisuak zaintzen zituen nolabaiteko ikuskaria) eta «regidor» (zinegotzi) bana, eta bina basozain izan behar zituela adierazten da. Hala, Mirandaolatik beherakoa auzo edo alderdi bat zen, eta Mirandaolatik gorakoa (Mirandaola barne) beste auzo edo alderdi bat:

“...la poblacion del dicho valle era esparcida (...) los vecinos habitantes de las casas y herre-rias de Mirandaola parte de arriba inclusive (...) y los vecinos habitantes de las casas y herre-rias de Mirandaola abajo...” (LUA3)

Bi alderdi horien arteko muga, hala ere, ez da oso finkoa izan historian zehar, beste agiri batzuetan Motxorron, Bikuñanean eta Bikuñaundin ere egiten baita zatiketa.

Egun, banaketa horren aztarna izan daitezkeen izenak erabiltzen dira oraindik: **Elbarrena** eta **Erguena**, XVI. mendeko eremuei ez badagozkie ere.

Denborarekin, ordea, auzo horiek zatituz joan dira, entidade gehiago sortuz. Hala, 1843ko bizilagun erroldan (LUA13) lau auzo aipatzen dira Legazpin: *“Barrio de Arriba”* (Brinkolazardik Agirrebekoaraino), *“Barrio de Telleriarte”* (Korkostegitik Bikuñanearaino), *“Barrio de Abajo”* eta *“Calle”*.

1887an egindako kale, plaza eta etxeen errotulazioan ere (LUA17) lau aipatzen dira, baina beste antolaketa batekin: *“Barrio o cuartel de Arriba”* (Brinkolazarretik Elorregierrotaraino), *“Barrio o cuartel de Telleriarte”* (Elorregitik Motxorroraino), *“Barrio o cuartel de Santa María”* (kale inguruko etxe eta baserriak), *“Barrio o cuartel de abajo”* (Egialde eta Zaldutik Galdotseraino).

1910eko erroldan (LUA20), berriz, sei ere bereizten dira: *“Santa María”*, *“Telleriarte”* (auzunea soilik), *“Abajo”* (Ajuezetik Galdotsera), *“Macazaga”* (Zabaleta, Biurrain, Makatzaga), *“Arriba”* (Bikuñatik Brinkolazarreraino) eta *“Urtaza”* (egungo Egialde).

1920an (LUA21), zazpi: *“Santa María”*, *“Telleriarte”* (auzunea soilik), *“Brinkola”* (auzunea soilik), *“Abajo”*, *“Macatzaga”*, *“Arriba”* eta *“Urtatza”*.

Bilakaera horretan, Brinkola, auzo bezala berria dela esan behar dugu, erroldetan lehen aldiz 1920. urtean azaltzen baita, eta antzinako lgeralde auzuneari atxikirik soilik. Hala ere, auzo-kontzientzia 50 urte lehenago sortu zela pentsa daiteke, trenbidearen eraikuntzaren ondorioz. 1887rako, horrela, haren mugak (*“Barrio o cuartel de Arriba”* izenpean) nahiko finkatuta azaltzen dira, baserri baten gora-beheran.

Brinkola deitura ez da hamarkada batzuk beranduago arte sendotuko, *Ergoena* deitura-rekin lehia ibili eta gero. Hona hemen bi adibide:

-1892. urtean, Brinkolako eliza jasotzeko egin behar izan ziren agirietako batean (EE7) "*Hermita de San Agustin del barrio de Erguena*" azaltzen da.

-1913ko udaleko batzar-agiri batean honela agertzen da: "*Se dió cuenta de una instancia suscrita por Don Justo de Ojanguren y otros vecinos del barrio de Arriba*" (Jaka2 1990: 150).

Deitura berriaren arrazoia trenbidea eraiki zen garaian *Brinkola* baserriak (egun, *Brinkolazar*) izan zuen protagonismoan dagoke.

Bukatzeko, auzoei buruz ari garelarik, ezin ahaz dezakegu oraindik ere bizirik dagoen beste «auzo» entitate bat, guk **auzune**¹ deituko dioguna eta goian aipatutako auzoek baino eremu txikiagoa hartzen duena. Brinkola auzoan, horrela, Korta, Garro, Igeralde, Barrundiola eta Arabaolatzaña izango genituzke. Paperean oso gutxitan azaltzen diren entitate hauek hainbat arrazoiengatik sortu izan dira, hala nola: auzolanak, elizarako ohiturak, ahaidetasunak, basoen banaketak, heriotza eta gaixotasunak... Antzinako familia eta giza-harremen espilu ez ote?



Brinkola auzoa mende hasieran; barrenean Armuño mendia.

1. Izen berri baten premia ikusten dugu, herritarrek bi kontzeptuak bereizten baitituzte (auzoa-entidadea; auzo-hurbileko harremanak).

1. BRINKOLAZAR

* Brinkolazar baserria Araba aldera dagoen azkeneko baserria da. Izan ere, bada mandabide zahar bat Legazpitik Sandratira eta handik Araia eta Zalduondora doana, eta bide horretan Gipuzkoako azken baserria dela esan daiteke. Erdi Aroan burdina egiteko eraiki zen, haran estu baten barrenean, errekaaren ertzean, **burdinola** batek behar dituen baldintza guztiak ondo betetzen baitzituen, hala nola: Mutiloa eta Zeraingo meatzeak gertu, basoa ugari egur-ikatzatza egiteko eta desnibel handiko erreka ondoan. Errekaren pendizari esker uharka edo ursalto artifizialen beharrik ez zuen izango seguruenik.

XVI. mendearen amaierarako, ordea, burdinola izateari utzi zion. 1520. urtean, horrela, Juan Perez de Lazarragak Brinkola baserria eta burdinola batetik, eta Intsutsoletza korta bestetik, Pero Garcia de Jauregi batxilerraren ondorengoei erosi zizkiela badakigu (LEA1). Ez dirudi ordurako Brinkola burdinola errentagarria zenik, eragozpen handiak baitzituen aurrera egiteko, besteak beste: kostu handiko mantenua, Segurarekiko urruntasuna, basorik eza, etab.



Brinkolazar, mandio aldetik (JLU 1994).

Ondorengo mendeetan, Brinkolazar maizter-etxea izan zen, inguruko hainbat eta hainbat bezala, bertako bizilagunek bizimodua nekazaritza atera zuten zirelarik.

XIX. mendearen bigarren erdian, ordea, trenbidearen eraikuntzarekin, berebiziko prota-gonismoa lortu zuen. Izan ere, «Norteko» trenbidea ondo-ondotik ebaki zuten, eta harekin batera hiru kilometroko tunel luzea. Lan haiek burutzeko, bost-sei urtetan, izugarritzko jende-tza inguratu zen, gehienak atzerritarrik: frantsesak, italiarrak, espainiarrak... Baina frantsesak izango ziren nagusi nonbait, ergoendarrek garai hari «frantsesaroa» edo «frantsesakoa» deitu izan baitzieten.

Brinkolazarren, gainera, langileentzako ospitalea egon zen, sortzen ziren istripu eta gai-xotasun ugariari aurre egiteko.

Brinkolazar I

* Brinkolazar baserria bi bizitzakoa izan da gutxienez joan den mendearen hasieratik orain dela gutxi arte, bietan errenteroak izan direlarik. Iparraldera begira zegoen alderdian hauek izan dira azken belaunaldiak: Zabaleta-Agirreburualde, Zabaleta-Plazaola, Inurritegi-Zabaleta, Bergara-Zabaleta, Zabaleta-Ormazabal, Zabaleta-Larrea eta Zabaleta-Ormazabal.

Josefa Zabaleta Plazaola (Brinkolazar 1833) Jose Ignacio Inurritegi Zangiturekin (Olazar 1827) ezkondu zen etxera, eta lau seme-alaba izan zituzten 1855 eta 1867 bitartean: Dominica, Sebastiana, Jose Joaquin eta Jose Luis.

- Dominica, Jose Manuel Alustiza Guridi harginarekin ezkondu eta Legazpiko kalean *Buenaventura* izeneko etxea (gerora *Martxeli* izenez ezagunagoa), eraiki zuten.
- Sebastiana, «gaixokia» zenez, berehala hil zen.
- Jose Joaquin Eguzkitzabeko Maria Micaela Etxeberria Jauregiarekin etxera ezkondu zen. Gero, Zubiaur berrira joan ziren bizi izatera.
- Jose Luis Bikuñaneako Bazterrekoa etxera ezkondu zen Bikuñandiko Marcelina Makibar Agirrearekin. Hauek ere, Bazterrekoa etxea erabat berri zuten.

1887. urtean Inurritegi-Zabaletatar senideek dirutza handia jaso zuten Kuban bizi zen osaba indiano batengandik (Olazarren jaiotako Francisco Inurritegi Zangiturengandik, alegia), eta horren ondorioz guztiek etxebizitza berriak egin zituzten: Buenaventura kalean, Zubiaur Brinkolan eta Bazterrekoa Bikuñanean.



Marcelina Makibar Agirre, Eugenia Inurritegi Makibar eta Jose Luis Inurritegi Zabaleta, Bikuñaneako Bazterrekoa etxearen aurreko aldean.

* Brinkolazarren, Marcelina Zabaleta Plazaola (Brinkolazar 1846), Josefaren ahizpak segitu zuen, Arrasateko Cipriano Bergara senartzat hartuz. Bi seme izan zituzten: Jose Manuel eta Basilio. 1900 urte inguruan, ordea, ama hil eta aita-semeak, baserria utzita, Azpeitia alde-ra joan ziren bizitzera.

Hala, bi ahizpak etxera ezkondu ziren arren, haien seme-alabek ez zuten bertan jarraitu, eta hutsik geratzean, «etxekoneko» Romualdo Zabaleta Ormazabal (Brinkolazar 1873) bertara pasa zen bizitzera, Zegamako Mendigarate baserriko Petra Larrea Ormazabal emaztea lagun zuela.

Romualdori ez zitzaion bizimodu eroso egokitu: hiru urte luzeko soldadutza egin ondoren ezkondu eta, handik gutxira, Kubarako deitu zioten, han beste lau urte gehiago pasa behar izan zituelarik. Hargintzan ibili zen gero, harlanduzko «poialak» egiten trebetasun handia lortuz.

Romualdok eta Petrak sei seme izan zituzten: Tomas, Jose, Pedro, Blas, Cruz eta Gregorio.

- Tomas, «karrileroa» ogibidez, baserrira ezkondu zen Zegamako Ignacia Ormazabalekin.
- Jose marista egin zen eta Venezuelan eman zituen urte asko.
- Pedro Tolosara ezkondu zen.
- Blas Beasainera joan zen.
- Cruz, Maria Dolores Molinarekin ezkondu zen Venezuelan.
- Gregorio Errekaetako Basilia Gerra Laspiurrekin ezkondu zen.



1949. urtean: Gregorio Zabaleta Larrea, Blas Zabaleta Larrea, Tomas Zabaleta Larrea, Jose Zabaleta Larrea, Pedro Zabaleta Larrea, Cruz Zabaleta Larrea eta Petra Larrea Ormazabal.

Brinkolazar II

* Hegoaldera begira dagoen bizitzan, hauek izan dira azken belaunaldiak: Zabaleta-Guridi, Zabaleta-Galfarsoro, Zabaleta-Ormazabal eta Zabaleta-Kerejeta (gero Zabaleta-Uzkudun).

* Juan Jose Zabaleta Guridi (Brinkolazar 1805) Maria Francisca Galfarsoro Zabaletarekin ezkondu eta bost seme-alaba izan zituzten: Josefa Ignacia, Maria Micaela, Maria Antonia, Tomas eta Diego.

Tomas ezkondu zen etxera, Idiazabalgo Antonia Ormazabal Ormazabalekin, eta sei seme-alaba ekarri zituzten mundura: Juan Mari, Romualdo, Mateo, Isabel, Jose Luis eta Telesforo.

* Juan Mari Zabaleta Ormazabalek (Brinkola 1870) hartu zuen oinordekotza, Irungo Juliana Kerejeta Galardirekin ezkonduz. Lau seme-alaba izan zituzten: Maria, Jose, Antonio eta Mateo. Juan Mari aita, ordea, gazterik hil zen, eta Juliana, bigarrenenez, Aierdibeko Nicolas Iturberekin ezkondu zen. Nikolasek, berarekin batera ama eta arreba ekarri zituen Brinkolazarrera.

Julianak «kantiña» eduki zuen Brinkolazarren gerra ostean, ardoa ez ezik bazkariak eta ostatua ere eskainiz. Garai hartan jende asko ibiltzen zen mendi lanean eta kantuan lan handia izaten zen.

Seme-alabek norabide desberdinak hartu zituzten:

–Maria Araiztegira ezkondu zen Valentin Agirrezabalekin.

–Jose Trintxerpera ezkondu zen.

–Antonio etxera ezkondu zen.

–Mateo Ajuez baserriko Claudia Aldasororekin ezkondu zen.



Brinkolazargo gaztainondoa (JLU 1994).

* Antonio Zabaleta Kerejeta (Brinkolazar 1909-1956) Brinkolazarrera ezkondu zen Aizarnazabalgo Maria Uzkudunekin, baina 43 urte zituela hil zen, eta Maria, bigarreniz Tomas Telleria *Argindegi* artzainarekin uztartu zen.

Antonio, oso gizon argia zen, diplomatikoa, eta baserriko langintzatik gainera oso sopletista ona. Gerra aurrean Pasaiako portuan lanean zebilenean, Gibelolako Isidoren antz izugarria zuen gizon bat ikusten omen zuen sarri beste talde batean, baina Ameriketara joana zenez sinestezina egiten zitzaion hura izan behar zuenik. Hala ere, dudatik irten nahi, eta joan omen zitzaion arratsalde batean: *“Aizu gizon, duda bat det eta galdera bat egin behar dizut: zu ez zera ba Gibolako Ixidro izango?”*. Eta honek erantzun: *“Eta hi, Antonio Brinkola”*. Antoniok, orduan: *“Ameriketan ez hintzen ba?, Nola etorri aiz?”*, eta Isidrok: *“Barku baten bodegan sartuta etorri ñauk”*. Laster jakin omen zuten Brinkola aldean haren berri.

* Bada brinkolarren ahotan *Miel Brinkola* bati buruzko kontakizun bat. Gizaseme hori XIX. mendearen hasieran bizi izandako Brinkolazarreko Miguel Zabaleta izan zitekeen. Hara zer dioen:

“Behin batean, «Miel Brinkola» mezatan omen zegoen, eta apaizari tenporak zirela esatea ahaztu. Migelek, ahal zuen moduan, ahopeka adierazi omen zion. Baina apaizak, erdi bertsolari horietakoa izanik, honela bota omen zuen denen aurrean: «Miel Brinkolak dio era honetan: kuarta tenporak diela aste honetan, asteazken, ostiral eta zapatuetan»”.

Argindegi, artzain ibiltaria

Tomas Telleria Aranburu Gabiriako Argindegi baserrian jaio zen 1906an. Mutikotan, ordea, Aizpeako Zirardi baserrira joan zen bizitzera familiarekin. 16 urte zituela, Artzanbu-



Tomas Telleria Aranburu eta Jose Antonio Aranburu Iparragirre (Fermin Leizaola 1978).

ruen magalean dagoen Arriurdineko saraira igotzen hasi zen aitari laguntzera, eta orduz geroztik artzantzan eman zuen bizitza osoa.

Udarak Arriurdinen pasatzen zituen, Urteagako Ceferino Aranbururen etxolaren ondoan. Udazkenean, «Pilarika» inguruan, Arriurdinetik jaitsi eta denboraldi batean Oñatiko San Pedro auzoko Garibeiti baserrian egoten zen. Negua ailegaterakoan, berriz, artaldea hartu eta Bizkaiko Errigoitira abiatzen zen, Gernikatik Mungia aldera dagoen herrixka batera. Ibarrurira ere joan izan zen urte batzuetan eta azken aldera Gabiriako Landarregi baserrira. «Santikutz» ondoren itzultzen zen atzera Arriurdinera, eta bidea oinez egiten zuen, aldika:

1. *Errigoiti - Montekalbo* (Txantxangorri auzoa): Montekalbon bi egunetan egoten zen.
2. *Montekalbo - Durango - Kanpanzar - Arrasate - Oñati*: Oñatin egun batzuetan egoten zen.
3. *Oñati - Udana* : Udanan hiru egunetan egoten zen.
4. *Udana - Udanazabal - Brinkolazar*.
5. *Brinkolazar - Arriurdin*.

Mutilzahartu eta gero, Maria Uzkudun alargunarekin ezkondu zen. 1987an kendu zituen ardiak 81 urterekin.

Argindegi, Arriurdinera lehenengo igotzen zena izaten zen. Inoiz apirilaren hamarrean igo eta sekulako gazta pila ere egin omen zituen. Eguna zabaltzerako ardiak zeuden lekura joaten omen zen, gero eskortara eramateko. Izan ere, ordu txikietan bilduago aurkitzen zituen.

Brinkolako burdinolaren amaia

Ramon Martin Sukia

Gaur egun ezagutzen dugun Brinkola baserritarren mende askotako ahaleginaren fruitu da; batere gozoa ez zen ingurune hura lanaren lanez aldatu egin dute eta bizitzeko behar zuten etekina atera diote. Baina garai bateko Brinkola ezin gaurkoaren antzeko izan. Orain dela bostehun urte, eta auskalo noizdanik, Brinkolan, *Errekaundi* edo Urola errekaaren ondoan baziren lau ola, agian bost ere bai, eta errota bat.

Brinkolako burdinolek, Brinkola, Gibelola, Arabaolatza, Olazar, eta agian Barrundiolak, eta Igeralde errotak garai hartan «industriagune» kutsua emango zioten herrixka horri. Behean, erreka-ertzetan, gurpil, mailu, erreka ondoko kanaletan urak egiten zuen zarata, ia tarterik ere ez baitzegoen ola bateko ur-jauziaren eta hurrengoaren aldaparoaren artean, arragoak, olaren alboan burdin mea urtzeko labe txikiak, eta ikaztegiak, olak ugari behar zuten ikatza edukitzeko. Goian, haritzak, gaztainak eta, batez ere, pagoak, «motx eta urkatik» moztuak, garaiko agirik era aski adierazgarrian diotenez, txondorrak, bideak oletako lanean behar zen jende guztiaren ibilerarako, ikazkin, mandazain, itzain, etab. Ez zuen orduko Brinkolak gaurkoaren antz handirik.

Joan den menderaino zutik iraun ahal izan zuen ola bakarra Olazar da. Noiz galdu ziren, besteak, eta zergatik?

Ez dugu gai horretan argitasun handirik; egiatan, ez dakigu horietakoren bat benetan burdin lanean aritu bazen ere, ez baitago orduko agiri askorik eta daudenek oso aipu arinak egiten baitituzte. Brinkolakoari dagokionez, ordea, agiri bikain bat badugu, ez bere lanari buruzkoa, baina bai zergatik galdu zen azaltzen diguna; izan ere nagusiak berak argi eta garbi adierazi zituen ixtear egotearen arrazoiak, eta handik laster bukatu zen.

Pero Garcia de Jauregi batxilerra eta andere Ana Garcia de Zerain zirenen seme-alaben tutoreek 1520ko uztailearen 28an¹ saldu zizkioten Juan Perez de Lazarragari *“_dentro de las casas de Elorregui”* honako ondasun hauek: *“_la ferreria dfe labrar fierro e caserías que son llamadas e conocidas por su nombre de Brincola que son en la tierra e universidad de Legaçpia_ con el sel de Insusolaça e con noventa cabeças de ganado de ovejas y cabras_”*. Salmenta hori Pero Garcia de Jauregik martxan jarritako eginbide baten amaiera zen; izan ere, bere testamentuan, urte hartako urtarrilaren 20an, agindu zuen saltzeko Brinkolako ola eta baserriak bere zorrak eta semeen ikasketak ordaintzeko. Zaharrenak, lehenbizi «Trebiñoko ikastegira» joan beharko zuela eta gero Salamancara, eskubide kanoniko eta zibila ikastera. Bigarrenak, artea eta medikuntza ikasiko zituen eta txikienak, hamaika urte betetzear, tutoreei egoki zeriztena.

Agiri horiek bereziki dira garrantzi handikoak, burdinolari buruzko berriak emateaz gain salmentaren zergatia ere azaltzen dutelako; horrela, garbi adierazten digute zergatik galdu ziren hura eta Brinkolako beste olak. Pero Garciak eta agiritan azaltzen diren beste lekukoek diote ola ez dela errentagarria; baina gauzak gehien argitzen dituen beharbada Juan Martinez de Bikuñak esandakoa da²: *“_ por que la dicha hacienda es de mucho trabajo de mucha costa e de poco provecho e que no tiene montes para la ferreria e que esta lexos de la villa de Segura_”*.

Horra hor, esaldi bakar batean bilduta, burdinolak bukatzearen hiru arrazoi. Lehenengoa, lan asko eta etekin gutxi; XVI. mendeko teknikarekin olak gutxi ekoizten zuen eta, beraz, errentagarritasun motzekoa zen. Salmentaren inguruko beste agiri batek dio Garchot de Alustiza, olagizonak, 6 burdin kintal zor dituela, olak lau hilabeteen 40 kintal ekoiztu dituelako; ola gehienez ere urtean zortzi hilabeteen aritzen baitzen lanean, laurogei kintal (2.000 kilo inguru) izango zuen urteko produkzioa. Ekoizpen barregarria, baziren eta Legazpin XVI. mendean urtean 700 edo 800 kintal egiten zituzten olak.

Bigarren arrazoa eta funtsezkoa: mendirik ez duela. Legazpiko mendietan egurra ateratzeko legeak nolakoak ziren badakigu, 1483an olagizonak eta Legazpiko baserriarrek sinatutako hitzarmena medio³. Legazpin bost olak bakarrik zituzten beren mendiak (Olazarrek, Mirandaolak, Olaberrik, Bikuñak eta Bengolak). Besteek, beraz, kanpotik ekarri behar zuten ikatza eta horrek asko garestitzen zuen lehengaia eta errentagarritasuna zeharo murrizten. Esandakoaren egiaztagarri, badakigu 1490 aldera⁴ Brinkolako ikazkin bat, Pedro de Gibelola, Altzaniako mendietan ikatza egin eta etxera eramaten ari zela atxilotu egin zutela.

Hirugarrenik, eta hau bera gertatu zitzairen Legazpiko olei ere, Legazpiko olak beren hornigai eta jenero guztiak Seguratik barrena ekartzera behartuak zeuden, herri horrek menderapen-hitzarmena ulertzen zuen bezala ulertzen zuelako. Eta, jakina, Jauregik, Segurako biztanle izanik, hori zehatz-mehatz beteko zuen, nahiz eta beste olagizon legazpiarrek betetzen ez zuten eta beti auzitan ibiltzen ziren. Bidaia horrek asko handitzen zituen garraio-gastuak.

1. Lazarraga etxeko artxiboa. Lazarraga. Ondarearen administrazioa. 49. zkia

2. Bikuña burdinolaren zati baten jabea

3. Legazpiko udal artxiboa. C/168-11

4. Legazpiko udal artxiboa. C/168-13

Bidezkoa zen, beraz, hiru arrazoi horien eraginez Brinkolako ola eta Arabaolatza, Gibelola edo Barrundiolakoak ixtea eta, gaur Brinkolakoak diren lurretan, Olazar bakarrik geratzea, bai baitzituen bere mendiak ikatza egiteko eta nagusiak, Oñatikoa izanik, ez baitzuen Seguraren mende egon beharrik.

XVI. mendea, Gipuzkoako burdinolei buruzko ikerketen arabera, lanbide horren hazkunde garaia izanik, Legazpiko olentzat krisi garaia da edo, hobeto esateko, XIX. mendera arte bere hartan iraungo duen industriagune bat ondo mugatzeko garaia. Leku jakin bateko krisi baten aurrean gaude, beraz; hainbat faktore izan dira krisi horren eragile: ingurunea gehiegi ustiatzea, mendien jabegoa den bezalakoa izatea, ateratako burdina lantzeko lekuak urruti egotea, teknika atzeratuak, Gipuzkoan ugari diren olen arteko lehia. Arrazoi horiek guztiak behartuta, horra hor Brinkolako olak galtzeko bidea.

2. AIERDI-JAUREGI

* Aierdi baserriak historian zehar hiru izan badira ere, ez dira XIX. mendekoak baino lehenagokoak. Haietako bi Aierdierrekaren ertzean eraiki ziren, eta hirugarrena, beranduago, goragoko zabalgunean. Parajearen izenak adierazten duen bezala (*aier* + *-di*) aldapak dira nagusi haran estu horretan, eta hori izan daiteke baserriak horren berandu eraiki eta horren garaiz ezkutatzearren arrazoia (egun, bi erorita eta bestea hutsik baitaude).

Hasiera batean, beraz, bi etxe ziren, biak erreka bazterrean, "*Aierdi de abajo*" eta "*Aierdi de arriba*" izenez ezagutzen zirenak. 1857ko erroldaren arabera (LUA14) Iturbe-Arieta eta Jauregi-Askibel familiak bizi ziren, goian eta behean, hurrenez hurren.

Handik urte batzuetara (data zehatzik ez dakigu), ordea, Aierdiko ahunztetgia zegoen lekuan –Kortatxipi izeneko parajea– etxe berria eraiki zuten Jauregitarrek, beheko etxearen




Aierdigoikoa baserria (JLU 1994).

harriak erabiliz. Manuela Iturbe Ormazabalek (Aierdi 1870) zioenez, oso nekagarria gertatu zen lan hura batetik bestera dagoen aldapa handiarengatik.

* Maria Ignacia Jauregi Askibel (Aierdi1850) Bergarako Galdos-Jaunsoro familian hazitako Roque San Pedrorekin ezkondu eta sei seme-alaba izan zituzten: Modesto, Leandro, Sebastian, Candido, Cecilio eta Maria Francisca. Ama gazterik hil zen, ordea, eta San Pedro-Jauregi familia deseginda geratu zen horren ondorioz. Aitak, bere burua seme-alabak aurrera ateratzeko gauza ez ikustean han eta hemen banatu zituen: Leandro Oñatira bidali zuen; Candido, Ordizira; Maria Francisca, Bikuñaneara (15 urte zituela hil zen); eta Cecilio, Zubiaurrera.

Baserria Zubiaurgoei saldu eta Roque Somorrostrora joan zen lanera. Ez da geroztik haren berri gehiagorik izan.



Aierdi baserrikoek erabili izan zuten «golda-morrokoa» (JLU 1997).

3. AIERDI-ITURBE

* Joan den mendearen erdialdera, Zumarragako Juan Jose Iturbe Plazaola eta Anastasia Arrieta Agirre, ezkon berrietan, Aierdira (egun Aierdibekoa izenez ezagutzen den etxera) etorri ziren, bata morroi eta bestea «kreada» lanetara. Urte gutxira, ordea, Arabaolatza baserrira aldatu ziren.

Haien lekura Jose Martin Iturbe Agirreburualde eta Isabela Agirreburualde, ama, etorri ziren, Arabaolatza baserritik hain zuzen ere. Alargun etorri ziren biak.

Jose Martin (Arabaolatza 1829), Idiazabalgo Josefa Antonia Ormazabal Ormazabalekin uztartu eta lau seme-alaba izan zituzten: Manuela, Francisco Mari, Jose Mari eta Nicolas.

– Francisco Mari, mikelelea ogibidez, Olazargo Josefa Ugalderekin Ormaiztegira ezkondu zen.



Aierdibekoa baserrira (JLU 1994).

- Jose Mari Gernikara ezkondu zen, baina handik urte batzuetara Californiara aldegin zuen emaztea eta bi seme-alaba Euskal Herrian utzita.
- Nicolas, gazteena, Brinkolazarrera ezkondu zen Irungo Juliana Kerejeta Galardi alar-gunarekin.
- Manuela neskazahar geratu zen etxean, eta Nicolas anaiak jaso zuen Brinkolazarren.

Aierdibekoa hutsik dago harrezkero.

* Manuela Iturbe Ormazabal (Aierdi 1870) neskazahar geratu bazen ere, bere gogoz izango zela diote. Oso polita omen zen, emaztetzat batek baino gehiagok hartuko zukeelarik. Manuela Guridi Camposek (Olazar 1853) zioenez, behin batean Oñatiko feriatik etxe aldera oinez zetorrela, Olabarrietako Andolatza baserriko etxeko andreak honako errekadua eman omen zion: *"Esaion Manuelari gurea etorri gura don, esaion"*. Izan ere, seme zaharrena ezkongai zuen.



Juanito Iturbe Ugalde.

4. GIBELOLAGARAKOA

* Egun Gibelola (edo Gibola) izenez baserri bakarra ezagutzen badugu ere bi etxe izan dira historian zehar, elkarrengandik ez oso urrun. Zutik dagoena Gibelolagarakoa da; bestea Gibelolaazpikoa, joan den mendean «karrila» egiteko eraitsi zutena.

Haietako bat burdinola izan zen, 1483ko agiri honek erakusten duen bezala: “...*en el dicho balle de Legaspya, en el lugar llamado Yrularreeta, que es cabe la ferreria de Guibelola...*” (Ayerbe 1995: 122). 1532. urterako, ordea, burdinola izateari utzi zion, beste agiri honetan ikus daitekeenez: “*la ferreria que en ella solia aver*” (LUA2).

Nolanahi ere, kokapenarengatik bi etxeak (garakoa eta azpikoa) izan zitezkeen burdinola.

* 1504. urtean Domingo eta Catalina de Ubitartek Miguel Ibañez de Elorregiri saldu zioten Gibelolako etxe-burdiñoletan zegokien zatia. 1506. urtean Juan Garcia de Zerainek, Zeraingo jaunak, gauza bera egin zuen: Gibelolan zegokion zatia eta Petrinasaritz korta, erosle berari saldu zizkion (LEA2). Izan ere, Elorregi etxe boteretsua zen eta Legazpiko hainbat baserri, errota, burdinola eta mendiz jabetu zen. Garai horretan, gainera, Elorregitarak Oñatiko Lazarraga leinuarekin elkartu ziren ezkontzaz.

“En Oñati podemos hablar de tres o cuatro linajes que podrían figurar en la categoría de grandes poseedores de propiedad amortizada (...): los Lazarraga / Plaza / Artacoz. Los Lazarraga eran para el siglo XV la familia de propietarios más importante de Oñati si excluimos a los Guevara. A cuyo apellido prevaleció a lo largo del siglo XVIII y comienzos del XIX; en 1854 (...) murió el último mayorazgo apellidado Plaza, un sacerdote, al que siguieron en el disfrute patrimonial sus sobrinos apellidados Artacoz” (Madariaga 1996: 99).

Beraz, Gibelola baserrien jabetza Oñatiko «palaziano»-aren eskuetara pasa zen XVI. mendean («Duque de Sotomayor», azken aldera) eta hurrengo 500 urtetan ez du besterik ezagutu.



Gibelolagarakoa baserria (PA 1996).

* XIX. mendean eta XX. mendeko lehenengo hamarkadan bi bizitzako baserria izan zen; baina 1912. urtean gertatutako sute baten ondorioz bakarrekoa bilakatu zen. Oiarbidetarrek, ezbeharraren ondorioz, baserria utzi beharra izan zuten.

Zangitutarrek segitu zuten baserrian; aspaldidanik zuten Gibelolagarakoa errentan hartuta.

XIX. mendean Jose Mari Zangitu Inurritegi (Gibelolagarakoa 1826) auzoko Francisca Antonia Azurmendirekin (Gibelolaazpikoa 1824) ezkondu eta bi seme-alaba izan zituzten. Bigarrena izan eta handik gutxira, Francisca Antonia hil egin zen, haren anaia Jose Mari Azurmendi (Gibelolaazpikoa 1817) bezalaxe.

Hildako anaia-arreben alargunak, egoera berriari aterabide eroso bilatu nahian elkarrekin uztartu, eta Gibelolagarakoan jarri ziren bizitzen. Ez zuten, dena den, baserria aukeratzeko modurik izango, garai horretan Gibelolaazpikoa eraitsi egin baitzuten karrila egiteko.

Hala, Gibelolagarako Jose Mari Zangitu Inurritegik eta Gibelolaazpiko Cecilia Etxeberria Zabaletak (Kortaazpikoa 1821) familia berria osatu zuten, bakoitzaren seme-alabak ere elkar-tuz. Hauek ziren lau seme-alabak: Paula Antonia eta Damaso Ignacio Azurmendi Etxeberria, batetik, eta Jose Antonio eta Dominica Zangitu Azurmendi, bestetik.

* Lau senideetatik Jose Antonio Zangitu Azurmendi (Gibelolagarakoa 1851) geratu zen baserriaren buru. Artzantzan jardun zuen, neguak Bizkaian pasatuz. Kortaazpiko Juana Legorburu hartu zuen emaztetzat eta bost seme-alaba izan zituzten: Francisca, Victoriana, Ignacio, Joaquin eta Joaquina.

- Francisca Barrundiola baserrira ezkondu zen, Jose Andres Agirrerekin.
- Victoriana Agirrezabal baserrira ezkondu zen, Faustino Anduezarekin.



Baserriaren erditik «zorbidea» igarotzen zen (JLU 1997).

- Ignacio etxera ezkondu zen.
- Joaquin gaztetan hil zen.
- Joaquina Egizear baserrira ezkondu zen Paulo Gaztañagarekin; baina seme bakarra zutenean senarra hil eta bigarren aldiz Gregorio Galdosekin ezkondu zen.

Gibelolagarakoa, artzainen atsedeen-leku izan da urte askotan, «**artzai-hotela**», haien hitzetan. Hala, Araiatic, Altzaniatik eta Zegamatik Bizkaia aldera joaten ziren artzainak etxe honetan lo eginda, hurrengo goizean abiatzen ziren. Besteak beste, Donato eta Dominica Arrizabalaga (Muñoa 1905 eta 1915, hurrenez hurren), Ramon Zabaleta *Ramon lepaokerra* (Altzukaran, Zegama 1908)... eta abar hemen egondakoak dira.

* Ignacio Zangitu Legorburuk (Gibelolagarakoa 1886), senidetan hirugarrenak, hartu zuen oinordekotza. Zabaleta baserriko Marcelina Arsuagarekin ezkondu eta zazpi seme-alaba izan zituzten: Isidro, Juan, Juliana, Feliciano, Jose, Benita eta Venancio. Ignaciok, besteak beste, karrilean eta ikazkintzan ihardun zuen familia aurrera ateratzeko. Seme-alabek norabide desberdinak hartu zituzten:

- Isidro Aretxabaletako Isabel Peñarekin ezkondu zen.
- Juan, *Gibolatxiki*, etxean geratu zen mutilzahar.
- Juliana Zumarragara ezkondu zen Gabiriako Mandiolako Patxi Azarolarekin; gero, Guriditegin jarri ziren bizitzen.
- Feliciano Zumarragara ezkondu zen, Inocencio Etxezarreta Ansotegirekin.
- Jose etxera ezkondu zen, Azpeitiko Felisa Orbegozorekin.
- Benita Venezuelara joan zen.
- *Benantxi* Urretxuko Ertsolegi baserrira ezkondu zen, Carmen Lizarazurekin.

1980ko hamarkadan utzi egin zuten baserria Zangitutarrek.



Zutik: Juliana Zangitu Arsuaga, Juan Zangitu Arsuaga, Isidro Zangitu Arsuaga, Feliciano Zangitu Arsuaga. Eserita: Jose Zangitu Arsuaga, Ignacio Zangitu Legorburu, Venancio Zangitu Arsuaga, Marcelina Arsuaga Alzola eta Benita Zangitu Arsuaga.

Frantsesaroa

1858an hasi ziren «Norteko» trenbidea ebakitzen Gipuzkoako lurralde historikoan, lanik handienak Beasain eta Altsasu bitartean izan zituztelarik. Bi herri horien arteko zubi eta tunel ugariak eraikitzeko eskulan kualifikatua behar zenez, Frantziako *Midi*-ko trenbidea egiten ibilitako alpetar langileak ekarri zituzten: frantsesak eta italiarrak gehienak. 1864. urteko abuztuaren 15ean, azkenik, karrila inauguratu zuten.

Tamaina horretako eraikuntzak eragin handia izan zuen Brinkolan, bai hark iraun zuen sei urtetan, bai hurrengo urte eta hamarkadetan ere.

Lehenik eta behin, Alpeetatik etorritako etorkinak denbora luzez egon ziren Brinkolan bizi izaten, hiru kilometroko *Tunelaundi* zulatzea, *Tuneltxiki*, erreka hainbat tartetan desbideratzea, eta gainerakoak ez baitziren lan makalak. 1861. urteko Legazpiko bizilagunen errolda batean (LUA16), 61 italiar eta frantziar jatorriko gizaseme eta andre aipatzen dira, haurrak ere tartean direla. Beste agiri batean (Insausti 1964: 130) Legazpiko bikarioak Gipuzkoako gotzaindegiari abade gehiago eskatu zizkiola irakur daiteke, 2.000tik gora kanpotar zeudela argudiatuz: *“Legazpia advierte que existen en ella dos mil o más operarios y otras 47 familias de extranjeros y españoles que trabajan en la vía férrea; es más que probable que muchas de ellas fijan su residencia continua en ella”*. Ez da harritzekoa, beraz, horrelako giza-uholdearen aurrean gure zaharrek garai hura «frantsesaroa» izenez ezagutzea.

Litekeena da 1861eko erroldan aipatzen diren etorkinak Brinkolan bizi izatea, seguruenik zurezko etxe edo «barrakoietan», Tunelaundi aurrean, ahoz aho iritsi zaizkigun testigantzen arabera. Erroldetan erreparatuz, bestalde, ohar gaitzke 61 etorkinetatik 17 besterik ez zirela emakumezkoak, eta gehienak 40 urtez azpikoak. Bestetik, hauek ziren aitortu zituzten lanbideak: *“contratista minero”, “minero”, “cantinera”, “peón de cantería”, “servidora”, “empleado en el carroferriil”* eta *“panadero”*.

Legazpin denbora luzez egon zirela esan daiteke. Izan ere, 1860 eta 1870 bitartean atzerriko abizena zuten 21 haur bataiatu zituzten eliza nagusian, haietako hiruk ama legazpiarra zutenak (Jaka3 1990: 72-74).

Baina, bada oraindik garai hura deskribatzeko datu esanguratsu bezain ikaragarririk: heriotzenak. 1860 eta 1864 bitartean ohi baino 49 heriotza gehiago gertatu ziren Legazpin, Brinkola auzoan gehienak (Jaka3 1990: 124-129). Istripuz gertatu ziren asko: zulatzen ari ziren putzutik erorita; leherketen ondorioz; makinak harrapatuta... Gaixotasunez hildakoak ere ugariak izan ziren: biriketakoarekin, odol-jarioz eta abarrekin. Eta mordoska bat (sei lagun gutxienez) asasinatuta, «**Far West**»-eko garai onenetan bezala.


Brinkolarrek, hasiera batean, ez zuten begi onez ikusiko, seguruenik, beren inguruan gertatzen ari ziren aldaketa bortitzak: paisaiaren desitxuraketa, etorkinen uholdea, eta abar, goitik inposatua, gainera. Baina aldaketa haiek aberastasuna ere bazekartenez, hasierako jarrera bigunduz joango zen. Izan ere, karrilak brinkolar asko enplegatu zuen urteetan, base-riak aurrera ateratzeko laguntza ezin hobea eskainiz.

* «Frantsesaroa» orduko brinkolarrentzat oso garai markatua izan bazen ere, 135 urte pasa eta gero aro hari buruzko konturik ezer gutxi gorde da. Hona hemen heldu zaizkigun batzuk:

Gibelolagarako bizilagunek sail bati *Ospitalalde* deitu izan diote, eta bertan ospitalea egon zela aditu izan diete aurrekoei.

Tunela erori zenean, berriz, 1870. urtean, frantsesak aritu omen ziren konponketa lane-tan hemengoekin batera. Eta aisialdian Zubiberri ondoko (Brinkolazar eta Gibelolagarakoa bitartean dagoen zubia) *Kafeetxe*-ra joaten omen ziren. Brinkolazargo Jose Joaquin Inurritegik esnea eramaten omen zuen hara, ordaina urrezko txanponetan jasoz. Lehenengo azukre koxkorra ere han emanda jan omen zuen.

Garai hartan diru asko ibiltzen zelako hotsa ere heldu da egundaino: karrileko langileei urrearekin ordaintzen zitzaie eta horrelakoak. **Bergaretxeko bolalekuan** ontzako urreak jokatzen omen ziren «trabesean» (lurrera bota eta irabazten zuenak jaso). *Martin Pipas* artzain ezagunak ere (Martin Alustiza Alkorta, Mutiloa 1863) entzungo zituen kontu horiek eta, Arabaolatza baserria erosi zuenean, sukaldeko oholtza zaharra kendu eta porlana bota aurretik, ondo miatu zuela esaten dute, urrezko txanponik topatuko ote zuen. Alferrik izan zen baina!



Oazurtzako tunelaren ahoa Zegama aldetik, «frantsesaroan».


5. GIBELOLAAZPIKOA

* Gibelolaazpikoa baserria *Goiko kaxeta*-tik Gibelolagarakoa aldera dagoen «zabaldo» batean zegoen, karrileko mugarriak 556 km adierazten duen lekuan, hain zuzen. Joan den mendean eraitsi zuten trenbidea egiteko.

* Azurmenditarrak izan ziren han bizi izandako azken erreterroak.

XIX. mendearen hasieran, Antonio Azurmendi Teresa Ignacia Galfarsorekin ezkondu eta bost seme-alaba izan zituzten: Jose Mari, Josefa Ignacia, Francisca Antonia, Carmen eta Pablo.

–Jose Mari Azurmendi Galfarsorok (Gibelolaazpikoa 1817) Kortaazpiko Cecilia Etxeberria hartu zuen emaztetzat eta etxean jarri ziren bizitzen. Bi seme-alaba izan zituzten: Paula Antonia eta Damaso Ignacio Azurmendi Etxeberria.



Gibelolaazpikoa baserria (J.R. Sarasolak berritutako planoak).

–Francisca Antonia Azurmendi Galfarsoro (Gibelolaazpikoa 1824) Gibelolagarakora ezkondu zen Jose Mari Zangiturekin, eta bi seme-alaba izan zituzten: Jose Antonio eta Dominica Zangitu Azurmendi.

Anaia-arrebak (Jose Mari eta Francisca Antonia, alegia) 1860 inguruan hil egin ziren, jarraian, eta haien alargunak elkarrekin ezkondu ziren, hots, Gibelolaazpikoa bizi zen Cecilia Etxeberria Gibelolagarakoa bizi zen Jose Mari Zangiturekin, bizitokitzat Gibelolagarakoa hartuz.

Kontuan izan behar da anaia-arreba bien heriotza trenbidearen eraikuntzaren hasierarekin gertatu zela, Gibelolaazpikoa eraitsi behar zuten garaian, alegia.

«Brinkola-Zegama» herri-bidea

Trenbidearen eraikuntzak aldaketa fisiko handiak eragin zituen Brinkolan. Hala, hiru baserri eraitsi behar izan zituzten: Errautegi (etxe berria egin zuten aldamenean), Ziordi (Igeralde auzunean) eta Gibelolaazpikoa. Arabaolatzeana eta Brinkolazar bitartean erreka desbideratu behar izan zuten. Tunelaundi, Tuneltxiki, Bergaretxeko «trintxera» eta abarren zulaketekin arbel eta harri pila galantak egin zituzten erreka izkinetan. Gero, geltokia, Kruzerotik Brinkolarako bidea, zubiak, tabernak, eta abar etorri ziren.

Aldaketa horiekin guztiekin batera, antzinako bide zaharren galera ere etorri zen, eta bat aipatzekotan Brinkolatik Zegamara zihoan herri-bidea aipatuko genuke. Bide hori Igeralde auzunetik Arabaolataneraino oraingo bidetik zen. Auzune horretan gora egiten zuen Liñapitxi aldera eta, zeharrera zeharrera, Brinkolazar baino lehen dagoen Zubiberriraino luzatzen zen. Zati honetan Gibelola bietarako bidegurutzeak zeuden. Tunelaundiko ahoa bitartean oraingo lekutik segitzen zuen, baina handik aurrera Antsumaitzerrekaren bazterretik gora.

Areai eta Ubaotik Ormakioraino eta handik Zegamaraino doan bide zabala karrilaren garaikoa da, tunelaren putzuak edo «respiraderoak» zultzeko egina.

Herri-bide zaharrak, beraz, Antsumaitzetik gora egiten zuen eta Altzolaerrekaren ondotik Ururkulluetara zihoan. Paraje honetan Izoztegieta eta Altzolasakonetik datozen errekek bat egiten dute. Gero ezkerretara aldapa gogorrean Oazurtzako leporaino ailegatzen zen, Artizbasoa igaroz.

Gaur egun ere bide hori da Zegamara eta Sandratira joateko motzena.



Tunelaundi eta Tuneltxiki bitartea (PA 1996).

6. ARABAOLATZANEKO TREN-KAXETA

* Arabaolatzaneko tren-kaxeta edo *Goiko kaxeta* karrilarekin batera egin zen «frantsesaroan». Izan ere, trenbidea ebaki zenean, aurretik zeuden zorbide eta herribideei irtenbidea eman beharra izan zieten, batzuetan azpitik tunela eginez; besteetan trenbidearen gainetik «pasonibelak» jarritz. Bada, «pasonibel» gehienetan kaxetak eraiki zituzten, Arabaolatzanean egin zuten bezala.

Liñapitxiko iturrira, Larrosainera (eta handik Zerainera), Arriaundi edo Petrinasaritzeko basoetara joateko *Goiko kaxeta* ondotik igaro beharra zegoen.

* 1916. urte inguruan, Berasaluze-Ugarte familiaren ondotik, Juan Bautista Gereñu Egizabal (Zumarraga 1858) eta bere emazte Rosa Aranburu Telleria (Ezkioga 1862) etorri ziren Kaxetara Bikuñatik. Juan Bautistak karrilean lan egiten zuen bitartean Rosak «pasonibela» zaintzen zuen. Sei seme-alaba izan zituzten: Agapito, Rafael, Jose, Esteban, Vicenta eta Luis.



Manjondarrak, azken bizilagunak, kaxetaren aurrean.



Juan Bautista Gereñu Egizabal.



Rosa Aranburu Telleria.

- Agapitok, Pasaiara ezkontuta, aguazil gisa lan egin zuen.
- Rafael kaxetara ezkontu zen.
- Jose, Altsasura ezkontuta, Renfe-ko langile-buru ibili zen.
- Esteban Agirreburualdeko Juana Sagastizabalekin ezkontu, eta Igeraldeazpikoan bizi izan ziren 1960. urte ingurura arte. Lantegi askotan ibili zen: karrilean errementari gisa, Kataberako meatzeetan, Otsaarteko harrobian langile-buru...
- Vicenta Eguzkitzabeko Francisco Etxeberriarekin ezkontu, eta Guriditegin bizi izan ziren. Baina alargunduta, bigarren aldiz, Gabiriako Mandiola baserrira joan zen Tomas Azarola senartzat hartuz.
- Luis, trenbidean zebilela, trenak harrapatuta hil zen, gazterik.

* Kaxetan, «karrilero» lanetan, Rafaelek segitu zuen, eta 1920an Zatuierrekako Mendiola baserrian jaiotako Hermenegilda Odria Erosteigirekin uztartu zen, aurrez kaxetari bigarren solairua altxatu ziolarik. Sei seme-alaba izan zituzten: Jose, Aniceta, Maria, Ignacia, Agapito eta Saturnino.

1956. urtean Kaxeta utzi eta Turbina etxera joan ziren bizitzera.

* 1986 inguruan karrileko obra batzuk zirela eta, Arabaolatzaneko tren-kaxeta bota egin zen eta geroztik ez dago haren aztarnarik.

«Karrilleroak»

1864an inauguratu zen Beasaindik Altsasura arteko trenbidea. 45 urte geroago, 1909an, bigarren karrila ezarri zioten.

Baina ez ziren lan guztiak hor bukatu, tamaina horretako garraiabideak mantenu-lan etengabeak eskatzen baitzituen. Hala, «Norteko konpainiak» trenbidea egoera onean edukitzeko, sei kilometroko trenbide zatiaz arduratzen ziren «brigadak» izendatzen zituen (Gipuzkoako alde honetan behinik behin) sortzen ziren hainbat lan egiteko, hala nola, harriak kendu, trenbide-trabesa berriak jarri, altxagarriak ipini... «Doble vía» jarri aurretik brigada bakoitza sei lagunek osatzen omen zuten: langile-buruak, «primer obrero»-ak eta lau langilek; gero, berriz, 10-11 izatera pasatu ziren.

Altsasutik Zumarraga bitartean bost brigadak lan egiten zuten: Altsasuko brigada «naparrak», Orobeko brigadak, Otsaarteko brigadak, Brinkolako brigadak eta Zumarragako brigadak. Legazpiko udalerrian bi brigada ibiltzen ziren lanean: Zumarragako Brigada, Zumarragatik Motxorroraino; eta Brinkolako brigada, Motxorrotik Tunelaundi erdiraino.

Brinkolako lehenengo brigadako kideak honako hauek izan ziren: Aquilino Urteaga Juaristi (Baranbio 1840, Elorregiko kaxeta, «katapaz»), Ignacio Inurritegi Etxeberria (Zubiaur 1888, «primer obrero»), Crispolo Ugarte Zabarain (Igeraldeazpikoa 1861, Etxeaundi, Motxorroko kaxeta), Julian Guridi Ugalde (Errautegi 1862), Justo Ojanguren Agirre (Etxeaundi 1863) eta Juan Bautista Gereñu (Zumarraga 1858, Arabaolatzoneako kaxeta). Bakoitzak hilean 500 metro zaindu behar izaten zituen. Horiek izan omen ziren Legazpin jubilazioa kobratzen hasi ziren lehenengotakoak.

«Doble vía» egin zenean, ordea, beste langile hauek gehitu zitzaizkien: Martin Enatarriaga Aramendi (Aranandi 1900), Donato Enatarriaga Aramendi (Aranandi 1906), Marcelino Guridi Inza (Errautegi 1900), Jose Mari Agirre Andueza (Ermentaria 1902), Valerio Guridi Ojanguren (Guriditegi 1898), Tomas Zabaleta Larrea (Brinkolazar 1906), Antonio Mari Zabaleta Kerejeta (Brinkolazar 1909), Ignacio Ojanguren Etxeberria (Etxeaundi 1910)...

Bestalde, «Brinkolako brigada»-tik kanpo ere, brinkolar asko enplegatu zen karrilean: Martin Ojanguren Etxeberria (Etxeaundi 1893), Orobeko brigadako langile-buru izan zena; Francisco Ojanguren Etxeberria (Etxeaundi 1905); Jose Gereñu Aranburu (Arabaolatzoneko tren-kaxeta, 1886); Carlos Guridi Ojanguren (Guriditegi 1897, Kaminpeko kaxeta), «sobres-tante»; Francisco Etxeberria Zabaleta (Eguzkitzabekoa 1895, Pasaia)...

7. ARABAOLATZA

* Mende honetan *Errotazar* eta *Artzaienea* izenez ere ezagutu den baserria burdinola eta errota izan zen garai batean. *Arabaolatza* izeneko etxaldean zegoenez izen horrekin ere ezagutu zen antzina.

“...adjudicamos (...) a dona catalina delorregui biuda (...) e a cristobal perez delaçarraga su hijo (...) e a miguel de Rexil e a maria miguelez su muger e a juan de guridi e a martin de arabaolaça ferretero vezinos del dicho valle duenos e señores de las casas e ferreria de arabaolaça que son en el dcho valle...” (LUA3 1533).

Antzina, *Arabaolatza* eremu zabalago bati zegokiola pentsa liteke, zeinek burdinola, errota, jauregia eta abar hartzen baitzituen. Ondorengo aipamenek, behintzat, hori adierazten dute:

1607: *“La cassa del Señor Vicario en Arabaolaza”* (LUA4).

1654: *“Cassa Solar de Guridi, sita en Arabaolaza”* (EE1).



Arabaolatza baserria (JLU 1994).

1777: "Ermentaria de Arabaolaza" (LUA7).

1797: "La Casa de Echeandia sus tierras y pertenecidos que radican en el Varrio de Arabaolaza" (GPAH9).

Oraindik, auzoko bizilagun zaharrenek erabiltzen duten *Alaatzane* leku-izena (Arabaolazanea, alegia) eremu zabalago hari dagokiola dirudi.

* Arabaolatza baserriari buruz topatu dugun aipamen zaharrena 1426. urtekoa da: "En el valle de Legazpia, que es en tierra de Guipuscoa, en la **ferreria llamada Aravaolea**, que es de Martin Sanchez de Onnativia..." (Diez de Salazar 1993: 152). Lau urte beranduagoko beste agiri batean (Ayerbe 1995: 55) "Martin Sanches de Aravaolaza, ferrero" aurki dezakegu, seguruenik goian azaltzen den gizaseme berbera.

1487. urtean Arabaolatza burdinolaren laurdena Miguel Ibañez de Elorregik erosi zuen, ondorengo agirian ikus daitekeenez: "Venta de Pedro de Araiztegui a Miguel Ibañez de Elorregui de la cuarta parte de la ferrería, la octava parte del molino y la cuarta parte de la casa de Arabaolaza" (LEA3). Agiri horretan burdinolarekin batera aipatzen den etxea oraingo Etxeaundi izango zela pentsa liteke.

1533. urtean Elorregitarak ziren burdinolaren eta etxearen zati baten jabe: "...adjudicamos (...) a dona catalina delorregui viuda (...) e a cristobal perez delaçarraga su hijo (...) e a miguel de Rexil e a maria migueloz su muger e a juan de guridi e a martin de arabaolaza ferretero vezinos del dicho valle duenos e señores de las casas e ferreria de arabaolaza que son en el dcho valle..." (LUA 1533).

XVII. mendearen erdialdera burdinola itxi egin zen. Errotak, ordea, XIX. mendera arte iraun zuen.

* 1860. urte inguruan Juan Jose Iturbe Plazaola eta Anastasia Arrieta Agirre zumarragatarrak, alaba Bernardarekin, Aierdi baseritik (Aierdi-Iturbe) Arabaolatza etorri ziren. Izan ere, *Juanjoxe* eta *Anestasi*, ezkondu berritan, morroi eta «kreada» lanetan Aierdin bizi ziren.

Bernarda Iturbe Arrieta (Aierdi 1850. Arabaolatza) Ermentariako Jose Leon Agirrerekin ezkondu eta seme bakarra izan zuten: Jose. *Joxeleon*, aita, II. Karlistadan Bergaran hil omen zen, nafarriak jota, semeak artean 22 hilabete besterik ez zituela.

* Mende honen hasieran, Jose Agirre Iturbek (Arabaolatza 1873) baserria Martin Alustiza Alkorta artzainari 6.000 errealetan saldu, eta aitaren jaiotetxera (Ermentariara, alegia) itzuli zen, Zumarragako Aitzagako Eugenia Zaldúa Iburguren emaztetzat harturik.



Martin Alustiza Alkorta, *Martin Pipas*.

* Martin Alustiza Alkorta, *Martin Pipas* (Mutiloa 1863), Maria Gereñu Etxeberria emaztearekin (Segura 1872) etorri zen Arabaolatzara.

Horiek izan ziren Legazpiko azkeneko benetako **artzainak**, andre-gizonak elkarrekin ibiltzen baitziren neguko larreetatik udarakoetara, bizitzeko behar zituzten tramankulu guztiak «zaldi-karro» batean sartuta. Ez zuten «aziendarik» Ergoenako etxean. Lau seme-alaba izan zituzten: Maria, Marcelino, Estefania eta Eusebia. Alaba zaharrena, *Maritxu*, Seguran jaio zen Oiartzungo larreetatik zetozela. *Euxebi*, berriz, Oiartzunen.

Negualdian Oiartzunen (Aranburu, Perurena... baserrietan) eta Bizkaian (Leioan, Durangon, Amorebietan...) ibiltzen ziren. Udazken eta udaberrian, berriz, Brinkolan, ardiak Oroibiako larreetan bazkatzen utzita. Udaran, azkenik, Arriurdingo sarioan egoten ziren.

Dirua soberan gutxi izango zuten, eta Arriurdingo egonaldia aprobetxatuz, goraxeago, Biozkornako zabalean, taberna-lege bat jartzen zuten, ardoa eta limonada saltzeko: «Martin Pipasen taberna». Bezeroak meatzeetako langileak eta Zegamako erromesak izaten omen ziren.

Estefaniak ere segitu zion artzantzari urte batzuetan, Aizkorrin mandazain ibiltzen zen Alejandro Ibañez goizuetarrarekin ezkondu zen arte. Bost alaba izan zituzten: Pilar, Juana, Maria, Maria Angeles eta Lourdes.

Artzantza

Aspaldiko jarduera da artzantza Legazpi haranean, Arrolamendi, Oamendi eta Aizkorriko ehorzketa zaharrek (Eneolito-bronze arokoak) erakusten duten bezala. Beldurrik gabe esan dezakegu milaka urtetan aritu izan direla hemengo bizilagunak langintza horretan.



Martin Alustiza Alkorta, Estefania Alustiza Gereñu, Maria Gereñu Etxeberria eta Pilar Ibañez Alustiza, Arriurdinen.

Pentsatzekoa da, horrela, familia asko zirela artzantzatik soilik bizi zirenak eta, ondorioz, lanak hala eskatuta, neguko larreetatik udako larreetara aldatzen zirenak. Bizitoki finkorik ez zuten izango seguruenik: udaldia Legazpin pasatuko zuten eta negualdia, berriz, itsasertzean. Bizimodu hori, ordea, XXI. mendearen atarian erabat ezkutatu da gure bailaran.

Hona hemen Brinkolako azken artzainen izenak:

- Jose Domingo Etxeberria Telleria *Tantanporru* (Eguzkitza 1838, Uarkalde)
- Jose Antonio Zangitu Azurmendi (Gibelolagarakoa 1851)
- Martin Alustiza Alkorta, *Martin Pipas* (Mutiloa 1863 - Arabaolatza 1960)
- Cecilio San Pedro Jauregi (Aierdigoikoa 1889, Errotaburu)
- Tomas Telleria Aranburu *Argindegi* (Gabiria 1906 - Brinkolazar 1990)

Haietatik *Martin Pipas* omen zen familiarekin aurrera eta atzera ibiltzen zen bakarra.

Artzantza ogibide nagusia ez izan arren, ardiak izan dira betidanik Legazpiko baserri gehienetan. Hori dela eta, udalerriko mendi eta basoetan edonon topa ditzakegu «egileor» eta «saletxeak». Brinkola inguruko paraje hauetan, behintzat, ugariak ziren: Garrosakon, Udanzabal, Arratola, Antxerdi, Aierdi, Oroibia, Txakonzabaleta, Otañuerreka, Salobieta, Basaundi, Mendibil...

8. ETXEAUNDI

* Egun *Etxeaundi* izenez ezagutzen den baserria oso zaharra da, pareta lodiek eta barruko antolaketak erakusten diguten bezala. Erdi Aroan dorretxea izandako itxura ere badauka. Badirudi, horrela, antzina “*Casa de Arabaolaza*” edo “*Arabaolaza de suso*” izenez ezagutzen zen etxe bera dela.

“Venta de Pedro de Araiztegui a Miguel Ibañez de Elorregui de la cuarta parte de la ferrería, la octava parte del molino y la cuarta parte de la casa de Arabaolaza” (1487, LEA3).

“...adjudicamos (...) a dona catalina delorregui biuda (...) e a cristobal perez delaçarraga su hijo (...) e a miguel de Rexil e a maria migueloz su muger e a juan de guridi e a martin de arabaolaça ferrementeiro vezinos del dicho valle duenos e señores de las casas e ferreria de arabaolaça que son en el dcho valle...” (LUA3 1533).

“Juan el Viejo, Señor de la casa solar de Guridi-Arabaolaza y condueño de la ferrería y molinos de Arabaolaza en Legazpia, 1532. Casado con María Martin de Aroz y Urrutia, tuvo por



Etxeaundi baserria (JLU 1994).

hijos a: Miguel, que sigue esta línea troncal, San Juan, que casó con María de Achaiz, y Martín, que sucedió en la casa de Arabaolaza de Suso" (Guerra 1928: 257).

Itxuraz, *Arabaolatza* zen etxaldearen izena Erdi Aroan, eta haren barnean etxeak, burdinola, errota... zeuden. *Etxeaundi* edo "*Arabaolaza de suso*" etxalde hartako eraikuntza nagusia izan zitekeen.

* XVI. mendetik aurrera, agirietan gero eta sarriago *Etxeandia* izenez aipatzen da:

"Miguel de Guridi heredó la casa principal de este apellido, llamada también Echeandia" (Guerra 1928: 258).

"Echeandia de Arabaolaza" (1649, LUA6).

* Etxe honetan *Guridi-Arabaolatza* jatorriko Guriditarrak bizi izan ziren XVI, XVII eta XVIII. mendeetan.

Antonio de Guridi Agirrek, Etxeaundin jaiotako semeak, Dominikar errepublikako gudari-tzan «*kapitan*» kargua izan zuen 1701. urtean.

* XIX. mendean, Guriditarrak Etxeaundiren jabe izaten segitu bazuten ere, ez ziren jadanik bertan bizi izan. «Maizter-etxe» bilakatu zen, bi bizitzakoa gainera. Hegoaldera begira zegoen aldean Jauregitarrak bizi izan ziren, Jauregi-Guridi, Jauregi-Gorospe eta Jauregi-Ormazabal familiak hurrenez hurren; iparraldera begira zegoen aldean, berriz, Anduezatarrak lehenengo (Andueza-Zangitu, Andueza-Bergaretxe) eta Ojangurendarrak gero.

Mendearen bukaeran, Martin Ojanguren Enparanza (Araotz 1823) eta Dominica Agirre Aranburuk (Ermentaria 1841) etxea erosi eta berrikuntza lanak egin zituzten. Ugalde base-riaren orubea ere erositara, antza, guztiarekin etxebizitza bakarra egin zuten.



Etxeaundiko leihoa (JLU 1994).

“Esta finca que consta de dos viviendas se ha formado con los edificios de las caserías llamadas «Ugaldecoa», «Juan Bautista» y «Echeandia» que antes fueron fincas separadas y se hallan bajo un perímetro y cubierto constituyendo actualmente un solo edificio y con terrenos que sería la primitiva de Echeandia y otros que se agregaron de Guriditegui y sus descripciones como sigue:

La casa «Ugaldecoa» (Ugalde) señalada con el número treinta y uno y contiguo a la de Guriditegui de la que le separa un paso de servidumbre al río Urola, confina por Norte con dicho paso, por Poniente con el río Urola, por Oriente con la casa llamada Juan Bautista y por mediodía con la de Echeandi, contiene de creados ciento treinta y siete metros cuadrados.

La casa llamada «Juan Bautista» (Etxeaundi-Andueza) número treinta y dos contigua a la anterior, confina por Oriente con camino vecinal que de Telleriarte conduce hacia Brincola, por Mediodía con casa y franquias de Echeandia, por Norte con paso de servidumbre del río Urola y por Poniente con casa llamada Ugaldecoa contiene de area ciento cincuenta y dos metros cuadrados.

La casa conocida con el nombre de «Echeandia» (Etxeaundi-Jauregi) señalada con el número treinta y tres contigua a la anterior, confina por Oriente con huerta propia y camino vecinal para Brincola, por Mediodía con huerta propia, por Poniente con el río Urola y por Norte con las casas números treinta y uno, y treinta y dos, contiene ciento setenta y dos metros”. (EE3 1897-06-22).

Martin eta Dominicak hiru seme-alaba izan zituzten: Saturnina, Catalina eta Justo.

- Saturnina Guriditegira ezkondu zen, Victor Guridi Raizabalekin.
- Catalina Irunera joan zen.
- Justo etxera ezkondu zen.




Etxeaundi baserri barrua, antzina dorretxearen atea (JLU 1994).

* Justo Ojanguren Agirre (Etxeaundi 1863) Eguzkitzabeko Josefa Antonia Etxeberria Jauregirekin ezkondu zen etxera. Bederatzi seme-alaba izan zituzten 1893 eta 1910 bitartean: Martin, Domingo, Victoriana, Julian, Francisca, Francisco, Luisa eta Ignacio. Erraizabaltxikiko Catalina Agirre Ojanguren iloba ere etxera jaso zuten gurasoak galdu zituenean.

Justo, aita, karrilean lanean ari zela hil zen. «Mintxuria egin» eta ez zen bere onera gehiago etorri. Seme-alabek norabide desberdinak hartu zituzten:

- Martin, «karrileroa» ogibidez, Udanabentako Marcelina Inza Guridirekin ezkondu zen baserrira. Urte batzuetara, ordea, langile-buru egin zutenean, Altsasura joan ziren.
- Domingo mikeletea izan zen. Hasiera batean «motorista» ibili zen «sidecar» batean.
- Victoriana «Franciscana misioneras»-etan sartu zen moja.
- Julian Patrizionean hasi zen lanean, gero Kataberako meatzeetako langile-buru, egu-nero baserritik Aizkorriko minatarra joan-etorriak eginez. Meatzeetan zegoela Legazpin zinegotzi egin eta handik gutxira «sereno» lanpostua lortu zuen. Lan berriarekin Brinkola utzi eta Legazpira joan zen bizitzera. Donostiako Amara auzoko Josefa Aristizabal Irizarrekin (gerora *La Serena* izenez ezagutua) ezkondu zen.
- Francisca Olabarrietako Legarregi etxera ezkondu zen Eustaquio Zubiarekin.
- Catalina ere Olabarrietara ezkondu zen Mariano Lazkanoiturbururekin, «Oñatiko duke-aren» administratzailearekin.
- Francisco karrilean enplegatu eta Itsasondon bizi izan zen.
- Luisa neskame ibili zen, lehenengo Astaburuagan, gero Elorzan eta Urretxun azkenik, hara ezkonduz.



Etxeaundiko plano: luzera 11 m 15 cm; zabalera 9 m 40 cm. Paretak 80 cm.



Josefa Antonia Etxeberria Jauregi.



Julian Ojanguren Etxeberria, *Julian serenoa* eta Josefa Aristizabal Irizar, *La serena*.

– Ignacio, 14 urte betetakoa, lanean hasi zen trenbidean, gero Patrizioneko Segategian ibili zen *Txanberlain*-ekin (Beasaingo Jose Zufiriarekin, alegia). Gerra ondoren, berriz, bere kontura hasi zen feriaz feria baserriko tresnak saltzen.

Ojangurendarrek Etxeaundi etxea Tolosako bati saldu zioten eta Araoztik etorritako Antonio Idigorasek hartu zuen errentan. 1955. urtean, berriz, beste araoztar batzuk, Evarista Altube eta Pedro Madinabeitia, ama-semeak, etxea erosita, bertara etorri ziren bizi izatera.

9. UGALDE

* Ugalde baserria Arabaolatzanea auzunean zegoen, Etxeaundi baserriaren atzealdean, pareta batek mugatzen zituela. Haren izenak ondo adierazten duen bezala ur edo erreka igitzen zen albotik. Legazpiko kalean ere bazen, erreka ondoan hura ere, Ugalde izeneko etxea.

Saturnino Telleriak aipatzen du jada XVI. mendeko baserri eta etxeetan «casas de un tercio de fuego» atalean: *Ualdea* (Telleria: 92).

1792. urtean Guriditegiko Juan Ignacio Guridi Agirre zen etxe honen jabea, zeinek Juan Bautista Guridiri utzia baitzion errentan (GPAH16). Urte horretan "*Ugalde de arriba*" izenez aipatzen da etxea.

1857. urteko erroldaren arabera (LUA14), berriz, Inza-Urzelaitarrak ziren bertako bizilagunak.



Arabaolatzanea auzunea (PA 1996).

XIX. mendearen bukaera aldera hustu egin zen eta hari zegokion orubea Etxeaundi handitzeko erabili zuten, ondoko agiriak adierazten duenez (1897 EE3):

“Esta finca (Etxeaundi) que consta de dos viviendas se ha formado con los edificios de las caserías llamadas «Ugaldecoa», «Juan Bautista» y «Echeandia» que antes fueron fincas separadas y se hallan bajo un perímetro y cubierto constituyendo actualmente un solo edificio y con terrenos que sería la primitiva de Echeandia y otros que se agregaron de Guriditegui y sus descripciones como sigue...”

Liñapitxiko iturria

Brinkolako baserri eta etxe guztietako sukaldeetaraino iristen den ura gaur baino prezia-tuagoa zuen garai bateko jendeak. Izan ere, etxean ez zen urik izaten eta kanpotik, iturrietatik edo errekatik, ekarri beharra izaten zen.

Orain dela 50 bat urtera arte gertatu da horrela, Arabaolatzanea auzoan behintzat, beste auzo eta baserri batzuetan ura lehenago jarri baldin bazuten ere.

«Murkoak» eta marmitak erabiltzen ziren ura ekartzeko. Egunean bitan joan ohi ziren iturrira, bazkaltzeko eta afaltzeko garaian. Metal-ura zen nagusi inguru hauetako iturrietan.

Auzune bakoitzean zegoen iturriren bat. Hala, Igeralde auzokoak Aitzegiko iturrira joaten ziren; Ariztikoak, Basaundira; Garro eta Uarkaldekoak, Erraizabalburura; Eguzkitzakoak, Bidekurutzetara; Muntegi eta Barrundiolakoak, Iturzarrera; eta Arabaolatzanean, Liñapitxira. Hori zen, gainera, inguruan sona handiena zuen iturria, bertara, Josemarinea tabernatik hasi eta Gibelolarainokoak joaten zirelarik. Hasiera batean «gaztaina ipurdi» batetik irteten zuen urak, baina jende asko ibiltzen zela eta, pareta egin eta burdinazko hodia jarri zioten *Felix Turbinak* (Turbina 1909) eta Ignacio Inurritegik (Zubiaur 1888). Gaur egun, Zubiaur parean ezagutzen dugun zubitxoia ere egin zuten, hortik igaroz iturrira joateko.

Baina metal-ura edateko bakarrik erabiltzen zen, egoskarietarako ez baitzuen balio. Dena den, zapore berezia zuela eta, denek ez zuten nahi izaten. Behin, Gaztañamakurreko iturri inguruan Igeraldekoak garotan ari zirela, han azaldu zitzaizen Hernaniko tarteko bat horrenbestetan goraiapatutako iturria ezagutzera. Hernanikoak, iturriaren teila gainetik behatza pasatu, eta gorri-gorri geratu zela ikustean horrela esan zien: *“Hau al da gure Kruzitok hainbeste abonatzen duen ura? Ba, behatza hola jartzen badu... nik nahiago dut sagar-doa”*.

«Kozinatzeko» eta arropak garbitzeko erreka ura erabiltzen zen, erreka gertu zutenek behintzat. Gainerakoek putzu, «bozadera» edo albergaren bat beharko zuten. Ganadua, erreka bertara eramaten zen, ura ikuilura eraman beharrean. Arropa, berriz, oso gutxi garbitzen zen etxean bertan, lixiba egitera astean behin edo joaten zirelarik erreka. Arropa zuria garbitzeko «Chimbo» xaboi urdina erabiltzen zen.

Azken denboretan, ordea, asko aldatu dira gauzak bistan denez. Hala ere, ez da guttiz galdu iturrietara ur bila joateko ohitura zaharra, metal-urak gustu berezia izaten segitzen du eta.



Justa Gabiria Makibar (Bikuñaundi 1899) eta Eugenia Inurritegi Makibar (Bazterrekoa 1901) iturrirako bidean mende hasieran (Enrique Ginea, Gasteizko udal artxiboa).

10. GURIDITEGI

* *Guriditegi* etxe-izena XVII. mendeaz geroztik azaltzen bada ere, antzinagoko “*Casa de Guridi*” edo “*Casa de Guridi-Arabaolaza*” etxeari dagokiola pentsa liteke.

“*Juan el Viejo, Señor de la casa solar de Guridi-Arabaolaza y condueño de la ferrería y molinos de Arabaolaza en Legazpia, 1532. Casado con María Martin de Araoz y Urrutia, tuvo por hijos a: Miguel, que sigue esta línea troncal, San Juan, que casó con María de Achaiz, y Martín, que sucedió en la casa de Arabaolaza de Suso*” (Guerra 1928: 257).

Etxeak, kanpotik nahiz barrutik duen itxurarengatik, XVII. mende inguruan berreraiki zela dirudi.

* Guriditarrak izan dira etxearen jabe eta bizilagun sorreratik ia oraintsu arte.

1568. urtean, Domingo de Guridi Magdalena de Igeralderekin ezkondu eta hiru seme izan zituzten: Juan, Simon eta Martin (Jaka4: 151).



Guriditegi baserria (JLU 1994).

- Juan etxera ezkondu zen, Magdalena de Etxeberriarekin.
- Simon Igeraldeazpikora ezkondu zen, Maria Ascension de Etxeberriarekin, **Guridi-Igeralde** deitura sortuz.
- Martin Zaldura ezkondu zen, Maria de Errastirekin, **Guridi-Zaldua** deitura sortuz.

* 1649an, Juan de Guridi zen Guriditegi eta Etxeaundi etheen jabe (LUA6). 1654. urtean hark eta Simon de Guridi bere osabak eskuratutako Aitonon seme-alabatza ziurtagirian («Certificado de Hidalguía») datu hauen berri ematen da:

*“...una de estas Cassas y Solares es la de **Guridi**, de mui Nobles, y antiguos Caualleros hixos dalgo, que esta en la Provincia de Guipuzcoa, sita en Arabaolaza Jurisdiccion de la Villa de Legazpia”* (EE1 1654: 10).

“Juan de Guridi Señor que dize ser dela dha Cassa y de Simon de Guridi su thio Vecinos de dha Villa” (EE1 1654: 14).



Guridi askaziaren armarria (JLU 1994). Guridiren armarria «parlante» motakoa dela esan daiteke, irudiekin Guridiren esanahia azaldu nahi baita. Bertan «bigaia» bat amaren errapatik zupaka agertzen da, «guritasuna» adierazi nahiz bezala. Hona hemen 1654ko Aitonon seme-alabatza ziurtagirian egiten den deskribapena: *“Tienen por Armas los Novles hixos dalgo de esta Familia de Guridi Un Escudo, el Campo de oro con un Arbol Verde, y al pie de el una Baca colorada paciendo en un prado: Y un ternerico que se esta mamando, en la manera que ban Yluminadas...”* (11.or)

* XVIII. mendean Tomas Ignacio Guridi Agirrebengoa, Maria Antonia Agirrerekin ezkondu eta bost seme-alaba izan zituzten: Juan Ignacio, Miguel Ignacio, Juan Agustin, Juan Pablo eta Francisca Antonia.

- Juan Ignacio, 1769. urtean, etxera ezkondu zen Antzuolako Maria Feliciana Galaridirekin. Baina alargundu eta, bigarren aldiz, Legazpiko Maria Andresa Guridi hartu zuen emazteztzat.
- Miguel Ignacio Isabel Juliana Gorosabelekin ezkondu zen Legazpiko kalera (GPAH2).
- Juan Agustin eta Juan Pablo Ameriketara joan ziren, lehenengoa Zacatecas hirira eta bigarrena Pazquarora. Gramatika, musika eta organo ikasketak jaso zituzten.
- Francisca Antonia Urretxuko Ertsolegi baserrira ezkondu zen, Francisco Domingo Izuzkizarekin.

Juan Ignacio geratu zen Guriditegi, Ugalde eta gainerako ondasunen jabe, Tomas Ignacio Guridi aitaren testamentuan irakur daitekeen bezala: *“Juan Ignacio mi hijo maior y sucesor en el vinculo dessta dicha cassa Cassa Solar de Guridi su agregada de Ugalde y pertenecidos de ambas”* (EE2 1784).

* Hurrengo belaunaldiko Jose Ignacio Guridi Agirre (1800?-1847) etxera ezkondu zen Juana Mujikarekin eta bost seme-alaba izan zituzten: Ignacio Mari, Maria Luisa, Simon, Pedro Jose eta Manuela Francisca.

Ignacio Mari Guridi Mujikak (Guriditegi 1831-1888) segitu zuen etxearen buru, birritan ezkondu zelarik. Lehenengo andrearekin, Manuela Antonia Raizabal Irazabalekin, zazpi seme-alaba izan zituen gutxienez: Juan Ignacio, Cipriano, Juana Leona, Agustin, Victor, Jose Miguel eta Maria Ignacia. Bigarren andrearekin, Maria Bautista Aranbururekin, bost izan zituen: Josefino, Simona, Pedro Antonio, Sotero eta Sebastian.

Ignacio Mari kontratista izan zen (*“hacendado contratista de obras públicas”*) eta besteak beste Bergarako epaitegi eta kartzelak eta San Lucar de Barramedako zubia egin zituen, kobratzeko suerte handirik izan ez bazuen ere, Bergarako lanetan, behinik behin:

“Ignacio Maria de Guridi dice que tiene un crédito de ciento sesenta mil reales o sean diez y seis mil escudos por mas ó menos contra la villa de Vergara procedente de varias obras ejecutadas en la casa ó edificio construido de nueva planta en dicha villa de Vergara para escuelas, Juzgado y cárceles del partido con arreglo a las condiciones de remate y escritura de su razon, formalizada por el mes de Agosto de mil ochocientos cuarenta y siete...” (GPAH22, 1870).

Simon Guridi Mujika (Guriditegi, 1834-1888), Ignacio Mariren anaia, apaiza izan zen, bere apaizgoa Arroan eta azken urteak Brinkolan eman zituelarik.

* Ignacio Mariren seme-alabek norabide desberdinak hartu zituzten:

- Juana Leona Guridi Raizabal (Guriditegi 1856) Legazpira ezkondu zen, Legazpiko udalaren idazkari zen Bernardo Sarasolarekin.
- Victor Guridi Raizabal (Guriditegi 1860) etxera ezkondu zen.
- Sebastian Guridi Aranburuk (Guriditegi 1880) Montevideora emigratu zuen, berandua-go bi iloba berarekin eramanez.

* *Bittor* Etxeaundiko Saturnina Ojanguren Agirrerekin ezkondu zen eta bost seme-alaba izan zituzten: Justa, Valerio, Carlos, Gregoria eta Maria.

- Justa Legazpira ezkondu zen.
- Valerio Montevideora joan zen osabarengana.

- Carlos karrilean enplegatu eta Elorregiko Victoriana Etxeberria Guridirekin ezkondu zen, bizitzera Kaminpeko kaxetara joan zirelarik. «Sobrestante» izan zen trenbidean.
- Gregoria Miguel Kortazar mikelletearekin ezkondu zen. Lehenengo Brinkolan egon ziren, gero Sadratin eta, azkenik, Seguran.
- Maria, gazteena, Montevideora joan zen, anaia eta osabarengana.

Etxera inor ezkondu ez zenez, gurasoak hil zirenean erretertoak sartu ziren Guriditegin.

* *Bittor*, nekazari ez ezik maisu ere izan zen, etxean «gau-eskola» zuelarik. Erraategiko Marcelino Guridik (1900-1994) ezagutu zuen eta hona hari buruz esaten zuena:

“Guraittein gau-eskola ematen tzian, baño ura neguun bakarrik, ill paren bat, irun bat izate ittuan. Jente asko juten tzian, eskribitzen, koentak etaatzen ikixtea.”; “14, 15, 16 urtetakoi eo, beste eskola ortati (Brinkolako abadearen eskolatik) geldittutako jentuzai ematen zitean.”; “Guraitteiko Karlos Guridiren aitte zana zan maixue, baserritarra zian, estudioik etxaukian, baño berez porsizian” (MGI 1990).

1913ko ekainaren 1eko udal-akta batean Etxeaundiko Justo Ojangurenek bidalitako gutun baten berri ematen da, non Guriditegiko gau-eskolarako diru-laguntza eskatzen baitzen:

“Se dió cuenta de una instancia suscrita por Don Justo Ojanguren y otros vecinos del barrio de Arriba en solicitud de una subvención anual para ayuda de gastos de sostenimiento de una Escuela privada que tienen en aquel barrio, acompañando un Certificado en el que aparecen las condiciones que reúne el local de dicha Escuela. Y dispuso que se deje sobre la mesa hasta otra sesión” (Jaka2: 150).



Zutik: Justa Guridi Ojanguren, Valerio Guridi Ojanguren, Carlos Guridi Ojanguren, Gregoria Guridi Ojanguren. Eserita: Victor Guridi Raizabal, Maria Guridi Ojanguren eta Saturnina Ojanguren Agirre.

Guriditegiko taberna

Guriditegiko taberna *Josemarinea* eta *Patxinea* baino lehenagokoa zen. Mende honen hasieran *Bittor* eta *Saturdiña* senar-emazteek zuten haren ardura. «Ardangela» oraingo sukaldean zegoen, mostradorerik gabe. Jaten ere ematen zuten. Diotenez, *Saturdiñak* oso ondo gertatzen zuen «bixibue» parrilan, su baxuaren gainean erreta. Igande arratsaldetan, berriz, makailua tomatearekin egiten omen zuen. Han egindako merienda hamaika erreal kostatzen omen zen.

Auzoko bilera edo «junta» guztiak Guriditegin egiten ziren: medikuarekin, albaiteroarekin, ganadu ermandadearenak, etab. Ermandadearen bilerak ikuiluan egiten omen zituzten. Brinkolako zaharrak ikusita daude hango ikuiluan jendea sokatiran, merienda jokatuta.

Barrendiolako Eusebio Etxeberriak, bera txikia zela, Guriditegiko tabernan musean nola aritzen ziren gogoan zuen:

“Mutikotan, Guritteitik iñori ardoa ekarri ta. Guraittein tabernea zan, tabernea pormayorren. Ni Antxerditik bueltan an e muslarik: Munteiko morroia, Euzkitzako Patxi (Juston anaie zana, arek andrea Kaxetako Bixenta zon, Gereñu), Zubiaurgo Aapitto re an izaten tzan, ta Guraitteiko Balerio re bai (Balerio Ameriketa jun tzan), Carlos noiz eo noiz, gutxi. Ango muslarik, orik. Musen besteko sukalden eitten tzan” (EEZ 1996).

San Agustin «ermandadea»

Juan Carlos Agirre

«San Agustin ermandadea» 1872ko gabonilaren 27an sortu zen Guriditegi etxean. Horregatik, Guriditegiko ermandadea izenez ere ezagutu izan da. Arabaolatzanea, Barrundiola eta Igeralde auzunetako baserritarrek sortu zuten, Korta eta Garrokoak kanpoan geratuz.

Ikuiluko ganaduen ezbeharretan batak besteari diru aldetik laguntzea zuen helburu bakarra.

Hasiera batean, urteroko batzarrak abenduaren 27an egiten ziren, baina 1943. urtetik aurrera urteberri ondorengo lehen igandera pasa zituzten. 1970 inguruan, berriz, albaiteroa jubilatzean, urtero biltzeko ohiturari utzi eta handik aurrera abere-burua galtzean soilik egin izan da.

Bilera-lekua ere denboraren joanean aldatu egin da. Hala, Guriditegi baserritik Josemarinera eta hemendik, berriz, Armuño elkartera pasa zen.

Zuzendaritza-batzordea hiru lagunek osatzen zuten hastapenetan, ikuiluak ikustea apirilko azken igandean izaten zelarik. Buru bakoitzari adarrean G letra eta zenbaki bat jartzen zitzaizkion.

Hau da «ermandadea»-ren sorrerako agiria (EE5 1943 (1862)):

En la villa de Legazpia, a veintisiete de Diciembre de mil ochocientos setenta y dos, reunidos en el barrio de Guritegui.

Dijimos que todos y cada uno conocíamos lo perjudicial que sería en nosotros el que se nos desgraciara un ganado de uncir que tal vez en algunos sería irremediable y para ayudarnos mutuamente en un caso así y en todos los que ocurran hasta que otra cosa dispon-

gamos, ahora tratamos y resolvemos en regir como erijimos una sociedad o hermandad de ganado vacuno en la cual han de ir comprendidos los que cada uno de los individuos ha presentado y los que al final se expresaran bajo las condiciones siguientes:

1ª Que el ganado que se desgraciara sin provecho para el dueño le abonará la hermandad la cantidad de QUINIENTAS PESETAS siendo además la piel para el mismo dueño.

2ª Que si la carne es de aprovechar ésta se ha de partir a la sociedad UNA PESETA Y CINCUENTA CENTIMOS en libra y entonces tan solamente se le abonará al que se le haya perdido el ganado DOS PESETAS por cada cabeza de ganado y aquel al tiempo de recibir las respectivas cuotas que deberán ser a una hora repartirá por vía de remuneración SEIS LITROS de vino y cuatro libras de pan a los socios.

3ª Que no se admitirá ningún ganado que exceda de diez años, siendo de nueva entrada desde el día 1º de Enero de mil ochocientos setenta y tres cuyo valor tiene que ser cuando menos CIENTO CINCUENTA PESETAS.

*4ª Que la dicha hermandad nombra tres comisionados que son:... para un año contando desde el día veintisiete de diciembre de mil ochocientos setenta y dos y en ese mismo día para las dos horas de su tarde de mil ochocientos setenta y tres se reunirá con todos los socios alistados en esta hermandad en el punto de «Guritegui» el que no se presente a las dos hora de dicha tarde será castigado con la pena de **dos azumbres de vino.***

5ª Que cada socio estará obligado tanto a la enfermedad o desgracia de cualquier ganado o bien de una nueva compra llamarles a los comisionados que arriba indicamos y nombrados para que reconozcan y den cuenta de su estado si es abonable por la hermandad.

*6º Que si alguno fuese tarde por no acudir a la hora señalada su cuota se castigará con la multa de **tres pesetas.***

*7º Que si algún vecino que estuviese fuera de esta hermandad si le desgraciara algun ganado y fuese algún socio de esta hermandad a levantar carne será castigado con la multa de **ochenta reales.***

En cuya forma hicimos la referida hermandad extendemos el presente documento para que en su virtud fuera un instrumento público y sentencia pasada en autoridad de cosa juzgada podemos ser competidos por cualquier Juez al cumplimiento de lo que a cada cual nos corresponde.

LEGAZPIA a veintisiete de Diciembre de mil ochocientos setenta y dos.

*CONDICION ADICIONAL: En la segunda de las condiciones dice no se admitirá en la sociedad ningún ganado que pase de **catorce años** edad desde el día veintisiete de Diciembre de mil ochocientos setenta y cinco en adelante, Legazpia y dos de Febrero del expresado.*

(Esta junta ha acordado en la fecha de hoy (Hoy 1 - de Enero de 1943) celebrar su reunión anual para el pago del Veterinario el domingo siguiente de año nuevo a las dos de la tarde. Se fija en 0,50 por cabeza para costo de secretario).

La Hermandad en Pleno

11. ERROTABURU

* Errotaburu mende honetan eraikitako etxea da, Arabaolatza errotaren gainaldean hain zuzen, eta hortik *Errota +buru*.

* Jauregitarrak bizi izan ziren lehendabizi, baina 1920ko hamarkadan Arabako Nankla-resera aldegin zuten eta San Pedrotarrak etorri ziren ondoren.

Cecilio San Pedro Jauregi (Aierdigoikoa 1889) umea zela ama hil eta Zubiaur baserrian jaso zuten. Benita Aizpeolea Goia zeraindarrarekin ezkondu eta, lehendabizi, Guriditegin bizi izan ziren eta gero Errotaburun. Hemen, hamar seme-alaba izan zituzten: Jose, Martin, Luis, Juan, Feliciano, Mari Cruz, Francisco, Juliana, Juana eta Catalina.

Xixilio, gaztetan artzain ibili zen, Kataberako meatzeetan ere lan eginez.



Errotaburu baserria (JLU 1994).



Zutik: Francisco San Pedro Aizpeolea, Luis San Pedro Aizpeolea, Juan San Pedro Aizpeolea, Feliciano San Pedro Aizpeolea, Maria Cruz San Pedro Aizpeolea, Juliana San Pedro Aizpeolea. Eserita: Jose San Pedro Aizpeolea, Benita Aizpeolea Goia, Martin San Pedro Aizpeolea.

12. TURBINA

* 1911. urtean Urretxuko Ugalde anaiak eta Legazpiko Ubaldo Segura eta Jose Etxeberriak, *Segura, Ugalde y C^a* elkarteak osatuz, argindarretxea edo turbina eraiki zuten Brinkolako Arabaolatzanea auzunean. Segurak Elbarrenan zuten «peineteria»-rako argi-indarra behar zuten; Ugaldetarrek, berriz, Urretxun zuten artile lantegirako. Etxeberriatarrek, parte txikiagoarekin, turbinaren martxa eta administrazioaren ardura hartu zuten.

Jose Etxeberria Orueta (Elorregi 1874) Turbinara ezkondu zen, Ubitarteko Vicenta Mendiola Guridirekin. *Joxe Turbina*-k, argi-etxearen instalakuntzak zaintzeari gutxiegi iritzirik, makinak mugitzeko adina indar etxean bazuenez, bere kontura kirtenak egiteko pabilioi bat eraiki zuten etxearen kontra. Aitzur eta paletarako kirtenak egiten zituen batez ere. Felix, haren semea, koxkortuz gero lantegi horretan ibili zen; baita Tomas lehengusua ere.

Joxek eta *Bixentak* hiru seme-alaba izan zituzten: Felix, Teresa eta Jesus.



Turbina baserria (JLU 1994).

- Felix etxera ezkondu zen, *Manolita* Mendiolarekin. Legazpiko lehen arropa-garbigailua Felix Etxeberriak jarri omen zuen, uraren indarra aprobetxatuz.
- Teresa Apatsoko Matias Oria Ormazabalekin ezkondu eta Donostiara joan ziren.
- Jesus Tolosara ezkondu zen, Ana Maria Lasarekin.

Turbina eta kirtendegia batera itxi ziren, 1952an edo.

* 1957an Agapito Gereñu Odria Kaxetatik Turbinara aldatu zen, familiarekin batera. 1960an udalak enkantean atera zuen Turbinako etxea eta tresneria. Etxea Gereñutarrek erosi zuten; makina, berriz, Patricio Etxeberriak, eta Arantzazuko fraileen komentura eraman zuen, argia egiteko. Korostiatxikitik Antxerdiko ur-biltegira eta ur-biltegitik Turbinara zihoan tutueria desmuntatu eta txatarretarako saldu zuten; lantegi horretan honoko gizon hauek ibili ziren: Turbinako Agapito eta Saturnino Gereñu Odria, Barrundiolako Eugenio eta Jose Agirre Telleria, Ekaiko Marcelino Orikin eta Ermentariako Felipe Agirre Goia.



Josefa Etxeberria Jauregi, Vicenta Mendiola Guridi eta Felix Etxeberria Mendiola.

13. ZUBIAUR

* 1887. urtean, Jose Joaquin Inurritegi Zabaleta (Brinkolazar 1856) eta Maria Micaela Etxeberria Jauregi (Eguzkitzagoikoa 1858) senar-emazteek Zubiaur berria eraiki zuten, eraikin zaharra baino metro batzuk mendi alderago. Garai horretan berreraiki edo eraiki ziren, halaber, Olazar, Makatzaga, Buenaventura kalean, Kortazpikoa, Araiztegi eta Bikuñaneako Bazterrekoa, baina ez kasualitatez. Izan ere, aipatutako sei baserrietan (Inurritegitarren ondorengoak, seietan) Kuban aberastutako osaba baten ondasunak jaso zituzten.

Inurritegitarren aurretik Inzatarrak bizi izan ziren Zubiaurren eta belaunaldi askotan antza denez, 1649. urteko errolda batera joz gero, jatorriz Berastegikoak ziren Martin eta Juan Inza azaltzen baitzaizkigu bertan.

* Jose Joaquin Inurritegi Zabaletak Legazpiko alkateorde kargua izan zuen 1920. urte inguruan, Prudencio Gereta alkate eta Bernardo Sarasola idazkari zirela.

Maria Micaela, *Maimiel*, berriz, auzoko «erizaina» zen: emagin lanak egiten zituen, gai-xoei lagundu; hildakoak jantzi... Ardazketan ere egiten omen zuen, eta etxeko haria, gero, Mutiloako Liernin zegoen ehulearengana eramaten zuen oihalak egiteko.



Auzokoak Zubiaur baserri atarian: Ignacio Inurritegi Etxeberria, Maria Aristimuño Lardizabal, Ines Inurritegi Aristimuño, Felisa Gonzalez Arriluzea, Carmen Ariztimuño Lardizabal, Victorina Inurritegi Aristimuño, Luis San Pedro Aizpeolea, Carmen Gonzalez Arriluzea eta Juan San Pedro Aizpeolea.



Udalgizonak udaletxerantz: Prudencio Gereta Idiazabal –alkate–, Jose Miguel Olabide Plazaola, Juan Aztiria Larrañaga, Jose Joaquin Inurritegi Zabaleta, eta Francisco Arrizabalaga Gabiria alguazila (Enrique Ginea, Gasteizko udal artxiboa).



Ignacio Inurritegi Etxeberria eta Carmen Aristimuño Lardizabal.

Lau seme-alaba izan zituzten 1883 eta 1895 bitartean: Ignacio, Maria, Gregoria eta Agapito.

- Maria Ariztibekora ezkondu zen, Simon Agirrezabal Etxeberriarekin.
- Ignacio etxera ezkondu zen, Zegamako Carmen Aristimuño Lardizabalekin.
- Gregoria 18 urte zituela hil zen, «plumoniak» jota.
- Agapito Zabaleta baserrira ezkondu zen, Feliciano Errasti Agirrerekin. 1948an taberna jarri zuen Zabaleta baserrian.

Ignacio, karrileko langilea izan zen, «primer obrero». Carmen emazteak, berriz, Ermentariako tren-kaxetako kargua izan zuen. Kaxeta txikia eta zurezkoa omen zen, barruan estufa bat zeukalarik. Lau seme-alaba izan zituzten: Ines, Maria, Victoriana eta Segundo. Ines etxera ezkondu zen, Araozko Jose Mari Madinabeitia Altuberekin.

Jaiotzaren inguruko ohiturak

Emaginak. Haur baten jaiotza, orain bezala lehen ere, gertakizun pozgarria izaten zen, egunerokotasuna apurtu eta alaitasun giroa sortzen baitzuen etxean eta auzoan. Amarentzat, hala ere, ez zen beti horrela gertatzen, haurdunaldian edo erditzeko garaian arazoak sor baitzitezkeen. Gainera, medikuak ez ziren nahi bezain gertu egoten. Eragozpen haiei aurre egiteko auzo guztietan egoten ziren «emagiñak», haurra izaten laguntzen zuten emakumeak.

Brinkolan bi ziren lantegi horietan ibiltzen zirenak: Marcelina Inza Azarola (Garrotxonea 1873, Errautegi) eta Maria Micaela Etxeberria Jauregi (Eguzkitzagoikoa 1858, Zubiaur). *Maimiel* gizena eta «goapea» omen zen oso. Haren garaian, Saturnino Telleria medikua zaldiz «jiratzen» zenerako, haurra eskuetan izaten omen zuen askotan.

Kuttuna. Jaio berriari zila hari fin batekin lotzen zitzaion, eta askatzen zitzaionean gorde egiten zuten askok zakutxo polit bat eginda. Umearen «kuttuna» zela esaten zen. Nahiz eta aparteko esanahirik izan ez, kokortu artean eramaten zuten haurrek soinean.

Bataioa. Haurra jaio eta egun berean bataiatzen zen edo, luzeenera jota, hurrengo egunean. Ospakizun horretarako aitapontekoa, amapontekoa eta inudea biltzen ziren Legazpiko eliza nagusian, arratsaldeko hirurak aldera. *"Inudea auzoko andre bat izaten tzan, garai artan tite zeuken emakume bat. Amak ez bazeuken esneik, inudek bere etxen e eukitzen zon umea"* (IIA 1997). Elizkizunaren irteeran «enburre» egiten zen: aitapontekoak txanponen batzuk banatzen zituen bertara inguratutako haurren artean. Gero, eliz ataritik Kontsejuko tabernara abiatzen ziren meriendatzera eta, etxerako bidea hartu aurretik, atsedend hartzera.

Garai hartan, Ergoenetik kalerako joan-etorria oinez egiten zen. Gerora hasi ziren *Patxi karretero*a (Francisco Mendia Leunda; Itsaso 1874, Kalea) eta *Prazaolako Kaetano* (Cayetano Elorza Agirre; Plazaola 1889) taxi-lanak egiten.

Bisitak. Tartekoak, auzokoak eta lagunak ama eta haurra bisitatzera joaten zirenean, besteak beste, «jerez» botilak, galletak eta oiloak ere eramaten zituzten opari gisa. Oiloa, hala ere, ez zuen amak asko ikusiko, *"andreami saldea eta gizonari oiloa"* esaerak dioena egia bazen.

Eliz-sartzea. Ama, zortzi egunez gero soroko lanetan hasteko lain jartzen omen zen, baina, behin «gozatuz» gero, etxetik kanporako aurreneko irteera elizara izaten zen. «Eliz-sartzea» egin behar izaten zuen. Kandela bat aurrean jarrita, errezo batzuk egin behar izaten ziren abadearekin batera.



Maria Micaela Etxeberria, *Maimiel*.

«**Martopillak**». Horien guztien ondoren ospakizun «zibila» zetorren, «martopillak» egiteko garaia. *“Bixitan erregaloa ekarridakoi ordekoa ematen ziten. Familiako emakume junta izaten izan ta olloa saltsan ta natille eo arroz-con-leche ematen ziten meriendatzeko. Juten zanan-dako eun ona zan, lanik ein baik, kontuk esateko”* (IIA 1997).

14. ERMENTARIA

* Baserri honen sorrera Arabaolatza burdinolari lotua dagoela pentsa liteke. Izan ere, burdinolen garaian ohikoa zen haren ingurumarian sutegiak eta «olatxoak» egotea, oletako barra eta totxo moduko burdin pusketak erreminta, altzari eta abar bihurtzeko.

Ermentaria izeneko etxeak Legazpin gehiago ere bazirenez (Telleriarten eta kalean, esaterako) "*Ermentaria de Arabaolaza*" (1777, LUA7), "*Ermentaria arriba*" (1779, H299: 72)... izezez ere ezagutu izan da.

* 1806. urtean Tomas Antonio eta Jose Joaquin Agirre anaiek Ermentaria etxea bitan zatitu zuten, etxejabe zen Pedro Azkarragaren baimenarekin. Horrez gain borda estali bat ere egin zuten atari aurrean. Harrezkero bi etxebizitza daude teilatupe berean: Ermentariabekoa eta Ermentariagoikoa.

Goikoan Agirre-Aranburu, Agirre-Iturbe, Agirre-Zaldua... familiak bizi izan dira; behekoan, berriz, Agirre-Goia, Agirre-Urmeneta, Agirre-Mantxola, Agirre-Andueza, Agirre-Goia... familiak.



Ermentaria baserria (JLU 1994).



Manuel Langarika Vivar, Vicenta Mantxola Agirre eta Tomas Telleria Aranburu.

* 1869. urtean, familia biek (Martin Jose Agirre Urmeneta eta Jose Luis Agirre Aranburu buru zirelarik) baserriaz jabetu ziren 40.000 errealeen truke.

Ermentariagoikoa

* Jose Leon Agirre, Ermentariako jabea, 1870eko hamarkadan Arabaolatzara ezkondu zen bertako Bernarda Iturbe Arrietarekin (Aierdi 1850, Ermentaria). Ezkontzaren ondorioz Ermentariako etxebizitza hutsik geratu zenez, erreteroa hartu zituen.

Alabaina, haien seme Jose Agirre Iturbe, Arabaolatzan jaioa, aitaren jaiotetxera itzuli zen ezkondukoan. Zumarragako Aitzaga baserriko Maria Eugenia Zaldia Ibarguren zuen emaztea, eta bost seme-alaba izan zituzten: Teodoro, Marcelina, Francisco, *Juanita* eta Gaspar.

- Teodoro, anaia zaharrena, gerratean Frantziara aldegin eta bertan ezkondu zen.
- Marcelinak Donostiara aldegin zuen «Marquesa de Rocaverde» zerbitzera, eta handik Bartzelonara.
- Frantzisko «garrotiloarekin» hil zen umetan, Aitzagan morroi zegoela.
- *Juanita* gerra aurretik Bartzelonara joan eta han ezkondu zen.
- Gaspar etxera ezkondu zen. Baina aita hiltzean, 1941ean, andre-gizonek Lerida aldera aldegin zuten, Marcelinaren nagusi errusiarrek zuten lursail bat zaintzera.

* Gaspar eta Marcelinak aldegitan Langarika-Mantxolatarrak etorri ziren bizi izatera.



Zutik: Ignacio Inurritegi Etxeberria, Benito Inurritegi Zabaleta, Angel Agirrezabal Ormazabal. Eserita: Tiburcio Maritxalar eta Gaspar Agirre Zaldúa.



Jose Antonio Gorrotxategi, Jose Agirre Iturbe, Benito Inurritegi Zabaleta eta Gaspar Agirre Zaldúa.

Ermentariabekoa

* Goian aipatu bezala, 1869. urtean jabetu ziren etxeaz Ermentariako bizilagunak. Aurretik, etxe-jabeak bere logela propioa zuen bisitan zetorrenerako, eta gerora ere «nausín koartoa» izenez ezagutu izan zuten.

* Jose Antonio Agirre (Ermentaria 1817) eta Maria Josefa Urmeneta Inza (Igeraldeerota) senar-emazteek bost seme-alaba izan zituzten: Martin Jose, Ignacio Mari, Rafael, Tomas Antonio eta Juana.

Tomas Antonio Buenos Airesera joan zen, 16 urte besterik ez zituela. 1.300 errealdin behar izan zituen bidaia egiteko: erdia, Pasaian itsasontzi frantses batean sartu aurretik, eta bigarren erdia handik sei hilabetera. Ordainketa atzeratzen zen urte bakoitzeko 176 errealdin gehiago ordaindu beharko zituen.

* Martin Jose Agirre Urmeneta (Ermentaria 1834) geratu zen etxearen buru, emaztetzat Maria Miguel Etxeberria hartu zuelarik. Baina alargundu eta bigarren aldiz Josefa Ignacia Mantxolarekin ezkondu zen. Alaba bat izan zuen, Gregoria Agirre Etxeberria, lehenengo andrearekin eta lau bigarrenarekin: Julian, Faustina, Marcela eta Lino Agirre Mantxola.

- Gregoria Joaquin Galarrey Alfonso geltoki-buruarekin ezkondu zen.
- Julian etxera ezkondu zen.



Maria Josefa Andueza Agirrezabal.



Ermentariako uharkan Jose Mari Agirre Andueza.



Sebastian Inurritegi Arrizabalaga, Agapito Gereñu Odria, Jose Luis Cuevas, Faustino Agirre Goia eta Jesus Marroqui (biolinarekin).

- Faustina Toribio Puergui Perez guardia zibilarekin ezkondu, eta Araian bizi izan ziren.
- Marcela Vicente Lopez «karrileroarekin» ezkondu, eta Tolosan jarri ziren bizitzen.
- Lino Legazpin bizi izan zen, arozgintza hartuta lanbide.

* Julian Agirre Mantxola (Ermentaria 1865), nekazari eta arotza, Agirrezabal baserriko Maria Josefa Andueza Agirrezabalekin ezkondu, eta hiru seme izan zituzten: Juan, Jose Mari eta Hilario. Baina Julian gazterik hil zen eta *Maixopa* bakarrik geratu zen alargun, ume txikiekin. Txanponak nonbaitetik atera behar, eta etxe aurreko tren-kaxeta zaintzen hasi zen, trenei paso emanaz eta barrerak itxiz.

Juan Agirre Anduezak (Ermentaria 1897) hartu zuen etxearen oinordekotza Mutiloako Koortzu baserriko Luisa Goia Osinalderekin ezkonduz. Sei seme-alaba izan zituzten: Irene, Rufina, Faustino, Carmen, Felipe eta Prudencia.

Jose Mari Agirre Andueza (Ermentaria 1902), Juanen anaia, artean ezkongai zegoela elektrokutatuta hil zen. Belarra eraisteko Antxerdi aldetik mandioraino kablea zeukaten, baina Turbinara zihoan beste batek ukitzen zuen itxuraz, eta, behin, koinata Luisarekin «belar-karrean» ari zirela, Turbina ohi baino lehenago martxan jarri, eta dakatekoarekin hil zen. Luisa ere oso larri ibili zen. Ezbehar haren ondorioz, bolada batean, Ermentariako haurrak auzoko etxeetan jaso zituzten.

Hilario txikitan hil zen.

15. OLAZAR-JOITEGI

* Olazar baserria Erdi Aroan eraiki zen izen bereko burdinolaren ondoan. XV. mendean, baserria nahiz burdinola, Gabiriako *Gabiria* etxeko jauntxoaren eskuetan zegoen, baina 1515ean Elorregiko Miguel Ibañez jabetu zen hartaz. Hurrengo urtean, berriz, Miguel Ibañez de Elorregik Oñatiko Juan Perez de Lazarraga suhiari saldu zion atzera (LEA4). Geroztik, baserria eta burdinola, Lazarragatarren eskuetan egon da XX. mendera arte.

* Baserri handi hau bi bizitzakoa zen antzina (XVI. mendetik XVIII. mendera, gutxi gora-behera) eta hirukoa, berriz, XIX. mendetik aurrera. Hala, XVI eta XVII. mendeetan "*Olaçarra susso*" eta "*Olaçarra yusso*" izenez bereizten ziren. XVIII. mendean "*Olazarra*" eta "*Joyategui*" modura. Gero, "*Joyategui*" beste bitan banatu zela ematen du.

Inurritegitarrak

* Gizaldi askotan bizi izan dira Inurritegitarrak Olazarren, azken familiak hauek izan direlarik: Inurritegi-Guridi, Inurritegi-Zangitu, Inurritegi-Aztiria, Inurritegi-Plazaola, Inurritegi-Inurritegi eta, berriro, Inurritegi-Inurritegi.



Olazar baserria (Mariaje Ugalde).

Jose Manuel Inurritegi Guridi (Olazar 1781) bitan ezkondu zen. Lehenengo aldiz, Aztiriko Francisca Ignacia Aztiriarekin eta hiru seme izan zituzten: Jose Domingo, Juan Jose eta Juan Jose. Alargundu ondoren, bigarren aldiz, Gibelolagarako Joaquina Zangiturekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten: Jose Ignacio, Francisco eta Josefa Antonia.

- Jose Domingo Inurritegi Aztiria (Olazar 1813) etxera ezkondu zen.
- Juan Jose Inurritegi Aztiria (Olazar 1815) hiru hilabete osatu baino lehen hil zen.
- Juan Jose Inurritegi Aztiria (Olazar 1816, txikitari hildako anaiaren izena jarri zioten), hargina zen ogibidez eta Igeraldeazpikora ezkondu zen, Maria Francisca Plazaolarekin. Agi denez, «trukaketa ezkontza» egin zuten, izan ere, anaia Jose Domingo Igeraldeazpikora ezkondu baitzen etxera. Bost seme-alaba izan zituzten: Joaquina Ignacia, Dominica, Josefa Ignacia, Manuel Antonio eta Juan. Juan Jose, aita, ezbehar edo gaitz maltzurren batek jota, estu eta larri Baionara eraman zuten ebakuntza egitera. Ebakuntza uanean, ordea, gauzak okertu eta bertan hil zen. Muga pasatzeko beharrezko bideratzeak egin, eta legeak agintzen zuen eran gorpua baltsamatu ostean, Legazpira ekarri zuten 1887ko irailean. Ordurako, Igeraldeazpikoa utzi, Araiztegi erosi eta bertan bizi ziren.
- Jose Ignacio Inurritegi Zangitu (Olazar 1827) Brinkolazarrera ezkondu zen, Josefa Francisca Zabaleta Plazaolarekin. Lau seme-alaba izan zituzten: Jose Joaquin, Dominica, Sebastiana eta Jose Luis.
- Francisco Inurritegi Zangitu (Olazar 1827), nahiko gazterik, ondasun bila joan zen Indietara, Kubara hain zuzen. Esaten dute mutilzaharra zela, eta sekulako aberastasun eta ondasunen jabe egin zela. Besteak beste, itzelezko «caña de azúcar» landaketak edo lur-sailak zituen, ustiatzeko morroi gisa beltzak erabiltzen zituelarik. *Olazargo indianoa* deitzen zioten. 1885-86 urtean, bere sorterrira etorri omen zen, denboraldi luze batean familiarekin eta gaztetako lagunekin bizi izanez eta Europan zehar bidaia franko egin ostean, berriro ere Kubara itzuli zen. Habanara heldu eta berehala, usteka-



Joiategi baserria (JLU 1994).

bean, beltz batek «matxete kubatarrarekin» larriki zauritu zuen. Lepoko zauriaren ondorioz, Habanan 1886ko martxoaren 11n, Gernikako Arbola zeritzan Hotelean hil zen. Nahiz eta hil zorian egon, testamentua egin zuen, eta bere ondasunak uzterakoan bizi zen anaia Juan Jose eta zortzi ilobak gogoan izan zituen (GPAH21). Hark utzitako diruarekin berritu eta eraiki ziren honako etxe hauek: Zubiaur, Makatzaga, Bazterrekoa (Bikuñanea), Buenaventura (kalean), Kortaazpikoa, Olazar...

– Josefa Antonia Inurritegi Zangitu (Olazar 1828), Makatzagara ezkondu zen Jose Antonio Gabiriarekin eta hiru seme-alaba izan zituzten: Maria Josefa, Maria Joaquina eta Prudencio. Josefa Antonia gazterik hil zen, ordea, eta Jose Antonio Gabiria bigarrenez Bernanda Legazpiarekin ezkondu zen.

* Jose Domingo Inurritegi Aztiria (Olazar 1813), Igeraldeazpiko Dominica Plazaolarekin ezkondu zen. Dominica gazterik hil zenez bi alaba besterik ez zituzten izan: Juana Mari eta Maria Josefa.

Juana Mari Inurritegi Plazaola (Olazar 1848), Zeraingo Jose Joaquin Inurritegi Goiarekin ezkondu eta bost seme-alaba izan zituzten: Maria Clara, Eusebia, Juana, Juan Jose eta Jose Mari.

- Maria Clara Igeraldeerrotara ezkondu zen, Marceliano Urmeneta Alzuetarekin.
- Eusebia Ormaiztegiara ezkondu zen, Salustiano Maritxalar mikeltearekin.
- Juana Kortagarakora ezkondu zen, Txomin Inurritegi Inzarekin.
- Juan Jose etxera ezkondu zen.
- Jose Mari Pasaiara ezkondu zen.

Maria Josefa Inurritegi Plazaola (Olazar 1849) Kortaazpikora ezkondu zen Agustin Legorburu Apaolazarekin.

* Juan Jose Inurritegi Inurritegi (Olazar 1885) geratu zen baserriaren buru Olaberriko Francisca Zabaleta Guridi emaztetzat hartuta. Hiru seme-alaba izan zituzten: Benita, Amparo eta Benito.

- Benita etxera ezkondu zen, Vicente Gibelalde Arangurenekin.
- Amparo Oñatira ezkondu zen, Antonio Dominguezekin.
- Benito Igeraldeerrotako osaba-izekoek hartu zuten «umelekuan», eta Zumarragako Oiangurenaundi baserriko *Manolita* Beristainekin ezkondu zen, errotara.

1952. urtean hustu zen etxebizitza hau.

* Eusebia Inurritegi Inurritegi (Olazar 1878), Manuela Guridi Campos (Olazar 1853) eta Josefa Etxeberria Jauregi (Eguzkitzagoikoa 1882) arrautzak saltzera joan ohi ziren **Oñatiko feriara**. Zapatuetan izaten zen eta oinez egiten zuten joan-etorria, bidezidorretatik barrena. Unibertsitatea zegoenez, estudiante piloa biltzen zen hara.

Gabiriatik ere joaten omen ziren neska koadrilak, sagarrak saltzera. Haiek ere oinez egiten zuten bidea, goizeko seiak aldera Motxorroko bidegurutzean biltzen zirelarik. Belaunetarainoko elurra bazen ere, han izango ziren sagarrak astoetan hartuta.

Ugaldetarrak

* XIX. mendearen erdialdera Pedro Ugalde Guridik (Antzuola 1815, Garrotxiki) eta Josefa Ignacia Etxeberria Gorospek Olazargo bizitza bat hartu zuten errentan. Hiru seme-alaba izan zituzten: Juan Ignacio, Cecilia eta Jose Francisco.

Juan Ignacio Ugalde Etxeberriak (Olazar 1843) segitu zuen baserriaren buru. Mirandaolako Manuela Ignacia Guridi Camposekin ezkondu, eta lau seme-alaba izan zituzten: Antonia, Josefa, Luciano eta Alejandro.

- Antonia Zizurkilgo Fraisorora joan zen moja.
- Josefa Aierdiko Francisco Iturbe mikeletearekin ezkondu zen
- Luciano etxean geratu zen.
- Alejandro, mikeletea, Donostiara joan zen.

* Luciano Ugalde Guridi (Olazar 1887) Mutiloako Lenkaraneko Catalina Alustiza Lekuona-ekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten: Maria, Juan eta Jose.

- Maria kalera ezkondu zen, Tomas Aseginolazarekin.
- Juan etxera, Justa Beain Arrizabalagarekin.
- Jose Pastainera ezkondu zen, Vicenta Ugarte Elkorobarrutiarekin.

Luxiano, gaztetan, Zeraingo meatzetan ibili zen lanean, alemanen «pintxe». Alemaniara delinearazaila karrera ikastera joateko gonbitea ere jaso omen zuen, baina amak utzi ez. Gero, Gracian Alberdi eta Tomas Inzaren harrobietan egin zuen lan.

Besteak beste, **satorrak harrapatzen** zituen, Igeraldegarakoan bizi zen Margarita Arrondo Enparanzari 10 zentimoren truke emateko. Bizirik harrapatu behar omen ziren, eta gero poliki hil larrua honda ez zedin. Gero, berokiak egiteko erabiltzen ziren. Diru harekin, *Luxianok*, *Argia* aldizkaria erosten zuen igandeetan.

Catalinak eta auzoko lagunek, berriz, sukaldean ardazketan jarduten omen zuten. Sukaldearen erdian beheko sua omen zegoen, eta haren bueltan jarrita. Gero, haria Oñati eta Mutiloara eramaten zuten makinetan ehuneko piezak egiteko. Izara osatzeko lau zati erabiltzen omen zituzten «algañean» josita.



Luciano Ugalde Guridi.



Catalina Alustiza Lekuona.



Zutik: Juan Ugalde Alustiza, Aniceta Gereñu Odria, Pilar Ugarte Elkorobarrutia, Victoriano Agirre Aztiria. Eserita: Basilia Gerra Laspiur eta Vicenta Ugarte Elkorobarrutia.

Zabaletatarrak

* XIX. mendearen erdialdean Juan Bautista Zabaleta (Olazar 1729) eta Maria Josefa Zangituk lau seme-alaba hazi zituzten Olazarren: Juan Bautista, Francisco, Jose eta Ramona.

Haietatik Juan Bautista Zabaleta Zangitu (Olazar 1757) geratu zen etxean, emaztetzat Juana Galfarsoro hartuz. Ezkontzako itunean (GPAH17, 1794) senar-emazte gazteek gurasoekin bizitzeko tratua sinatu zuten: "*Primeramente los dichos Juan Bautista Zabaleta y su muger y los espresados Bautista Zabaleta Zanguitu y Juana Galfarsoro su muger pactan que haian de vivir juntos en una casa y mesa y compañía en comun*". Agiri berean aita-semeak olagizonak zirela adierazten da.

Juana Galfarsoro, ordea, ezkondu eta urte gutxietara hil zen haur txiki bat utzita. Juan Bautista, bigarrenez, Mantxolaundiko Ana Maria Agirrerekin ezkondu zen 1798. urtean. Ohiko

arreoaz gain, garai hartarako dote polita eraman zuen Olazarrera, hala nola: hiru ontzako urrea, 100 dukat, bigantxa bat, bi ardi beren arkumeeekin, ahuntz bat, bi kutxa berri... (GPAH18). Bost seme-alaba izan zituzten arren, bi txikitan hil ziren.

- Jose Francisco etxera ezkondu zen.
- Catalina Ignacia Elorregira ezkondu zen, Jose Miguel Orueta Zabaletarekin.
- Juan Jose Garroaundira ezkondu zen, Tomasa Francisca Antonia Agirre Etxeberriarekin.

* Jose Francisco Zabaleta Agirre, beraz, geratu zen baserriaren buru, emaztetzat Elorregiko Josefa Antonia Orueta hartuz. «Trukaketa ezkontza» izan zen hau, Jose Franciscoren arreba, Catalina Ignacia, Elorregira ezkondu baitzen. Hiru seme-alaba izan zituzten: Maria Miguel, Josefa Ignacia eta Jose Mari.

- Maria Miguel Zabaleta Orueta (Olazar 1832) Korkostegira ezkondu zen, Juan Bautista Guridi Guridirekin.
- Jose Mari Zabaleta Orueta (Olazar 1837) etxera ezkondu zen, Korkostegiko Josefa Joaquina Guridi Guridirekin. Hau ere, aurreko belaunaldian bezala, «trukaketa ezkontza» izan zen.

Trukaketa ezkontzetan emaztegiak ez zuen eramaten dote eta arrearik ezkontzen zen etxera. Baina seme-alabarik izan gabe alarguntzea suertatuz gero, oinetxekoek dotea eta arrea eman behar zioten, eta alargunak etxetik irten. Trukaketa ezkontzak oinetxea ez zamaizteko egiten omen ziren eta, normalean, gurasoak moldatuak izaten omen ziren.

* Jose Mari Zabaleta Orueta itzaina zen ogibidez. Josefa Joaquina Guridirekin hiru seme-alaba izan zituen.

- *Don Luis* apaiz egin zen eta Urretxun denbora luzez egon zen arreba Maria Eugeniarekin.
- Maria Eugenia ezkongai geratu zen, bi dei egin ondoren doterik gabe geratu eta gero. Senargaiak “*ez zuela albardarik gabeko astorik behar*” adierazi omen zion.
- Hirugarrenak arozgintza ikasi zuen Olaberrin, eta aitak soldadutzatik libratzeko ordaindu ez zuelako bere buruaz beste egin zuen.

* Baserriaren aurrean segitzeko inor ez zegoenez, mende hasieran hustu egin zen Zabaletarren alderdia.

Gaztañarre harrobia

Ermentaria eta Olazar baserrien artean dagoen harrobi hau garai desberdinetan ustiatu izan da. Hasiera batean, bideak konpontzeko harria behar zutenean jotzen zuten bertara.

Oñatiko Javier Zelaiak ustiatu izan zuen, berarekin langile oñatiarrak enplegatuz, hala nola, *Eztena*, *Maleta*... San Ignacio auzoko etxeak egiteko harria atera zuten, besteak beste.

Urte batzuetan geldi egon ondoren Araozko Pedro Zubia eta Manuel Goitia, bazkide egirik, harea egiten hasi ziren «matxaka» jarrita. 1940ko hamarkada zen. Honako langileak izan zituzten, besteak beste: aroztarrak, Bernardo Segurajauregi, *Bartolo* eta *Lontxo* anaiak, Jose Mari Madinabeitia, Juan eta Jose Altube -*Joxetxiki*- anaiak; brinkolarrak, Eguzkitzabeko Valentin Etxeberria, Barrundiolako Eugenio Agirre, Agirrezabalgo Tiburcio Beain, Olazargo Luciano Ugalde... Kamioiarekin «harri-karrean», berriz, Peña eta Aztiria ibili ziren.

16. OLAZAR BURDINOLA

Olazar baserriaren historia ezin da ondoan duen burdinolarik gabe ulertu, elkarrekin lotuta baitoaz Erdi Arotik mende honen hasierara arte. Baserriaren izena, gainera, burdinolak ematen dio: *ola* + *zahar*, alegia. Baliteke aldiberean eraikiak izatea, bata bestearen osagarri. Oraindik ere, «aposentue» deitzen diote Olazar etxean dagoen gela handi bati (bi pisukoa garai batean), eta ahoz aho heldu zaienez olagizonak egoten omen ziren bertan.

Burdinola Urolaren ur-gurutze batean eraiki zuten, ez kasualitatez, bi erreketatik zetorren ura aprobetxatzearen baizik.

XV. mendean, eta hiru belaunalditan gutxienez, Gabiriako *Gabiria* etxeko Agirretarrak izan ziren burdinolaren jabe (Martin 1994). XVI. mendearen hasieran, ordea, Oñatiko Lazarraga leinu aberatsaren eskuetara pasa zen, eta haien mende egon da XX. mendera arte.



Olazar burdinolaren aztarnak (JLU 1996).

Lazarragarrek «maiorazkoa» sortu zuten hasieratik Olazar eta berarekin lotutako alda-paro, uharka, baso eta abarrekin. Modu horretan, Antzinako Erregimenak iraun zuen bitartean saldu ezineko ondasuna bilakatu zen.

Burdina egin eta landu zen XIX. mendearen erdialdera arte. Karlistaden garaian, XIX. mendearen bigarren erdian, Kataberatik ekarritako mearekin berun-barrak egiteko erabili zen. XIX. mendearen bukaeran, aldiz, zerra eta aroztegia jarri ziren, eta mende honen hasieran, ikaztegia.

Zerra eta aroztegia Jose Antonio Etxeberria Apaolazak (Elorregi 1831) jarri zituen, burdinolaren instalakuntzak aprobetxatuz. Gero, Juan Inurritegi Plazaolak (Igeraldeazpikoa 1861) segitu zuen, harik eta 1908. urtean Ubitarterrotan beste bat jarri zuen arte. Ondoren, 36ko gerratera arte, ikaztegi gisa erabili zuen, kaleko Zacarias Alustiza lagun zuelarik.

Fundición de plomo en Olazar

Beatriz Herreras Moratinos - Josune Zaldúa Goena

Durante la última Guerra Carlista la actividad industrial, o protoindustrial, de Legazpi se vio afectada por el conflicto bélico, y las diferentes instalaciones fabriles tuvieron que adaptarse a la nueva situación, reorientando su actividad a las necesidades que surgieron en esa coyuntura. Este es el caso de la ferrería de Olazar.

Efectivamente, y según se ha podido constatar documentalmente¹, las tropas carlistas, entre 1874 y 1875, se dedicaron a la extracción del mineral de plomo en el coto de Katabera y su fundición en la ferrería de Olazar para, una vez convertido en barras, transportarlo a Azpeitia.

Todo el mineral extraído en Katabera era conducido a la ferrería de Olazar. Allí, era limpiado, calcinado, y luego fundido para elaborar unas barras de plomo que posteriormente eran transformados en material de guerra, fundamentalmente en la Maestranza de Azpeitia.

A tal efecto, la ferrería hubo de ser remodelada y se construyeron una serie de instalaciones bajo la dirección del arquitecto Don Pedro Alejandrino de Recondo y la colaboración de integrantes de la Compañía de Ingenieros de la Diputación de Gipuzkoa. Concretamente, el Señor Recondo solicitó en setiembre de 1874 que le enviaran "(...) canteros y fundidores: José María Alustiza, Blas Alustiza, Ignacio María Arrondo, y Juan Mari Arrondo, de la Compañía de Ingenieros para construir el horno de fundición de sulfuro de plomo (...)".

Sin embargo, el citado Señor Recondo modificó su proyecto inicial, y debido "(...) al mucho trabajo que requiere la fundición en hornos a la catalana y a su poca duración y a su poco producto para llenar las necesidades de hoy en día, a las dificultades de proporcionar leña corriente, seca, me he resuelto a proyectar un pequeño horno alto cuyo corte será idéntico al de un horno a la catalana puesto que se aprovechará el soplo de la ferrería de Olazarra (...), que requiere para combustible carbón (...) muy abundante en esta ferrería (...)".

Para conocer exactamente las instalaciones que se llegaron a construir en Olazar es muy interesante la carta que remite el Señor Recondo a la Diputación de Azpeitia el 21 de diciembre de 1874, en la que se indica que "(...) se ha agotado toda la existencia de leña de la ferrería y siendo imposible la calcinación del mineral sin dicho artículo, operación necesaria para poder

1. Archivo General de Gipuzkoa: JD.IT.21 (1874-1875). Este legajo ha constituido la base para la investigación de esta etapa histórica de la ferrería de Olazar.

fundirlo en el horno alto” y más adelante añade *“siendo muy pocos los operarios que tengo para atender a los dos hornos de calcinación y alto, preparar la leña, limpiar el mineral (...)”*.

Por lo tanto, en la ferrería de Olazar los carlistas contaban con dos hornos, uno de calcinación y otro alto. En la documentación (carta del 18 de febrero de 1875) se habla de la construcción de otro horno más, pero no se sabe si se llegó a levantar.

Para la fundición del mineral de plomo se empleaban moldes de la fábrica «fuida» de San Luis de Zerain, y también se aprovecharon tubos de hojalata almacenados en la misma fábrica, cuando surgieron problemas de ventilación en la ferrería.

La única cita sobre el número de operarios de la ferrería durante esta época aparece en el informe del 4 de enero de 1875. En él, además, se especifica el sueldo que obtenía cada uno de ellos. Así, sabemos que en Olazar el señor Recondo contaba con cuatro ingenieros, nueve voluntarios de escolta y un asistente personal. Los sueldos que cobraban eran de ración y media para los ingenieros, una ración para los voluntarios, dos para el propio Señor Recondo y una para el asistente.

Las condiciones de trabajo debieron de ser muy duras. Las peticiones de más operarios, de números por parte del Director a la Diputación son numerosas; asimismo, las solicitudes de calzado bien alpargatas, *“(...) tengo a los chicos descalzos y que me hiciera el favor de mandar diez pares de alpargatas (...)”*, o bien calzado regular, e incluso capotes y pantalones *“(...) pues no tienen ningún abrigo (...)”* son habituales en la correspondencia que se mantenía con los mandos del ejército carlista desde Telleriarte.

Además, el ritmo de trabajo impuesto desde Azpeitia era muy fuerte. Las órdenes que llegan desde Diputación a la ferrería muchas veces indican la urgencia y la presión con las que se estaba trabajando. Constantemente se les ordena que se trabaje de día y de noche debido a que en la cartuchería apenas queda plomo y *“(...) se espera acción (...)”*.

Este ritmo imponía un gran consumo de mineral de Katabera, de leña y carbón vegetal por lo que surgieron numerosos problemas. Así, al acabar con las existencias de carbón y leña de la ferrería, los carlistas intentaron apropiarse de los suministros existentes en la villa de Legazpi organizando auzolanos, o en bagajería e incluso ordenando talar los árboles de los liberales, como indica la orden dictada en diciembre de 1874. *“(...) a poder ser corte la leña que necesite de las propiedades de aquellos liberales cuyas rentas estén retenidas o que en otro caso deban cantidades a esta Diputación (...)”*. En el caso de carbón vegetal, se adquirió a particulares y a empresas como a *Goitia* y *Cía* de Beasain que contaba con un depósito de carbón vegetal en Legazpi.

Todo ello, suponía una gran carga para el Ayuntamiento y el pueblo de Legazpi, que en la persona de su alcalde Pedro de Aseginolaza se quejó repetidas veces a la Diputación carlista *“(...) de tanto sacrificio, como va llevando este vecindario en bagajería, peonadas, auzolanos, con motivo de la mina, fundición y cartuchería (...)”*. Así, las relaciones con la Diputación se fueron haciendo cada vez más tirantes y ésta llega a notificar a la alcaldía *“(...) que va siendo muy marcada la aversión que a la causa carlista manifiestan muchos de los vecinos de esta villa (...)”*.

En resumen, hay que subrayar que aunque de una manera coyuntural, la ferrería de Olazar jugó un papel de cierta importancia dentro de la última Guerra Carlista en la organización y abastecimiento de las necesidades bélicas de la Diputación Carlista entre 1874 y 1875.

Además, la reutilización que de sus instalaciones se realiza en ese momento concreto es un ejemplo más de la reconversión que a finales del siglo XIX se va a generalizar en todo el sector de las ferrerías anunciando ya nuevos esquemas socioeconómicos, que se desarrollarán, precisamente, a partir de la última Guerra Carlista.

17. ZUBITXOETA

* Mende honetan dagoeneko bizilagunik izan ez badu ere, XIX. mendean gutxienez izan zituen. 1857ko erroldan (LUA14) ikus daitekeenez Miguel Agirre Raizabal (Igeraldegarakoa 1797) eta Maria Cruz Plazaola Guridi (Igeraldeazpikoa 1806) senar-emazteak bizi ziren Jose Mari semearekin batera. Errentan izango zuten etxea, beste 1839ko agiri batean Antonio Telleria Muntegikoa azaltzen baita haren jabe. Agiri horretan *Gaztañamakurra* aipatzen da, ez Zubitxoeta.

Gaur egunera arte iritsi diren ahozko testigantza batzuen arabera Zubitxoetatik goraxea-go, Gaztañamakurra izeneko parajeen (egun, urtegiak estalia), errota bateko aldaparao zegoen. Inguruan errotarri bat aurkitu izanak ere esakizun horiek indartzen ditu. Ondorioz, pentsa liteke Zubitxoeta errota ere izan zitekeela noizbait.

* Mende honetan, urtegia egiteko eraitsi arte, lehorpe modura erabili izan zuten Muntegi-koek.



Aitzondoko basoa (JLU 1995).

Aitzondoko basoan

Basoaren ustiatzea garrantzitsua izan da Legazpin ekonomia eta industria sustatzeko azken mendeetan. Burdinolek, horrela, inguruko baso ugarietara zor zieten, hein batean, beren ospe eta iraupena, handik lortzen baitzuten horren beharrezkoa zuten erregaia. Halaber, XIX. mendean eraikitako *Papelera*-k eta XX.aren hasierako erreminta-lantegiak ere basora jo izan zuten erregai edo lehengai bila.

Hala, mende honetako 30 eta 40ko hamarkadan, artean ere, basogintzak sekulako indarra zuen gure mendietan. Izan ere, gerra osteko urte latz haietan «petrolio» eskatu egin zen eta, antzinako erara, mendira jo zuten industriak erregai bila (*Esteban Orbeago*z lantegiak kasu). Aitzondo edo Aizkorondoko basoetan izugarritzko giza pila ibili zen, Brinkolari bizi handia emanez¹.

«Koadrillatan» egiten zuten lan, bostetik hamabira bitarteko lagunez osatutakoak, gutxi gora-behera. Herri askotakoak ibili ziren: Ataundarrak, *Ataungo hartza* kaporalaren langileak; Ezkurrakoak, *Makillas* tartean zela; Erasungoak; Aresokoak; Amezkoakoak; Legazpikoak; oñatiarrak, *Lekaixo* eta beste; Eibarkoak... Batzuk ikazkinak ziren, beste batzuk mandazainak, itzainak eta abar.

Ergoenako ikazkinak. 1945-6 inguruan Legazpiko Ergoenako ikazkin-talde bat ibili zen Esteban Orbeagozrentzat lanean, ondoko lagunez osaturikoa: Valentin Andueza (Goizueta, Gibelola), «egoslea» edo «maisua»; Antonio Mari Zabaleta Kerejeta (Brinkolazar 1909); Juan Luis Zangitu Arsuaga (Gibelola 1909); Alejandro Ibañez (Goizueta, Arabaolatza); Jose Gaztañaga Zangitu (Egizear 1905); Constantino Langarika Mantxola (Mantxolaundi 1927, Ermentaria); Ceferino Agirre Telleria (Barrundiola 1929), «pintxea»; eta Juan Odria Etxeberria (Elorregi 1929), «pintxea», *Xepeño*-ren ondoren etorria.

Udaldian ikatza egiten zuten eta urriaren bukaera aldera zuhaitziak bota edo bakantzen hasten ziren: pinudiak, pagadiak, hariztiak... Goizean, eguna zabaldutakoan hasi eta ilundu arte. Ez zuten «jornalean» lan egiten, «alde» bat hartzen zuten normalean.

Hilabeteak pasatzen zituzten mendian, etxera hamabostean behin jaitsiz, erropak aldatzera, etxeokak bisitatzera, janaria ekartzera (gazta, baba...)... *“Txondarra marxan asitakoa gutxigo ordun, bertan eon bear, gauen askotan jáikitá ibilli bear txondarrai kaso itten. Aizea bazeon alare...”*

Lau-bost «txondar» egosten zituzten batera. Dena den, zein tamainatakoak ziren aldea egoten zen, berrogei, berrogeita hamar, hirurogei... kargakoak (karga bat bi zaku).

Ikatza egindakoan mandazainek zakuak beherago zegoen «kablara» jaisten zituzten. «Buelta» kable bat zen, Brinkolazarrekit Txifategietara zihoana. 1944. urtean jarri zuten. Goian galga zeukan eta behean bolantea buelta egiteko. *“Andik bialtzen zittuen trastôk... frénue soltau ta aide etortzen tzan goiti beera, oseake, gainbeera aundígoa nola zeuken betigo-rea baño goiti beerako kargak beeti gorako utsek eamaten zittun”*.

Tabloiak. Basomutilen beste lanetako bat «tabloiak», trabesak eta beste egitea zen. Horretarako trongoa «tranpal» edo «asto» handi batean jarri eta hiru lagun aritzen ziren tron-tzan, goian bat eta azpian bi. «Asientoa» zuten lekuak nahi izaten ziren horretarako. Brinkolazar baserriaren aurrean, Altzolako zabalean eta beste hainbat lekutan ibili ziren horrela.

1. Artikulu hau osatzeko Constanino Langarika Mantxolaren ahozko testigantza baliotsua izan dugu.

Mandazainak. Besteak beste, Hermenegildo Larrea, Maximiano Amezkoana, Aizarnazabalgo Tomas eta Joaquín Uzkudun. Udanan eta Brinkolazarren egoten ziren. Kirtenak garraiatzen zituzten. Bakoitzak sei-zazpi bat mando erabiliz.

Jana. Elikagaiak ez ziren nahi bezain bariatuak; bai, ordea, indar-lanetarako aproposak: baba gosaltzeko, baba bazkaltzeko eta baba afaltzeko. *“Kutxárekin danak kazuela batetik, jakiñé. Kutxárekiñ, ola kolpe in da iru baba ale artzen bazittuzen aoa orduko bat eroitzen tzan, etzien kabitzen iru ale ta”.*

Dena den, noizbehinka, gertatzen ziren salbuespenak.

* *“Eun baten eurie ai zan, kriston eurik ai zien da bazkalondo baten txábolan geunden, láneako giroik etzeon, egur-txikitzen ai giñen garaie zan ta etorri zikun Zegamako aitona bat, beie karobi zuloa eroi ta lepoa autsi ziola, ta ermendadeik etzaukela, ta karnizerok burla eskeintea ein tziola, ta ikazkiñ asko nola genden ba, nai bagendun gure arten partittuko zola. Da lantei dánetan pasau zon, jóño, jungo giñela ba. Da Balentiñ ori jun tzan gure koadrillatik, jun tzan da illuntzan ura etortzeako babea janda, geienok kamañan etzanda genden. Alako baten allau zan, txakurre zaunkaka, ta amen izangoek Balentiñ da. Ta, ala, etxaolako aten, ate kokkor bat, ra, zákue bota zon, «kaguen dio, ni añen eongo zatuek», esan tziun, an eurie goien bean zeon da, ekarri zittun ogeitabeatzi kilo aragi bizkarren Zeamatik, txuletak eta, filetek eta, denetik, bei-aragie. Aragi luze aiek buetrak baño obetogo aittu gendun guk. Danok burun zutik. Castañasek esantzion Elorreiko Joanitoi, ua pintxe ta: «Mutikoa, jaiki, jarri zartaiñe seittun». Jarlekutako, sillátako eoten zian olako arbolak, lodiera ontakok, zérrekin ebai ta, ipurtaulkik o... Da, aitako baten aizkórea artu ta arágie txikitu, iru ankako zartaiñ aundi bat bagenduken an, da kriston aragi-jana eiñ, da átzea kamaña. Bigarren egunen oeitabeatzi kilo aragi oitatik gramo bat e etzeon an”.*



Tomas Zabaleta Larrea eta Joaquín Uzkudun Mujika, mandazaina.

* "Besta baten, Alejandro zanak eta aizko apuestoa jokau zuen Anduezak, an bertan. Ez aizko-apuestoa itteatio. Beti ai zien i baño geio nauk ni aizkoran, izaten die mendin olako zeak eta. Jokau ingo diat Castañasek eta. Preparau gendiun biña egur ebaitzeko kanaerdi ingurukok, da arkúmea jokau zuen. Elorreiko Xegundo zanai, Joanito an zebillen da, enkar-gauta arkúmea, eaman dio amalau kiloko arkúmea, otordu baten límpio, zartañen erre ta jan".

* "Jan ordún, beste baten, ardie eaman ziun Xegundok. Illuntzan e, emen Antxerdin ibiltzen zan ura asko, txakurrek artu dio aurretik eta amildu ta itto da. Narrutu da eaman do etxea, beor ots bat ebaltzen zon aek, eaman do etxea ta esan die: «Ola ta ola txakurrek ardie itto it eta, emen dakarret eta», «Ene, guk ezteu beintzat ittotako ardik jango ta eztakit zer da», «Gue ikázkiñek baleukie...». Sémea, orrátio, an mutikoa, amalau urteko mutíkoa ta. «Gue ikázkiñek baleukie ta», buelta in da, artu beorren da, jun tzikun, bere beorrekin. Urrungo egunen límpio ardie e... Ez gixáuta ta ola, zartañen beotu bat emanda. Bueno...".

* "Guk bentajaik onena ogikin euki gendun, Orbégozok iriñe ematen ziun da, Juliana Kerejetak (Brinkolazar) ogie itten ziun, kable ortan bialtzen ziun ogie, ogie jaten gendun. Beste danak talokiñ. Ordu erdi bat talo itten batek bear gutxienez koadrillakok, da alare nai-koa ez".

* "Egur-txikitzen ai giñela, baño etxabola zai baten batek geau bear izaten zon. Jai goize etorri ta geatu in ber da. Gibólako Juanito zanai ta bioi tokau zikun. Geau ga etxábola zai, jaien ba jai bakizu, aizkoran bat zorroztu eo zerbait itten da, o ittúkiñek kentzen etxábolai eurie itten zoneako. Da bazkalondon esan tzian Joanito orrek, ua jaten mixkiñ xamarra zan ba, «Kaguen, Argindeiña jun da esnea ekarri bear diau afaltzeko, da esne-zopak jango ittau». Andí Argindei txábola bela juten tzan, Txiflateitatik aurea. Jun ga atsalden, da ardi-jaixten ai zan. Esan diou esnea emáteko, eaman deu gáñea ontzin bat, marmitten bat guk gendukena emango gendun, litro-pare bat esne bear giñútzela. Da «ezetz» etziula emango, «Kaguen, ola ta ola etxaolan gare ta esne-zopak játea okurrittu zaku». «Ba, gaztaia alperri-galdu bear diaue zuei esnea eman bear baizuet, ta ez nijoa ematea». Eman ez, átzea buelta ta belarrik makurtuta etxábolá, barátzui-zópea eo eztaik ze ingendun. Ura re gure moun bizi zan e, arek babea re etzon naikoa euko, zatío ipurtalkin gañen talo-erdi bat zeuken zai ta guzi, talo-erdi bat, elkor-elkorra, bean muturre bezelakotxe bat. Geu biden esaten aittu giñen, igurdi erdie jango zola ta afaltzeko euko zola beste erdie".

Ostatua. Uda mendian pasatzen zuten, Txiflategieta parajeon, bertan lo eginez. Ez zegoen han ez hotel ez fondarik, eta lo egiteko behin-behineko etxola batzuk eraiki behar izaten zituzten, teilaturako Orbegozok emandako breatutako papera erabiliz. "Olaxe ibilitako gaa ta igualdi onakiñ ondo baño igualdi txarra itten tzonen, gauen goardásolá zabalduá eonda nao ni potórtutá kamáñan".

Indar-lana. Zuhaitzak aizkoraz eta trontzaz botatzen ziren, ez baitzegoen motozerrarik artean. "Ezkurrako bati «Makillas» esaten tzien ta egur-txikitzen ai ziela, mutil batek belautzen sartu, ebagie eiñ. Aixkol-ebagik asko iltzen zittun. Arten txondarrak sutan asi baik zeren, ta arten mandazaik etzeillen, eta bearek artu bizkarren an, Altzolako egin goien eta Brinkolazarreaño ekarri zon bizkarren ankalatraba, larogei kiloko mutille, ekarri ein bear da e. Da Brinkolazarren beor kanela ura zeon ordun, beorren artu ta Patxiñaa".

Julianaren taberna. "Ordun, ikazkintza ona euki zon urteetan Brinkolazargo Juliana zanak ta Joxemari tabernak. Mandazaiek Joxemaiñen eo Brinkolazarren lo itten tzuen. Brinkolazarren taberna lege bat euki zon Juliana Kerejetak. Mandazaiek, ikazkiñek... pasadizon, gorakon da berakon, tragon bat eo botillan bat ardo o mokaun bat in be sékula ez".

Patxineko ospitala. *“Pátxiñen klínika eon tzan, Don Quintin zana etortze zan átsaldetan orrá kurak eitteá. Baño, zortzi-amar bat erittu beti kontinuo eoten tzien or. Aizkora ebagie eur-txikítzeko garaien peligrósoa izaten da, ebagi asko itten da, neuri etzat tokau aixkorakin ebaitzeik ola”.*



1917an Igeraldeko Eltzikortasoro sailean *Ikaztegia* eraiki zuen Araiako *Ajuria y Cia.* enpresak, Aizkorrontotik eraitsitako egur-ikatza gordetzeko (JLU 1994).

18. BARRUNDIOLA

* Baserri honen sorrera burdinola izateari zor zaio seguruenik, izenaren bukaerak adierazten duen bezala: *-ola*. Ez dirudi, hala, ere burdinolaren «turtukoiek» urte askotan lan egin zutenik, XVI. menderako jadanik itxita zegoela adierazten baita agiri batean: *“...adjudicamos a los dichos dona Catalina de elorregui... duenos e señores de la casa e caseria de barrundiola... y en nombre dela dicha caseria e ferreria de barrundiola que en ella solia aver”* (LUA3 1533).

XVI. mendean Elorregi-Lazarragarren leinua jabetu zen etxe eta etxaldearekin, eta ia oraintsu arte haien eskuetan egon da.

* 1816. urtean sute batek etxea erabat kiskali zuen, baina Plaza jabeak (Elorregi-Lazarragarren ondorengoak) berehala berreraiki zuen.

* XIX. mendeaz gerotik bi bizitza izan dira teiltupe berean: batean Telleria, Urzelai-Etxeberria, Etxeberria-Urzelai, Etxeberria-Zaldua eta Etxeberria-Zubia familiak; eta bestean



Barrendiola baserria berritu aurretik.

Zangitu-Jauregi, Zangitu-Zabaleta, Agirre-Etxeberria, Agirre-Zangitu, Agirre-Telleria eta Gereñu-Agirre familiak. Bi etxeetarako sarrera bera izan dute urte askoan, mandiorakoa ere bera eta bi etxetako ikuiluak, berriz, simaur pila batek mugatzen zituen.

Etxeberriatarrak

* Miguela Urzelai Etxeberria (Barrundiola 1842) Eguzkitzagoiko Jose Francisco Etxeberria Telleriarekin ezkondu zen etxera. Jose Francisco, kontaktzen dutenez, ez omen zen andreak engainatuta ezkondu, Barrundiolako zelaiek engainatuta baizik: *“Ezkondu zanen Barrendiola etorri zan. Neskek engañauta ez emen tzan etorri, zelaiaik. Oin pântanoa daoneko (artan) zelai ear bat zian ba, ta arexek engañauta. Indarren arrastoik ez, ura laiotza, ta Euzkitzako bedarrak indar geiao. Neskek engañauta ez nitzean etorri, zelaiek engañauta, ta engañau nindon earki, kauen”* (EEZ 1996).

Jose Francisco, bere anaia Jose Domingo bezala, artzaina zen ezkon aurretik, eta ezkondu ondoren artaldeari eutsi nahian «egileorra» eraiki zuen Antxerdi izeneko parajeon: *“uda parten Biazkónan ibiltzen zan, ta ezkondu zanen Antxerdi ein zon eillorra”* (EEZ 1996).

Miguela eta Jose Franciscok bi seme-alaba izan zituzten gutxienez: Josefa eta Simon.

- Josefa Urretxuko Etxaburu baserrira ezkondu zen, Juan Francisco Areizaga Soraluzerekin.
- Simon etxera ezkondu zen.

* Simon Etxeberria Urzelai (Barrundiola 1874) etxean segitu zuen, Zumarragako Aitzaga baserriko Eugenia Zaldúa Iburguren emaztetzat hartuz. Lau seme-alaba izan zituzten: Maria, Eusebio, Jose eta Leon.

- Maria moja joan zen.
- Eusebio kalera ezkondu zen, Oñatiko Gorordo baserriko Ceferina Kortaberriarekin.
- Jose Andres etxera ezkondu zen, Araozko Loperenako Francisca Zubiarekin. Bost seme-alaba izan zituzten: Josefa, Jose Mari, Ignacio, Maria Angeles eta Milagros. 1960ko hamarkadan alde egin zuten kalera.
- Leon jaio berritan hil zen, amarekin batera.

* Mende hasierako bizimodutik gaur egunekora gauzak asko aldatu direla begi-bistakoa da. Eusebio Etxeberriak (1907-1996), horrela, erdi-barrez kontaktzen zituen, bere gaztetako ibilerak:

1. *“Santalutzi biarrena, erromeri eune. Emezortzi urte baneuzken. Aitte zanai esanion: – Gaur Santalutzi fiestea ta... – A bai, badao prémie, aizkora bat ekarri bear dek - Poltsikun aizkora diala...(ibili behar egun guztian)”*.
2. *“Bergarako erramu zapatu. – No, erramu zapatu Bergaran, jun bearra daok, erramolatxa azie ekarri bear dek.- (esan zidan aitak). Olaxe. Ordun e, ezin nai bezain arin ibili”*.
3. Mendi-ibilaldi bat ere gogoan zuen: *“Brinkolatik irten, Uerkaldeko Luxiano, besteik etxekiat zein izango zan, da Urbira. Urbitik Aizkorriko Kurutzaa, andik Santi Spirittua. Ta Santi Spirittun ur near bat bazian, irrist ein diat eta eskuiturre biurritu. Andik Batzokin txokolatea artu, eta Zeraiñea neska launtzea”*.

4. "Aittejaune zana artzaie, aitte zana re bai, guren beti izaten tzien irurogein bat ardi, arie itten erak itten zuen da, nik kaltza itten, antxe ikixi. Etxe-ardikin, irurogi ardikin artzai ibili nitzen".



Luciano Balerdi larza, Eusebio Etxeberria Zaldua, Valentina Etxeberria eta Seberi Arriaran Igartua, 1933. urtean.

Agirretarrak

* XIX. mendearen bigarren erdian, Jose Mari Agirre Aranburu (Ermentaria 1829) Barrundiolako Maria Josefa Zangitu Zabaletarekin ezkondu zen, baina alargundu eta, bigarenez, Eguzkitzagoiko Tomasa Antonia Etxeberria Inurritegirekin uztartu zen.

Jose Andres Agirre Etxeberriak (Barrundiola 1871) segitu zuen baserriaren buru, emaztetzat Gibelolagarako Francisca Zangitu Legorburu hartuta. Bost seme-alaba izan zituzten: Ignacia, Andres, Jacinta, Dionisio eta Victoriano (*tio Pottolo*).

- Ignacia, ezkongai, Olazargo Don Luis Zabaleta Guridi abadearen neska izan zen, Urretxun.
- Andres etxera ezkondu zen.
- Jacinta Zumarragara ezkondu zen, Pedro Lizarazurekin.
- Dionisio Urretxura ezkondu zen.
- Victoriano ezkongai geratu zen. Karrilero eta «guardafreno» izan zen.

* Andres Agirre Zangitu (Barrundiola 1899) Zeraingo Legorburuko Maria Telleriarekin ezkondu zen, mundura bederatziz seme-alaba ekarriz: Juana, Ceferino, Eugenio, Jose, Pilar, Victor, Carmen, Jesusa eta Teresa.

Andres arrantzaile amorratua zen. Jaietan, goizeko zazpietako meza entzun eta, base-
rrian lanik ez bazen, **errekara** joaten zen amuarrainak harrapatzera. Behin batean, arrantzara-
ko sarea erostea pentsatu eta kaleko *Ixidrane*a-n sartu zen, baina mikeloteak ikusi omen
zuen. Hala ere, ez omen zen asko ikaratu: "*Kostako zak hire eskutan eroitzea*", esan omen
zion horri buruz ari ziren batean, eta halaxe izan, alajaina. Aingirak ere harrapatzen zituen.



Atzeko ilaran: Victor Agirre Telleria, Pilar Inurritegi Arrizabalaga, Eugenio Agirre Telleria, Carmen Ormazabal Telleria. Hirugarren ilaran: Ceferino Maritxalar, Jose Agirre Telleria, Maritxu Uzkudun, Josefa Etxeberria, Luisa Etxeberria, Pilar Agirre, Mari Tere Madinabeitia, Elorregikoa?, Ceferino Agirre Telleria. Bigarren ilaran: Juanita Agirre Telleria, Jesusa Telleria Telleria, Jose Ignacio Telleria, Maria Telleria, Ignacia Agirre Zangitu, Andres Agirre Zangitu, Jacinta Agirre Zangitu. Pikotxean: Lupe Alzelai Guridi, Jesusa Agirre Telleria, Teresa Agirre Telleria, Jesus Mari Maritxalar, Carmen Agirre Telleria.

Errenteroen betebeharrak

Agirreburualde, Igeraldegarakoa, Garrotxonea, Garroetxeberri, Kortaazpikoa, Errautegi... baserrien jabeek belaunaldiz belaunaldi segitu badute ere, gainerantzekoek hainbat familiaren joan-etorria ezagutu dute historian zehar.

Hala, Brinkolazar, Gibelolagarakoa, Barrundiola, Eguzkitzagoikoa, Olazar, Garrotxiki, Garroaundi, Uarkalde, Bergaretxe eta Ariztibekoa dira, besteak beste, bertatik pasatako hainbat familiaren lekuko.

1832. urtean Brinkola auzoko baserrien %70,9 errentan zeuden: 31 etxe edo baserrieta-tik 22, hain zuzen. Kontuan izan behar dugu hainbat baserri eta etxe, artean, eraiki gabe zegoela (Aierdi biak, Arabaolatzaneko tren-kaxeta, Errotaburu, Turbina, Eguzkitzabekoa, Abadetxea, Tren-geltokia, Joanmarinea, Patxinea, Josemarinea, Alberdietxea eta Ariztigoikoa) eta beste bi baserri hutsik edo erorita (Ziordi eta Loitzaeta).

ERRENTAN ZEUDEN BASERRIAK	JABEA
Brinkolazar	Joaquin de Plaza
Gibelolagarakoa	Joaquin de Plaza
Gibelolazpikoa	Joaquin de Plaza
Joiategi (Olazarren alderdi bat)	Joaquin de Plaza
Olazar	Joaquin de Plaza
Barrundiola	Joaquin de Plaza
Igeraldeerrota	Joaquin de Plaza
Etxeaundi	Agustin de Guridi
Ugalde	Agustin de Guridi
Arabaolatza	Andres Porcell
Uarkalde	Andres Porcell
Ariztibekoa	Luciano Porcell
Kortagarakoa	Luciano Porcell
Zubiaur	Miguel Antonio de Oria
Ermentaria	Jose Maria de Azkarraga
Zubitxoeta	Antonio de Telleria
Eguzkitzagoikoa	Julian de Telleria
Igeraldeazpikoa	Jose Francisco de Ugarte
Garrotxiki	Isidoro de Urmeneta
Garroaundi	Juan Antonio de Lardizabal
Agirrezabal	Diego de Lesarri

Ondasunen gobernua, administratzaileen eskuetan zuten jarria jabe handienek. Hala, Oñatiko «palazianoa»-ren esanetara Jose Miguel Lazkanoiturburu *Juanpo* eta Juan Gordoa aritu ziren zeregin horretan mende honetan.

Usadio zaharrari jarraituz, baserria uzten zuenak San Martin edo San Migel egunerako egon behar zuen alde egina, maizter berriak urte hartako garia ereiteko aukera izan zezan. Gogor lan egingo zuten bizimodua aurrera atera ahal izateko. Zortea, berriz, ez zuten beti alde izaten. Izan ere, urteko uzta ona ala kaskarra izan, Gabonak aldera errentaren ordainke-ta egin behar izaten zuten.

Errentaren ordainketa

XVII. mendearen bukaeran Muntegi baserriko jabe ziren Antonia eta Maria Elorzak bederatzirterako eman ziren errentan baserria Miguel de Gerra eta Maria de Bikuñari, ordainez honako hau eskatu zielarik: *“... an de ser obligados a darnos en cada un año de los nueve de este arrendamiento a ambas veinte y cinco reales de Vellon en dinero y dos capones por mitad tanto a la una como a la otra entregados los veinte y cinco reales de Vellon por San Miguel y los capones por la Pascua de Navidad de cada año puestos y entregados en nuestras cassas sin otro plaço ni termino alguno pena de execucion y costas de la cobranza con advertencia que los veinte y tres de dho son para la renta de la dha Mintegui y sus pertenecidos y los dos ducados restantes por las ganancias que nos pudieran tocar cada año en util aprovechamiento del ganado o de las ovejas y cabras que se declararan de yusso que las an de tener en la dha Caseria durante este arrendamiento con obligacion de entregar el pie o capital enteramente como se acostumbra”* (GPAH23). Bederatzi urteak «agorreko» San Migeletan hasten ziren kontatzen.

XVIII. mendearen bukaeran, Igeraldeazpiko jabe eta bizilagunak Ziordi etxearen errentarengatik 7 dukat eta Gabonetan kapoi bat jasotzen zuen urtero. Horrez gain, errenteroak hitzarmenean finkatu epean bi lur-sail «ondeatu» eta soro bilakatu behar zituen. *“Y es condicion de que dicho Ydigoras haia ondear asu costa y reducir a tierra labrada y corriente dos porciones de terreno que se le estan señalados”* (GPAH13).

XIX. mendean San Millan-go markesak garia, dirua eta hegaztiak jasotzen zituen urte amaieran Uarkaldeko errentarengatik, ondoko agirian ikus daitekeen bezala: *“Como encargado de D. José María de Furundarena, administrador de los bienes del Ex(celentisi)mo Señor Conde de la Cañada alta, he recibido de José Domingo de Echeverría, colono de la casería de Ugarcalde en Legazpia ciento treinta y dos reales v(elló)n, por el importe de las dos fanegas de trigo a cuarenta y seis por fanega, y venta en dinero, y además diez y seis por el importe de las aves, correspondientes al corriente año. Legazpia Noviembre veinte y cuatro de mil ochocientos setenta y tres. Ignacio Ant(oni)o de Zabaleta”* (EE6 1873).

XX. mendearen hasieran, Oñatiko «palazianoa»-ri hiru modutara ordaintzen zitzaion errenta:

- Abuztuan, hegaztiak (oilo eta oilaskoak) eta arrautzak. Gibelolako errenteroek bi oilo, hiru pare oilasko eta hiru dozena arrautza ordaintzen zituzten.
- Abenduan, gari eta artoa (azken aldera dirua).
- Gabonetan: **kapoiak** eta arkumea. Barrundiakoek kapoi pare bat eta arkume bat.
- Basoetan lan eginez. «Sastrapak» garbitzen, pinu sartzan, soiltzen eta abar aritu behar izaten zuten, urtean zazpi-hamar egunez, sailaren arabera. Administratzaileak izendatutako egunean joaterik ez zuena, berriz, eguneko jorjala ordaindu beharrean aurkitzen zen, goian aipatutako errentari gehituz.

«Palazianoa»-ren errenteroak Oñatira joan ohi ziren beren zorrak ordaintzera. Nagusiak, Santo Tomas egunez, bazkari batez saritzen zituen, menua garbantzua haragi egosiarekin izaten zelarik. Etxerako opariak ere ematen zizkieten (Olazargo errenteroei behinik behin), hala nola: kainaberazko bastoia eta hiru tableta txokolata. Antza denez, egun handia izaten zen hura errenteroentzat, eguneroko nekeak baztertzeke aukera izaten baitzuten, egun batean bederen.

19. MUNTEGI

* Muntegi baserria Asencio de Elorzak (Eguzkitzagoikoa 1624) eraiki edo berreraiki zuen XVII. mendean Eguzkitza etxaldean, ondoko lerrook erakusten duten bezala: *"(...) Asencio de Elorza (...) y aunque es verdad que fabrico de nuevo la casa de Mintegui fue en las tierras de la dha casa de Eguzquiza y con el maderaje de dha haz^{da}..."* (GPAH24).

1693. urtean Eguzkitzagoikoan jaiotako Antonia eta Maria Elorza Agirre ahizpen eskuetara pasa zen baserriaren jabetza. Hurrengo urtean, 1694. urtean alegia, errentan eman zieten bederatzi urterako Miguel de Gerra eta Maria de Bikuña legazpiarrei.

* XVIII. mendean Joaquin Bautista Arizkorreta amezketarrak erosi zuen baserria. 1801. urtean, berriz, baserrian maizter zegoen Antonio Telleriak eskuratu zuen 27.533 erreal ordainduta (GPAH11). Ordutik gaur egunera arte Telleriatarrek segitu dute Muntegin, jabe eta bizilagun gisa: Telleria-Guridi, Telleria-Agirre, Telleria-Aztiria, Telleria-Etxeberria, Telleria-Zeberio...



Muntegi baserria (PA 1996).

* Jose Francisco Telleria Agirre (Muntegi 1837) Muruazpiko Maria Magdalena Aztiria Mantxolarekin ezkondu zen. Jose Francisco San Agustin elizaren eragile nagusietako bat izan zen, Gibelolako Jose Antonio Zangitu, Zubiaurgo Jose Joaquin Inurritegi eta Igeraldeko Juan Francisco Agirrerekin batera. Haiek egindako hartu-emanei esker eliza eta abadetxea lortu ziren Brinkolarako.

* Jose Franciscoren ondoren, baserriaren oinordekotza Pedro Telleria Aztiria semeak hartu zuen (Muntegi 1872). Tolosako Marcelina Etxeberria Etxeberriarekin ezkondu eta bost seme-alaba izan zituzten: Martin, Antonia, Eulogia, Julio eta Francisca.

- Martin eta Antonia etxean geratu ziren ezkongai.
- Eulogia Zalduko Pedro Zabaletarekin ezkondu zen, Legazpira.
- Julio Idiazabalgo Maria Zeberiorekin ezkondu zen, etxera.
- Francisca moja sartu zen.

Martin eta Julio anaiak «xestogileak» ziren. Patrizioea eta Iraulika-fabrikarako egiten zituzten saskiak. Oñatira ere saltzen omen zituzten.

Urte batean Martin Telleria Etxeberriak, Errautegiko Marcelino Guridi Inzak eta beste bazkide batzuek, elkar hartuta, 35-40 txerri beltz ekarri zituzten Olabason zegoen haritz-ekur ugaria aprobetxatzeko. Ez zuten baina zorte handiegirik izan, kalte handiak egiten baitzituzten zelai eta artasoroetan, erabat uxartuta utziz. Udara batean, gainera, berotik ihesi Muntegikoek saskiak egiteko ondagaiaik gordetzen zituzten zuloan sartu omen ziren eta atera ezinik ibili omen ziren. Zortzi urtetan eduki zituzten, hala ere.



Maria Luisa Aztiria Mantxola ? (ezkerretara), ? eta Jose Francisco Telleria Agirre (eskuinetara).



Pedro Telleria Aztiria.



Antonia Telleria Etxeberria, Eulogia Telleria Etxeberria, Amparo Agirrezabal Ormazabal, Amparo Inurritegi, Benita Inurritegi Inurritegi, Francisca Telleria Etxeberria, Angelita Galfarsoro eta Julita Agirrezabal Ormazabal.



Marcelina Etxeberria Etxeberria ? eta Pedro Telleria Aztiria ?

Eske-egunak

Brinkolan, Euskal Herriko beste hainbat lekutan bezala, «eske-egunak» izaten ziren urtean zehar egun seinatueta. Batzuetan helduek eta besteetan umeek hartzen zuten parte ohitura zahar hauetan. Dirua (azken aldera) eta elikagaiak biltzen zituzten normalean: arrautzak, txorizoak, gaztainak, sagarrak, pikuak, intxaurrak, e.a.

Gabon-eskea. Gabon egunean, zahar eta gazteak ateratzen ziren etxetik etxe kantatzera. Umeak bizpahiruko taldea osatuz ibiltzen ziren, mutilak mutilekin eta neskek neskekin. Kortagarako Candida Etxeberria Guridiren «akuerdoan» (Elorregi 1910) neskek ez zuten sekula «Hogeytalaugarrena» kantatzen, «Haur txikitxo eder bat» baizik. Txakur handiren bat ematen bazien, gustura, eta pezeta emanaz gero zer esanik ez.

Gazteak koadrilan ateratzen ziren, ezpainenako soinuaz lagundurik. «Poltseroa» izendatu, boz ederrena zuena koplari jarri eta han ibiltzen ziren batera eta bestera lekaioka. Pasatako urtean hildakorik izandako etxeetan errezoak egiten zituzten familiaren saminarekin bat egin nahian. Bildutako dirua etxeratu aurretik partitzen zuten.



Gabon-eskean: Jose Mari Etxeberria, Carmen Ormazabal, Lupe Alzelai, Isabel Odria, Maria Isabel Arizti, Mari Tere Galfarsoro, Carmen Peñagarikano, Carmen Inurritegi, Mari Tere Madinabeitia, Maria Carmen Balerdi, Ignacio Peñagarikano, Bittor Agirre eta Ignacio Olmo.

OGEITALAUGARRENA

Ogeita laugarrena
degu abenduan
deseo genduen
logratu genduan

Karguan jarri dira
Jose ta Maria
anparatzeko seme
estimagarria.

Belengo portalian
estalpe batean
jaio da Jesus umil
ganadu artean.

Gaueko amabiak
jo dute orduan
gure salbatzailea
jaio da munduan.

San Jose gizon ona
arotza zera zu
aurtxo txiki onentzat
seaska egizu.

Espiritu Santuak
emanik grazia
amaren konzepzioa
beti da garbia.

Erakutsiko digu
zer egin bear degun
beraren alabantzat
kantatu dezagun.

Goiko mendietatik
pastoreak datoz
esanaz aingeruei
jaio dala Jesus.

Espiritu Santuandik
jaio da gizona
Trinidad Santuko
bigarren pertsona.

Kristalian argia
garbiro pasatu
jaiota gero ere
dontzella gelditu.

Zorionean Jesus
zu jaio zinaden
bestela zeruetan
sartzen ez giñaden.

Jose eman diote
Mariari esposo
biak izan daitezen
aur orren guraso.

Gloria zeruan da
pakea lurrean
borondate oneko
gizonen artean.

Astoa ta idia
dauzka aldamenean
arnasaz berotzeko
oztutzen danean.

Gabon eskerrik asko
gabon etxeakoak
gabon izan dezaten
etxe ontakoak.

(Joakin Balerdi Arriarani jasoa)

The image shows a musical score for the hymn "Ogeitalaugarrena". It consists of two staves. The top staff is a vocal line in G major (one flat) and 4/4 time, with lyrics written below it. The bottom staff is a piano accompaniment line in the same key and time, with lyrics written below it. The lyrics are: "Ho gei-ta lau-gar-re-na de-gu a-ben-du-an de-si-o ge-nu-e-na i-ri-txi gen-du-an".

"Ogeitalaugarrena" gabon-kantaren bi doinuak.

AURTZO TXIKI EDER BAT

Aurtxo txiki eder bat
jaio da Belenen
Jose ta Maria
dauzka bere aurren.

Eskerrak milla Jesus
zu jaio zarelako
bestela zeruetan
ez giñen sartuko.

Ain ederra zan aurra
ain zoragarria
urrezkoa dirudi
buruko illea.

Beti beti
nere Jesus
beti beti
maite zaitut

Aurpegi txuri-gorri
du oso txukua
lirio ta larrosa
ez da ain ederra.

(Felisa Guridi Agirrezabali jaso)

HAUR TXIKI EDER BAT JA BEI GLEDA HAUR TXIKI EDER BAT JA BEI GLEDA
EN NI JO SEMAE TARI I EN NI JO SEMAE TARI I
IZ KA DRE IBERNÜ IZ KA DRE IBERNÜ
BE TI BE NE TRE JE SUBE TITI BBE TI BE NE TRE JE SUBE TITI B
TE ZAI TUT TE ZAI TUT

"Aurtxo txiki eder bat" gabon-kantuaren doinua.



Santa-eskean. Goiko ilaran: Joaquín Ormazabal Galfarsoro, Simon Odría Erostege, Valerio Guridi Ojanguren, Faustino Inurritegi Gerra, ?. Erdiko ilaran: Ignacio Agirre Aseginolaza, Carlos Guridi Ojanguren, Juan Pedro Agirre Aztiria, Tiburcio Beain Barrera, Segundo Odría Erostege.

Santa-eskea. Otsailaren lauan ere, Santa Ageda bezperan, gazte koadrilak irteten ziren eskean, usadio zaharra berrituz. Talde bakoitzean dozena-erdi bat ibiltzen ziren, batzuek kantan, besteek erantzun. Gero, biltzen zutenarekin merienda egiten zuten. Telleriarten ere ibiltzen ziren.

Koplariek Agate deunari ez ezik etxeko nagusiari, andreari edo ezkongai zegoen alabari kantatu ohi zizkioten beren bat-bateko bertsoak. Etxekoandreak, esker oneko azaldu nahian, arrautzak eta lukainka batzuk eskaintzen zizkien kantariei.

Simon Etxeberria Urzelai (Barrundiola 1874); Juan Francisco Balerdi Inurritegi (Uarkalde 1869); Emeterio Albisu Etxeberria, Muntegiko morroia (Arriaran 1895); eta Manuel Alberro Oderiz (Igeraldeazpikoa) «koplante» edo kantari ibilitakoak ziren.

Muntegiko morroiak santa-eske batean honela kantatu omen zion Garrotxeneko Rufina Inzari: *“Presa gañian ura berdiña, presa azpian osiña; etxe berri bat egingo nuke, zu neretzako baziña”*.

Diotenez, Barrundiolako Simon eta Jose Mari Etxeberria Urzelai anaiak elkarrekin ibiltzen ziren. Simonek, aurretik, kantatu egiten zuen, eta gero danborra jo. Anaiak dultzaina.

Iñauteak. Gerra aurretioan, Gibelolan apopilo zegoen Valentin Andueza, Olazargo Vicente Gibelalde eta abar mozarrotuta ibili ziren Brinkolan. Valentinek gona handi bat jarri zuen soinean, aurre-mantal eta guzti; oinetan, emakumezkoen takoi handiko zapata batzuk; eta besoetan, hare-saski handi bat, panpina barruan sartuta. Han ibili zen hanka-okerka, *“Hau nola izango da ume ona, aita moskorra eta ama lapurra izanda?”* oihukatuz. Umore onean, arrautzak eta txorizoak «bitu» eta tabernan egin zuten afaria.

20. EGUZKITZAGOIKOA

* Izenak berak dioen bezala eguzki-leku ederrean dago kokatuta, kaleko Eguzkitza edo Eguzkitzabekoa bezala. Mende askotan bi Eguzkitza besterik ez dira egon Legazpin: Ergoenakoa eta Elbarrenakoa, goikoa eta behekoa, alegia. Egun ezagutzen dugun Eguzkitzabekoa (Brinkolakoa) joan den mendearen bukaerakoa da.

Eguzkitzagoikoaren eraikuntzari dagokionez, esan behar da, paretak mende honetakoak izan arren, orubea zaharra dela, XVI. mendekoa gutxienez. "*Eguzquiza de susso*" izenez azaltzen zaigu agiri zaharretan (LUA3 1533).



Eguzkitzagoikoa baserria (PA 1996).

* 1613. urtean Juan de Elorza Eguzkiza, 20 urte zituela, Maria Miguel de Aetarekin ezkondu eta Eguzkitzagoikoa baserrian jarri ziren bizi izaten. Hurrengo belaunaldian, Asencio Elorza Aeta semeak (Eguzkitzagoikoa 1624) segitu zuen etxearen buru, emaztetzat Antonia Agirre hartuz. Asencio eta Antonia, Legazpiko hiru etxeren jabe izatera heldu ziren: Eguzkitzagoikoa, Muntegi eta kaleko etxe bat. Eta aberastasun horren ondorioz, Asencio Legazpiko alkate aukeratu zuten 1666. urtean. Bederatzi seme-alaba izan zituzten: Miguel, Andres, Diego, Juana, Maria, Antonia, Francisca, Maria San Juan eta Magdalena.

- Miguel «Clérigos menores» ordeneko fraide (frantziskotarra) egin zen eta Madrilgo Espiritu Santuko komentuan bizi izan zen.
- Andresek apaizgintza aukeratu eta lizentziatu izatea lortu zuen, bizilekua Gasteizen finkatuz. Perun ere bizi izan zen agiri batean ikus daitekeenez: *“Don Andres de Elorza Presbitero Colector General del Obispado de Arequipa, Peru”*. Hala ere, Legazpira oso lotuta egon zen, Legazpiko eliza nagusiaren eraikuntza-lanak bukatzeko emandako dirutzak erakusten duen bezala. Etengabe aritu zen herriaren alde mesedeak egiten. 1739. urtean hil zen.
- Diego Ameriketara hil zen gaztetan: *“...dicho Diego Elorza fallecio de edad pupilar en los Reinos de las Indias”*.
- Juana Francisco Guridirekin ezkondu zen.
- Maria «beata» egin zen, *“Maria de Elorza beata de la tterzera horden”*. 1710. urtean hil zen, Eliza nagusiko Muntegi baserriko hilobian lurperatu zutelarik (GPAH25).
- Antonia Ignacio Guridi-Zalduarekin ezkondu zen. Eguzkitzan jarri ziren bizitzen. Ignacio 1711. urtean arotz lanetan ibili zen Errioxan.
- Francisca Domingo Telleriarekin ezkondu zen. Hauen seme Cristobal, berriz, Domingo de Agirre apaiz ezagunaren arrebarekin uztartu zen.
- Maria San Juan Urtatzazarrera ezkondu zen Ignacio Narbaizarekin.
- Magdalena, azkenik, Madrilen bizi izan zen, Consuegra hirian.

Eguzkitzagoikoa baserria Andresen eskuetara pasa zen, Asencio eta Antonia gurasoen nahia betez. 1719. urtean, Andresek **maiorazkoa** sortu zuen, ondoko pasartean ikus daitekeenez: *“Y por quanto ha reconocido el perjuicio que ha mostrado la experiencia en el transcurso de algunos años ha esta parte, que se va perdiendo la memoria de las Casas solariegas enagenandose en personas estrañas, dividiendose entre hermanos por causa de legitimos, y otros empeños que contrahen sus dueños sin necesidad que les obligue. Y deseando ocurrir a estos daños e inconvenientes y asegurar la permanencia de la dha Caseria Solar y sus pertenecidos y memoria de ella y de todos los antepasados dueños que fueron y tener efectos suficientes el dcho señor Lic^{do} Dⁿ Andres de Elorza para poder pisar con toda decen(...) segun requiere su estado Sacerdotal durante los días de su vida, sin que llegue ha tener necesidad de valerse de la dha Caseria y sus pertenecidos, ni de la renta suia en manera alguna, otorga que instituye vinculo y maiorazgo de la dcha Casa y Caseria Solar de Eguzkiza de arriba con todos sus pertenecidos...”* (GPAH26).

50 urte beranduago, 1779. urtean alegia, Domingo de Telleria zen Eguzkitzagoikoa baserriaren jabe (GPAH27), goian aipatutako Francisca Elorza eta Domingo Telleriaren biloba, seguruenik.

* XIX. mendearen hasieran, ordea, Telleriatarrek etxea utzi, bi bizitza egin eta errentan jarri zuten Eguzkitzagoikoa. Etxeberriatar bi anaia etorri ziren bizi izatera, hainbat belaunalditan, haien ondorengoak bizi izan zirelarik. Hala, batean, Etxeberria-Pildain, Etxeberria-Telleria, Etxeberria-Apaolaza, Etxeberria-Pagola... familiak bizi izan ziren; bestean, Etxeberria-Zangitu, Etxeberria-Inurritegi, Etxeberria-Jauregi, Etxeberria-Zabaleta... familiak.

XIX. mendearen bukaeran, itxura denez, errenteroak etxea eta etxaldeaz jabetu ziren. Garai horretan, Etxeberria-Jauregitarrak, behe-rago etxe berria eraiki (Eguzkitzabekoa) eta bertara joan ziren bizitzera.

* Jose Etxeberria Apaolaza (Eguzkitzagoikoa 1862) Zumarragako Egibide baserriko Julia Pagola Telleriarekin ezkondu zen etxera, eta sei seme-alaba ekarri zituzten mundura: Nicolas, Victor, Juan Bautista, Pantaleon, Tomas eta Vicente. Haietako bi Ameriketara joan ziren, beste bat Zumarragara «guardabarreras» gisa...

Ahoz aho, gaur arte, iritsi zaizkigun kontakizunen arabera Jose Etxeberria bere seme Pantaleonek hil zuen, egiten zizkion isekekin nazkatuta. *"Pantaleon tuertoa zan, da Joxe Euzkitzak semei «ttorttoa, ttorttoa». Ta amak: «Jo ta begie etaiok euk e». Ja ta begie eta ta, andik illik izan bear zon. Semek aittei begie etaa. Ua ill ezkeo etxea in zan"* (EEZ 1996).

Honako hau ere kontatzen zen Joxe-rengatik: *"Joxe Euzkitzak Arrátolan károbie ein tzian. Gurdy karea artu ta, baatorrek erraka ezkiñatik, ta errekaa gurdie itzuli. Kaa, gure amandre zana errekaa jun dek udetaa, beti gure etxeti errekaa udetaa. Dana zuri: eneeeee! ori da desdixia! dana amorraie ta aingerea ta, denuntzie, mikeletei denuntziauko zien da. Errira jun dek da: ze denuntzie jarriko diozue gizonai? Duroa irabazteko idean karioie ein da gurdy-karea erreka jun da, berorrek izan dik desgrazik asko. Denuntzik ez. Ze paaurik etzon izango ta!"* (EEZ 1996).

* *Joxe Euzkitza* hil ondoren, Eguzkitzagoikoa zimendutik kendu eta berri-berria eraiki zuen alargunak. Hala ere, ez ziren etxe berrian luzaro bizi izan, handik gutxira Zumarragako kalera jaitsi baitziren.

Ondoren Jose Elizburu Kruzeta artzain plaentxiarrak hartu zuen errentan, baina behar bezala zaintzeko gauza ez eta utzi egin behar izan zuen.

1930.eko San Martin egunean, Oñatiko Kortaberri baserria utzi eta Eguzkitzagoikora etorri zen bost laguneko Ugarte-Bikuña familia: Benito eta Eustaquia, aita-amak, eta Damaso, Pedro eta Claudia, seme-alabak. Oinez etorri omen ziren, altzari-garraiorako asto eta gurdiak erabiliz. Katua ere ez omen zen falta «pelegrinazio» hartan.

Bigarren urtegarrengo etxea erosi omen zuten. Hiru seme-alabetatik bat, Pedro, gazterik hil zen; Claudia Igeraldeazpikora ezkondu zen Benito Beain Barrenarekin; eta Damaso etxera ezkondu zen Maria Sagastizabal Etxeberriarekin.

Andres Elorza abadea (1663-1739)

Esteban Alzelai Guridi

XVIII. mende hasieran, legazpiarrek eliza berria eraikitzeari ekin ziotenean, ez zuten asko uste horrenbesteko gastu sortuko zirenik. Hala, proiektua amaitzeko zegoela, eraiketa gelditu egin zen erabat, diru guztiak xahututa. Baina, zorigaitzak ez zuen asko iraun, etenaldi larri hartan Eguzkitzagoiko Andres Elorza abadea gertu azaldu baitzen herriari laguntzeko. Hori ikusirik, 1714ko urriaren 13an, Iruñeako Apezpikuak, «auto» baten bidez, proiektuaren arduradunei zera agindu zien: horrelako eliza bati dagozkion erretaula, santuen irudiak, korua, sakristia, kustodia eta barruko apainketak berehala egin behar zirela, horretarako «zenso» bat sortzeko baimena luzatuz. Honela segitzen zuen «autoak»: *"Y en virtud de este Auto el Licenciado Don Andres de Elorza Presbítero hijo originario y dueño de la Casa de Eguzquiza de arriba de esta villa, por hacer buena obra y merced a esta, corrió con el cargo*

de la fabrica de dicha Torre, Bóveda y Coro, satisfaciendo de su propio caudal y adelantando su importe..."

Laguntasan balioitsu hari esker, lehen ekitaldian dorrea, sabaiak eta korua bukatu zituzten, eta bestalde, parrokiak Bidaurreta komentuko lekaimkeen zuen 300 zilarrezko dukateko zorra ordaindu. Hau dena kitatzeko, Elorza jaunak bere ondasunetik 70.438 erreal ipini zituen. Elizak dirutza hura itzultzeko konpromezua hartu zuen, urtean jasotako hamarren eta primizien bidez.

Bigarren ekitaldian, erretaula nagusia, kustodia, sakristia, Errosarioko Amaren irudia eta burdin-hesia, koruko balaustratua eta abar bukatu zituzten, orotara 121.783 erreal ordainduz.

Andres Elorzak eliza bukatua eta apaindua ikusi zuenean, elizkizunak sakontasunez eta ospe handiz egiteko, organo baten beharra ezinbesteko ikusten zuen. Hala, organoa erosteko behar zen dirua biltzeko formula bitxi bat proposatu zien elizain eta arduradunei, alegia, goian aipaturiko hamarren eta primizien dirutik, lehenik eta behin mezatarako behar zen argizaria, kandelak eta kriseiluarentzako olioia eta meza ospatzeko ardoa ordaintzea, eta bigarrenik, zorra kitatzeko zegokion gainerakoa, berak jaso ordez elizako kutxatxo batean gordetzea. Andresen esku-zabaltasunari esker, organoa erosteko dirua horrela pilatu omen zuten.

Diru-emaila hau etengabe aritu zen herriaren alde mesedeak egiten. Beste behin ere, 1735. urtean organojolearentzako etxea ordaindu zuenean, bere ontasuna azaldu zuen.

Andres Elorza, nahiz eta Gasteizen izan bere egoitza, Legazpin hil zen, 1739ko urtarrilaren 7an, 76 urte zituelarik.



Informazio iturriak:

Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa: 1/4088, 1/2234, 1/2235, 1/2237, 1/2248, 2/2781

Jaka, A.C., 1990, *Ensayo para una historia de Legazpia*, argitaragabea

21. EGUZKITZABEKOA

* Eguzkitzabekoa baserria joan den mendearen amaieran eraiki zuen Jose Ignacio Etxeberria Jauregik (Eguzkitzagoikoa 1854). Josefa Antonia Zabaleta Agirrezabalekin uztartu eta bost seme-alaba izan zituzten 1882 eta 1890 bitartean: Josefa Ignacia, Simon, Francisco, Tecla eta Justo.

- Josefa Ignacia Agirreburualdera ezkondu zen, hango Eustaquio Sagastizabal Iturberekin.
- Simon ezkongai geratu zen.
- Francisco, «karrileroa» ogibidez, Guriditegira ezkondu zen Goiko kaxetako Vicenta Gereñu Aranbururekin. Baina gazte hil zen eta *Bixenta*, bigarrenez, Gabiriako Mandiolako Tomas Azarolarekin uztartu zen.
- Tecla moja joan zen Salamancara.
- Justo etxera ezkondu zen.



Eguzkitzabekoa baserria (PA 1996).

* Justo Etxeberria Zabaleta (Eguzkitzabekoa 1880) Oñatiko Eztenaga baserriko Petra Guridi Inzarekin ezkondu eta bi seme izan zituzten: Demetrio eta Valentin.

Barrendiolako Eusebio Etxeberriak gogoan izaten zituen *Justo Eguzkitza*-rekin egindako bazkariak. Horrela kontatzen zuen: "*Andra Mari marzokon meza etzun bear izaten tzan; Andra Mari Marzoko jai erdie, da, Justo Euzkitzak: «Goizen jaiko txakétea jantzi ezkeo lai nike pa zerbaitt». Joxemaiñea jun, «aiba duro bat, onekin zerbaitt eingo zue». Arkuma pixka bat jan eo..., lénengo pikátxea, geo arkuma gixaué, gero arkuma errea, postrea, kafe konpletoa. Goiko tabernan hamaika erreal kontue, beean hiru pesetan itten zian. Bêan gozo geixeo ipiñita, obetoxeo ipiñitakoa. Joxemiel, Mutue bi, Justo iru, ni lau, Juan Joxe bost eta Marzeliano: sei bat laun*" (EEZ 1996).

* Eguzkitzabekoa **ardazlekua** zegoen eta gazte jende guztia bilduta, arreoak, etxerako galtzak eta ehun piezak egiten ziren, baita gantxiloa ere.



Justo Etxeberria Zabaleta eta Petra Guridi Inza, ezkontza egunean.

Ardazketa: errezo, lan eta festa giro

Julian Alustiza, Aztiri

Iruleak inguruko etxe eta baserrietatik ere bildu ohi ziren ardazketarako eta beste. Lehenik norberaren etxean egingo zuten afari-legea; eta gero ardatza eta amuko-mottoak otarre, edo saskitxoan hartu, eta linea eskuetan zutelarik, aurretik aukeratutako etxeetara azalduko ziren denak: hogeitabost, hogeitamar irule, eta gehiago ere biltzen omen ziren, frankotan. Pitxartxo bat esne ere eraman ohi zuten, lanaren gozagarri edo. Arratsaldeko zortzirak edo izaten ziren. Eta hiru bat ordur egiten zen irunketa, edo ardazketa lana: gaueko hamabiak arteraino edo. Errosario santu eta guzti, frankotan.

Gabiria aldetik, Aztirin, Etxaundi deritzan baserrian biltzen omen ziren auzoko emakumeak, ardazketarako, eta beste. Sukalde erdian argi-mutila ipini ohi zuten, eta bere ingurumarian eseri denak, eta irun eta irun aspertzeke. Argia aurreratzeko zela, esaten zuten gure zaharrek. Baina isileko beste arrazoiren bat ere ibili zitekeen azpitik, alegia, gau-bilera haiek ondo baino hobetogo etortzen zirela, ipuin eta kantu, ardazketa lanak arintzeko ere. Bazen azken garai hartan, Aztirin bertan, *Poxta* gaitzizena zeraman gizontto bat ere, ipuilari dotorea benetan; eta hura noiz etorriko egoten ziren denak. Poxta lagunartean zelarik, umore ona ez zen faltako, behintzat!

Esan gabe doa gau-bilera haiek kantu saio batzuk egiteko ere aparteko egokiera ematen zutela beti.

(Alustiza, J., 1981, *Lihoaren penak eta nekeak*, Arantzazu, Jakin: 106-107).



Elbarrenako Olazabal baserriaren atarian ardazketan, XX. mendearen hasieran (Enrique Guinea, Gasteizko udal artxiboa).

22. ABADETXEA

Abadetxea elizarekin batera eraiki zuten brinkolarrek 1886. urtean. Ordutik hona, hama-sei abade bizi izan dira bertan:

IZENA	NONGOA	EGONDAKO URTEAK
Simon Guridi Mujika	Guriditegi, Brinkola	?
Juan de Dios Zubia		1886-1889
Jose Cirilo Galarza	Kantoikoa, Kalea	1889-1895
Martin Garin		1895-1897
Serapio Guridi		1901-1904
Juan Arakama	Zegama	1904-1908
Santiago Madina		1908-1909
Jose Goia	Zerain	1909-1919
Isidro Ormazabal	Zegama	1919-1924
Jeronimo Sarriegi	Ormaiztegi	1924-1930
Jose Azkoitia	Azkoitia	1930-1933
Ignacio Gorrotxategi	Zegama	1933-1939
Felipe Barandiaran	Gasteiz	1939-1942
Jose Juaristi	Azkoitia	1942-1944
Severiano Mendizabal		1945-1946
Miguel Iturbe Berasategi	Ezkioga	1947-1995
Jose Ramon Heriz Beitia	Brinkola	1995-



Abadetxea (JLU 1994).

Lehenengo apaizek, meza eman eta beste hainbat eginkizunen artean, **eskola** ere ematen zieten Brinkola eta Telleriarteko haurrei.

Errautegiko Marcelino Guridi Inzak (1990-1994) ondo gogoan zituen eskola haiek:

“Brinkolako eliza ondon, oiñ ezteiat egaztiteie eo ze euko duen, aten sartu eta ezkerrea zian lokaltxo bat, eta an eoten genduztan, zaarragok eta gaztegek, neska ta motil, an etzaoan diferentzik! Oetamar bat laun eo, ogeitamabost eo juntatzen genduztan; neskak aparte eote ittuan, mesatxo baten, eta gu motikok besta baten”.

“Errautei eta Kortati gorakok bakarrik jute genduztan Brinkolaa, emendi beerakook Legazpira jute ittuan, Telleriarten etzian ezerree”.

“Zazpi-zortzi urtekin asi genduztan, leenaio etzeoan eskolaik; gerogokok dittuk kazte oei ematen zaten kurtso orik. Ibiliko genduztan laubost urteen, aik eta dotriña ikixi arte, ura bai ikixi bear izaten zian, mekaguen judas; geo, komunioa eaman, amar-amaika-amabi urtekin, eta beaje! Gure garaian komunio bakarra itten tzian”.

“Aste guztiñ jute genduztan eskola, sei egunetan, goiz ta aatsalde; goizen zortziretan sartu ta amabitan irten, da aatsalden ordubatatan edo ordubaterditan, berriz jute genduztan illuntza arte. Urte santu guztin. Jairik etzian ordun izaten; Gabonetan da oitan ezkenduztan juten, baño udaran igoal igoal izaten zen eskolea; arten etzian barkazioik eta istorik. Bastante seittu jute genduztan, jakiñe, kale iñezkeo dotriñe eziñuan ikixi ta, geo dotriñe ikixi ezen, etzian orduun komulgatzen ee. Oiñ, komunio ez izan bai izan, alla koidaus, or ibiltze ittuk nonbaitte”.



Ormaiztegiako bainuetxean. Goiko ilaran: Cruz Agirre Aztiria, Juan Etxeberria Telleria, Jose Mari Agirrezabal Etxeberria, Luciano Balerdi larza. Beheko ilaran: Emilio Urkiola (Ormaiztegi), Facundo Agirre Aztiria, Jeronimo Sarriegi, Leon Zabala eta Julio Telleria Etxeberria.

"Nere leenango maixue Don Joan abadea zian (Juan Arakama), zeamarra, gaiztoa, egurre astintzen zona zian. Zaar jentekin biurritu in tzian, ta aldein tzian; aren ondoren etorri zian Don Jose zeraindara, Urrustibeekoa (Jose Goia)".

"Dotriñati aparte, ipintzen zaoan koentak pizarraan, da aik kopiatu ta olaxe; sumar da restar, multiplikarrik etxekiat ikixiko gendun ee. Firmatzen da, or ikixi genduan".

"Liburuik eze asko etzian ebaltzen; eskolako liburuk an gelditze ittuan, eo bestela karteratxo baten norberak aldean ebaltzen zatuan; dotriña ta manuskritoa, ori izaten tzian".

"Erderea orduko bazeoan, anilloa eukitzen genduan, eskuera z itten zonai ura ematen zikoan. Eta asteen azkenen, zapatun baldiñ baeukian, kastigue, ordubeten eo geiagon eskolan eukitzea, bestek irtenda".

Brinkolatik pasatako abadetatik bik, behintzat, oso oroitzapen onak utzi dituzte brinkolarren artean: Don Jeronimo eta Don Felipek.

Don Jeronimo-rengatik oso gizon ona zela esaten dute: *"Hura zeruan ez badago ez dago inor ere"*. Eskean joandako jendeari sekula ez omen zion atearen gainetik emango, dena zabaldua baizik. Maisu bezala, oinarriko «lau erregelak» ikastarazten saiatzen omen zen, bakoitzak bere gorabeherak maneiatzeko bitartekoak izan zitzaizkien. Urte batean solfeoa erakustea nahi izan omen zuen tableroan notak marraztuz, baina inor ez omen zen berotu. Karlista eta euskaltzalea omen zen, gainera, berarekin *Argia* aldizkaria irakurtzen zutelarik.

Don Felipe-k lan asko egin zuen auzoko giroa hobetzeko. Besteak beste, brinkolarren abesbatza osatu zuen Legazpiko prozesioetan abesteko; hainbat antzezlan zuzendu zuen auzoko jendearekin... Ikerlanak ere egin zituen Brinkolan egondako urteetan: *"La vida pastoril en Brinkola y Telleriarte"* artikulua, *Eusko-Folklore* zientzi aldizkarian 1955ean argitaratua, horren lekuko dugu.



Eskola-umeak mende hasieran Jose Goia abade zeraindarra erdian dutela.



Eskola-umeak mende hasieran.

23. SAN AGUSTIN ELIZA

* XIX. mendeko 80ko hamarkadan Brinkolako 26 etxetako ordezkariak (Korta-auzo eta Garro-auzokorik gabe) eliza berria eraikitzea erabaki zuten Igeralde auzunean. Ordura arte Telleriarteko San Joan ermitara joaten ziren igandero meza entzutera, baina etxetik hurbilago nahiago. Gainera, Telleriartekoak ez zuen ez abade propiorik ez eta ostia sakraturik edukitze-ko baldintzarik. Ostia kaletik eramaten zen eta meza aurretik azpil batean papertxo bat utzi behar izaten zuten beranduago jaunartu nahi izaten zutenek: hainbeste paper, hainbeste zatitan banatzen zen forma.

Dena den, ezin dugu ahaztu Brinkolako elizaren alde egin zuten haien aitona-amonek 1824. urtean Telleriarteko San Joan eliza eraiki zutela. 60 urtetan, ordea, gauzak asko aldatu ziren, eta goiko auzategiak edo Ergoenak indar handia hartu zuen, beheko auzategia edo Telleriarteren aldean.



Eliza eta Josemarinea.

Diotenez, Jose Antonio Zangitu Azurmendik (Gibelola 1851), Jose Joaquin Inurritegi Zabaletak (Brinkolazar 1856, Zubiaur), Jose Francisco Telleria Agirrek (Muntegi 1836) eta Juan Francisco Agirre Alzolak (Igeraldegarakoa 1847) Guriditegiko tabernan prestatu zuten «Bitori»-ko apezpikutegira egin beharreko bisita, han eliza eraikitzeko baimena eskatzeko. Ez zuten nahi bezain azkar baimenik lortu, baina azkenean «temagatik» lortu zuten. Hori dela eta, lehenengo urteetan, San Agustin beharrea Brinkolako elizari **Santa Tema** deitzen ziotenak ere baziren. *Pedro Munttei-k* (Pedro Telleria Aztiria, Muntegi 1873). San Agustin eliza egin eta gero ez omen zuen San Joan gehiago zapaldu ere egin. Eta kontatzen dutenez, San Agustin konpontzen ibili ziren garaian Aztirira joaten omen zen mezatara.

Baimena lortu eta berehala hasi ziren lanean. Igeraldeko Juan Franciscok lur-saila jarri omen zuen; Muntegiko Jose Francisco Telleriak, egurra; eta denen artean, auzolanean, aisa eraiki omen zuten eliza. Harria Arrobotik ekarri omen zuten. Lanen gogortasuna ondoko adibideetan ikusten da ondo: kanpandorrea egiteko harriak bizkarka jaso omen zituzten, eta zenbait emakume 47 egunetan «peazareetan» (saskietan) lurra jasotzen aritu omen ziren.

Eliza auzolanean egiteagatik hainbat gastu murriztu baziren ere, artean bazkide bakoitzak diru kopuru handi samar bat jarri behar izan zuen. Uarkaldeko Jose Domingo Etxeberriari, horrela, 875 erreale eta 19 zentimo ordaintzea egokitu zitzaion, baina dirurik ez zuenez, haren balioko behi bat eman zuen, ondoko agirian ikusten den bezala:

“Sr. Dn. José Domingo Echeverria:

En la distribución formada por la comisión directiva de la Hermita de San Agustin del barrio de Erguena el día 17 de Mayo último de la deuda que sobre la Hermita o sus socios aparece por el importe de su edificación que son 29.755 v. que distribuidos entre los 26 socios que construyeron las obras de la hermita y casa cural, divididos los cuotas de los socios en tres clases corresponde a V. como 3ª clase pagar la cantidad de 875 v. y 19 cens. más el cuatro por ciento del capital hasta concluir el pago total. El primer plazo abonará V. el día 25 de Marzo de 1892 la cantidad de 218 v. y 80 cens. más por el rédito 35 v. y 1 cen.; el segundo plazo el día 8 de Diciembre del presente de 1892; el 3º en igual día de Diciembre de 1893 y el 4º plazo con su correspondiente interés de cuatro por ciento hará V. los pagos al tesorero de la Hermita Dn. José María Zabaleta.

Legazpia 30 de Enero de 1892

El presidente de la Junta: José Francisco Telleria”

“Confieso tengo recibido una vaca de precio 800 reavel de José Domingo Echeverria y tiene pagado su hijo Juan Francisco Valerdi 75 v. que hacen total pago de repartimiento de la sociedad recibí total.

José Francisco Telleria. Testigos: José María Zabaleta, José Ignacio Echeberria”

* Eliza 1886an eraiki zen.

* Brinkolako abadea, hasiera batean, Araiztegi osteko errekaraino zeuden baserrietara joaten omen zen gaixoak bisitatu eta azken komunioa ematera. Honek, nolabait, 1843. urteko erroldan ikusten den *“Barrio de Telleriarte”* eta *“Barrio de Arriba”*-ren arteko banaketa gogorazten digu, non *“Barrio de Arriba”* Brinkolazartik Agirrebekoaraino hedatzen baitzen.

«San Juan aurtxoan» ere, lurrak bedeinkatzera Telleriartekeo Kristobaleneraino joaten ziren Brinkolako abadeak, handik behera, berriz, Legazpikoak.

San Antonio camuflado

Luis Pedro Peña Santiago

La iglesia de Bríncola es de la advocación de San Agustín, e Irigoyen dice que su actual planta es del año 1832 (sic). Todo en ella es relativamente moderno, e incluso la talla que adorna el altar, grande y vistosa, carece de todo interés artístico.

Tiempo atrás, ocupó el nicho principal una curiosa imagen de San Agustín. No sé de dónde vendría a parar aquel bulto de más de un metro de altura. La última vez que lo vi, hace bastante, estaba recogido en una gambara, junto a unos trastos viejos, alguna silla desvencijada, una palangana, y pedazos de una alacena. Para contemplarla mejor, tuvimos que retirar las telarañas que la cubrían y, a la débil claridad que penetraba por un tragaluz, puedo decir que la caprichosa imagen hasta embelleció.

Digo caprichosa imagen, porque en realidad se trataba de un San Antonio disfrazado de San Agustín. Para “camuflarlo” un poco, pintaron sus ropas de negro y blanco, y con el fin de dar mayor dureza a sus rasgos, le pintaron tanta barba, que toda la cara quedó casi gris. La mitra de tela disimuló la coronilla de San Antonio, y el báculo de Obispo desplazó al libro abierto y al Niño Jesús. Hay gentes del lugar que dicen que el color de la cara se debía a que siendo San Agustín hijo de mujer blanca y padre africano (?), el artista decidió emplear la mezcla de los dos colores para dar mayor autenticidad al santo. Sí, el San Agustín tenía su carácter y su gracia, una gracia sin malicia, salida del fondo del alma popular. Aunque la imagen del Santo no ocupa ya el sitio de honor del templo, que estas líneas sirvan para fijarlo en esa historia, un poco anecdota, de nuestras humildes barriadas.

Ya en el siglo XVI se tienen noticias de la familia “Zabaleta”, de Villarreal de Urrechua, apellido procedente del solar del mismo nombre. Uno de los hijos de esta casa, Martín de Zabaleta, por su casamiento con María Aizaga-Lakiola, pasa a Legazpia, formando la rama Zabaleta-Lakiola.

En la misma época (s.XVI-XVII), y también en la villa de Villarreal de Urrechua, existía el taller de imaginería de Mendaraz. De este artista se conocen actualmente, localizadas en la zona, las tallas de un San Roque, un Cristo, un sagrario, y el San Agustín (antes San Antonio) que nos ocupa.

La historia de esta última imagen no deja de resultar curiosa, conociendo sobre todo su transformación final.

Parece ser que esta imagen fue adquirida primeramente por la familia Zabaleta-Lakiola, pasando por ello a adornar la casa Lakiola-Suso, de Legazpia. Allí estuvo hasta que Ildelfonsa Zabaleta-Lakiola y Urmeneta abandonó su solar, para trasladarse a la casa “Tellería-enea”, situada en la calle Santa María, del mismo Legazpia, por su casamiento con Cayetano de Tellería, hijo de los fundadores de “Tellería-enea”, en el año 1670.

Se cree que la evolución de San Antonio a San Agustín data ya de su estancia en Lakiola-Suso, pero lo que no se sabe es si este cambio de nombre fue debido a una caída en desgracia del San Antonio en la devoción familiar, o a su sustitución por una imagen más al gusto de su tiempo. Lo cierto es que ya lucía una mitra de cartón en su cabeza, un báculo en la mano derecha, y llevaba el manto pintado de color negro.

Al pasar la imagen a “Tellería-enea”, la colocaron en un lugar preferente. Sin embargo, poco duró en su nuevo domicilio. Eran los tiempos de la construcción del ferrocarril Madrid-

Irún, y en Bríncola se estaba procediendo al montaje del “apeadero” que serviría de enlace en la comunicaciones con Oñate y Mondragón. Los señores de Telleria-Zabaleta, patrocinaron en esta barriada de Brincola una iglesuela que atendiera a las necesidades espirituales de la cada vez más numerosa feligresía, entronizando en ella, como patrono, a su San Agustín. Con el tiempo vino a pintarle la cara gris.

Como terminó quien me contó esta historia, “esta es la aventura de la talla de aquel santo que, cuando nació en Lisboa, le pusieron el nombre de Fernando, luego, cuando se hizo fraile, Antonio, y finalmente, en Bríncola, le conocían por Agustín”.

(Peña Santiago, L.P., 1969, *Guipúzcoa paso a paso*, Retana Editor: 210-211, 215).



San Agustinen irudia (Mariaje Ugalde 1997).



San Antonioren irudi berrtua (Mariaje Ugalde 1997).

24. IGERALDEERROTA

* Egun San Agustin elizaren ondoko etxe taldeari Brinkola esaten bazaio ere, antzinako izena Igeralde da, oraintsu arte gorde dena gainera (*Ialdeauzoa*, MGI 1990). Izan ere, aspaldiko denboretatik «igera» edo errota dago bertan eta hark ematen dio izena lekuari. Igeralde auzunea lau etxek osatzen zuten erreka-ondoan, hala nola: Igeraldegarakoa, Igeraldeazpikoa, Igeraldeerrota eta Ziordik, eta Legazpitik Zegamara, Biozkornara eta Sandratira zihoan herri bide zaharrak gurutzatzen zuen alderik alde. Gaur ikusten diren gainerako etxeak (Patxinea, Josemarinea, Iraulika fabrika, Zoiloetxea, Geltokia, Mikeletetxea eta Alberdietxea) nahiko berriak direla esan daiteke.

Igeralde deitura XV. menderako azaltzen zaigu agirietan: "*Martin de Yeralde y Sancho de Yeralde*" (1483, Ayerbe 1995: 121).

Errotari buruz topatu dugun aipamen zaharrena 1515. urtekoa da. Haren zati bat Ojer Lopez de Agirrek Miguel Ibañez de Elorregiri saldu zion. 1516an, Miguel Ibañez de Elorregik,



Igeraldeerrota (JLU 1995).

berriz, Juan Perez de Lazarragari saldu zion. Modu horretan, etxe honen zati bat, Legazpiko beste hainbat bezala Oñatiko Lazarraga leinu boteretsuaren eskuetara pasa zen (LEA4).

1542. urteko auzi baten berri ere badugu, ondoko izenburua daraman agirian: *“Pleito ejecutivo, a pedimento de D. Juan Aristizabal, contra D. Pedro de Igaralde, hijo de D. Juan Ruiz Igaralde, sobre doce ducados de oro, de los veinticuatro que le prometió por su renuncia a favor de D. Miguel Igaralde, de todo derecho y acción que pudiera tener a los bienes y herencia de D. Juan Ruiz y su mujer, en la parte que le podía corresponder en la Casa y Molino de Igueralde”* (LEA5).

1551. urteko beste agiri batean (LEA4) honako datu hau jaso dugu: *“Pedro de Igueralde, propietario de la casa y casería y de la cuarta parte del molino de Igueralde”*. Halaber, badakigu haren arreba Maria de Igeralde Martin de Uarkalde-rekin zegoela ezkondata eta beste Martin de Uarkalde baten ama zela.

* 1729. eta 1730. urteetan errota berreraiki egin zen, Francisco Manuel de Plaza eta Francisco de Aguirre jabeak adostasun batera iritsi eta gero. **Martin de Garro** hargin-maisu ezagunari eragin zizkieten berrikuntza lanak.

Garai hartan Miguel de Alustizak zuen errota errentan.

* XIX. mendean eta XX. mendearen lehen erdian, ordea, Urmenetatarrak bizi izan dira Igeraldeerrotan: Urmeneta-Inza, Urmeneta-Inurritegi eta Urmeneta-Alzueta belaunaldiak, hurrenez hurren. Azkeneko Urmenetatarrak –Marcelianok–, ordea, Olazargo Clara Inurritegi Inurritegirekin ezkonduak, ez zuen ondorengorik izan, eta andrearen aldeko iloba batek segitu zion errotaren aurrean. Marceliano 1906. urtean jabetu zen errotarekin.



Benito Inurritegi Zabaleta, Clara Inurritegi Inurritegi, Marceliano Urmeneta Alzueta, Jose Antonio Gorrotxategi eta Jose Mari Inurritegi Inurritegi.

Harrigarria badirudi ere, oraingo jabea den Benito Inurritegi Zabaletak errotari ogibideari eutsi dio, etxe honetan 500 urtez gutxienez egin den bezala.

Legazpin zazpi errota ere bazebiltzan XX. mendearen hasieran, baina denborarekin lgeralde izan ezik beste guztiak gelditzen joan dira ezinbestez.

-1908an Telleriarteko Txantonerrotako «turtukoia» betirako gelditu ziren.

-1929an Plazaolaerrota argindarretxe bilakatu zen.

-1930ean Olaberriko errota gelditu zen.

-1949an Markastegierrotaren txanda ailegatu zen, Mirandaola burdinola egiteko bota egin baitzuten.

-1958an, PESA zabaltzearekin batera Bengola ezkutatu zen.

-1961ean Elorregierrota gelditu zen etxearen zati bat erre zelako.

Noiztikako da gaurko lgeralde?

Ramon Martin Sukia

Igeraldekoa da Legazpin izan diren errotetan zaharrenetakoa, eta gaur egun lanean segitzin duen bakarra. 1515ekoa¹ da berari buruzko lehenengo albistea. Ojer Lopez de Agirrek Miguel Ibañez de Elorregi, Elorregi etxeko jaunari saldu zion beste hainbat ondasunekin batean. Garai hartako lekukoen hitzetan errota hura bazen hiru belaunaldi lehenago ere eta belaunez belauan Agirretar ahaide nagusi handien familiarena izana zen. Ia gaur arte errota Miguel Ibañez de Elorregiren ondorengoen eskuetan egon izan da (Lazarraga, Plaza eta Sotomayorko dukearen familia).

Ez dira asko izango Gipuzkoan lgeralde bezain ondo iraun duten errotak; hain ondo zaindu dute jabeek eta hain da bikaina eraikuntza horren hargin-lana. Tolosan Gipuzkoako Artxiboan² gordeta dauden auzi bateko paperei esker dakigu nolako aldakuntzak egin zizkion errota horri XVIII. mendean, jabeek errota zaharrak zituen akatsak behin betiko konpontzea erabaki baitzuten. Martin de Garro, hargin maisuak egin zituen lanak 1729 eta 1730ean bai errotan bertan bai aldaparoan.

Garai hartan hargin maisua «aparejadore» antzeko bat izan ohi zen, etxegintza osoaren ardura berea izaten zuen: materialak erosi, laguntzaileak hartu eta lana egin. Obra handietan arkitektuak prestatutako «traza»-ri jarraitu ohi zioten, baina txikietan bera izaten zen maiz aski obra diseinatu eta burutzen zuena. Ez dakigu planoen arduradun zein izan zen lgeraldeko obretan, galdu egin zirela diote auziko paperek, baina Martin bera izan zitekeen. Bera izan ez bazen, agian Jose de Lizardi Gipuzkoako arkitektu famatua izango zen, garai hartan Legazpiko udaletxeko eta Plazaolako errota obretan³ ari baitzen; horietako planoak, bai, gordeta daude. Lizardi hori beste lan batzuetan Martin de Garroekin aritua zen.

Martin de Garro, dena den, ez da hargin ezezaguna, eta, beraz, hainbesteko eskarmen-tua zuen, erraz egin baitzitzakeen errota planoak eta lanak. Badakigu eraikuntza askotan aritua zela, hala nola Legazpiko parrokiakoetan⁴, Lucas de Longaren trazaren arabera;

1. Lazarraga etxeko artxiboa. Lazarraga. Ondarearen administrazioa. Leg.: 1 - 39. zkia

2. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra. Corregimiento. Uria. Civiles. 977

3. M.I.Astiazaran. Arquitectos guipuzcoanos del siglo XVIII

4. M.I.Astiazaran. Arquitectos guipuzcoanos del siglo XVIII



Genoveva Urmeneta Alzueta eta Jose Oiarbide.



Igeraldeerrrotako kutxa bat (PA 1998).

Zumarragako elizako dorrea egiten edo Urretxukoa eraikitzen bere seme Andres de Garroren fidatzaile gisa; eta Zeraingo herriko etxea eraikitzen⁵. Legazpi, Urretxu eta Zumarragako zubi askoren eraikuntzan ere parte izan zuen (Lekuona, Mendiarras, Leturiondo, denak harlanduzkoak).

Urte haietan errotaren jabeak ziren, erdibana, Francisco Manuel de Plaza, Oñatiko Elorregi eta Lazarragatarren oinordeetakoa, eta Francisco de Agirre, Igeralde baserriaren jabea eta bertan bizi zena; errota, Miguel de Alustizak zeukan errentan hartua. Plazak hala nahita, lan haiek egitea erabaki zuten eta Martin de Garroren eskuetan jarri zituzten. Garrok lana bai egin zuen, baina ez Agirrek nahi bezala; horregatik ez dio osorik ordainduko: ur-ahoa, errotako gurpiletara erortzen den zuloa, aldatu beharra zegoela zioen. Kexu zen, hala berean, «ohe eta argitan» Garrok eta honen langileek urte eta erdiz, lanean aritu ziren bitartean egindako gastuengatik, Igeraldeko bere etxean bizi izan baitziren. 1731n, beste hargin batzuek ebazpena eman ondoren eta zenbait hobekuntza txiki eginda, konponbide batera heldu ziren eta bukatutzat eman zituzten errotako obrak.

Igeralde, gaur egun ere hain osorik eta tente egoteak adierazten digu zein iaioak ziren Martin de Garro bezalako harginak, harlanduaren erabileran benetan artistak. Errota hori, balio etnografiko handikoa izateaz gain, galtzear dagoen lanbide baten lekuko da eta era horretako eraikinen arkitekturaren eredu.

5. Iparragirre. *Cegama, Cerain, Segura*. Caja de Ahorros Provincial, 1976

25. IGERALDEGARAKOA

* 1483. urterako “Yeralde” deitura aipatzen da Legazpiko agiri zaharretan (Ayerbe 1995: 121): “*Martin de Yeralde y Sancho de Yeralde*”. Hala ere, ezin jakin dezakegu ziurtasun osoz “Yeralde” deiturako gizaseme horiek zein etxetakoak ziren. Izan ere, Igeralde etxaldean, egun Igeralde auzunean bezala, eraikuntza bat baino gehiago ziren. Hala, 1551ko beste agiri baten arabera: «casa» eta «molino» gutxienez aipatzen dira: “*Pedro de Igueralde, propietario de la casa y caseria y de la cuarta parte del molino de Igueralde*” (LEA4).

* XVI. mendearen hasieran Igeraldegarako (edo “*Yeralde Goena*”-ko) Francisca de Igaralde Elbarrenako Cristobal de Agirrerekin ezkondu zen:

“Xptoval de Aguirre goço en la villa de Legaspia todos los honores, exenciones, inmunidades franqueças y libertades que goçan y acostumbran gozar los Caualleros hijos de algo destos Reynos entrando en sus Juntas y Ayuntamientos con voz y voto, admitiendole a las eleccio-



Igeraldegarakoa baserria (Enrique Ginea, Gasteizko udal artxiboa).

nes y repartiendole los Oficios de Gouierno de aquella Republica que solo obtienen y se reparten entre los nobles como hijo originario suyo y legitimo Descendiente de la dha Casa Solariega Infançona de Aguirre Vengoa. Casso con D^a Franca. de Ygaralde Señora de la Casa Solariega de Ygaralde Goena sita en la misma villa de Legaspia y natural della" (EE4 1670: 18, 19).

Haien seme Cristobal de Agirre ("Alférez Cristóbal de Garro") Garrogoenako Maria Miguel de Garroekin ezkondu zen.

"EL ALFEREZ XPTOVAL de Aguirre sucedio a su Madre en la Casa Solariega de Ygaralde Goena y goço respectiuamte. en la villa de Legaspia todos los honores exenciones y prerrogatiuas que su Padre y demas Ascendientes y los que goçan y acostumbbran goçar los Caualleros hijos dealgo destes Reynos. Casso con D^a Maria Miguel de Garro natural de la misma villa..." (EE4 1670: 22-23).

Azken horien semeak, Cristobal de Agirrek (aitak eta aitonak bezala) "oficial segundo de la Secretaría de Millones" kargua izan zuen Madrilen.

"Dn. Xptoual de Aguirre paso de la referida villa de Legaspia a esta donde esta sirviendo a su Magd. en la Plaça de oficial segundo de la Secretaria de Millones como todo parece por diferentes Instrumentos y papeles de su Genealoxia, limpieza, Hidalguia y Nobleça que quedan en su poder a que nos referimos" (EE4 1670: 34).

* Elbarrenako Agirrebengoatik etorritako Agirre deiturak mendeetan iraun du Igeraldegarakoan eta oraindik ere segitzen du. Hauek dira XIX. mendearen hasieratik orain arte bizi izandako familien deiturak: Agirre-Raizabal, Agirre-Aztiria, Agirre-Alzola, Agirre-Aseginolaza, Agirre-Aztiria eta Agirre-Iribar.

Jose Ignacio Agirre Raizabal (Igeraldegarakoa 1783) Urtatzagarako Manuela Aztiria Mantxolarekin ezkondu zen eta, besteak beste, bi seme izan zituzten: Jose Ignacio, etxean segitu zuena, eta Miguel Ignacio.

Jose Ignacio Agirre Aztiria (Igeraldegarakoa 1813) Zumarragako Maria Micaela Alzola Pildainekin ezkondu zen. Jose Ignaciok, Legazpiko *Iturraundi* (gaur egun, Posta-etxea) eraiki zuen.

* Juan Francisco Agirre Alzolak (Igeraldegarakoa 1847) jaso zuen etxearen oinordekotza, emaztetzat Telleriarteko Elorzako Bernarda Aseginolaza Ugarte hartuz. Zortzi seme-alaba izan zituzten: Estanislao, Maria Salome, Teresa, Pedro, Sebastian, Ignacio, Martin eta Isaac.

–Islao etxera ezkondu zen.

–Maria Salome Madrilerara ezkondu zen, Francisco Parrarekin.



Igeralde leinuaren ezkutua.

- Teresa kalera ezkondu zen, Patricio Etxeberria enpresa-gizonarekin.
- Pedro 27 urterekin hil zen, Castro Urdialesen hargintzan zebilela.
- Sebastian kaleko Kantoikoa etxera ezkondu zen, Francisca Urdinguio-rekin.
- Ignacio ezkongai geratu zen.
- Martin Argentinara joan zen.
- Isaac frantziskotar egin zen.

* Estanislao Agirre Aseginolaza (Igeraldegarakoa 1878) geratu zen baserriaren buru eta Urtatzako Basilia Aztiria Aztiria-rekin ezkondu zen. Gurditan ekarri omen zuten Basiliaren arreo Urtatzagarakoa baseritik, Daniel Apaolaza Aseginolazak, Estanislaoren lehengusuak, bidaia soinuaz alaitzen zuen bitartean.

Estanislao eta Basiliak lau seme hazi zituzten: Juan, Facundo, Victoriano eta Cruz.

- Juan Zegamako Monica Ormazabalekin ezkondu zen.



Patricio Etxeberria eta Teresa Agirre Aseginolaza.



Juan, Facundo, Victoriano eta Cruz Agirre Aztiria (1932-05-02).

- Facundo Zatuiko Lorenza Ugarterekin.
- Victoriano Bergaretxeko Pilar Ugarte Elkorobarrutiarekin.
- Cruz Hernaniko Agustina Iribarrekin.

Azurmendi-Arrondotarrak

* Igeraldegarakoa bi bizitzakoa izan da urte askotan. Hala, Agirretarrekin batera Apaolaza-Zabaletarrak bizi izan ziren XIX. mendearen erdialdean. Mende honen hasieran, berriz, Apaolazatarrek utzitako bizitzan Azurmendi Arrondotarrak, lehenengo, eta Elizburu Elorzatarrak, ondoren, bizi izan ziren.

Bernabe Azurmendi Azurmendi (Zegama 1874) eta Margarita Arrondo Enparantza (Agirregoikoa 1874) senar-emazteak sei seme-alabekin bizi izan ziren Igeralden: Gregorio, Leoncia eta Tiburcia, batetik, ama batenak; Celestino, Dionisia eta Segundo, bestetik, Margaritarenak.

Celestino, zaharrena, kabo mikelete egon zen Otzaurten, baina «gerrakoan» atxilotu eta Urretxun fusilatu egin zuten Francoren aldekoek.

Segundo Azurmendi Arrondo, gazteena, 14 urterekin Legazpiko Pedro Seguraren teilerrian lanean hasi zen «eskribiente» gisa, eta 27 urte arte ibili zen bertan. Abertzale sutsua zenez gerra aurrean politika giroan murgildu zen, EAJn lehenengo eta Jagi-Jagin, ondoren, militatuz. Kazetari lanetan ere ibili zen *Argia* eta *Euzkadi* aldizkarietarako hainbat kronika eta artikulua idatzi zuelarik. *Axal-zulo* eta *Atarrese* izengoitiak erabiltzen zituen. Jarduera horien ondorioz, kartzela eta erbesteria ezagutu zituen. Bermeon hil zen, 1996 urtean.



Daniel Aranguren Mendizabal, Jose Gaztañaga Zangitu eta Segundo Azurmendi Arrondo.

Don Ignacio argazkilaria

Esteban Alzelai Guridi

Personaia honen bizitza kontatzerakoan, gaur egun *Correos* deitzen diogun Iturraundi etxea nahiz Igeralde baserria aldez aurretik aipatzera beharturik gaude, haren erreferentzia puntuak baitira.

Hala bada, 1852 urtean, Jose Ignacio Agirre Aztiriak, Igeraldegarako maiorazkoak, Legazpiko plaza nagusi aurrean dagoen Iturraundi izeneko iturriaren ondoko baratza zati bat eta Otsategi deitzen zen tejabana udalari erosi zizkion, guztira 423 erreal eta 17 marai ordainduz (GPAH20).

Jose Ignaciok, gizon ausarta eta saiaturia izaki, tejabana zaharra botata iturriaren gainean guk ezagutu izan dugun etxe polit hura eraiki zuen, etxeari Iturraundi izena ipiniz, hain zuzen ere. 1877an Igeraldegarakoako maiorazkoak, aipaturiko etxea haren anaia Miguel Ignacio Agirre Aztiriari, 7.000 pezetan saldu zion.

Delako Miguel Ignacio (Den Ignacioren aita) 1818ko uztailaren 31n, Igeraldegarako baserrian jaio zen, haren aita Igeraldekoa eta ama Urtatzagarakoa izanik. Lehen karlistada bukatu eta Bergarako Hitzarmenaren ondoren, hots 1839an, euskaldun mutil gazte ugari Kuba eta Filipinetara joan ziren. Igeraldeko mutila ere, nonbait orduko giroak eraginda edota aberastasun bila, Kubarako asmoz itsasoratu zela dirudi. Legazpiko 1843ko errolda batetan "*ausente en ultramar*" agertzen da bederen.

Carmen Montegi Markaide (Den Ignacioren ama) 1826ko abenduaren 25ean Donostian jaio zen, eta Santa Maria eliza nagusian bataiatu zuten Carmen Gregoria Francisca izenak jarri. Aita donostiarrak eta ama, berriz, Arrasatekoa zituen. Carmen, Juan Francisco Alzolarekin ezkondu ondoren Donostian bertan bizi izaten jarri ziren. Ezkondu eta urte gutxira, sute baten ondorioz, etxea erre zitzaien eta ezbeharrari ihesi, Kubara atzerriratu ziren. Juan Franciscok eta Carmenek hiru seme-alaba izan zituzten: Francisco, Wenceslao eta Elisa. Mutil biak umetan hil omen ziren. Senar-emazte hauek, Kuban ere ez zuten izan zorte gehiegirik, itxuroso kokaturik «ameriketak» egiten ari zirela, zorigailzak berriro ere eraso eta, ustekabean, Juan Francisco Alzola hil egin baitzen. Carmen Montegi nahiko gazterik alargun geratu zen, neskatxo bat berekin zuela. Artean Kuban zebilen Igeraldeko mutila ezagutu eta denbora laburrera bigarren aldiz ezkondu zen, kasu honetan Miguel Ignacio Agirre Aztiriarekin. Agi denez, ezkondu eta berehala Espainiara itzuli ziren, bizilekua Madrilén finkatuz. Ordurako aipaturiko Miguel Ignacio Agirrek urte asko zeramatzen Kuban eta lanik egin gabe, indiano gisara, lasai eta eroso, bizi izateko hainbat dirutza nahiz ondasun eskuratuta zuela dirudi. (Anaiari Legazpiko etxea eta bere ingurua erosi zizkion eta akzio ugari zituen Espainiako bankuan, Tabacalera, meatzeetan, beste zenbait kreditu eta abar). Beraz, bere «ameriketak» egin zituen.

Arestian aipatu bezala, Miguel Ignacio eta Carmen Madrilén jarri ziren bizi izaten eta lau seme-alaba izan zituzten: Severiana, Ignacio Miguel, Maria Carmen eta Constanza, denak Madrilén jaioak. Miguel Ignacio Agirre Aztiria, 1888ko otsailaren 7an Madrilén hil zen eta haren emaztea Carmen Montegi Markaide, berriz, 1910eko ekainaren 28an, hura ere Madrilén.

Ignacio Miguel Agirre Montegi 1861ean Madrilén jaio zen (legazpiarrek *Den Ignacio madrileñoa* deitzen zioten). Familiarekin Legazpiko etxean denboraldi luzeak ematen omen zituen, udaldiak Deban pasatuz. Den Ignacio ezagutu zuten herritarrek diotenez, gizaseme garaia, lerdena, dotorea eta modu onekoa omen zen, eta janzerakoan, berriz, beti ongi

apaindua, ingeles tankera zuela. Ez zuen unibertitate titulorik, baina oso jakintsua omen zen, European zehar asko ibilia: Bordeaux, Marsella, Niza, Roma, Venecia, Florencia, Milan, Strasburg, Wiesbaden, eta abarretan (hark ateratako argazkiek erakusten duten bezala). Gaztaroan, denboraldi batez Bordelen aritu izan zen lanean, eta litekeena da argazkigintzarako zaletasuna nahiz trebetasuna han eskuratu izana. Haren argazki-lanak ikusita, maisutasun handia nabari da. Legazpiko etxean argazkigintzarako ongi hornituriko laborategia omen zuen.. Zalantzarik gabe, Legazpiko lehena izango zen. Halaber, jakin dugunez, Madrilgo banketxe batean ere lana egin omen zuen.

Hizkuntza aldetik, frantsesa oso ongi menderatzen omen zuen; euskara, berriz, erabat alderantziz, nahiz eta gurasoak euskaldunak izan. Esaldi arrunt eta hitz banaka batzuk besterik ez zekien, eta apur hori hurrekin erabiltzen omen zuen.

Ama hil ondoren, Den Ignacio artean ezkongai zela, eta haren arreba Carmen, hura ere ezkongai, Madrilgo *Plaza del Progreso*-n (gaur Tirso de Molina deritzan kalean) jarri ziren bizi izaten, garai horretan Legazpiko etxearen jabetza, oinordetzaz, Den Ignacioren eskuetara pasa zelarik. Arreba Carmen hiltzean, 1916 inguruan, Madrilgo etxebizitzan bakarrik geratu zen eta Legazpiko etxera aldatzea erabaki zuen, 1934. urtera arte Legazpin finkatuz. Hiru neskamerekin (Markastegierrotako Paulina Zangiturekin, Ariztonagako Rufina Ugalderekin eta Nicolasa Amianorekin) lanik egin gabe jauntxo gisara bizi izan zen.

Den Ignacio, umezalea zenez, herriko haur gehienak haren inguruan eske izaten omen zituen. Ahots eztsu eta atseginez honela esaten zien: *"A ver, a ver niños, ¿habéis estudiado mucho? Hala, tomad unos caramelos, para que seais buenos estudiantes"*. Karameloak *LA PAJARITA* Madrilgo goxoki-denda ospetsukoak izaten ziren. Gaur egun ere, denda horrek bere izen onari eutsiz, Puerta del Solen segitzen du.



Carmen Agirre Montegi eta Ignacio Agirre Montegi.

Den Ignaciok Legazpin egiten zuen bizitza nahiko xumea zen, ez zen herriko arazoetan sartzen, berekiko bi ohitura nagusi zituelarik: bata, Madrilen argitaratzen zen *EL SOL* egunkaria eta hura ezkutatzean *ABC*, lehen orrialdetik azkeneraino egun oro irakurtzea, eta bestea, paseatzea, Brinkolara nahiz Udana aldera. Benetako ibiltaria eta natur zalea baitzen. Bestalde, ezagutu zutenek esaten dute, haurrekin izan ezik, ez zela lagunarteari emana, bakarti samarra zela, eta bere kasako bizitza egiten zuela. Baina bazituen lagun berezi bana-ka batzuk: Patricio Etxeberría, Olaberriko Braulio Zabaleta eta Igeraldeko baserrikoak, denak tartekoak baitziren.

Norbaitekin solastu behar eta, Braulioarekin harreman estuak izan zituen. Ia egun oro egoten zen harekin, egunkarian irakurritako gertakizun eta pasadizo guztiak zehatz-mehatz kontatzeko. Halaber, Frantziako egoera eta batik bat, munduko lehen gerratean gertaturiko-az, ongi informaturik edukitzen zuen, bertan lan egin zuenez, gertutik segitzen baitzion han-goari. Horrela bada, Olaberriko Braulio, herriko gizonik informatuenetariko bat zen, Den Ignacioren esker.

Gizon haren iritzi politikoa zein zen ziur-ziur ez dakigu. Egun oro hain gogoko zuen *EL SOL* irakurtzen zuenez eta egunkari haren joera zer-nolakoa zen jakinda, ideologiaz monarkikoa izango zela suposatzen da.



Iturraundi etxea (Ignacio Agirre Montegi).

Arestian esan bezala, 1936ko guda iritsi zenean, Legazpi utzi eta Donostian, Julia ilobaren etxean bilatu zuen babesa, gatazka bukatu arte. (Julia, familiarekin batera, urte oro Madrildik Donostiara udara pasatzera etortzen zen. Gainera, haren aita ere Igeraldekoa zen).

Gerra amaitu eta berehala, berriro Madrilerira itzuli zen, Santa Catalina kalean kokatuz. Nahiz eta Madrilen bizi, tarteka Legazpira etorri eta bertan egoten saiatzen zen, ez baitzeukan etxea erabat itxita. Neskame edo etxe-zaintzako zerbitzuak Nicolasa Amiano Albisu araiarrak egiten zizkion (gaur egun, Gasteizen bizi da).

1942ko urtarrilaren 12an, 81 urte zituela, Den Ignacio Agirre Montegi, mutilzahar hil zen Madrilen. Alvaro Rodriguez Agirre iloba nagusiak jaso zuen Legazpiko etxearen oinordekotasuna.

1946ko irailaren 24an, Alvaro Rodriguez Agirrek, «Estafeta de Correos» bulegoak sortzeko, Legazpiko udalari hamar urterako alokatu zion. Geroztik gaurdaino *Correos*-ek toki berean segitzen du. Hortik datorkio etxeari *Correos* izena, bere jatorrizko izena erabat ahaztuta.

El pájaro azul

1934. urtean Juan Pedro eta Facundo Agirre Aztiriak (Igeraldegarakoa 1911 eta 1913) Brinkolako lehen autobusa erosi zuten, Chevrolet berri-berria. Txasisa Donostian eskuratu eta Tolosan *Eizagirrenea*-n karrozatu zuten, guztira hemezortzi mila pezeta ordainduz.

Hasiera batean Brinkolatik *Patricio Etxeberria* lantegira joateko Telleriarteraino oinez joan behar izaten zen, eta han Francisco Mendia Leundaren (Itsaso 1874, Legazpi) autobusa hartu. Baina, *Patxi karretero*a jubilatu zenean Igeraldeko Agirretarrak hasi ziren zerbitzua eskaintzen eta Brinkolatik gainera. Orduan, autobus-patentea merke ematen zuten langile-zerbitzu bezala jarriz gero, eta modu horretan, Patrizionean lana egin eta aparteko soldata irabazten hasi ziren Agirretarrak. Langileak goizean eraman eta iluntzean ekartzen zituzten. Gerora eguerdiko joan-etorria ere jarri zen, jendeak hala eskatuta. Asteburuetan ibilaldiak egin ohi zituzten. Lehenengoa Gabiriako Itzaitegi sagardotegira egin zuten Legazpira etortitako Araiako langileekin (*Miguelico* Garate, Gordoatarrak...).

1936ko gerratean autobusik gabe geratu ziren eta beste bat erosi zuten, baina zaharra, kolore urdinekoa, legazpiarrek *Pájaro azul* izenez ezagutu zutena. «Zerbitzu publiko» gisa deklaraturik ez zegoenez, ez zuen gas-olio kupoa jasotzeko eskubiderik, errazionamendu garai hartan, eta eragozpen haiek gainditzeko beste bigarren eskuko *Anomag* bat erosi zuten, hura bai, zerbitzu publiko gisa deklaraturik. Kotxe «sorgina» omen zen, barruan jarleku bat eta kanpoan agerian beste bat zuena (*Ahi-te-pudras* bezala ere ezagutzen zen auto mota hori). Hari zegokion erregaiarekin *Pájaro azul* erabiltzen zuten eta, nahi adina ez zegoenez, negu partean bakarrik. Uda partean bizikletaz joan behar lanera.

Denborarekin Agirretarren «automobil-parkea» hobetuz joan zen.

26. IGERALDEAZPIKOA

* Igeraldeazpikoa baserriaren jabeak Guridi-Igeraldetarrak izan ziren XVII. mendetik XVIII. mende hasierara arte, eta haien ondorengo Ugartetarrak XX. mendera arte.

Etxeberriatarrek eta Plazaolatarrak, berriz, errentan izan zuten etxea hainbat hamarkadatan.

Guridi-Igeraldetarrak, Ugartetarrak eta Plazaolatarrak

* XVII. mendearen hasieran Arabaolatzako Guriditegi etxean jaiozako Simon de Guridi Igeraldeazpikora ezkondu zen Maria Ascension de Etxeberriarekin. Era honetan Guridi-Igeralde deiturari eman zion hasiera Igeraldeko etxean (Jaka4: 151). 1649. urteko errolda batean (LUA6) "Ygueralde Yusso" izeneko etxean Simon de Guridi «errejidorea» bizi zela ikus daiteke, arestian aipatutako gizaseme berbera seguruenik.



Igeraldeazpikoa baserria (PA 1996).

1670. urtean Juan de Guridi de Igeralde honako ondasun hauek zituen: “La casa y casería de Ygueralde de Iuso y la Casa de Ciordia” (GPAH5).

* XVIII. mendearen hasieran, Igeraldeazpiko alaba Magdalena de Guridi Martin de Ugarterekin ezkondu zen eta, horren ondorioz, hurrengo belaunaldiek Ugarte deiturarekin segitu zuten.

1757. urtean Andres de Ugarte eta Josefa de Errasti ziren baserriaren jabeak.

* XIX. mendearen hasieran Plazaolatarrak bizi ziren Igeraldeazpikoan. Haietako bi, Dominica eta Maria Francisca Plazaola, Olazargo mutilekin ezkondu ziren: Maria Francisca etxera, Juan Jose Inurritegi Aztiriarekin, eta Dominica Olazarrera, Jose Domingo Inurritegi Guridirekin. «Trukaketa ezkontza» izan zen, beraz.

Maria Francisca eta Juan Josek bost seme-alaba izan zituzten: Joaquina Ignacia, Dominica, Josefa Ignacia, Manuel Antonio eta Juan.

XIX. mendearen bukaeran, Inurritegi-Plazaolatarrak Igeraldeazpikoa utzi eta Araiztegi baserrira joan ziren bizitzera.

* 1855. urtean, Igeraldeko Ugartetarren jatorrikoa zen Martina Ugarte Agirrek, Elorza baserrira ezkondu zenean, «dote» gisa Igeraldeazpikoa jaso zuen, Elorzako errentero eta Igeraldeazpikoako jabe izatera helduz.

* XIX. mendeko 70eko hamarkadan Oñatiko Jose Domingo Ugarte eta Manuela Zabarrain (Telleri 1837) senar-emazteak etorri ziren bizi izatera. Bi seme izan zituzten, gutxienez, Crispolo eta Basilio.



Crispina Ugarte Gereñu eta Manuel Alberroren ezkontzan, 1934. urtean. Atzean: Mandazainen bat, ?, ?, Juana Agirre Zaldúa, Teodoro Agirre Zaldúa, Rafaela Alberro, Crispina Ugarte Gereñu, Manuel Alberro Oderiz, Luisa Etxeberria Aldanondo, Remigio (soinujolea), Juan Agirre Aztiria. Lurrean: Lucia Peña, Conchita Peña, Marcelina Agirre Zaldúa.

- Krixpolok* karrilean lan egin zuen, bizitokitizat Etxeandui eta Motxorroko kaxeta izan zituelarik. Francisca Larrañagarekin ezkondu zen lehen aldiz; bigarrenez Josefa Goibururekin
- Basilio Iraulika fabrikako baskularen arduradun izan zen. Zeraingo Serotegi baserriko Josefa Larrañagarekin ezkondu eta bi seme izan zituzten: Jose eta Tomas. Baina alargundu eta bigarrenez Segurako Maria Gereñu Etxeberriarekin ezkondu zen, beste bi alaba mundura ekarriz: Crispina eta Juana Ugarte Gereñu.

Mariari *Xesteroxea* deitzen zien, Segurako Xexteronekoa zelako eta Brinkolan ere «xextoak» edo saskiak egiten zituelako. *Krixpiña*, Arrarasgo Manuel Alberro Oderizekin ezkondu zen.


Etxeberriatarrak

* Etxeberriatarrak 1769. urtean jadanik baziren Igeraldeazpikoan, errentero gisa: "*Contrato del arriendo de la casa de Ygaralde de abajo para Francisco y Andres de Echeverria por Andres de Ugarte*" (GPAH14).

XIX. mendearen bigarren erdian, Matias Etxeberria Telleria (Igeraldeazpikoa 1841) Idiazabalgo Manuela Aldanondo Esnaolarekin ezkondu zen. Manuelari *Manuela kanpanerea* deitzen zioten, elizako kanpaiak jotzeko ardura zuelako. Kanpaiak lehen eguerdiko hamabietan, «abemariakoetan» eta jaietan ilundu baino lehen jo ohi ziren. *Maties*-engatik gizon handia eta bizar ederrekoa zela esaten dute. Lau seme-alaba izan zituzten 1878 eta 1888 bitartean: Jose, Lorenzo, Francisca eta Luisa.



Zumarragako Hotel Paraiso aurrean. Eskuinekoa Maria Luisa Etxeberria Aldanondo.



Jose Etxeberria Aldanondo, *Joxe matxeroa*.

- Joseri *Joxe matxeroa* deitzen zioten, haren lana Iraulika fabrian mandoak zaintzea izaten baitzen.
- *Lorentxo* gazterik hil zen.
- Franciscak, izeko Manuelak bezala, elizako kanpaiak jotzeko ardura zuen. Beti manta-larekin ibiltzen omen zen.
- Luisa Zumarragako Hotel Paraison ibili zen zerbitzen, nonahi aparteko umorea erakutsiz: beti kantuan eta bertsoan aritzen omen zen. Aretxabaletako Nicolas Peñarekin ezkondu eta zazpi seme-alaba izan zituzten: Jesus, Jose, Lorenzo, Maria Cristina, Nati, Rufino eta Conchita.

Jesus Peña Etxeberria (Brinkola 1914) euskal kazetari modura nabarmendu zen, *El Día*, *Argia*, *Euzkadi* eta *Gure mutilak* aldizkarietan hainbat artikulua idatzi zituelarik. Zoritxarrez, Francoren tropak Aretxabaletan sartu zirenean, atxilotu eta Santander aldean hil zuten 1937ko abuztuaren 29an.

* XX. mendearen hasieran (1910 LUA20), hirugarren etxebizitza ere bazen Igeraldeazpikoan. Hala, goiko aldean, Pablo Sanchez karrileko faktorea eta bere familia bizi ziren; erdian Ugartetarrak; eta beheko aldean Etxeberriarrak. Geroago, beheko aldea saldu eta baten lekuan bi egin zituzten.

1910eko hamarkadan, goiko etxebizitzara Pablo Hombrados (Guadalajarakoa jatorriz) eta Francisca Oñatibia beasaindarra, senar-emazteak, etorri ziren bizi izatera. Pablo, igeltseroa ogibidez, Patxinea etxea egiten ibili zen, besteak beste. Haien bost seme-alabetatik bik ospea lortu zuten **arte munduan** handik urte batzuetara.

Gregorio eta Cesar Hombrados Oñatibia

GREGORIO Hombrados Oñatibia (Zarautz, 1902 - Tolosa, 1978). Gaztetan Baionara joan eta han hasi zituen pintura-ikasketak; handik Parisera joan eta gero Frantzia osoan barrena ibili zen erretratuak egiten eta ikasten. Arte-kritikari eta artikulugile ere izan zen. *Historia del País Vasco* liburua egiteko, berrogeita hamar urtez datu, ilustrazio eta argazkiak biltzen jardun zuen. Euskal Herriko ohitura eta jendea erakutsiz eta gai erlijiosoetan oinarrituz koadro asko pintatu zituen (*Descubrimiento de América*; *Zumalacárregui en la batalla de Descarga*; *Las Juntas de Guernica en 1631*; *Aparición de la Virgen de Aranzazu a Rodrigo de Balzategui*; *Juramento solemne de Fuenterrabia*, etab). Oraindik argitaratu ez den *Diccionario monumental del arte-artistas de Euzkadi* bibliografi lana egin zuen.

CESAR Hombrados Oñatibia (Donostia, 1910-77). Gai erlijiosoak eta natura gaitzat hartuta, neurri handiko dekorazio-lanak egin zituen (*Muerte de San Vicente de Paul*). Hegoamerikako, batez ere Kubako hainbat elizatan muralak egin eta hango pertsonaien erretratuak egin zituen.

(Askoren artean, 1995, *Euskal hiztegi enziklopedikoa*, Klaudio Harluxet Fundazioa, 4.tom.: 602)

Jesus Peña Etxeberria (1914-1937)

Esteban Alzelai Guridi

Aretxabaletan 1914ko abenduaren 24an jaio zen. Haren gurasoak: Nicolas Peña Irizar eta Igeraldeazpiko Luisa Etxeberria. Lekukoek diotenez, Jesus halabeharrez jaio omen zen han. Alegia, Luisa ama izateko nahikoa aurreraturik zegoela, senarraren familiarekin Gabonak iragan asmoz, aldatu omen zen Brinkolatik Aretxabaletara.

6-7 urte arte Igeraldeazpikoan bizi izan zen eta 15 urterekin Aretxabaletako *Beroa* enpresan, administrari gisa hasi zen lanean. Denbora librean berriz, merkatal produktuen ordezkarri. Halaber, oso gazterik Aretxabaletako Batzokiko batzarkide aktiboa izatera iritsi zen. Izan ere, Jesus bizitzako gai guztietan txit goiztar izan zen.

Deba Garaian berriemaile bezala ezaguna izan zen, bere idatz lanak *Aitza* goitizenez sinatzen zituelarik. Garai hartako aldizkari garrantzitsuenetan idatzi zuen: *Euzkadi*, *Gazte*, *Argia* eta *Gure mutillak*, besteak beste. Alegia, 1933-1937 tarte horretan artikulua ugari idatzi zituen eta denak euskaraz, hain zuzen. Ezagutu zutenek esaten dute haren euskara dotore, gozo eta herrikoia amarengandik eta Brinkola auzoan jasotakoa zela.

36ko gerratean, Francoren aurka *Saseta* batailoian borrokatu zuen azken ordura arte. Tamalez, Reinosa mendietako guduan zauritu eta preso egin zuten, jarraian Santanderko eritetxera eramanez. Halako egun batean, besterik gabe, zegoen ohetik hartu eta eraman zuten, ondoren fusilatuz. 1937ko abuztuaren 29an izan zen, 22 urte zituelarik. Horrela bada, Francoren soldaduek etorkizun handiko euskal idazle gazte bat hil zuten.

Ezer argi egotekotan gauza pare bat argi daude: Jesus abertzale eta euskaltzale sutsua zela, eta literatur talentu bat alferrik galdu zela.

Hona hemen 1935eko martxoaren hiruan *Argia* aldizkarian argitaratu zuen artikulua pasarte bat:

- *Kaxo «Aitza»*
- *Zer dabillek, Martin?*
- *Emen nebillek denpora pasa.*
- *Denpora pasa? Denpora pasa egon gabe lan aberkoi asko arkitu lezakek pa, arranoak ezpaituk!*
- *Bai, bazekiat zer esan nai dekan. Ik izparringietako zertxobait idaztia esan naiko dek, ez dek ala? Baño nik orretarako balio ez diat.*
- *Aizak, euk nai ez dekalako, nai duanak aisa idatzi lezakek, naiz ta egia izan dan-danak orretarako balio ez dutela.*
- *Ireak, beintzat, irakurri zituagu ta... bapo zioik.*
- *Bapo... edo zapo, arpegiak illuntzen asi dittuk. Orreindako ez dek bapo egon...*



Jesus Peña Etxeberria, 1936-03-26

- *Izan ere! Ik pe, aundiak ipintzek dizkiotek eta...! Ori etzeok ondo egiña, gaizki baño.*
- *Bai Martiñ, ori gaizki egiña egongo dek, baño jibosoa ere ezuan ondo-ondo egiña, baño... or ibiltzen da bere konkror eta guzi!*
- *Ja, ja, ja! ¡Asi alaiz, asi!*
- *Lau urte ontan, asko-asko ez.*
- *Umereko ago!*
- *Ala esaten dik «Zintzo'k», umoreko nagola, bertso batzuek bota diotelako berari. Orrek zer uste ote dik, bertsoetako umorea bear dala? Orretarako "artia" bear dik, eta «Zintzo'k» ez dik iñoiz ezagutu.*
- *«Zintzo» aitatu dekan ezkeru, zerbait galdetu bear diat. Nola dek baño, orain igeltzero orrek, bi metro ta erdi naikoa dirala etxe batetik bestera eskatzea, len beorrek zazpi eskatuta?...*
- *Baño oraindik orrela ago? Entzun: Bi moskortzen diranean eta balantzaka asten diranean, bata bestea urreratu ezkeru edo bat egiten baditek, ez dek aiñ errez lurrera erortzen. Ba Martiñ, beste ainbeste gertatzen dek etxe orreikin ere: Zenbait eta bide gutxigo batetik... bestera, orduan da zallago lurrera erortzen, ta orretarako obe likek "metro" bat bakarra eskatu. (¿Comprendido?)*
- *Ederki zio, eta berandutu gabe baniak. Agur, Aitza, gero arte.*

27. ZIORDI

* Brinkolako zubi azpian, Igeraldetik Aitzegi eta Agirrezabalera doan bidearen ertzean, bazen Ziordi izeneko baserri bat. Gaur egun, ordea, ez da haren aztarna txikirik ere geratzen.

Saturnino Telleriak XVI. mendeko Legazpiko etxeen zerrenda batean (Telleria: 92) "*Hecheverria Ciordia*" aipatzen du «casa de tercio de fuego» gisa. Badirudi, hortaz, mende hartan edo eraikia zela.

* XVII. mendetik aurrera Igeraldeazpikoari lotuta azaltzen da, hangoak baitira etxe-jabeak:

-1648. urtean Simon Guridi Igaralde.

-1660. urtean Juan Guridi Igaralde, Simonen semea (GPAH8).

-1705. urtean Magdalena Guridi eta Martin de Ugarte senar-emazteak (GPAH7).

-1757. urtean Andres de Ugarte eta Josefa Errasti senar-emazteak (GPAH6).



Ziordi baserrira joateko zubia (JLU 1994).

1769. urtean Andres de Ugartek Ziordi etxea eta etxaldea Francisco de Idigorasi eman zion errentan. Hona hemen jarri zizkion baldintzak: urte oro 7 dukat dirutan, Gabonetan kapoi bat, eta hitzarmenean finkatu epean seinalatutako bi lur-sail «ondeatu» eta soro bilakatu behar zituen. *“Y es condicion de que dicho Ydigoras haia ondear asu costa y reducir a tierra labrada y corriente dos porciones de terreno que se le estan señalados”* (GPAH13).

* 1787. urtean Jose Agirre eta Catalina de Idigoras senar-emazteak bizi ziren hiru seme-alabekin: Lorenzo, Jose Manuel eta Maria Anastasia (DEA 1787).

XIX. mendetik aurrera, berriz, ez da gehiago aipatzen baserri hau. Agi denez, baserri hau ez zen oinetxe sendoa izango. Historian zehar, haren nagusiek sortu zituzten hainbat «censo» edo «hipoteka» ikusita, badirudi diru eskasia aldiatarako erabiltzen zutela ondare hau.

28. TREN-GELTOKIA

Brinkolako tren-geltokia ez zen trenbidearekin batera eraiki «frantsesaroan», handik 30 urtera baizik, Oñatiko herriak egindako ahaleginaren ondorioz. Hori dela eta, trenbidea ebaki eta hiru hamarkada luzeetan Altsasu eta Zumarraga bitartean ez zen geltokirik ezagutu. Aita Lasak, *Tejiendo historia* liburu mardulean ondo azaltzen digu kontu hau:

“El día 2 de agosto de 1864 se inauguró el tramo del ferrocarril Beasain-Alsasua, y la doble vía en 1909 entre Alsasua y Beasain. Desde 1864 hasta 1900 no hubo estación entre Zumarraga y Alsasua. La de Legazpia por razones técnicas no se hizo hasta tanto que no se electrificaron los trenes, después del año 1930. En Brincola había un apartadero o vía muerta. Toda la facturación se hacía en Zumarraga. Y para los oñatiarras y, en consecuencia, para Aranzazu, quedaba muy distante: de Oñate 17,8 kms, y de Aranzazu 27,1 kms. Por espacio de 7 kms aproximadamente, desde lo alto de Udana contemplaban el tren que pasaba en la cercanía, viéndose obligados los que deseaban servirse de él a continuar su marcha hasta Zumarraga, con grave quebranto para la industria y comercio” (Lasa 1977: 283).



Tren-geltokia (JLU 1996).

Tren-geltokiaren komuneko detailea (JLU 1997).

Baina oñatiarren kemenari esker azkenean lortu zen geltokia eta, harekin batera, hain-beste desiraturako abantailak:

“El día 31 de mayo de 1904 el Ayuntamiento de Oñate pide a la Dirección General de los Ferrocarriles que se detuviesen todos los trenes de viajeros (en Brincola). No accede a la petición, pero ofrece facilidades para que en Brincola pudiesen expender billetes valederos para viajar a Alsasua y poder pasar a otro tren sin volver a facturar el equipaje. El 20 de septiembre de 1904 el Alcalde solicitó de la Dirección General de Correos y Telégrafos dictase órdenes convenientes para que la correspondencia destinada para Oñate no la dejasen en Zumarraga como hasta entonces, sino en Brincola. El 1 de Abril de 1905 solicitó Oñate que la estación de Brincola se denominase de “Oñate” o también “Brincola-Oñate”. Y quedó con esta última denominación” (Lasa 1977: 287).

Mikeleteak eta kontrabandoa

Geltokia eraiki zenean Gipuzkoako Aldundiak mikeleteak ezarri zituen Brinkolan zergak biltzeko, garai hartan beste lurraldetatik ekarritako produktuengatik zergak ordaindu behar izaten baitziren. Brinkola, gainera, trenbidearen taxuketari erreparatu, Gipuzkoako mutur batean zegoen kokatuta, Nafarroarekin mugan.

Zergak kobratzea zen, beraz, mikeleteen eginkizunetako bat, ondoko pasartean ikus daitekeen bezala: *“Desde el año 1876 (el cuerpo de Miqueletes) sigue cumpliendo los fines administrativos y de vigilancia que le están encomendados. La Diputación dispone de esta fuerza para el resguardo y la recaudación del impuesto de consumos, arbitrio provincial que devenga la importación de géneros de comer, beber y arder...”* (Lojendio 1915: 6). Horretarako, kaxeta txiki bat zuten geltokiaren parean eta han egoten ziren.

Honako hauek ibili ziren mikelete hasiera batean Brinkolan: Bernabe Azurmendi Azurmendi (Zegama 1870), Lorenzo Balmaseda Miguel (Gaztelu 1864), Ladislao Galfarsoro Inurritegi (Elorregierrota 1890), Leandro Heriz (Zegama), Jose Gibelalde Malkorra (Aia 1873)..

Kontrabandistek ez zuten, hala ere, atzera egin egoera berriarekin, arbasoengandik baitzetorkien, zenbaiten kasuan, hartarako grina. Badakigu, horrela, Errautegin 1834. urtean jaiotako Bartolome Guridi Guridik Frantziatik zetozen paketeak Arabara pasatzen zituela mendiz, «karabineroetatik» ihesi. Marcelino Guridi Inzak ere, aitona eta aitaren bideari jarraikiz, ezagutu zuen lanbide hura: *“Diputazioi 10 xentimo eta 15 erriiri (pagatu behar zitzaion). Pixue deklaratzera obixpoik e etzian juten, bestela, trintxeretatik gelditu makinak eta, andi etazten genduztan da, ai de Dios, eta or pareta zulon sartu”* (MGI 1990).

Tentu eta artea eskatzen zuen lanbide hark eta, bestela iruditu arren, kontrabandista eta mikeletea ez ziren askotan horren aurkari gertatzen: *“Aik (mikeleteek) geratu ezkeo denuntzie ipintzen zien ba, ordun paau in bear. Erandako ardoa ere bai. Gure aitte zanak, ua re kontrabandista puxkaat izan bear zian, eta Justo Ojangurenekin batea ta, Bernabe mikeletendako re ekarri ddak. Gañeakoa etxea ekarri ta, or eoten zian, arteiko paretan sartuta, paetan zian ba zulo bat goitik beera, ta gañea losekin tapau, juxtu juxtun, eta etziaoan antzik ematen iñok”* (MGI 1990).

Baina estuasunak eta komeriak askotan pasa behar eta zaildutako kontrabandista haien ahotan ez zen pasadizo zelebrik falta izaten: *“Karrillero batek in tzian, Julian serenoan aitte zanak (Justo Ojanguren Agirre, Etxeaudi 1863), aurreko gauen bi zaagi ekarri, bi xaagi koxkor, izango ittuan, 20-25 litro ero, 30ez azpikook, Markastegi alden emen zebildan lanên,*

karrillen, da alde iñ emen tzian aide Dios, alguazille ikusi arek beti gora nola zetorren kamiñon, etxea etorri, aitte eo etxakiat zeñ, artu zaagik, eta «bota sispes», adios karajo. Etorri emen ittuan, ona mikeletei abixatzea, emen eote ittuan bi mikelete Brinkolan, da oiei abixau ta jun dek. Etxea registrau ta, zaagik zeen, sixpean soon. Ta noa jun izango ote zan, agiri ez, agiri ez. Ola ta ola jun nauk, alguazille ikusi diat or, da bart ekarritakoak baauzkiat aide Dios aik kentzea atzeti. Komerik ebaltzen genduztan ordun” (MGI 1990).

«Brinkola-Oñati» garraio-zerbitzua

* Mende hasieran, Brinkolako geltokitik Deba Garaira jende eta merkantzia ugari ibiltzen zenez, garraio-zerbitzua ezarri zen bien artean: hasiera batean zaldiek eta idiek tiratutako «karro» eta bolanteekin, gero autobus eta kamioiekin.

Lehenengo aldian, bidaiariak Oñatira eraman eta ekartzen «diarioa» ibiltzen zen: *“Para los viajeros, los medios de traslado eran unas diligencias llamadas «diarixuak» arrastradas por tres hermosos caballos, con departamento para diez personas y una delantera «peskanti» donde iba el cochero con un par de viajeros valientes pues se iba casi a la intemperie. Para el servicio particular se contaba con los coches «cestas» ligeros y abiertos con solo lonas de protección y los coches «landos» que se consideraban de lujo, cerrados y tapizados, en todos estos el cochero iba a la intemperie. En todos ellos no había más medio de calefacción que una ligera capa de paja en el suelo, por lo que los viajeros tenían que llevar para abrigarse mantas, habiendo unas que se llamaban «mantas de viaje» que se llevaban enrolladas y sujetas con unas correas”* (Juan Zubia).



Trena Motxorroko pasonibel paretik pasatzen 1902. urtean.

Bi «kotxero» ibiltzen ziren batez ere garai hartan: *Tomas Altzin* eta *Andres kotxeroa* eta lehia bizian askotan, bidaiariak nork eramango. Esaten dutenez, bidaiari bakarra bazen, haren poltsatik tiraka ere bai inoiz. Andresengatik beste hau ere kontatzen du Juan Zubiak: *“Andrés tenía parada obligada en Udana para que los viajeros saludasen a Petra. Esta parada la hacía la caballería instintivamente sin necesidad de indicación ni voz alguna. Este Andrés el cochero era un hombre de una gran simpatía y usaba un lenguaje original (con su putrefasia) que causaba la hilaridad de los que le escuchaban”*.

Merkantzia garraiatzen, berriz, «karreteroak» ibiltzen ziren, «bolanteak» deitzen ziren gurpil handiko «karroekin», oinez. Brinkolatik Agirreburualdeko *Eustaxio* Sagastizabal eta Kortako Francisco Inurritegi *Patxi Korta*; Olabarrietatik Billargoitiko Manuel Arriaran Irizar, Beltxorrenako Jeronimo eta Romualdo Arregi anaiak...

1918. urte inguruan «San Prudentzio-Oñati-Brinkola» autobus-zerbitzua ezarri zen. Izan ere, urte hartan «Maltzaga-Gasteiz» trenbidearekin batera geltokia eraiki zuten San Prudentzio auzoan.

1923. urtean, trena San Prudentziotik Oñatira ekarri zuten eta, horren ondorioz, Oñatitik San Prudentziorako autobus zerbitzua desagertu egin zen. Deba arroan barrena zihoan trenari *Beheko trena* deitzen zioten oñatiarrek, *Norteko trena* edo *Goiko trenetik* bereizteko.

1924. urtean Oñatiko Atxa eta Arana lagunek *Transportes La oñatiarra* enpresa sortu zuten, Oñatitik Brinkolara eta Arantzazura zegoen mugimendu handiaz jabetuta. Hala, «Oñati-Brinkola» eta «Oñati-Arantzazu» lineak jarri ziren abian, bidaiari nahiz merkantzien-tzat. Bidaiari gehienak Arantzazurako izaten ziren eta merkantziak, berriz, Brinkolarako.



«Oñati-Brinkola-San Prudentzio» ibilbidea egiten zuen lehen kotxea, 1920. urte inguruan. Lehenengo ilaran: 4. Nicolas Peña (Aretxabaleta 1888); 5. Crispina Ugarte Gereñu; 6. Maria Cristina Peña Etxeberria

1931. urtean Oñatiko 22 enpresa-gizonek erosi eta elkarte anonimo bihurtu zuten. Horien artean, Pablo Madina Aldanondo *Txurruka* autobus gidari ezaguna zegoen.

La oñatiarra-ren autobusak goizeko zortzietan irteten zuen Oñatiko unibertsitate paretik eta bederatzietarako Brinkolara heltzen zen. Han, hamaikak arte egoten zen, *Korreoa*-ren zai. Jendea eta esne-marmitak hartu (*Nartzi* Arrondo, besteak beste, esne-partitzen ibiltzen zen Oñatin) eta Oñatirantz abiatzen zen. Eguerdialdean, Oñatiko tren-geltokian, bidaiariak hartu eta Arantzazurako bidea hartzen zuen. Arratsaldeko lauretan, Arantzazutik Brinkolarako bidaia egiten zuen. Brinkolan zortziak arte itxaron eta Oñatira itzultzen zen azkenik. Igande eta jai egunetan goizeko zortzietarako etortzen zen Brinkolara Arantzazura peregrinazioan zetorren jendea eramateko.

Goizeko autobusean Eugenia Sukia «rekadista» ibiltzen zen, beso bakoitzean zumitzezko saski handi banarekin. Donostian enkarguak egin eta, atzera, zortzietako trenean itzultzen zen.

Garai hartan «martxa» handia izaten zen Brinkolan, hainbat entpresatako produktuak bertako geltokitik bidaltzen baitzituzten: Oñatiko *Garay y Arregui*; *Moyua, Elorza y Altube*; *Zubia, Faus y Cia*; *Chocolates Maiztegui*; *Hilarion Umerez*; *Mateo Altuna*; Azpeitiko *Muebles Azkue*; Eibarko *Untzueta*, eta abar.

Arantzazura erromes

Igande eta jai egunetan «erromes» ugari etortzen zen trenez Brinkolako geltokira, handik Arantzazura joateko. Tolosaldekoak omen ziren ugarietak. Santutegirako bidea *La oñatiarra*-ren autobus eta kamioietan egiten zuten.

Diotenez, hirurogei kamioi eta autobus pilotzera ere iritsi ziren inoiz geltoki inguruan. Kamioiek jarlekuak jarrita edukitzen zituzten. Arantzazuko «Amaberjinak» nahikoa mirari egingen omen zuen *La oñatiarra*-ren kamioi eta autobus zahar haiek goraino iristen laguntzearekin. Izan ere, autobusak barrua eta goia beteta, eta kanpoko eskaileretan jendea «txintxilizka» zutela joaten omen ziren. Jaiero-jaiero herriren batetik edo bestetik izaten zen «peregrinazioa». Txoferrak: Antolin, *Txurruka*, *Lorentxo*, eta abar izaten ziren. Aste barruan «fudreak» eramanez ibiltzen ziren eta jaietan «jende-karreoa».

Jai arratsaldeetan Arantzazuko autobusa iritsi eta trenea hartu bitartean dantzaldia izaten zen Patxinearen aurreko aldean. Agirrezabalgo *Bittor* Andueza Zangituk (Agirrezabal 1912) jotzen zuenean Legazpitik errepidea bete jende etortzen omen zen. Ignacio Inurritegi Arrizabalaga (Patxinea 1926) ere aritzen zen soina jotzen. Arantzazuko Agirretxe eta Korta fraideek debekatu egin zioten peregrinaziotik bueltan zetozenei lotutako dantzak jotzen.

29. JOANMARINEA

* Mende honen hasieran (1902-1903) Juan Mari Galfarsoro Inurritegi (Elorregierota 1881) eta Bernarda Legorburu Inurritegi (Kortaazpikoa 1886) senar-emazteek taberna jarri zuten gaur egun Brinkolako Zoiloetxe izenez ezagutzen den etxean. Bi seme izan zituzten: Pedro eta Juan.



Juan Mari Galfarsoro Inurritegi, Juan Galfarsoro Legorburu, Bernarda Legorburu Inurritegi eta Pedro Galfarsoro Legorburu.

Bernarda gazterik hil zen eta *Joanmari* bigarrenez etxeko «kreada»-rekin ezkondu zen: Josefa Arrizabalaga Otegi zegamarrarekin.

* Joanmarinea, taberna ez ezik denda ere bazen, azukrea, olio, ardoa, txokolatea eta abar saltzen zituztelarik. Taberna eta denda, biak toki berean, atean sartu eta ezkerretara zeuden, bi mostradorekin. Bazkariak ere ematen omen zituzten.

Adinekoak gogoratzen dira oraindik, txikiak zirela, enkargutara joandakoan Bernardak ematen zien txokolate ontzarekin.

Joanmarik, bestalde, oso kafe ona egiten omen zuen, kanpoan su egin eta berak txigortuz. Esaten dutenez, kanpotik ere jende asko etortzen omen zen kafea hartzera beste eginkizunik gabe.

* Joanmarinean bizi izan ziren, halaber, *Txaratsoa* (Gertrudis Aierbe Zabaleta, Mutiloako Guillermo Lekuona Barrenetxea *Txaraka*-ren andrea) eta haren alaba Teresa Lekuona Aierbe.

30. PATXINEA

* Patxinea izenez ezagutzen den etxea Juan Mari Galfarsoro Inurritegik (Elorregierrota 1881) eraiki zuen 1922. urtean. Alargun eta bi seme-eren aita zen orduan. Baina etxe berrian, bigarrenaz, Josefa Arrizabalaga Otegi neska zegamarra hartu zuen emaztetzat.

Elkarketa berri horrek ere ez zuen askorik iraun, handik gutxira Joanmari hil baitzen, *Joxepa* alargun utzita.

Eta *Joxepa*, bigarrenaz, Kortagarakoa baserriko Francisco Inurritegi Inzarekin (*Patxi Korta* eta *Patxi Taberna*) ezkondu zen, mundura bost seme-alaba ekarriz: Ignacio, Luis, Sebastian, Carmen eta Pilar.



Bilbon gerran ibilitakoak. Goiko ilaran: Teodoro Agirre Zaldia, Francisco Andueza Zangitu, Eugenio Zabaleta Oiarbide, Paco Gordoia, Jose Zangitu Arsuaga, Pedro Arsuaga, mikeletea. Erdiko ilaran: Doroteo Gibelalde Aranguren, Juan Zangitu Arsuaga, Angel Murua Alkorta, Vicente Gibelalde Aranguren. Beheko ilaran: Remigio *Naparra*, ikazkina (Ermentaria); Valentin Andueza; eta Angel Murua Manterola.

* Patxinea, taberna ez ezik ostatu (geltokiko faktore eta orratz-zaintzat, batez ere), jate-txe eta janari-denda ere bazen. *Corte Ingles* txikian, besteak beste, abarketak, piper poteak, atun-latak, ardoa, olioak, txokolata eta abar saltzen zituzten. Ardoa Lakuntzatik ekartzen zuten eta zahagiak, berriz, Araiatic.

Baserritar asko goizeko zazprietako meza ondoren tabernara inguratzen ziren, anisa gailetekin hartzera.

Jatetxeari dagokionez arkume asko, legatza, bakailaoa eta haragi gisatua jaten zen batez ere. Jaietan lau arkume ere erretzen ziren; salda egiteko, berriz, bi oilo egosten zituzten. Legatza arratsaldean hasten ziren frijitzen, eta txapa gaineko tartera batean edukitzen zuten arratsalde osoan. Tripakiak eta txipiariak gertatzeko ohitura handia zegoen.

* Beheko solairuan Etxegarartetik etorritako Jose Gibelalde Malkorra (Aia 1873), mikelete kaboa, eta Juana Aranguren Mujika (Azpeitia 1889) senar-emazteak bizi izan ziren. Zazpi seme-alaba hazi zituzten: Lucio, Vicente, Doroteo, Pedro, Agustina, Francisca eta Eustaquio.

San Agustin eguna

Brinkolako egun handia San Agustin eguna izaten zen. Mende hasieran egun hori bakarririk ospatzen zen eta «konbidautza» ere egun horretan egiten zen. Meza nagusiaz aparte bertsolariak, apustuak, bolak, «jazbana» eta soinu-joleak izaten ziren.

Bertsolariak oso maiteak ziren. Bere kasa aritzen ziren, gajartzailerik gabe: bat Josemarineko leihoan eta bestea eliz atari gaineko eskolako leihoan, elkarri zirikatuz. *Frantsesa, Asteasu, Zepai, Txapel...* izan ziren Brinkolara etorritako batzuk. Ez zuten mingaina dantzatzeko beldurrik izaten eta, horrela, behin batean Zepaik honela erantzun omen zion ikusle bati: *“Neregatikan joan zindezke / zakurraren ipurdira”*.

Dantzaldiaren garaian goiko tabernan «jazbana» egoten zen eta behekoan berriz txistulariak. Urte batzuetan *Elorrixo* izeneko soinu-jolea bizikletaz etorri zen, soinu eta guzti. Dantzaldiaren antolatzaileak ibili izan ziren inoiz jende artean, txartela paparrean jarri eta pezeta bat edo bi kobratuz, ordaintzeko diruak osatuko baziren.

Egun handi horretan apustuak ez ziren falta izaten, kanpoko itzain eta mandazainen artean gehiago bertakoen artean baino. Urte bateko apustua hau izan zen: batek Brinkolatik Udanara korrika, besteak egurra ebaki, ea nork lehenago egin. Telleriarteko estankoko *Attaun*-ek aizkoran irabazitako apustua ere gogoan dauka jendeak.

Baina bertakoak «bolatan» aritzen ziren gogoz, «txakurraundi» bana bota trabesean eta txanpon guztiak nork eskuratuko lehia bizian.

Jende asko izaten zen, kaletik ere asko joaten zelarik. Esaten dute lgeraldeko sagastira joaten zirela meriendarekin.

* Gerra aurrean argitaratzen zen *Argia* aldizkarian honako artikulua argitaratu zuen batean Daniel Aranguren (Goitar izengoitiarekin sinatzen zuen) San Agustin jaiaren inguruan:

“URTEKO JAI NAGUSIAK. Eldu zaizkigu guk ainbesteraño ospatzen ditugun jaiak, au da, “San Agustiñak”, eta guztiok dakizuten bezela, ill onen 28'an asiak izaten dira. Au dala ta aurten ere pesta ederrik asko izango ditugu. Goizetik Meza nagusia eta ezpata-dantzariak, eta arratsaldetik berriz naikoa soñu ta dantza izango degu. Auetzaz gañera gazte eta zarrak denbora nun igaro badaukagu bola-tokian edo beste orrelako jolasetan. Baña beti euskaldun bezela, okerreko bideak atzeritarrentzat utziaz ibili gaitzen.

BOLA JOKU AUNDI BAT. Bola jokua ere izango degu eta ez nola naikoa ere. Nik entzun detanez Goierriko bolaririk onenak emen izango ditugu. Bola joku au Agorraren 2'an arratsaldeko 4'tan izango da eta nai duten bolari guztiak sartu ditezke, sarrera bi laurleko ordainduta. Sariak ere ez dira nola naikoa izango, aundiak eta asko. Dirua irabaztea nai dezutenak badakizute egun orretan nora jo. Ea bada bolariak, joan lenbait-len zeon izenak ematera boleroagana".

1948an, berriz honela idatzi zuen Agirrezabal-ek San Agustín bezperan:

"Con motivo de la festividad de San Agustín, el barrio de Bríncola celebra sus fiestas anuales, que este año se ajustarán al siguiente programa para los días 27, 28 y 29 de los corrientes. Día 27, a las siete de la tarde volteo de campanas y disparo de cohetes, y a continuación gigantes y cabezudos. Día 28, a las ocho de la mañana, diana. A las diez y media, solemne misa mayor en la que ocupará la sagrada cátedra el orador sagrado Den Facundo San Pedro. A continuación, concierto por el acordeonista Den Félix Ugalde. A la misma hora y alternando con el anterior, actuación de los "bertsolaris" Michelena y Hernani. A las cuatro de la tarde, concurso de bolos. Desde las seis en adelante, músicaailable. En los intermedios actuarán los "bertsolaris" antes citados. Día 29, desde las diez de la mañana habrá una serie de juegos infantiles consistentes en carreras pedestres, cucañas, etc, etc. A las once, comienzo del concurso de bolos. Desde las seis de la tarde, músicaailable. A las once de la noche, se quemará una colección de fuegos artificiales".

31. JOSEMARINEA

* Mende honen hasieran (1910-1920 bitartean) Jose Agirrezabal Zabaletak, *Joxe Araiztegi*, (Araiztegi 1860) Brinkolako elizaren parean etxe berria eraiki zuen Telleriarteko Landaeta etxeke harriak erabiliz. Haren iloba Jose Mari Agirrezabal Etxeberria (Aritzibekoa 1884) eta beraren emaztea, Cesarea Ormazabal Galfarsoro (Elorza 1887) jarri ziren bizitzen beheko solairuan. Taberna, ostaua eta denda jarri zituzten garai hartan Brinkolatik pasatzen zen hainbat eta hainbat jenderi (mandazain, itzain, «karrilero», ardozale...) atsedeen-lekua eskaintzeko asmoz.

Josemari «negozio-gizona» zen eta, tabernaz gain, bazituen beste diru-iturri batzuk: baserrietako esnea bildu eta Altsasura saldu; egur-ikatza erosi eta Bergarako *Altos Hornos* eta Araiako *Ajuria*-ra saldu; zurgintza... Hilkutxak ere egiten zituen. Diotenez, barrua forratze-ko oihala hildakoaren senitartekoez eramaten zuten.



Josemarinea mende hasieran.



Andres Agirrezabal Ormazabal, Cesarea Ormazabal Galfarsoro, Julita Agirrezabal Ormazabal, Manuela, Angel Agirrezabal Ormazabal, Jose Mari Agirrezabal Etxeberria eta Amparo Agirrezabal Ormazabal.

Josemari eta Cesareak bost seme-alaba izan zituzten: Andres, Amparo, Julia, Angel eta Jose.

* Lehenengo solairuan Florentina Agirrezabal Guridi, *Joxe Araiztegi*-ren alaba, eta Olaberriko Dimas Zabaleta Guridi jarri ziren bizitzen. Florentina eta Dimasek bi alaba izan zituzten: Maria Luisa eta Maria Pilar.

Etxe honetan Batzokia egon zen, beheko solairuan lehendabizi eta lehenengoan gero. Batzokia izan aurretik eskola ere izan zen Telleriarteko eskolan eraikuntza-lanak zirauten bitartean.

Nazionalistak eta errepublikanoak

* Gerra aurrean politika giroa pasio handiz bizi izan zen Brinkolan, bi talde edo alderdi bereizteraino: nazionalistak batetik, eta errepublikazaleak bestetik, beren elkarguneak Josemarinean eta Patxinean finkatu zituztelarik, hurrenez hurren.

Nazionalistek «batzokia» sortu zuten Josemarinean. Errepublikazaleek «centro republicanoa», berriz, Patxinean. Azken horren sorreran eragin handia izan zuten trenbidean lan egiten zuten makinista, «jefe», faktore eta abarrek.

* Diotenez, errepublikako lehenengo bandera Gipuzkoa mailan Eibarren jarri zen eta ondoren Brinkolan. Banderaren kontua hizpide harturik, 1933. urtean Benito Beain Barrenak (Agirrezabal 1907) eta Francisco Andueza Zangituk (Agirrezabal 1909) Telleriarteko San

Juan arbolaren puntan errepublikako bandera jarri zuten, udalak debekatu arren (Jaka2 1990: 105). Brinkolako Centro Republicanoak, ordea, gobernadoreari gertaeraren berri eman eta bandera bertan uztea erabaki zen.

Errepublikazaleek goiko zubitik Batzokikoak zirikatzen jarduten omen zuten, *“Tenéis sangre de nabo”* eta antzerakoak esanez. *“Si supieran los curas y frailes la paliza que les vamos a dar, subirían al coro cantando: libertad, libertad, libertad”* kanta ere ezaguna zen garai haietan. Gero, jakina, ia egunero borrokak egoten omen ziren.

Patxinean, garai hartan jaiero hiru arkume erretzen omen ziren. Hainbeste jende etortzen zen, goiko pasiloan ere mahaiak jartzen baitzituzten. Kanpoan, berriz, «gramola» jartzen zuten «txotis» eta «tangoak» aineratuz. Eta San Agustinetan Eibarko *La Romeral* banda ere ekarri izan zuten.

EAJ-PNV-k antolatuta, berriz, mitin asko izaten ziren Brinkolan gerra aurrean, behin Gipuzku Buru Batzarreko Carlos Linazasorok eman zuelarik.

* Gerra ondoren errepublikazaleen «arima gorria zuritzeko» zigor handiak ezarri zituzten irabazleek.

* Brinkolako *Argia*-ko kronikagileak (Daniel Aranguren *Goitar*-ek) honela idatzi zuen Brinkolan gertatutako atxiloketa bati buruz gerra aurreko urte batean:

“ESPETXERA: Tolosa'ko espetxera eraman dituzte Zangitu'tar Isidro, Gibelalde'tar Eustakio eta Belez'tar Fabian. Matxinadako egun gogangarri aietako batean, karea egiteko makina dinamitaren bitartez auts egin zuten. Ak ote ziran ustekotzat eraman zituzten, eta orain eurak dirala aterazi dioten zurrumurrua dago”.

32. ALBERDIETXEA ETA IRAULIKA FABRIKA

* Alberdietxea Gracian Alberdi Arangurenek (Urretxu 1842) eraiki zuen mendearen hasieran Iraulika fabrikarekin batera, eta hortik bere izena.

Etxearen parean harrobia zegoen, «porlana» egiteko behar zen harria ateratzeko. Harrobia Igeraldegarako Jose Ignacioren sailetan zegoen, 1908ko agiri honetan ikus daitekeen bezala:

“Don José Ygnacio Aguirre (...) da en arrendamiento a Don Gracián Alberdi y Aranguren, mayor de edad, casado, industrial y vecino de Villarreal, el trozo o parcela que se ha descrito al principio (Soroaundi, Belategui y Elcicorta), siendo el objeto principal del arrendado la extracción de piedra que existe en tal trozo o parcela, para la elaboración de cemento en la fábrica del Señor Alberdi que en las inmediaciones posee éste (...) La renta o merced del arriendo rural que deberá satisfacer el arrendatario Señor Alberdi es de veinte pesetas anuales, pagaderas por anualidades vencidas, y la duración del contrato de diez años contados



Iraulika fabrikako harriak (Julian Auzmendi 1994).

desde la fecha de la escritura que motiva la presente (...). Vergara, a diez y ocho de febrero de mil novecientos ocho" (BJE, Legazpiko 8. tomoko 2. liburua).

Armuño elkarteak dagoen lekuan fabrikako biltegia omen zegoen eta zakuak egoten omen ziren, «hauts-depositoa». Eta biltegia eta Zoiloetxea bitarteko tejabanan «matxeroa»-ren idia egoten omen zen.

Iraulika fabrika

Mende hasieran, Gracian Alberdi urretxuarrak zementu hidraulikoa egiteko enpresa sortu zuen Brinkolan, baldintza egokiak ikusten baitzituen horretarako: tren-geltokia eta lgeraldeko harrobia, biak oso gertu. «Matxaka» mugitzeko energia indarra, berriz, Olazar burdinolaren ubidetik ura hartuz lortu zuen. Aurrikuspenak bete egin ziren eta Brinkola eta Telleriarteko bizilagun asko enplegatu zituen.

«Baskulan»	Basilio Ugarte Zabarain (Igeraldeazpikoa 1868)
«Makinista»	Jose Ugarte Larrañaga (Igeraldeazpikoa 1896)
«Matxeroa»	Jose Etxeberria Aldanondo (Igeraldeazpikoa 1878)
«Arri-etatzallek»	Julian Agirre Agirrebengoa (Oñati, Pastain 1887) Juan Jose Inurritegi Inurritegi (Olazar 1884) Pascual Zabaleta Agirre (Garroetxeberri 1873) Francisco Javier Zabaleta Zabaleta (Garroetxeberri 1904) Jose Miguel Idigoras Enparanza (Zerain 1880, Garrotxiki) Pedro Etxeberria Inurritegi (Uarkalde 1882)
«Labe-erretzalek»	Justo Etxeberria Zabaleta (Eguzkitzabekoa 1890) Pantaleon Etxeberria Pagola (Eguzkitzabekoa 1900) Gregorio Odria Erostegei (Elorregi 1903) Dionisio Agirre Zangitu (Barrundiola 1903) Victoriano Pablo Agirre Zangitu (Barrundiola 1905)
«Ermentarie»	Dimas Zabaleta Guridi (Olaberri 1883, Olazar)
«Enkargaua»	Marceliano Urmeneta Alzueta (Igeraldeerrota 1866) Jose Andres Etxeberria Zaldúa (Barrundiola 1909)
«Barrenadorea»	Matias Etxeberria Telleria (Igeraldeazpikoa 1842) Pedro Zabaleta Larrea (Brinkolazar 1913)
«Zaku-josten»	Manuela Aldanondo Esnaola (Idiazabal 1850, Igeraldeazpikoa) Simon Odria Erostegei (Elorregi 1897) Francisco Etxeberria Zabaleta (Eguzkitzabekoa 1895)
Sailkatu gabe	Marcelino Guridi Inza (Errautegei 1900) Francisco Ojanguren Etxeberria (Etxeaundi 1905) Francisco Javier Zabaleta Zabaleta (Garroetxeberri 1904) Luciano Ugalde Guridi (Olazar 1886) Isidro Zangitu Arsuaga (Gibelolagarakoa 1908) Eusebio Etxeberria Zaldúa (Barrundiola 1907) Antonio Zabaleta Kerejeta (Brinkolazar 1909) Andres Agirre Zangitu (Barrundiola 1898)



Iraulika fabrikako langileak. Goialdean: ?, Jose Miguel Idigoras Enparanza. Zutik erdian: Justo Etxeberria Zabaleta, Andres Agirre Zangitu, Juan Jose Inurritegi Inurritegi ?. Eserita: Pedro Etxeberria Inurritegi, ?, Marceliano Urmeneta Alzueta, ?, Matias Etxeberria Telleria, Julian Agirre Agirrebengoa, Luciano Ugalde Guridi.

1924. urtean, Gracian Alberdi hiltzean, Juan eta Luis Alberdi Garcia semeek hartu zuten enpresaren ardura.

Hona hemen Iraulika-fabrika gertutik ezagutu zuten bi ergoendarren testigantzak. Lehendabizi Marcelino Guridi Inzarenak (Errautegi, 1900-1994) eta ondoren, Eusebio Etxeberria Zalduarenak (Barrundiola, 1907-1996):

* *“Or itten zian kanteran etaa arrie eta gero labên erre, itten zian. Gero karretilân eo leen esan deuna, eo bagonetân eo karretilân ekartzen zian. Eta orraa, eta eunen metrobetae bajatzen zitean oriei, goiti, eta beti etaa e? B(a-i)ño, goitti metrobetae bat inguru bajatzen zittuan. Gero átzea bete eta arrillara baten, lekun, beste illara bat botatzen zitean, arri ikatza. Emendi etortzen zian, Bizkai alde ontati etortzen zian, etxeiak nundi ekartzen tzuen. Da urran-go eunên berrizee beera, beean etâ. Eta geo, urrengo eunen etâ eta, sestôn artu eta matxakâ eramaten zian. Eta gero matxaka ortan iotzen (t)zien dana, da andi gora makinek jasotzen zian gora, ta goien eoten zian zâkue betetzeko zea, zaku betetzailera leraldekoa. Kaguén laletxe, auxe ek akordau eziñe, koño, dios. ...etâ eta batek bete eta bestêk karreau itten zian”.*

“Eozemouzê, neuk pentsau itten diat, matxakea ipiñi baño lên, arri orikin zeauko ete zan. Matxaka arek iriñe itten zian eta kajoian gora i(dd)otzen zian eta gero go(dd)en eoten zian zaku betetzen”.

“Igaraldekoa ibiltzen zian ídîkin estaziõra eamaten. Idîk kendu baño leen berak mandõa ekarri zian, mando zuri bat. Iru gizonek, bi launek ekarri karretilân, ta batek ipini, kârron itten zian, da gero estazion ê, âtzea, iru laun artên átzea kargatzen zien bagoia. Mandoa triki-

traka, triki-traka, triki-traka audogo ibiltzen zian ba, zeati pausoa azkarragoa dik pa mandök..."

"Gracián Alberdi nik etxekiat diario etortzen zan, baño egun bizbat beintzet etortzen zian. Olazârren zian orrek depósitua, alde bitakôna, bat Errementári aldeti zetorrena, ta beste aldeti Barrendiolati zetorrena, ta geo an artu ta fábrica etortzen zian, laraldeko soropeti. Ta lânen zebiltzen garaian, lan asko ibiltzian, ta bera etortzen zian".

"Kôtxekin etortzen zian ura. Kotxeroa bazeukian, zaldizaie. Eun baten, zurrute gustatzen kotxero orri, da geldittu ek taernan da, ta bestêk zaldie artu ta beaje, anka. Ta emen Telleriarten arrapau zian" (MGI 1990).

* *"Kanterea Aulderdin. Egúrrekin asten tzan; gero iketza, bi klase, bat léntoa, bestea azkarrá, ta arrie tonelada kaja bat, da ala indartzen zan, ta geo zapatun karga geixeo sartu, asteleneako indarra kertau pixkat, ta astelenen ikatz geixeo bota bear zenion (...). Dimas berriz beti tanto porzientokin ibiltzen zan, beti arrie, arrie goien da arrie beean. Geo, tenienteá aitzerea euko zu? (Esteban Agirre), arekin asarráuta junitzen Brinkola bein. Anaie zana an zebildan (Joxe Zaldua), Segurarrak zien ba ordun nausi, ta arek, koño, (...) etorriko alitzake?, oiñ usteet enkargaukin aserreuta, ara junitzean... Bueno firmá, iñok argie ekarriko izu eta beste bi launekin labea ebaliko altzendue. Baño kondezio batekin e?, onek ezteilla ankaik sartu, Dimas orren mendea. Zu bide puntun an Paskualekin bean, zuk labe kontun eztakizu ezerree, diru kontu besteik. Bueno, bueno, bueno, kitto!. Esan txáon (...). Neekin ibili zienak, bo, kaantun, bestek dioska baten arri karreon. Eusebio Etxeberria hornero, onekin ezteu eze itten. Gero apirillan erdin, ospa, ikazkintza ies ein non" (EEZ 1996).*

Gerra ondoren, «gose garaian», jende askok bidean gaztainak jaso eta Hidraulikako labeetan, txapa gainean erretzen zituzten.

33. AGIRREBURUALDE

* Egun *Aulde* izenez ezagutzen dugun baserriak Agirreburualde du jatorrizko izena. Eraikuntza zaharra da, 1532. urtean jadanik aipatzen baita agiri zaharretan (LUA3). Mendeetan zehar, gaurko egunera arte, hasierako Agirreburualdetarren oinordekoak bizi izan dira hemen, azken bi mendeetan Sagastizabal deitura hartu badute ere.

Gaur egun Eguzkitza baserri biekín eta Muntegirekin auzo egiten badu ere, lehenago Garro auzoan sartzen zela pentsa liteke ondorengo arrazoiengatik: lehen Garroetxeberri baserria zuen «lehenengo auzo»; ganadu kontuetan ez da *San Agustin* ermandadearen partaide izan, *San Joan*-goa baizik; 1886. urtean ez zuen Brinkolako eliza berria eraikitzeko lagundu, kontu honetan Garro auzoko gainerako baserritarrek bezala jokatuz...

* 1753. urtean Juan Bautista Agirre zen Agirreburualde eta Telleriarteko Albitsu etxearen jabe (GPAH1).



Agirreburualde baserria berri aurretik (JLU 1994).

* Sagastizabal abizena XVIII. mendearen bukaeran iritsi zen Agirreburualdera, etxeko Ines de Agirre Oñatiko Lorenzo Sagastizabalekin ezkontzean.

Inesek, garai hartan gertatu ohi zen bezala, deituraren zati bat galdu zuen, bere gura-soak Tomas Antonio de Agirreburualde eta Tomasa de Zabaleta baitziren.

* Lorenzo eta Inesen ondoren, haien seme Martin Manuel Sagastizabal Agirrerren eskuetara (Agirreburualde 1810) pasa zen baserria.

Hurrengo belaunaldiko jabea, berriz, Ignacio Antonio Sagastizabal Telleria (Agirreburualde 1835) izan zen. Diotenez, eliz atarian, ezkontza egunean ezagutu zuen bere andrea izango zena: Arrolako Josefa Iturbe Urzelai. Ez ziren itxuraz gaizki konpondu, zortzi seme-alaba izatera heldu baitziren: Eustaquio, Petra, Sinforoso, Feliciano, Juana, Raimundo, Patricia eta Martina.

* Eustaquio (Agirreburualde 1869) geratu zen baserriaren buru, emaztetzat Eguzkitzabeko Josefa Ignacia Etxeberria Zabaleta hartuz. Haiek ere familia handia izan zuten, zazpi seme-alaba: Juana, Narcisa, German, Fermin, Clara, Maria eta Benigna.

–Juana Arabaolatzaneko Goiko kaxetako Esteban Gereñurekin ezkondu zen.

–Nartzi Argentinako Rosario de Santa Fe hirira joan zen bizitzera, seme-alabarik ez zuten osaba-izeba batzuen etxera.

–German etxera ezkondu zen, Oñatiko Eztenaga baserriko Felipa Guridirekin.

–Fermin, arreba Nartzi bezala, Ameriketara eramán zuten urte batzuk beranduago.

–Clara Zumarragara ezkondu zen, Emiliano Olmorekin.

–Maria Eguzkitzagoikora, Damaso Ugarterekin.

–Benigna, Bergaretxera Norberto Ugarte Elkorobarrutiarekin.



Karreteroak eta «bolanteak» Udanako labeen aurrean mende hasieran.

Eustaquio Sagastizabal Iturbe **karretero**a zen ogibidez, egungo kamioizaleen parekoa. Brinkolako geltokitik Deba Garaira egiten zituen «porteak»: Oñati, Arrasate, Aretxabaleta... herrietara. Goizean goiz jaiki, idi eta bolantea hartu, eta egun osoan izaten zen kanpoan. Iluntzean, iritsi zela adierazteko, txistua jotzen zuen beheko bidetik eta etxekoren bat joaten zitzaion idien bila, baserrira eramateko. Hark, bitartean gurdia gertatzen zuen hurrengo egunerako. Eustakioekin batera Patxi Inurritegi Inza tabernakoa ere ibiltzen zen «karretero» lanetan; oso lagun ziren.

Emigrazioa

Gure aurrekoek baserriko lanez gain hainbat zereginetan aritu behar izaten zuten bizi-modua aurrera aterako baldin bazuten, baserriak etekin urria ematen baitzuen. Mahaiaren inguruan biltzen ziren senide gazteak, horrela, eskola pixka bat ikasi orduko kanpora abiatzen ziren gosea uxatzeko: morroi, neskame, «pintxe», eta abar.

Garaian garaikoari egokitzuz jarduten zuten inguruko harrobi, baso edo meatzeetan txanpon batzuk eskuratzeko ahaleginetan.

Hala ere, norik daki beharrak eraginda ala gazte sasoiak ematen duten ausardia tarteko, urrutiko lurraldeetara abiatu zenik ere bazen.

Bilboko portuan barkuan sartuz Ameriketarako bidea hartzen zuten gehienek etorkizun oparoago baten bila. Gure auzoan ere familia gehienetan aurki genezake itsasoz bestalde joandako osaba, iloba edo lehengusuren bat.

Hona hemen joandako batzuen izenak:

Nora	Nongoak	Izenak	Jaioturtea
Uruguay (La Asunción)	Bergaretxe	Jose Pablo Legorburu Apaolaza	1847
Uruguay (La Asunción)	Bergaretxe	Pedro Legorburu Apaolaza	1852
Uruguay (La Asunción)	Kortaazpikoa	Saturnino Legorburu Inurritegi	1882
Uruguay (Montevideo)	Guriditegi	Victor Guridi Raizabal (itzuli)	1860
Uruguay (Montevideo)	Guriditegi	Sebastian Guridi Aranburu	1880
Uruguay (Montevideo)	Guriditegi	Valerio Guridi Ojanguren	1898
Uruguay (Montevideo)	Guriditegi	Maria Ascensia Guridi Ojanguren	1907
Txile	Agirrezabal	Santiago Beain Barrena	1893
Argentina	Igeraldegarakoa	Martin Agirre Aseginolaza	1893
Argentina (Rosario)	Agirreburualde	Narcisa Sagastizabal Etxeberria	1906
Argentina (Rosario)	Agirreburualde	Fermin Vicente Sagastizabal Etxeberria	1911
Argentina	Gibelolagarakoa	Isidro Zangitu Arsuaga (itzuli)	1908
Argentina (Buenos Aires)	Ermentaria	Tomas Antonio Agirre Urmeneta	1850
Kuba	Igeraldeazpikoa	Cesar Hombrados Oñatibia	1910
Kuba	Igeraldegarakoa	Miguel Ignacio Agirre Aztiria	1818
Kuba	Olazar	Francisco Inurritegi Zangitu	XIX. mendea
EEBB (California)	Aierdi	Jose Mari Iturbe Ormazabal	1874

Nora	Nongoak	Izenak	Jaioturtea
Mexiko (Zacatecas)	Guriditegi	Juan Agustin Guridi Agirre	XVII. mendea
Mexiko (Pazquaro)	Guriditegi	Juan Pablo Guridi Agirre	XVII. mendea
Venezuela	Gibelola	Benita Zangitu Arsuaga	1918
Venezuela	Brinkolazar	Jose Zabaleta Larreta	1909
Venezuela	Brinkolazar	Cruz Zabaleta Larreta	1918
Dominikar errepublika	Etxeaundi	Antonio Guridi Agirre	1701

Industrian nahiz nekazaritzan edo arte-munduan gogor lan eginez hainbat ondasunen jabe izatera iritsi zirenak ere baziren. Batzuk bertan errotu ziren eta etsi ezinik zeudenak, berriz, jaioterrirako bidea hartu zuten diru pixka bat egin orduko.

Aberastuta itzuli ziren «indiano» haiek utzi omen zuten ekarritako dirutzaren aztarnarik, joan den mendearen bukaeran auzoan eraikitako baserriak lekuko.

34. GARROAUNDI

* Garro deitura aspaldikoa da Legazpin. Hala, Juan Carlos Guerra kondairagileak 1377. urte inguruan kokatzen du Legazpin bizi izandako *Sancho de Garro* gizasemea (Gerra 1928: 225). Udal artxiboko agirietan, berriz, XV. mendekoak dira Garrotar zaharrenak:

–1412: “*Iohan Sanches de Garro*” (Ayerbe 1994: 39).

–1483: “*Juan Sayns de Garro*” (Ayerbe 1994: 121).

–1483: “*Joan Morron de Garro; Juan Çentol de Garro; Pedro de Garro*” (Ayerbe 1994: 130, 131, 140).

Deitura hori Brinkolako Garro etxaldeak sortutakoa da seguruenik. Etxalde horretan bost eraikuntza ezagutu dira historian zehar (Garroaundi, Garrotxiki, Garrotxo edo Txuluplantegi, Garrotxonea eta Garroetxeberri). Esanguratsua da haietako baserri batek Garroaundi izena izatea, *Aundi* izateak asko esan nahi baitzuen garai batean, seguruenik auzoko etxe-buru



Garroaundi baserria (PA 1996).

zela. Antzinako erregimenean, lehenasuna eta ohorea zela eta, halako kontuak ez ziren egun bezala bazterrean uzten.

* Geografikoki, Garro etxeak bidegurutze batean zeuden kokatuak. Bertan elkartzen ziren: 1. Kortautotik zetorren bidea, *Garroestrada*; 2. Igeraldeazotik zetorrena; 3. Udanatik zetorrena, Erraizabaletik barrena; eta 4. Biozkornatik zetorrena. Azken hori, errege-bide garrantzitsua XV eta XVI. mendean (Lasa 1974: 237-242). 1532. urteko agiri batean (LUA3) "*camino público que va de Garro a Biozcorna*" irakur dezakegu. Bide horiek egundaino gorde badira ere (Erraizabaletik Udanara doana izan ezik), bigarren mailakoak bilakatu direla esan daiteke.

* Saturnino Telleriak *Historia de Legazpia* argitaragabeen, 86. orrialdean, "*Mesón de Juan Garro*" aipatzen du 1593ko agiri baten laburpena egitean. Ez du haren kokapenaren berririk ematen, baina ez da oso aldrebesa Garroauzoan zegoela pentsatzea, gorago esan bezala bidegurutze batean baitzegoen.

* XVII. mendean geroztik izen desberdineko etxeak aipatzen dira Garro etxaldean. Hala, 1621. urtean "*Echeverria de Garro*"; 1649. urtean "*Garro la mayor*", "*Garro suso*" eta "*Casillas de Garro*"; 1659. urtean "*Garrochoena grande*"; 1670. urtean "*Garro Goena*", eta abar. Hori dela eta, mende horretatik aurrera deiturak eta egungo etxeak lotzen hasteko bideak ematen zaizkigu.

* Badakigu, horrela, egun *Garro* izenez ezagutzen dugun baserria *Garro la mayor* zela antzina. Eta etxe honi gozkiolarik, XVII. mendean honako datu hauek ditugu:

-1607. urtean Maese Andres de Inurritegi aipatzen da Garroauzoan, seguruenik 42 urte beranduago "*Garro la mayor*"-en azaltzen den Juan de Inurritegiren tartekoa.



Biozkornako bidearen zati bat, Kataberatik hurbil (JLU 1994).

- 1649. urtean Juan de Inurritegi zeraindarra zen "*Garro la mayor*"-en jabea.
- 1657. urtean Inurritegitarrek baserria saldu zioten Pedro Martinez de Bikuñari 34 dukadotan (LAEA).
- 1676an (LAEA) Doña María Andres de Gorospizearrek, Pedro Martinez de Bikuñaren alargunak, eta Don Jose de Bikuña seme abadeak, Don Juan Bautista de Bikuña seme eta anaiari eman zioten "*Garro mayor*" etxea eta etxaldea.
- 1711an Juan Bautista de Bikuñak Domingo de Astiazaran eta Catalina Guridi andregzonei eman zien errentan.
- 1720 aldera Vicente Agirre eta Josefa Agirreburualde senar-emazteak errenteroak ziren. Haien ondoren Bartolome Agirre eta Maria Ana Mendizabalek segitu zuten.

* XVIII. mendearen bukaeran Tomas Francisco Agirre (Garroaundi 1762) eta Maria Alzola (Kortaberri, Zumarraga 1769) bizi ziren.

Itxura denez, haien garaian bi etxebizitza egin ziren baserrian eta Tomas eta Mariaren bi seme jarri ziren bizitzen: batean Francisco Ignacio Agirre Alzola (Garroaundi 1797) eta bestean Ignacio Agirre Alzola (Garroaundi 1801).

- Ignacio Francisca Jauregi Telleriarekin ezkondu zen baina, ez bide zuen familiarik izan. Andrearen anaia Tomas Ignacio Jauregi Telleria, Maria Andres Etxeberria Inurritegi lagun zuela Garroaundin jarri zen bizi izaten. Azken horiek seme bat izan zuten gutxienez, Jose Ignacio Jauregi Etxeberria, gero Txuluplantegira ezkondu zena Bergaretxeko Maria Ignacia Legorburu Apaolazarekin.
- Francisco Ignacio (1797), Ignacioren anaia, Maria Josefa Etxeberria Urzelairekin (Garrotxiki 1795) ezkondu zen. Haien alaba zaharrena, Tomasa Francisca Antonia Agirre Etxeberria, geratu zen baserrian Juan Jose Zabaleta Agirre (Olazar 1811) senartzat hartuta.

* XIX. mendearen bigarren erdian, Jauregitarrak ezkatutu egin ziren Garroaunditik eta bizitza bakarrekoa bilakatu zen baserria.

Jose Mari Zabaleta Agirrek (Garro 1852) hartu zuen oinordekotza Juan Jose eta Tomasa gurasoengandik. Josefina Antonia Agirrezabal Zabaletarekin (Aritzibekoa 1857) ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten 1879 eta 1883 bitartean: Maria Josefa, Jose Antonio eta Cruz.

- Maria Josefa Korkostegira ezkondu zen, Jose Mari Guridi Kortaberriarekin.
- Jose Antonio etxera ezkondu zen.
- Cruz 1913. urtean hil zen ezkongai zegoela.

* Jose Antonio Zabaleta Agirrezabal (Garro 1880-1945) Udanako labeetan ibili zen lanean 39 urtez, 1895etik 1934ra arte, beste lan batzuen artean minerala «kaltzinzatzeko» prozesuaren arduradun gisa lehendabizi, eta «labaderoa»-ren arduradun gisa gero. 1927. urtean baserria erosi zien Segurako Lardizabaldarrei. Juana Oiarbide Lizarazurekin (Gibelolagarakoa 1878) ezkondu zen eta hiru seme izan zituzten: Eusebio, Benito eta Eugenio.

- Eusebio Zabaleta Oiarbide (Garro 1907-1995) Casimira Josefa Gaztañaga Zabalo-Zuazolarekin (Odio, Mutiloa) etxera ezkondu zen eta bi seme-alaba izan zituzten: Jose Ignacio eta Maria Angeles.
- Benito Zabaleta Oiarbide (Garro 1911) elektrikaria zen eta estazioan lur gainean lo egitearen ondorioz hil zen. Udanatik jendea etortzen zenean haiei laguntzen zien musika joaz.
- Eugenio Zabaleta Oiarbide (Garro 1915) soldadutzatik etorri eta berehala hil zen.



Eusebio Zabaleta Oiarbide eta Josefina Gaztañaga Zabalo-Zuazola.

Dantzaldiak

* Gerra aurretik, uda aldeko jaietan beti izaten zen erromeriaren bat Brinkolan edo inguruetan: Olalden (Olazar burdinolaren orubean), Udanan, tren-geltoki aurrean, Telleriarten... Esaten dutenez *“nahikoa izaten zen dozena erdiren bat biltzea dantzan hasteko”*. Eta ez zituzten erromeria horietara kanpoko musika-taldeak kontratatzen, ez horixe; auzoko eta inguruko musikariekin ondo moldatzen ziren. Besteak beste, Patxineako Ignacio Inurritegi Arrizabalaga, Agirrezabalgo Victor Andueza Zangitu, Olabarrietako Felipe Mondragon *Erroxta* eta Garroko Eusebio Zabaletak alaitzen zituzten gazteen «bilera» haiek trikitri edo ahosoinuaren bidez.

Ez ziren, hala ere, arriskurik gabeko ekitaldiak izaten, abadeen begirada zorrotza jasan behar izaten baitzuten askotan. Izan ere, gazteek dantza «sueltoa» baino lotua nahiago eta apaizek «balseoan» ikusiz gero izugarritzko iskanbila sortzen zen, Kongregazioetatik (*Mariaren alabak* eta *Luistarrak*) kanporatuko zituztela mehatxatuz. Halakoa zen giroa ezen dantzaldiak geltokian izaten zirenean neska gazteei arrimatzen ere ez baitzien uzten, trenik hartu behar ez bazen behintzat, «deabruaren adarrak» zeudela esanez.

Zenbaitetan, abadeen begirada saihestearren, ohiko lekuetatik aparte egiten zituzten dantzaldiak, leku ezkutua goetan, hala nola, Kruzeroan, Iraulika fabrikako aurreko aldean, geltoki pareko «markesinan»...

Udanako erromeriak. Udana gainean Olabarrietako Felipe Mondragon Aiaštui *Erroxta*-k (Olabarrieta 1894) jo izan zuen urte batzuetan, Brinkola, Telleriarte, kalea eta Oñatiko jende asko erakariz. Bentaren parean, errepide erdian egiten zen dantza. Saio-bukaeran han bildutako jende guztia etxera bidali ahal izateko, txilibitua atera eta ra-ra-ra txiza egiten omen zuen korroan, bestela ez baitzegoen modurik etxera bidaltzeko.

Jende gazteak oso gogokoa zuen «Udanako bilera», besteak beste, «neska-laguntzea» egiteko aproposa zelako. Hala, neskek etxeraino laguntzeko aitzakiarekin ibilaldi atsegin eta «goxoak» burutzen zituzten. Izaten ziren, hala ere, salbuespenak, 1926. urte inguruan gertatutako hau bezalakoak: «*Udanatik itten gendun, ordun, neska-launtzek eta... Kortan zeon nes-kame bat eta Udanatik Brinkolara tramo dexentea ta... Baakizue, músikea eoten zan, akordeona, ta neska-launtzea. Nei tokau zitan, ba, Kortako kreádea batekin. Etzat pa Errékatako ittúrri paren, goiko bideen ondoezak eman eta seko beera. Geo bagendakiun zer-baitt atákek ematen tziuela baño pentsau re olako gauzaik eta. Launek, atzeaxeotik eo aurre-axeotik an tzién ba, otsein, torri ta, etzan urare beaje earra...*» (IOE 1997).

Baratoa biltzen. Bolada batean, Patxinea tabernan «musika-jaialdia» egoten zen jaiero. Bittor Andueza Zangitu (Agirrezabal 1912) izaten zen «artista»; Juanito Zangitu Arsuaga lehengusua (Gibelolagarakoa 1909), «managerra»; eta Patxi Inurritegi Inza tabernaria (Kortagarakoa 1881), «babesle». Bittorrek soinua jotzen zuen bitartean *Gibolatxikik* «baratoa» biltzen zuen, soinu-pieza bakoitzeko 10 xentimo eskatuz. Bukaeran, *Patxi Tabernak* biei afaría debalde ematen zien. Inoiz, Arantzazutik bueltan zetorren jendea ere bertaratzean, 300 pezeta biltzeraino ere iritsi omen ziren. Dantzaldi hauei «baratoa» deitzen zieten.



Geltoki aurrean: «jazzbana» eta auzotarrak.

Gramolaren arrakasta. Gerra aurtxoan, usadio zaharretatik aldenuz «gramola»-ren musika zabaltzen hasi zen Brinkolan, arrakasta handiz gainera. Baina ez zen denen gustukoa gertatu, ondoko artikuluan nabari daitekeenez:

“Gure asaba zarrai nor edo nork eman izan bazien auzo ontan euren semeak izango zuten bizimoduaren berri ez det uste guztiok gabiltzan bezela ibilliko giñanik. Badute emen dauden atzerritar edo euren antzeko erdi erdeldun «momolo» batzuek alako tresna edo tramankulu «Telepunken» deritzen dioten soñu bat, auzo ontako lenago ziran euskal oiturak emengo gazteen biotzetik kendu nairik dabiltzanak; ta zoritxarrez denak ez bada ere, gazte asko beintzat, ortxen ibiltzen dira alkarri elduta. Ez dakit dantzarik egiten duten baño «automobilak» egindako zuloak ederki berdintzen dituzte noski; narraxka narraxka; ta nola ez, lenago basauntzek baño salto aundiagoak egiten bai zituzten Eibar aldera eramanik izan dituzte dalazko narraxkako dantza berri ori euren anka luzeeeekin lagunenak biak batean zapaldu gabe ibiltzeko oitura artzen; ¡bañan ain gaitza da basauntze ezitea!” (1933ko urtarrila, Argia, Aitxondo).



Brinkolarrak, antzinako usadioari jarraiki, Trinitate egunez Santoespírituko erromeriara joan ohi ziren. Erromeria honetara, gerra aurrean behintzat, Gipuzkoa eta Araba aldeko kaletar eta baserritar ugari joaten ziren. Mezarik ezean errosarioa izaten zen eta ondoren erromeria, Izulaietako Jesusek soinuaz alaiturik. Horrelako jaietan ohi zenez, erroskilak, karameluak, pipak eta abar saltzen zituzten, ardoa eta limonadaz gainera.

35. GARROETXEBERRI

* Garroetxeberri *Garroauzo*-ko etxerik garaiena dela esan daiteke, gainerako Garro guztien gainera baitago. Orain bidea bertan bukatzen bada ere, lehen Txuluplantegik Garrosakonerako bide zaharraren ertzean zegoen.

* Garroetxeberri baserria 1607. urteko errolda batean jadanik azaltzen zaigu, "*Hecheverria de Garro*" bezala.

1621. urtean auzia izan zen Miguel de Iraegi eta Catalina de Etxeberria senar-emazteak eta Maria de Etxeberriaren artean, etxearen jabetza zela eta (LUA26).

1734. urtean Pedro Plazaolak, Bikaritzara egin zuen aurkezpen batean, Garroetxeberriko jaun eta jabe gisa azaltzen zen (GPAH12).

* 1813. urtean erre egin zen (Jaka1 1990: 109), eta baliteke orain erakusten duen itxura berria sutearen ondoko berreraikuntzarengatik izatea.



Garroetxeberri baserria (JLU 1996).

* XIX. mendearen hasieran Josefa Plazaola Enparantza (Garroetxeberri 1812) Zeraingo Jose Ignacio Zabaletarekin ezkondu eta bi seme-alaba izan zituzten: Jose Francisco eta Josefa Joaquina.

Josefa Joaquina Zabaleta Plazaolak Leongo Noceda del Bierzoko Cipriano Gonzalez ezagutu zuen «Frantsesaroa»-n (trenbidea egin zuten garaian) eta harekin ezkondu zen 1866. urtean, bizitzera Leonera joanez.

Jose Francisco Zabaleta Plazaola (Garroetxeberri 1851) geratu zen baserriaren buru Francisca Ignacia Agirre Zabaleta (Erraizabaltxiki 1844) emaztetzat hartuz. Bi seme-alaba izan zituzten: Pascual eta Antonia. Antonia 40 urterekin hil zen, artean ezkongai zegoela, eta Pascual, berriz, Brinkolazarreko Isabel Zabaleta Ormazabalekin ezkondu. Seme bakarra izan zuten: Javier.


Pascual Zabaleta Agirre (Garroetxeberri 1873) artzain ibiltzen zen Ormakion. Udaberrian egunero joaten zen hara astoarekin, «kamainan» lo egin, eta hurrengo egunean goizeko bostetan jaikitzen zen Iraulika fabrikara lanera zortzietarako iristeko. Asto gainean, gaztak egiteko esnea ekartzen zuen. Negu aldean ardiak Trikutxeta inguruan izaten zituen, 80 bat guztira. Biriketakoa han harrapatuta, hain zuzen, hil zen 71 urte zituela.

* Pascualen seme Francisco Javier Zabaleta Zabaleta (Garroetxeberri 1904) Biurrainbeko Josefa Zabaleta Agirrerekin ezkondu zen. Seme bakarra izan zuten: Pascual.


Joxepak, gaztetan, soinua jo izan zuen Santa Marinaran jai arratsaldetan, "ondo ez zuela jotzen -zioen-, baina jendeak dantza egiten zuen, eta segi".



Josefa Zabaleta Agirre, Pascual Zabaleta Zabaleta, Javier Zabaleta Zabaleta eta Isabel Zabaleta Ormazabal.



Jose Francisco Zabaleta Plazaolaren 1898ko «Cédula personal»-a.



Pascual Zabaleta Agirre.

36. TXULUPLANTEGI

* Garroauzoan dagoen etxe hau bi deituraz ezagutu izan da, gutxienez XVIII. mendean geroztik: Garrotxo, batetik, eta Txuluplantegi, bestetik, egun *Txulufrente* delarik gehien erabiltzen dena.

* 1762. urtean Tomas Joaquin de Gerra zen Txuluplantegiren jabea: *“Thomas Joaquin de Guerra hipoteco la cassa de Garrocho, con su huerta, franquia y pertenecidos, sita en el barrio de Garro de esta Vª”*. Tomas, *“maestro cirujano”*-a (praktikante modukoa) zen.

1768. urtean Joaquin de Inza eta Maria Josefa Urzelai ziren jabeak.

* Joan den mendearen bukaeran Jose Ignacio Jauregi Etxeberria (Garroaundi 1855) eta Maria Ignacia Legorburu Apaolaza (Bergaretxe 1858) Txuluplantegi baserrira ezkondu ziren. Haur bakarra izan zuten, Petra, eta hogeitertekin hil zen 1903. urtean.



Txuluplantegi baserria (JLU 1997).

Aita ere gazterik hil zen eta ama, baserriaren buru bakarrik geratzean, Nicolas Legorburu Inurritegi (Kortazpikoa 1881) iloba ekarri zuen Txuluplantegira.

Nicolasek Txuluplantegi etxea eta etxaldea bereganatu zituen izekoa hiltzean, baina bera ere denbora asko baino lehen hil egin zen, 39 urte zituela, ezkongai. Baserria, gero, Bernardo Legorburu Inurritegi (Kortazpikoa 1896) anaiarengana eskualdatu zen eta Maria Josefa Inurritegi Plazaola ama, berarekin ekarri zuen.

Bernardok, 1924. urtean, 28 urte zituela, «kartero» lanpostua lortu zuen Brinkolan bertan. Izan ere, garai hartan, korrespondentzia ugari sortzen baitzen tren-geltokiaren inguruan, Oñatikoa batez ere. Lanbide horretan oso harreman onak egin zituen tren-geltokiko langile eta garraiolariekin. Politikan murgildu zen, Brinkolako «centro republicano»-ko buru izatera helduz.

Gerra ondoren Zarauzko Modesta Murua Saroberekin ezkondu eta bi seme izan zituzten: Juan Mari eta Tomas.



Bernardo Legorburu Inurritegiren postari-bartela.

Estraperloa

Gerra ondorengo urte latzetan «estraperloan» ibili beharra izan zuen hainbatek bizimodu duina eraman ahal izateko.

Joaquin Uzkudun (Aizarnazabal, Josemarinea) mandazaina eta Juan Luis Zangitu Arsuaga (Gibelolagarakoa 1909) ibiltzen ziren, besteak beste, «lanbide» horretan. Araba aldera joaten ziren, Arriola eta Zaldudora batez ere, garia, ogia, patata eta abarren bila. Hemendik, berriz, dirua eta, diotenez «gose galanta» eramaten zuten.

Constantino Langarika Mantxolak gogoan dauka Gibelolako *Joanito*-rekin Arabara gauzez egindako ibilaldi bat:

“Nik amalau urte nauzkela, orduntxen bason ásite eo asteko eo igoyal ibiliko nitzen. Arten ez ogik ezer etzeon, ez olioik ezta ezerre ta. Gibolako Joanito zana Arabati estráperlon ibiltzen zan astókiñ. Lau bost bat asto bazeuzken da. Guen e zerbait faltako zan da, eun baten, gue aitte zanak emen ikusita esan dio: «Araba alde ortan, janik eta billau leikek eta?», «Dirue eaman ezkeo bai», «Irin puxkat o ogin batzuk o, zerbait ola junda, mutíkkoa bidaliko nitek pa nik». «Biar amaiketan etor dailla gue etxea». Zubiargu astókiñ, bestea emengoa, bi asto nittun. Artu bi asto ta jun naiz Gibola amaiketan, mutíkkoa, Pepea baño txúlogo, oñétakok abarka xar batzuk. Allau nitzen da, ordutxen abidan: «Lotu astok onei» arek esandakoa, izketan oxko xamarra zan. Ala lotu ta. «Igo gáñea onei, ni baño fuertegoa dao au ta». Astaarrak ebaltzen zittun arek, ta etxetan eoten zienak astaemek. Ala jarrasteañen (?) da, Ozurzti Mandabide aurea Apotati goiti beera zeara Zaldudendoa. Illunduta allau giñen ara. Ara allau giñen da «Ya habéis venido?» «Sí, bueno, vamos a cargar los burros» «Esperar un poco, os voy a preparar un poco de cena». In tziun tortilla bat au baño lodigoa txorixokin, redios, begi ona jartzen nion nik arei. Ok ogi aundi bat etaa zuen, beste pitxarkada bat ardo: Joanito ta biok ein deu pixkat janáldie. Ala, ordun ni bertan geatzeko konforme neon, ze bear gendun da, da arek berea jakiñe eukitze zon. Neetako ba ogie re gáñea labesun einda, sei ogi ekarri nittun, zakúkara ogié, eta iriñe ta, beste patata puxkan bat, bueno paau giñutzen, bueno jungo gaa. Bertakok esan tziun «Hasta las doce no salís de aquí», mekaguen, arten amar da erdik eo ola zien, «Es que hay vigilancia, si os pillan me joden a mí». Berriketan eon giñen da, allau zien amabi orik, abiau gaa andik gora. Oin bezela bistaik eta etzeon da, anka-muturrek danak txikitu bearren arri joka, zotza begie emanda etzan ikusten, ta gure aitte zanak nei linternea emanda bazpare. Esanion «Juanito, lintérnea piztu bear det, amen eztauket juteik», «Ez, moteill, lintérnea urriñea ikustek eta ez piztu linternaik», «Kaguen dío, bideik eztaba ikusten» da «Etziok inporta, eldu astoi buztaneti» esan tzian. Astók zuzen etortze zien, astoi ola buelta eman buztánako illetatik, ta jarri astoi elduta, danka ta danka, arri-muturrak joz, ua zan beajea ura». Ba urrungo góizeko, eztaiz, amarderdik amaikatan allau giñan etxea ta, etxen larrittuta orduako, mutille falta ta, ia arrapauko ote giñuzten da. Geo dirue re, berriz, etxen ogei durokon bat eongo zan ta ura nei emanda ta... Ala etorri giñen da, ua etxen geau zan, etorri nitzen da, aitte zanak: «Etorri al aiz?» «Bai» «Dios, asto lotzeko utziek deskargauko ttuat nik astok eta, jun ai oera, prémie eukikoek eta». Eantzi abarka orik eta ankako beatza aundiko azkazalak eroiztak, beltz-beltz inda neuzken, illabeten etzita nei bere onea etorri, kolpeka kolpeka biden azkázalak danak beztuta”(CLM 1997).

37. GARROTXONEA

* Garrotxonea, Garroauzoan Brinkola aldera dagoen azken etxea da. Litekeena da, horregatik, XVII. mendean Garrogoena izenez ere ezagutzen zen etxe bera izatea. Horrela balitz, hemengo genuke Andres de Garro, 1512. urtean frantsesen aurka Belate eta Elizondoko gudan ibilitako soldadua (EE4 1670).

“...siendo la Casa de Garro goena de que aqui Certificamos una de las de muy conocida Calidad delas deste Apellido que usa de la voz Goena en significacion de estar en lugar pre-heminente y distinguiendose de otras tres casas deste Apellido sitas en la misma villa de Legaspia siendo esta fecundo tronco de Calificadas Ramas y señalados Varones que siruiendo a nros. Principes con asegurado credito han demostrado bien las obligaciones de su valor y sangre no insignuandolos menos en los alentados opositos a muchas de las inuasion- es Francesas en la Prouincia tan repetidas como poco logradas por aquella Naçion, bastando la gran consuençia que de- jo a esta Casa su Descendiente celebrado Andres de



Garrotxonea baserria (PA 1996).

Garro uno de los valerosos Guipuzcoanos que intentando entrar en aquella Prounçia un poderoso Exerçito Frances y saliendo a inpedirselo çerca de los Lugares de Belate y Eliçondo del Reyno de Nauarra año mil quinientos y doçe no solo se atajaron los pasos sino le obligaron a retirarse con açelerada fuga ganandole la Artilleria y entregandola en el Castillo de Pamplona cuya memorable haçaña tuuo por bastante motiuo la Señora Reyna D^a Juana Madre del Señor Emperador Dn Carlos para conceder por aumento de Armas a la Prounçia de Guipuzcoa doçe Pieças de Artilleria por ser otras tantas las que sus hijos ganaron a los Françeses en grande aprouacion suya pues no solo mereçieron premio particular para si mismos sino unibersal de la Prounçia para que se entendiese fue Capaz aquella facçion de illustrar a los que la executaron y aumentar los esplendores de su Patria en virtud de Previlexio Real desta conçesion hasta oy observa por Armas acreçentadas Guipuzcoa las doçe Pieças de Artilleria" (EE4 1670: 24-27).



Celestina Balerdi larza, Bittori Etxeberria Guridi, Rufina Inza Orueta eta Francisca Balerdi larza.

* Legazpiko udal artxiboko 1649. urteko errolda batean “*Garro suso*” (Garrogoikoa edo Garrogoena litzatekeena) aipatzen da eta “*Martin de Zanguitu el mozo, natural nabarro*” bertako bizilagun.

1659. urteko beste agiri batean, berriz, “*Garrochoena grande*” aipatzen da, modu hone-tan: “*Censo de 26 ducados sobre los bienes de Juan Zanguitu de Garro, y sobre la casa y casería de Garrochoena grande* (SMA / zk.139). Itxuraz, Juan Zanguitu horrek gorago azaldu den Martinen semea izan behar zuen.

* 1708. urtean Clemente de Inza eta Josefa de Zanguitu senar-emazteak ziren Garrotxonearen jabeak (GPAH4).

1748. urtean Magdalena de Oria (Narciso de Inzaren alarguna) eta Joaquin, Juan eta Pedro de Inza seme gazteak bizi ziren baserrian (GPAH3).

* XIX. mendearen hasieratik, gutxienez, 1960ko hamarkada arte Inzatarrek bizi izan dira etxe honetan: Inza-Guridi, Inza-Dorronsoro, Inza-Azarola, Inza-Orueta eta Inza-Galfarsoro familiak, hurrenez hurren.

Tomas Inza Azarola (Garrotxonea, 1872) Elorregiko Basilia Orueta Mendiolarekin ezkondu zen. Bi seme-alaba izan zituzten: Rufina eta Emilio. Emilio umetan hil zen eta Rufina *Periko* Galfarsoro Legorbururekin ezkondu zen.

Basilia ikaragarria omen zen, aparteko handia; harri «poterrak» ere bizkarrera jasotzen omen zituen, gizonezkoekin «apuestoak» egitera iritsiz.

Tomasek, Romualdo Etxeberria Orueta lagun hartuta, «**haretegia**» jarri zuen martxan etxeko sailetan. «Matxaka» bat eskuratu eta obratarako hondarra egiten hasi ziren.

Brinkola auzoko bizilagun asko enplegatu zuten lan horretan. Hala, «matxaka»-ri harria botatzen Luciano Balerdi Uarkaldekoa eta Eugenio Zabaleta Garroaundikoa ibili ziren; «matxakaren» azpian hondarra kentzen, beti hauts artean, Patricio Idigoras Garrotxikikoa; galbaiketan, Vicente eta Doroteo Gibelalde; harria ateratzen, Olazargo Luciano Ugalde eta Agirrezabalgo Tiburcio Beain... Harriaren garraioari dagokionez, idiek tiratako bolanteekin egin zuten hasiera batean *Patxi Korta* eta Agirreburualdeko Eustakioekin; gerora, berriz, Agirrezabalgo Gregorio Beain kamioizalearekin. Gerraurrean, ordea, politika zela eta, giroa nahastu eta haretegia itxi egin zen.

38. GARROTXIKI

* 1772. urtean Juan de Gorosabel eta Francisca de Galfarsoro senar-emazteak ziren Garrotxiki baserriaren jabeak.

* 1827ko otsailaren 12an, Tolosan bizi zen Jose Joaquin Gorosabel jaunak Isidoro Urmeneta legazpiarrari saldu zion baserria, 13.000 errealetan (GPAH10).

Jose Joaquin Gorosabel Pedro Gorosabel Dominguez abokatu eta historialari ospetsuaren aita izan zen.

Isidoro Urmeneta, berriz, Legazpiko jauntxo bat zen, Kaleko *Medikuzarrenea* (garai hartan "*Casa nueva de Gorosabel*") etxean bizi zena. Telleriarteko Sutegi eta Martintxokoa etxeak ere bereak zituen.

* XIX. mendean Ugaldearrak bizi izan ziren etxe honetan: Ugalde-Guridi eta Ugalde-Gerra belaunaldiak. Ugalde deitura Pascual Ugalde Eizabal antzuolarrak ekarri zuen XIX. mendearen hasieran.



Garroauzoa (JLU 1977).

–Jose Joaquin Ugalde Guridi (Garrotxiki 1810) etxera ezkondu zen, Errekaetako Josefa Ignacia Gerra Aztiriarekin.

–Pedro Ugalde Guridi (Garrotxiki 1815) Olazarrera ezkondu zen, Josefa Ignacia Etxeberria Gorosperekin.

* Jose Joaquin eta Josefa Ignaciak bi alaba izan zituzten gutxienez: Jacinta eta Martina. Jacinta Ugalde Gerra (Garrotxiki 1840) Errautegira ezkondu zen Bartolome Guridi Guridirekin. Martina Ugalde Gerra (Garrotxiki 1839), berriz, Agirreplazara ezkondu zen.

* XIX. mendearen bukaera aldera Juan Andres Agirre larza (Zubiaur 1833) eta Josefa Etxeberria Telleria (Eguzkitzagoikoa 1839) senar-emazteek hartu zuten etxea errentan. Bi alaba izan zituzten: Leandra eta Bonifacia.

Leandra amarik gabe gelditutako ume jaio-berriak zaintzen ibili zen: Astaburuagan, Korkostegin, Olazarren... Jose Goia, Brinkolako abadearen neskame ere izan zen. Ez zen ezkondu.

Bonifacia etxera ezkondu zen, Zeraingo Jose Miguel Idigoras Enparanzarekin. Jose Miguelek Araiztegin egiten zuen lan Jose Agirrezabalekin. Bi seme-alaba izan zituzten: Patricio eta Juliana.

* Patricio Idigoras Agirre (Garrotxiki 1910) Astaburuagako Maria Ormazabal Ormazabalekin ezkondu, eta baserrian bizi izan ziren erori zen arte. Sei seme-alaba izan zituzten: Maria Jose, Gema, Jesus Mari, Arantxa, Rufino eta Jose Antonio.

Juliana Idigoras Agirre (Garrotxiki 1913) Eugenio Etxeberriarekin ezkondu eta Zegamara joan ziren bizi izatera. Seme bakarra izan zuten, Manolo.

1950eko hamarkadaren bukaeran erori zen baserria.

* Garrotxiki baserria donostiar batena zen eta Idigorastarrek errentan zuten hartuta. Errenta ordaintzera Santo Tomas egunean joaten ziren Donostiara, kapoiak, garia eta abar eramanez. Gerora baserria erosi zuten.



Maria Ormazabal Ormazabal eta Patricio Idigoras Agirre.

39. UARKALDE

* Baserriaren deitura «uharka» edo ursalto baten ondoan egotetik dator. Oraindik ere ondo ikus daiteke Elorregiko burdinolerako (errotarako gero) ura desbideratzen zuen ursaltoa. Berezia da gainera, arkukoa baita, ez zuzena gehienak bezala.

Oso baserri zaharra da, 1490. urtean jadanik *"Machin de Huarcalde"* aipatzen baita Legazpiko agirietan (Ayerbe 1995: 150).

* 1790. urtean Andres de Plazaola zen Uarkalde etxearen jabe: *"En 21 de Noviembre de 1790 Andres de Plazaola, hixo legitimo de Andres Lopez de Plazaola y de Luisa de Plazaola (...) hipotecando para su seguridad la casa de Echeverri de Mochorro, la de Zavalotegui, el Molino y la casa de Arabalaza y la casa de Hugarcalde con todas sus tierras"* (GPAH1).

* 1858an, bertako alaba zen Maria Micaela Inurritegi Zabarain Zatui baserriko Jose Mari Balerdi arotzarekin ezkondu eta hiru seme izan zituzten: Casimira, Josefa eta Juan Francisco. Handik gutxira, ordea, Maria Micaela alargundu eta, bigarrenez, Eguzkitzako Jose Domingo Etxeberria Telleria, *Tantanporru*, hartu zuen senartzat. Horrekin beste bi seme-alaba gehiago izan zituen: Pedro eta Isabel.



Uarkalde baserria (PA 1996).

- Casimira Makatzaga baserrira ezkondu zen, Prudencio Gabiriarekin.
- Josefa Astaburuaga baserrira uztartu zen, Jose Joaquin Galfarsororekin.
- Juan Francisco etxeara ezkondu zen.
- Isabel urte askotan nescame egon zen Donostian.
- Pedro, azkenik, etxean geratu zen mutilzahar.

Pedro Etxeberria Inurritegi (Uarkalde 1882) mutua zen baina,aldi berean, bizkorra, lan-gilea eta oso umezalea. Uarkaldeko ume guztiak haren altzoan hamaika ordu egin omen zituzten. Ehize garaian, entzuten ez bazuen ere ikusmen aparta zuenez, uso-sailak urrutitik nabaritzen zituen eta eskuak astinduz han egoten zen gora begira.

Marimiel eta *Joxamingo* senar-emazteek 1892. urtean bereganatu zuten baserria, Porcell familiari 1.100 pta zilarrezko txanponetan ordaindu eta gero.

* Juan Francisco Balerdi Inurritegik (Uarkalde 1870) Arrolako Maria larza Zabaleta hartu zuen emaztetzat eta lau seme-alaba izan zituzten: Celestina, Francisca, Petra eta Luciano. Juan Francisco errementaria zen lanbidez, lantokia etxearan atzealdean zuelarik. Diotenez lan-saria ez omen zuen dirutan jasotzen, garitan baizik.

- Celestina moja joan zen Madrilera.
- Francisca Joandiaztegira ezkondu zen, Laubideko Jose Manuel Galfarsoro Agirrerekin.
- Petra Ormaiztegira ezkondu zen, Andres Castillorekin.
- Luciano etxera ezkondu zen.

Juan Francisco Balerdi, aita, gazterik hil zen eta, horren ondorioz, *Luxianok* seme gazteenak umetatik hasi behar izan zuen baserriko lanetan, ama alargunari eta aitona-amonei lagunduz.

Luciano Balerdi larza (Uarkalde 1907) Intzaren harrobian hasi zen lanean hamalau urte zituela. Itzain ere ibili zen urte batzuetan Oazurtza aldean, Agirregoikoa baserriko *Juanito*



Casimira Balerdi Inurritegi.



Isabel Etxeberria Inurritegi.

Arrondorekin batera, astea bertan pasatuz. Azkenean, beste asko bezala, Patrizionean ibili zen. Makatzaga baserrian neskame zegoen Severiana Arriaran Igartua oñatiarrarekin ezkondu eta hamahiru seme-alaba ekarri zituzten mundura.

Tantanporru

Jose Domingo Etxeberria Telleria Brinkolako Eguzkitzagoikoan jaio zen 1833. urtean. Gurasoak *Joxe* eta *Joxepa* zituen. Barrundiolara ezkondu zen lehenengoz baina alargundu eta Uarkaldera hurrena. Bigarren emaztea Maria Micaela Inurritegi izan zuen, hura ere alarguna.

Artzantza zuen ogibide nagusi. Udaldian Biozkornako putzu inguruan ibiltzen zen ardiekin eta udazkenean, berriz, Areain. Behin batean, diotenez, Biozkornako zabalean «amorzatzeko» ideiarekin talo egiten ari zela *Xegundo* artzain laguna (Elorregiko Segundo Odria) hurbildu omen zitzaion deiadarka, ardiak behera zihoazkiola adieraziz. Bi aldiz pentsatu gabe, hartu zuen taloa, sartu zuen txapelean eta buru gainean jarrita, «aide!», ardi bila abiatu zen, "*hamalau mila demonio*" bere artean murmuriatuz.

Beste batean, Luciano biloba lagun zuela, Areaiako etxolara joan ziren behiak hartuta, hango lizar hostoak jaten ematera, sikate urtea baitzen. Hurrengo goizean behiak ura edateko askatu zituzten baina errekarra joan beharrean antxintxika bizian Uarkaldera itzuli omen ziren, atzetik aitona-bilobak zituztela, errenditu ezinik.

Erretzaile amorratua omen zen eta, ezagutu zutenek diotenez, zigarroak antzinako modura pizten omen zituen, alegia, labana batekin harri bati txinpartak eraginez eta kontra-kontra jartzen zuen ardagaiari su emanez.



Pacifico Irastorza Etxeberria, Luciano Balerdi larza eta Eleuterio Galfarsoro Urzelai.

40. AGIRREZABAL

* 1430. urtean jadanik Legazpiko agiri zaharretan “*Miguell de Aguirreçaval, jurado de Legaspya*” (Diez de Salazar 1993: 195) aipatzen da, ziurrenik Legazpiko Agirrezabal baserriko semea.

* Egungo eraikuntza 550 metroko garaieran dago kokatuta, Otañu mendiaren hegal aldapatsu batean, antzinako Telleriartetik Zerainerako bide zaharraren ondoan. *Kortauzoa* auzunean dagoela esan daiteke, Arizti biak, Bergaretxe, Korta biak, Errautegi eta antzina Loitzaetarekin batera. XIX. mendearen hasieratik, behinik behin, bi bizitzakoa den baserri honek oinezkoentzako «zorbidea» (edonor igaro daitekeen bidea) du barrutik. Hegoaldeko hormak, bestalde, harlanduzko ur-bedeinkatu ontzia erakusten du.

* 1572. urtean Antzuolako Juan Perez de Erzillak 300 urrezko dukatetan (edo 3.960 errealetan) saldu zion Agirrezabal baserria Legazpiko Miguel Martinez de Bikuñari (LAEA / Bikuña / 5/3).



Agirrezabal baserria (JLU 1994).

Harlanduzko ur-bedeinkatu ontzia (JLU 1994).


* 1617. urtean, «zorbideak» zirela eta, Agirrezabal eta Bergaretxe baserrien jabeen arteko auzi bat erabaki zen. Haren arabera Agirrezabalgo bizilagunek «kabaileriak» eta ganaduak Bergaretxe baserriaren sailen erditik zihoan bidetik igarotzeko eskubidea izango zuten. Baita elizako sakramentuak eta hildakoak eramateko ere (eliz bidea); ez, ordea, gurdi eta lerekin igarotzeko (LEA6).

Anduezatarrak

* Anduezatarrak XVII. mendean iritsi ziren Agirrezabal baserrira eta gaur egunera arte bizi izan dira bertan: Andueza-Inza, Andueza-Jauregi, Andueza-Agirre, Andueza-Agirrezabal, Andueza-Arsuaga... familiak. Belaunaldi horietan guztietan ez da lehen deitura aldatu, etxera gizonak soilik ezkondu izan baitira.

* Jose Antonio Andueza Inza (Agirrezabal 1800?) bitan ezkondu zen. Hala, Ignacia Jauregi, lehenengo andrearekin bi seme-alaba izan zituen, Jose Francisco eta Francisca; eta Ermentariako Maria Tomasa Agirrerekin, berriz, bost: Jose Joaquin, Maria Miguel, Andres, Juan Jose eta Francisco.

Jose Francisco semerik zaharrena (Agirrezabal 1837) geratu zen baserrian, Ariztibeko Prudenciana Agirrezabal emaztetzat hartuta. Lau seme-alaba izan zituzten: Maria, Josefa, Faustino eta Gregorio. Jose Francisco, besteak beste, «Norteko» trenbidea egiten ibili zen (1860 eta 1864 bitartean). Diotenez, «zelaia egiten» ari zela jornaia agindu zioten karrilean lan egiteagatik, eta berehalakoan onartu zuen. Kontratista gisa eta Zumarragara «balasto-karrean» (trenbidetako harri xehea) ibili zen, lansaria urretan jasoz.



Perratokia (JLU 1994).

Francisco Andueza Agirrek (Agirrezabal 1853) semerik gazteenak, arozgintza ikasi zuen eta Legazpiko Kalebarrenera ezkondu zen, oinordekoak emandako 2.200 errealekin. Manuela Lasa Iturbe hartu zuen emaztetzat.

* Jose Francisco eta Prudencianaren seme-alabetatik, Faustino Andueza Agirrezabal (Agirrezabal, 1880-1973) geratu zen baserriaren buru Gibelolako Victoriana Zangitu Legorburu emaztetzat hartuz. *Faustiñok* garai hartako beste askok bezala, lanbide asko izan zituen: Aizkorri meatzari, itzain, etxegile (Geltokiko biltegia egin zuen, besteak beste)... Eta gainera, soinua ere ederki jotzen omen zuen, Olaldeko (Olazar burdinola dagoen inguruari deitzen zaio horrela) hainbat erromeria alaitu zituelarik, Kortaazpiko Josemarik bezala.

Hark gogoan izaten zuen Geltokiko biltegia eraikitzen jardundako urtea (1907), «sekote» urte ikaragarria izan baitzen, arto guztiak lehortzera helduz. Berak zioenez, «sanjoanetan» egin zuen azken lanbro zaparrada.

Faustino eta Victorianak bost seme-alaba izan zituzten : Juana, Maria Josefa, Francisco, Victor eta Jose.

- Juana Madrilera ezkondu zen, Longinos Medina, «Duque de Sotomayor»-en txoferrarekin.
- Josefa Guriditegira ezkondu zen, Aranandiko Martin Enatarriagarekin.
- Francisco etxera ezkondu zen, Zabaletako Tomasa Arsuagarekin.
- Victor Saletxeko Juana Ugarte Azurmendirekin ezkondu zen.
- Jose Elorregikaxetara ezkondu zen, Nieves Hernandezekin.

Patxi jaio zen garaian (Agirrezabal 1909) *Faustiño* aita Kataberako meatzeetan zebilen lanean eta ez zen aste guztian etxera itzultzen. Hori dela eta, haurra jaiotzean etxe aurrean,



Francisco Andueza Agirre, Manuela Lasa Iturberekin ezkondu zen Legazpiko Kalebarrenera.

ohi bezala, izara zabaltzeko agindua emana zien etxekoei. Baina Agirrezabalgo bi bizitzako etxekoandreak haurdun izaki eta biek, kasualitatez, egun berean izan zuten familia: Faustinoren andreak mutila eta «etxekoneko» Manuelak neska. Berri ona zabaltzeko asmoz, bi izara jarri omen zituzten. Esaten dute Udanako aleman zaharrak (Kataberako meatzeen zuzendariak) izarak ikusi eta Faustinorengana joan zela abisua ematera: andreak bi ume izan zituela, "niño y niña".

Victor Andueza Zangitu (Agirrezabal 1912) soinu-jole gisa lehenengo eta idazle gisa geroago nabarmendu zen herrian. 1966 eta 1973 bitartean *Zeruko Argia eta Goiz Argi* aldizkarietan kronika eta artikulua asko argitaratu zituen, *AnZan* gisa sinatuz.

Beaindarrak

* XIX. mendean Apaolaza-Andueza, Apaolaza-Enparanza eta Telleria-Apaolaza bizi izan ziren Agirrezabaleko bestekoan. Mende honen hasieran, ordea, Telleria-Apaolaza familia Zumarragara joan zen bizitzera, eta haiek utzitako lekura Tiburcio Beain Mugerza eta Manuela Barrena Markuleta oñatiarrak etorri ziren familiarekin, Oñatiko Lastotegitxiki baserri-tik hain zuzen. 1905. urtean baserria erosi egin zuten.

Zortzi seme-alaba zituzten guztira: Tiburcio, Santiago, Polonia, Mauricia, Damian, Gregorio, Benito eta Francisca, azkenak Legazpin jaioak.

- Tiburcio etxera ezkondu zen.
- Santiago Txilera joan zen.
- *Poloni* Arantzazuko Soroaundieta baserrira ezkondu zen, Pedro Urzelairekin.



Beain-Barrenatarrak: Benito, Gregorio, Damian, Tiburcio, Francisca, Mauricia eta Polonia.

- *Maurixi* Urretxuko Etxaburura ezkondu zen, Julian Areizagarekin.
- Damian Magdalena Luluagarekin ezkondu zen, Amezketara.
- Gregorio mutil zahar geratu zen.
- Benito Claudia Ugarte Bikuñarekin ezkondu zen, Igeraldeazpikora.
- Francisca Zelandabekora ezkondu zen, Asensio Inzarekin.

Esaten dutenez, Manuela Barrenak Salibietan lihoa ereiten zuen, etxe ondoan terrenorik ez alferrik galtzeagatik.

* Tiburcio Beain Barrena (Agirrezabal 1891) seme zaharrena geratu zen baserriaren buru Zegamako Manuela Arrizabalaga Otegirekin uztartuz. Lanbide askotan ibili zen: Kataberako meatzeetan «barrenolari», txerri-hiltzaile, morroi, Leitzarango trenbidea egiten, Gasteizen teila-erretzen, Motxorroko harrobian harria ateratzen, San Inazio auzoko etxeak egiten, ikazkin... Bost seme-alaba izan zituzten: Justa, Josefa, Jesusa, Angel eta Benito.

Salibietako karobian karea egiten ere ibilitakoa zen. Azkeneko aldiz, Alfonso XIII.aren garaian egin omen zuen, Molak etxe guztiak karez margotzeko agindua eman zuenean.



Tiburcio Beain Barrena eta Manuela Arrizabalaga Otegi.

Autobiografia

Victor Andueza Zangitu

1912garren urteko jorrraillaren 12an, Legazpiko errian Brinkola auzoko Agerrezabal baserrian jaioa. Bost senidetatik laugarrena nauzute.

Aurtzaroa. Aurtzaroa guraso ta beste lau senideekin baserrian igaro nuen. Zertxobait aziaz, ez nuen alperkerirako asti aundirik izan, gurasoak saiatu ziran baserriko lanetan laguntza izan zezaten, bearrezko diran eginkizunak ikas-arazten. Ganaduak zaindu (bei edo ardi, eguneroko lana baserrian, mutikoak ezitzeko), iturriko ura ekarri, uzta-arogan etzan atsegin gari-baillleen egarriak asetzen, korrikan ikasteko bere biziko opizioa.

Lurgintza lanetan, beiak itzulatu, beien aurrean jo-batera, ta bestera bidea erakusten bezelatsu. Ez nuen guztiz gogozko lan auxe, ganaduak txuxen ez bazebiltzan itulariena izan oi bait-da errua.

Artzantzan ere gaztetxotik asia. Goizean ardiak larratu, arratsean bildu, ta beren garaian jetxi. Gazta egiten ere noiz-edo noiz aritu izan nintzan, jakiña, ama begirale nuela noski. Goizean larratzea xamurra zan, arratsean biltzeak zituen estuasunak, beste talderen batera ardi edo arkumeren batek iges egin, sasi-zuloren batean trabatu zala, denak ateratzeak ematen zituen lanak. Onelatsu nere muttiko garaia.

Ikast-aroa. Pixkabat koxkortu nintzanean, 6 urte inguru, Telleriarte auzoko eskol-etxe batean eman nion ikaskizunei asiera. Baserrian gurasoek erakutsi zidaten euskera beste itzik ez nuen ulertzen, eta irakasle auzotar emakume bat izanik, ikastetxe barruan gure izkuntzan ezin mintzatu, dena erderaz esan bear... alako estuasunik... Euskeraz itzen bat entzuten bazi-gun irakasleak, beatzean eraztuna ta astearen azkenean eskuan zuenak, zigorra... Orma baxterean belaunikatu, ta anka-zaiñean zumaren batekin zartakoak ez baziran gaitz-erdi, aiek ere iñoz artuak gera ta. Ikast-etxe orretan lenbiziko izki ta zenbakiak kaskarreratu zidatenean, erriko ikastetxatu nintzan. An ere izkuntzari buruz arau berdiñak. Irakaslea euskeraz ulertzen etzuen, ta larunbateko zigorra belaunikatu, besoak zabaldu, ta liburu mordoa eskuetan nola igaro bear izaten zuen eraztuna berekin zuenak.

Ona emen gure amaren magalean ikasitako euskal izkuntza lantzeko giroaren agerbide bat. Irakurri, idatzi ta lau arauak zerbait menderatu nituenean, berriro aldaketa. Brinkola auzoan genduen apaiz *Sarriegi tar On Jeronimo* irakasle genduelarik nere ikaskizun apur aiek pixka bat landu nituen, bigarren mailla ain zuzen, emen ikasi nuen. Irakasle ona apaiz au. Ez-nintzan asarre, ikaskizunak erderaz ziran arren, euskeraz mintzatzeko baimena berak ematen bai zigun.

Beste batzuek ikastetxe ontan egin orduko, igaro zan nere ikast-aroa. Amaika-amabi urte ezkerro etzegen ikasketarako astirik ez biderik. Baserrian lan asko ta diru gutxi zegoen, eta lanari eraso bear beltz, baserriari eutsiaz, jango bazan.

Kristauei dagokien ikaskizunak ondo ikasiak nituen eta nere bizitza guztian jarraitu ere bai, noiz-edo noiz epel-aldiren batek menderatu bagaitu ere.

Gaztearoa. Ikas-lanai utzita, lantegian asi bitartean, beste urte batzuek baserri lanetan. Atxur, aizkora, sega ta lurgintzako tresna ta ganadu, lan danetan egin bear izaten nuan, ondo laztu lantegian sartzerako. Amabost urterako asi lantokian, eta zortzi urtera 36-ko gudatea sartu zitzaigun. Baserrian gurasoak arreba batekin utzi, lantegia ere bai ta Bizkai alderuntz alde nuen, eta bertan gudu-taldeak osatu ziranean *Itxarkundia* taldean sartu ta berakin igaro nuen *Euzkadi*-ren alde burrukan, *Laredon* etsaipeko artu arteraño.



«Batallón de trabajadores», Teruelen. Zutik: Bergarako bat, Bergarako bat, Lazaro Muñagorri. Pikotxean: Víctor Andueza Zangitu, Juan Zangitu Arsuaga, Emilio Zabaleta Telleria.

Arerioaren mende, esaera dan bezela «gorriak eta bi» igaroaz, lanerako gudu-taldean, *Soria*, *Guadalajara*, ta *Teruel* alderdietan. Zenbat gau eta egun goibel. Zenbat keñada gaizto. Zenbat arrazoi-txaar arpegira boteaz, piko-palaz lan-da lan. Gorputzeko garbitasunen ordez, zorria ugari mantenduaz bi urte igaro bear izan nituen *Franco*-ren gudariak izkillua eskuan zutela; egiten giñuzen pauso guztiak zaitzen ziguten. Pix egitera ateratzeko ere eskopeta gure ondoan, alegia. Bizi naizen artean aaztuko ez diran oroitzapenak baditut alajaña.

Aiek ere igaro ziran da, iru urtera etxerako itxulera, gazte denborako iru urte amezkorrenak alperrik galduak, ain zuzen. Illabete batzuek baserrian igaro ondoren leengo lantokira sartzeko aukera egokitu zitzaidan, eta gaitz-erdi.

Egunean bederatzi ordu lantokian, eta beste mordoxka baserriako egiñaz, bazijoan aurreratzen nere gaztaroa, ta ogeita amar urteetan ezkondu nintzan urte bete gutxiago zuen nekatxa liraiñ Juanarekin. *Saletxe* olerkari aipatuen arreba bera. Urte batzuek bere baserrian bizi ondoren, aurrak ere bazetorkigun, eta kaleratu giñan. Lau seme-alaba azi ditugu.

Zaartzaroa. Urteak jua-da urteak etorri, lantokian asi nintzanetik berrogeita amar urtera iritxi zait irurogei-ta bost urteak. Gaur esan zaion irugarren adiña.

Berrogeita amar urte oiei iru gudatekoak kendu ezgero lan saill batean igaro ditut, erdi inguru langille ta besteak arduradun izanik.

Urte ta erdi zaar-saridun naizela, ta arrigarri bada ere berrogeita amar urte burni lanean, eta orain egur lanera zaletu naiz. Zura landu iruditxoekin, apaltxoak egin e.a., gogoko zait egur-lantxo auxe. Nik ez dut asper-aldirik. Giro ona bada, baratzatxo bat badut eta ura landu, ta giro txarra danean egurra landu. Izakera alaitzeko aukera egokia benetan.

Badira 8 urte aitona izan nitzala. Iru billoba baditut, eta geiagoentzako bideak badira. Billobatxo-oiekin une atsegiñak igarotzen ditut, aur-zalea bai naiz.

(1978. urtean idatzia)

Artzak, otsoak eta basahuntzak

Legazpiko lurretan egun piztiak erabat ezkutatu badira ere, mende honen hasierara arte haien presentzia erakusten diguten agiri eta ahozko testigantza ugari ditugu. Izan ere, Legazpin basoa izan da nagusi betidanik, basa-animaliarentzako inguru aproposa.

Artzak

XVIII. mendearan hasieran, artean, artza hiltzeko «batidak» antolatzea ohikoa zen Legazpin. Honela dio, behintzat, Saturnino Telleriak bere liburuaren pasarte batean: *“En este año de 1702 se rezó por Orden de la Villa una misa, que era Domingo de Carnaval, por causa de venidas de aguas tan grandes, que hubo, que causaron daños. También se dió dinero al Vicario del pueblo limosna para conjuero para que hiciera por los animales dañinos (lobos, etc), trayendo los cazadores, osos y lobos muertos”* (Telleria: 134).

1697. urtean gertaturiko artzaren hilketa bat xehetasun handiagoz deskribatzen digu autore berberak: *“Un suceso bastante notable ocurrió el año 1696 que causó notable sensación hasta en la periferia de los pueblos cercanos de Legazpia. El hecho fué que en los montes cercanos del mismo cerquito de Aitzgorri, apareció un enorme oso, en cuya persecución y caza hicieron salida numerosa gente de esta Villa de Legazpia, acompañados de gente de Villarreal de Urrechua y de Oñate, consiguiendo cazar y matarle al oso, el 14 de Diciembre de 1697, el que pesó 39 raldes (cada ralde pesa 5 kilos) antes más, que menos, costando dicha caza 270 Rls.”* (Telleria: 131-132).

Ez dira, ordea, artzari buruz dauzkagun testigantza bakarrak. Hala, Udanatik Udanazabal bitartean dagoen paraje bati *Arçaherahena* edo *“Donde morio el oso”* deitzen zitzaiola badakigu (Ayerbe 1995: 123, 133).

Otsoak

Otsoak artzak baino beranduago arte ibili dira gure artean. Adinekoek haiei buruzko kontakizunak oraindik ere gogoan dituzte. Hala, Saturnino Guridi (Zelanda, 1859-1922), *Joxemari Olaran* (Musugorrikoa 1824) eta Jose Domingo Etxeberria *Tantanporru* (Eguzkitza 1838, Uerkalde) artzainak otsoen beldurrez izaten ziren, ardiak jaten zizkietela eta. Arriurdineko saroietara ailegatzten zirela askotan esaten zuten.

Ondoko kontu hauek ere ahotan ibiltzen zituzten garai hartako artzainek: «kabaileriek» otsoen usna hartzen zutenean, «moxalen» inguruan biribilean jartzen zirela, burua barrualde-dera jarriz eta ostikoak emanez, arrimatzen zirenean erdira sartzen ez uzteko. Otsoek, azeriek bezala, harrapakina atzetik segitzen omen zuten, ito arte...

Artzarekin gertatzen den bezala ez zen falta, noski, otsoei buruzko aspaldiko aipamenik, haiek egiten zituzten kalteak eta, ondorioz, egin beharreko harrapaketen inguruan. Hona hemen, S. Telleriaren *Historia de Legazpia*-tik aukeratutako bi pasarte: *“En 1690 se dieron premios a los cazadores de lobos, a los que se dieron gratificaciones por valor de 43 reales”* (Telleria: 131); *“Para hacer resaltar lo frecuente en estos montes de fieras, recordamos que el año 1702 los cazadores de lobos se obligaban a poner cepos, pues hacían muchos daños en el ganado”* (Telleria: 134).

Kontsejuak diruz saritzen zituen otsoak harrapatzen zituzten ehiztariak; otso-narru bakoitzeko horrebeste ordainduz. Baina gertatu izan zen otso-narru berbera bi edo gehiagotan aurkeztea saria jasotzeko. Horrelako iruzurrak ekiditeko, dirua eman baino lehen otsoaren buztana eskatzen hasi ziren. Kontu-liburuetan, horrela, honelako esaldiak irakur ditzakegu: *“Se pagó a ... por la cola de un lobo”*.

Bukatzeko, esan behar, gure inguruneko toponimia aberatsean ugariak direla *otsoa* osagaia dutenak: *Otsamuño* (Udana inguruan, agiri zaharretan: “*Cerro donde suelen estar los lobos*”, Ayerbe 1995: 124), *Otsazulueta* (Lakiola inguruan), *Otsolarre* (Azkoitian)...

Basahuntzak

Brinkola inguruan bada «basahuntza» edo oreinaren presentzia erakusten digun leku-izen polit bat. Hura ezagutu eta antzinako edertasunarekin imajinatuz gero, gainera, haien-tzako bizitoki aproposa zela ohartuko gara segituan. Bada, paraje hori *Oroibia* da, egun *Oribi* izenez ezagutzen duguna. «Oroi(n)» hitzetik datorke (Michelena 1973: 141). Ez dakigu, dena den, «oroin» edo basahuntzak noiz arte bizi izan ziren paraje hartan.

Baina, otsoen kasuan bezala, XIX. mendean Aizkorriin basahuntzak zirelako kontuak ahoz aho iritsi zaizkigu gaur arte. Hala, Jose Francisco Andueza (Agirrezabal 1837) brinkolarrak, soroan aurkitutako balarekin basahuntza bota zuela esaten dute. Aizkorri aldean basahuntz bat zebilela eta Brinkolatik antolatutako «batida» batean harrapatu omen zuen.

41. BERGARETXE

* Legazpiko etxerik zaharrenetakoa da Bergaretxe. 1383. urterako, horrela, Legazpiko agirietan bada *“Miguell de Vergara”* izeneko alkatea (Ayerbe 1994: 10) eta litekeena da 100 urte geroago, 1484an hain zuzen (Ayerbe 1994: 130) espreski aipatzen den *“Vergaraeche”* baserriaren bizilagun edo ahaide izatea.

XV. mendeko Bergara familiak erlazio zuzena zeukan Elorregi eta Ubitarteko familiekin. Bergararrak ziren, horrela, Elorregiren erdi baten jabeak.

Bergaretxe baserria, gainera, Elorregitarrena (edo haien ondorengoena) izan da beti itxuraz, ez baita Elorregitar edo Lazarragatarren «erostura» ugarietan azaltzen. Badirudi, beraz, Elorregitarrek eta Bergararrek sorrera bera dutela. Uste hori modu honetan azal daiteke: momentu jakin batean Bergararrek jatorrizko deitura galdu zutela Elorregi hartzeko.



Uarkalde eta Bergaretxe baserriak.

* Balio historiko handiko eraikuntza izanik ere, azken erreteroeak «kaxkajotzat» zeukaten Bergaretxe etxea eta etxaldea. Lur gutxi eta txarra omen du, arbela gainera (kontuan hartu behar dugu trenbidea haren sailen erdi erditik ebaki zutela). Gainera, urarekin ere arazoak omen zituzten, Kortatik eta Uarkaldetik igo behar izaten baitzuten «bozaletan».

* XIX. mendean bi familia erreterero bizi izan ziren: Legorburu-Etxeberria, Legorburu-Apaolaza, batetik, eta Inurritegi-Inza, Inurritegi-Etxeberria, Inurritegi-Agirrezabal, bestetik. Bi familiak mendearen hirugarren herenean Korta bietara jaitsi ziren, Legorburu-Apaolazatarrak Kortaaazpikora eta Inurritegi-Agirrezabaldarrak Kortagarakora, hain zuzen.

Haien ondoren, XIX. mendearen amaieran, aita oñatiarra eta ama legazpiarra zituzten Madina-Agirretarrak jarri ziren bizi izaten. Haietatik, alaba zaharrena, Sinforosa Madina Agirre, ezkondu zen etxera, Arrasateko Luis Antigua Zabaletarekin. Baina, urte batzuk eman ondoren, baserria utzi egin zuten, berriro hutsik lagata.

* Ondoren, Barrena-Arrieta familia etorri zen Aramaiotik, baina gazte zirelarik herioak eraman zituen haietako bi kide istripu banatan eta atzera jaioterrira itzuli ziren.

* Azken erretereroak Nicolas Ugarte eta Juana Elkorobarrutia oñatiarrak izan ziren. Nikolasek hargintza zuen lanbide, lan gehienak karrilerako eta Patriziorako egin zituen. Zazpi seme-alaba izan zituzten: Norberto, Isabel, Luis, Vicenta, Pilar, Juan eta Lucio.

- Norberto etxera ezkondu zen, Agirreburualdeko Benigna Sagastizabalekin.
- Isabel Pastainera ezkondu zen, Felix Agirre Anduezarekin.
- Luis mutikotan hil zen.



Bergaretxe baserriaren ataria (JLU 1993).

- Vicenta Pastainera ezkondu zen, Jose Ugalde Alustizarekin.
- Pilar kalera ezkondu zen, Victoriano Agirre Aztiriarekin.
- Juan ezkongai geratu zen.
- Lucio Gabiriako Lizardiko Josefa Agirre Telleriarekin ezkondu zen.



Ugarte-Elkorobarrutiarrak: Lucio, Norberto, Luis eta Juanito.



Benigna Sagastizabal Etxeberria eta Juana Elkorobarrutia.

42. ARIZTIBEKOA

* Ariztibekoa baserria antzinako korta edo saroi batean eraikia da seguruenik: etxe-inguru biribilak eta herri bide zaharren norabide bihurriak horrela pentsarazten digute. Ez ditu, gainera, lur erosoak laborantzarako.

* Jabe asko izan ditu baserri honek bere historian zehar. XVI. mendearen hasieran, horrela, Miguel de Arizti zen baserriaren jabea. Gero Bikuñatarrek erosi zuten, baina zorrak eraginda Martin de Lizarazu urretxuarrari saldu zioten. Berak, berriz, Juan de Etxabururi, XVII. mendearen hasieran. Ondoren Angela de Arriaranen eskuetara pasa zen, gero Blanca Porcell-en eskuetara, eta azkenik, 1886. urtean, Telleriatarrengana, oraingo bizilagunen arbasoengana.

* 1886. urteraino Arizti bi bizitzako baserria zen, batean Agirrezabaldarrak eta bestean Telleriatarrek bizi zirelarik. Aipatu urtean errentero biek etxeak erosi zizkieten Blanca Porcell jabeari, «Marquesa de Villalegre y de San Millan»-i alegia. «Erostura»-ren ondoren, Agirrezabaldarrak baserri zaharrean geratu ziren eta Telleriatarrek alde egin zuten gorago eraikitako baserri berrira.



Ariztibekoa baserria (PA 1996).

* Agirrezabal abizena Gabriel Agirrezabal Ezpeletak (Ondamendi 1766) ekarri zuen Antzuolatik, zein Ariztira ezkondu baitzen auzoko Agirrezabal baserriko Maria Josefa Andueza Oiarbiderekin. Esteban Agirrezabal Anduezak (Ariztibekoa 1798) segitu zuen baserriaren buru, Juana Bergaretxe Galparsoro emaztetzat hartuz. Haien oinordeko, berriz, Jose Mari Agirrezabal Bergaretxe (Ariztibekoa 1822) izan zen, Antonia Juana Zabaleta Lekuonarekin (Kortagarakoa 1823) ezkonduko zena. Haiek sei seme-alaba izan zituzten:

- Felix etxera ezkondu zen, Eguzkitzabeko Tomasa Etxeberria Jauregiarekin.
- Josefa Ignacia Legorburura ezkondu zen, Jose Ignacio Agirre Aranbururekin.
- Prudenciana, Agirrezabal baserrira ezkondu zen, Jose Francisco Anduezarekin.
- Josefina Antonia Garroaundira ezkondu zen, Jose Mari Zabaleta Agirrerekin.
- Lino Plazaolaerrotara ezkondu zen, Ana Agirre Guridirekin.
- Jose Martina Guridi Altzuetarekin ezkondu zen Araiztegira, horregatik *Joxe Araiztegi*.


Jose Mari, aita, arotza zen, mandio ondoan «**obradorea**» edo tailerra zuelarik. Gurtetxeak, lanabesak eta abar egiten zituen bertan.

* Felix Agirrezabal Zabaletak (Ariztibekoa 1854) hartu zuen etxearen oinordekotza eta lau seme-alaba izan zituen Tomasa Etxeberria Jauregiarekin: Ignacia, Jose Mari, Jose Ignacio eta Simon.

- Ignacia Kortaazpiko Jose Mari Legorbururekin ezkondu zen.
- Jose Mari Elorzako Cesarea Ormazabal Galparsororekin ezkondu zen.
- Jose Ignacio gazterik hil zen.
- *Ximon* etxera ezkondu zen.



Maria Pilar Inurritegi Etxeberria eta Simon Agirrezabal Etxeberria.



Esteban Agirrezabal Inurritegi.

* Simon Agirrezbal Etxeberria (Ariztibekoa 1877), Zubiaurgo Maria Pilar Inurritegi Etxeberriarekin ezkondu eta bi seme izan zituzten: Victoriano, gazte hil zena, eta Esteban.

Esteban Agirrezabal Inurritegi (Ariztibekoa 1906) geratu zen baserrian, Pastaingo Margarita Lizarazu Alustiza emaztetzat hartuz. Sei seme-alaba izan zituzten: Faustino, Ignacio, Lourdes, Asensio, Eulalia eta Maria Angeles, egungo jabe berriak.

* Salibietako bidean, *Zepadi* izeneko parajea harrizko gurutze bat dago; diotenez, han hildako Ariztiar kide baten omenez jarri zuten. Santo Tomas egunean, Segurako feriatik zeto-rrela; «aldagoia» zebilen eta elur bisutsak itota hil omen zen.

Otañu, jentilen lantegia

Gipuzkoako hegoaldean, Aizkorri mendikatearen hegala batean, bada gutxi batzuek bes-terik erreparatu ez dioten ingurune xarmangarri bat. Menditsua, basatia eta malkartsua da, baina lekurik erosoenetan baserri auzoak ere ikus daitezke. Alabaina ez da hori paisaia haren erakargarritasunik handiena, baizik eta burdingintzari lotua agertzen duen historia aberatsa.

Ingurune hau XIV. mendean jadanik oso modu grafikoan deskribatzen digu Legazpiko udal artxiboan dagoen agiri batek (Diaz de Salazar 1985):

“Que avemos ferrerías masuqueras e otras de maço de agua e de omes nos e otros en Necaburu e en Legaspia e en otro logares de que labran la vena de Necaburu e de Hayzpuru e de Çamora e de Ocannu e de Barbaria¹”.

Aipatzen diren leku-izenak gaur egun ere erabiltzen dira aldaketa handirik gabe eta, horri esker, jakin badakigu Mutiloa, Legazpi eta Zeraingo lurretan ingurune biribil bat deskribatzen dela. Egun, eremu horren barruan honako baserri auzoak ditugu: Legazpiko Brinkola, Gabiriako Aztiri, Mutiloako Ergoena eta Zeraingo Aizpea eta Barbarieta.

Erdi Aroa

Oso gutxi dakigu gure Gipuzkoako historiaz, lehen dokumentu idatziak oso berandu arte ez baitzaizkigu agertzen. Erdi Aroko gipuzkoarraren bizimodua, esaterako, iluna da, oro har. Hori dela eta, gehiengo batek uste du gipuzkoarrak ia oraintsu arte soilik artzain izan direla.

Otañu ingurua miatuz gero, ordea, goiko uste hori zalantzan jarriko dugu. Izan ere, meazuloz eta «zepadi»-z (eskoriaz, alegia) beteta dago, antzinako burdin industria garrantzitsua erakutsiz. Meatzeei dagokienez esan behar da, azken 150 urteetan ustiatu izan badira ere (Mutiloa eta Zerainen), antzina ere ezagunak zirela (Mutiloakoak batez ere). Zepadi kopurua ere izugarria da². Hori dela eta, dudarik ez dago garai batean jende asko ibili izan zela para-je haietan, eta ez artzainak soilik.

1. Bukaeran azaltzen diren bost leku-izenak ez daude kasualitatez hurrenkera horretan, irizpide geografikoaren arabera baizik. Eta erabat ziurtatzerik ez badugu ere, *“Necaburu”*-k Mutiloako Lenkaran baserri-izenarekin izan dezake zerikusirik. *“Hayzpuru”*, berriz, aldaketarik jasan ez duen leku-izena da, egun ere horrela ezagutzen baita. *“Ocannu”* eta *“Barbaria”* egungo Otañu eta Barbari dira dudarik gabe. Eta *“Çamora”*-ren kasuan ez dago arazo handiegirik Zabarain leku-izenarekin lotzeko, jakinik gainera, gaur egun Aizpuru eta Otañu mendien arteko parajeari hala deitzen zaiola.

2. Behialako burdinolek uzten zituzten zakardiak izaten dira, hots, mineraletik burdina lortu eta gero egiten zituzten zakar pilak.



Santo Tomas egun batean, Segurako feriatik zetorrela; Ariztiko bizilagun bat elur bisutsak itota hil zen Zepadi izeneko parajea. Haren omenez jarri zuten harrizko gurutzea (JLU 1994).

Legazpiko Burdinola kultur elkarteak eta Donostiako Arkeolan taldeak 1996. urtean elkarlanean egindako azterketa batzuen ondorioz jakin da zepadi horietako batzuk XI. mendekoak direla. Horra hor, bada, datu interesgarria gure historia zaharra berreraikiz joateko.

Jentilak

Arrazoi horrexegatik, beharbada, Otañu inguruko baserri eta auzoetan «jentilen» kontu eta ipuin ugari bil daitezke gaur egun ere. Olagizon «basatiar» haiek bizi zireneko garaien oihartzunak ote?

* Jose Miguel Olabide Plazaolak (Markastegierrota 1866) esaten zuenez, Aizalekun harri handi bat dago, haren gainean esaldi hau duena: *“Neri buelta ematen didanak, a ze suerte!”*. Behin, elkartu omen zen izugarritzko giza pila azpitik lurra kendu eta jiratu nahian. Baita lortu ere, baina bestaldean honela omen zioen: *“Bapo negok”*.

* Juana Maria Etxeberria Telleriak (Ariztigoikoa 1881) esaten zuenez, Aizalekutik behera haitz handi bat zegoen, jentilek Otañutik botatakkoa.

* Jose Luis Kerejeta Garmendia (Goiategi 1931) Otañu aldean lanean ibilia da, eta honako ipuin hau entzun omen zuen: behin *Jentillen bolalekua* izeneko parajea jentil batek harri bat bota eta Brinkolako Ermentaria baserriko sukaldeko leiho ondoan zegoen esne pertza puskatu zuela.

* Tomasa Arsuaga Lezetak (Zabaleta 1919, Agirrezabal) zioenez, Ariznabarreta parajea jentil-harri bat dago, helduleku eta guzti, jentilek abailarekin botatakkoa.

* Juan Telleria Berasategik (Urrutikoetxea 1912, Zerain) dioenez, Amidizulo sakonean jentilek egindako meazuloak daude.

* Anacleta Berasategi Aierbek (Arrolazarra 1924, Zerain) *Jentillen sukalddea* erakutsiko dizu baserriaren ondoko kobazulo batean. Baita jentilen gaineko ipuinak ere. Hona hemen haietako bat:

“Garii kastatu omen tziten ogi-iriñek eta, esa omen tzien «Biar ekarkoet nik ogi-iiñe», eta jun da, ez emen tzeon ezeik baño garie emen zakarren. Alabak irten men tzion Bostaiztaa udeekin, erradan ude zoola. Eraa emen tzon da esan emen tzion: «Aitte aitte amen deskantsau, utzizu zakue or da» «Oi jakin bano geio ekarko niñan». «Emen banon ba nik antusiñe, antusiñei ze in diozu ta» «Aizan, iruittu zataan estaarrin bera zamartzan bat osau dala, uuxe tragauko niñan». Ala, bik etorri emen tzien: «Ama, ama, ez to ba ekarri iiñe, garie ekarri do» «Ba, arreglauko deu, errotaa eama emen tzon iotzea. lotzea atzea seittun eman gáñea nausik eta, etxea etorri zienen ekarri do ogi-iiñe: «Ba esnea eosita dao ba, auntz-ésnea» Eta ordún arekin gosaltzeko preparatu. Ala bizi izango zien, esanak beintzet.”



Basaundiko gaztain arroka (JLU 1996).

* Saturnino Telleria Zabaletak, Legazpiko mediku zenak (kalea 1880), «jentillola» izena jaso zuen Legazpiko baserriarren ahotik.

Esaunda horiek guztiek erakusten duten lehenengo gauza honako hau da: gizakiaren presentzia Otañu inguruan aspaldikoa dela. Eta zergatik ez, izan dezakete antzinako olagizonekin zerikusia.

Haizeolak

Erdi Aroko jentil edo olagizon haiek mendian egiten zuten lan, burdinolak meatzetatik eta basoetatik hurbil eraikiz. Burdinola haiek txikiak izaten ziren eta ez ziren uraren indarrez mugitzen, gerokoak bezala. Manuel Laborde ikerlariak «haizeola» deitzen zien mota honetako olei (agirietan «masukera» aipatzen bada ere). Gizon haiek artisau bikaintzat jo behar ditugu, hain bitarteko eskasekin burdina ateratzeko zuten trebetasuna ikusita. Kontuan izan behar da egungo gizona ez dela gauza garai hartako bitartekoeekin burdina egiteko, askotan saiatu izan bada ere.

Bestalde, burdingintzak, aspaldi hartan egun bezalaxe, lan eta lanbide asko eskatzen zuten: olagizonez gain meatzariak, mandazainak, baso-mutilak, merkatariak... eta abar luze bat. Hala, pentsatu behar dugu industria horren inguruan jende asko mugitzen zela.

XIV. edo XV. mendetik aurrera badirudi ur-bazterretan, «zeharrolak» edo «urolak» eraikitzearekin batera, «haizeolak» ezkututzen hasi zirela.

43. ARIZTIGOIKOA

* Ariztigoikoa baserria 1886. urtean eraiki zen Mendibil mendiaren barrenean. Ariztibekoa utzi eta etxe berrira etorri ziren bizitzera Patricia Telleria Telleria (Ariztibekoa 1856) eta Pedro Mari Etxeberria Plazaola (Plazaola 1859). Sei seme-alaba izan zituzten:

- Jose, zaharrena, Motxorroko Petra Aranbururekin ezkondu eta Elbarrenako Arizturritza-ga baserrira joan ziren bizitzera.
- Castora moja joan zen.
- *Faustiño* Hernanira joan zen morroi eta han ezagututako Juana Garmendiarekin ezkondu zen Legazpira, Lazaroneara hain zuzen. Telleriko buztindegian ibili zen lanean. «Enterradore» lanetan ere jarduten zuen, kanposantu zaharra etxetik oso gertu baitzegoen. 1936. urtean Mirasol etxea eraiki zuen.
- *Juanamari* Jose Irastorza Mendiarekin ezkondu eta Telleriarten jarri ziren bizi izaten.
- Manuela Ordiziako Jose Sarasolarekin ezkondu zen.



Ariztigoikoa baserriaren ataria (JLU 1994).

– Juan Mutiloako Goenexeko Maria Telleria Telleriarekin etxera ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten: Felipe, Pilar, Maria Luisa eta Maria Isabel.

Pedromari, aita, Aizkorrin ikazkin ibili zen eta indar handikoa omen zen. Esaten dutenez, arrautzak saltzera Donostiaraino joaten zen oinez, Tolosan baino hobeto saltzen zituelako.



Juan Etxeberria Telleria, Pilar Etxeberria Telleria, Felipe Etxeberria Telleria, Maria Telleria Telleria, Maria Luisa Etxeberria Telleria eta Maria Isabel Etxeberria Telleria.

Gabonetako bixigua

Esteban Alzelai Guridi

Hona hemen Ariztigoiko Juana Mari Etxeberria Telleriari gertatutako pasadizo bat. Juana Mari, emakume ausarta, nahikoa gazterik, Donostiara joan zen etxe aberats batera. Gabon jaiak heldu ziren batean ez zuen etxera etortzeko aukerarik izan, nagusiari Gabon-afaria prestatu eta zerbitzatu behar baitzion.

Horrela bada, goizean garaiz, afarirako nagusiak agindutako arraina erostera hurbildu omen da Bretxako merkatura. Bertako bixiguak ikusita erabat liluraturik geratu eta bere baitan dio: *“Hauetako pare bat, gaur Ariztigoikora bidaltzeko modua egingo banu...”*. Besterik gabe, agerian zeuden bi handienak hartu eta pozik baino pozik hor doa etxera.

Bazkal ostean, pakete txukun bat egin eta arin-arin abiatzen da Norteko estaziora, ea Brinkolatarren bat ikusten duen bere asmoa bete ahal izateko. Geltokiko andenean, nor ikusiko alde batera eta bestera dabilela, bat-batean non agertzen den bapo bazkaldu ondoren muxu gorri-gorria duela, Bernabe Azurmendi mikeletea. Bernabe Aldundian izana zen Brinkolako arbitrioetan bildutako zerga diruen kontuak ematen.

Bernabek Juana Mari agurtu du:

- *Kaixo neska... hi ere Gabonak pasatzera etxe aldera?*
- *Baa...ez. Gaur ez daukat joaterik. Hemen nago pakete hau Ariztigoikora norekin bidaliko ote dudan... Zuk eroango bazenit benetan eskertuko nizuke, gaur gauerako bixiguak baitira.*
- *Ala jainkoa! Ez dun txantxetako oparia... Hori baino ez bada, egina zegon neska, nere kontu.*

Batak besteari eguberri onak emanaz agurtu dira.

Hortan iritsi da «pottijoa» geltokira, bertan sartu eta mikeleak etxerako bidea hartu du. Estazio guztietan geldituz, halako batean ailegatu da Brinkolara. Trenetik jaitsi eta, Patxinea aurrean, lehenik aurkitutako mutikoari esan dio: *“Hi txikito. To bi erreal eta eraman ezak korrikan pakete hau Ariztigoikora”*. Mutikoak bere eskuetan bi erreal ikusi dituenean, ontzak berak baino begi handiagoak jarri zaizkio, eta hanka-orpoekin ipurdia joz, berehala hartu du Ariztigoikorako bidea.

Gabonak Donostian pasa eta Gabonzaharrerako Juana Mari bere etxera etorri zen, usa-dioko Gabon-saria berekin zuela (lau kilotik gorako makailoa, kafea, azukrea, ardo goxoa... Nagusia eskuzabala omen zen).

Afal ostean etxeko denak suaren inguruan, korro eginez, kontu-kontari solasean jari direnean, Juana Marik halako batean dio:

- *Ama! Zer moduz Gabon gauerako bidali nizun bixigua?*
- *Aa... Portatu hintzanan neska. Egun horretako afaria prestatuik neukinan eta ondorengo egunetan indibabatan egosi eta ez dakin zein gozo irten zuten, baita bixiguarekin egositako indibabak ere. Sekula ez dinagu lapikoko gozoagorik jan. Bi egun hauetan gozatu ederra hartu dinagu hiri esker.*

Gaur egun, sukaldari ospetsuak hor dabilta zer asma, indibaba txuriak txirlekin nahiz kokotxekin prestatuz, esperientzia berriak egin nahian. Duela ehun urte Ariztigoikoan egin zuten antzeko esperientzia bat, eta lekukoek ziotenez primeran atera zitzairen.

44. KORTAAZPIKOA

* Kortauzoa errekaiz Mutiloa aldera dauden Brinkolako baserriek osatzen dute. Errekaren ondoan hiru daude (Kortaazpikoa, Errautegi eta Kortagarakoa; antzina, baita Loitzaeta ere) eta Otañu mendiaren hegaletan lau (Bergaretxe, Agirrezabal, Ariztibekoa eta Ariztigoikoa). Bi bide garrantzitsuk gurutzatzen zuten behiala: Mutiloako meatzeetara zihonak, oraintsu arte *Peabide* deituak; eta, Salobietatik barrena, Zerainera zihonak.

* *Korta* deitura 1532. urteko agiri batean dagoeneko aipatzen da, honela: “*camino publico que va desde la dicha casa de Korta para las veneras*” (LUA3). Izenak berak adierazten duen bezala saroi edo korta izango zen jatorriz, hots, egitura biribila zuen sail pribatua, eta litekeena da 99 urte lehenago “*sel de Elorregi*” (Elorregiko korta) izenez ezagutzea, 1433ko udal agiri batean azaltzen den bezala (Ayerbe 1994: 67-68).

* Kortauzoan, Errekaundi edo Urola gaineko zubitik lehenengo dagoen baserria Kortaazpikoa da. Ezin jakin dezakegu XVI. mendeko agiritan azaltzen zaigun *Korta* etxearen orubean eraikia dagoen ala ez, gorago *Kortagarakoa* izeneko beste bat baita ukagu.



Kortaazpikoa baserria (PA 1996).

1607rako, Korta izeneko bi baserri azaltzen dira argi eta garbi: “*Corta la de yuso*” eta “*Corta la de susso*”.

1649. urtean Legazpiko etheen zerrenda batek erakusten digunez (LUA6), Juan de Plazaola errenteroa bizi zen Kortaazpikoan. 1667an, Juan de Plazaola eta bere andre Angela de Oruetak Nicolas Antonio de Madariaga eta beraren andre Magdalena de Plazaolari eman zioten errentan etxea.

* 1815. urtean Oñatiko Trinitateko mojek Juan Francisco Gorosabel Legazpiko bikarioari saldu zioten hamabi mila eta berrogeita lau errealetan (GPAH19).

* XIX. mendeko urte askotan Etxeberria-Zabaleta, lehenengo, eta Etxeberria-Aztiria, gero, familiek eduki zuten errentan. 1870. urte aldera, ordea, Bergaretxe baserrian bizi ziren Legorburutarrek baserria erosi eta bertara etorri ziren bizitzera.

* Roque Legorburu Etxeberria (Bergaretxe 1815) eta Maria Josefa Apaolaza Anduezak zazpi seme-alaba izan zituzten: Juana Josefa, Agustin, Jose Pablo, Juana, Pedro, Francisco Mari eta Maria Ignacia.

- Juana Josefa Telleriarteko Etxaluze etxera ezkondu zen, Astaburuagako Ignacio Mari Elorza Gaztañagarekin.
- Agustin etxera ezkondu zen.
- Jose Pablok eta Pedrok Uruguayko La Asunción hirira emigratu zuten.
- Joana Gibelolara ezkondu zen Jose Antonio Zangiturekin.
- Francisco Mari ezkongai geratu zen, azken aldera Telleriarteko *Uztarrinea* etxean biziz.
- *Marinixi* Txuluplantegira ezkondu zen, Garroaundiko Jose Ignacio Jauregi Etxeberriarekin.

Agustin (Bergaretxe 1854) etxeak erosi eta saldu ibiltzen zen. Tratalaria zenez, garai hartarako diru pixka bat ere egina zuen. Hala, Erraizabalgo Juan Jose Aranguren, Errekaetako Lorenzo Gerra eta Astaburuagako Ignacio Mari Elorza «enpresa-lagun» hartuta, Kataberako meatzetan ibili zen zulaketak eta «aztarkak» egiten, harik eta «alemana» (Friedrich Bähr) etorri arte.

Olazargo Maria Josefa Inurritegi Plazaolarekin ezkondu eta zazpi seme-alaba izan zituzten: Jose Mari, Nicolas, Saturnino, Bernarda, Roman, Juan eta Bernardo.

- Jose Mari etxera ezkondu zen.
- Nicolas eta Bernardo Txuluplantegira joan ziren bizi izatera.
- Saturnino Ameriketara joan zen osaba-izebengana, han emazte gabiriarra harturik.
- Bernarda Elorregierrotako Juan Mari Galfarsororekin ezkondu eta Zoiloetxean taberna jarri zuten, bi seme haziz: *Periko* eta *Juanito*.
- Roman eta Juan anaiek Eibarren pistola fabrika jarri zuten gerra aurretik.

Roman eta Juanek ez zuten zorte handirik izan Eibarren eta etxera itzuli ziren; baina ez esku hutsik: kaxakada pistolarekin, denak piezaren bat falta zutenak. Gerratea iristean, ordea, beldurrak eraginda, «goldazoira» sartu omen zituzten eta hurrengo urteetan lurrari buelta ematerakoan han azaltzen omen ziren aldiko batzuk.

* Jose Mari Legorburu Inurritegi (Kortaazpikoa 1877) geratu zen baserriaren buru. Oso trebea zen eskulanetarako, arotz, hargin eta errementari lanak ondo menderatzen zituelarik. Inguruko lehen dolarea ere hark jarritakoa zen eta, urte mordoska batean, Aztiri aldetik, Urtatza aldetik eta auzotik bertatik Kortara etortzen ziren sagardoa egitera. Ariztik Ignacia Agirrezabalekin ezkondu zen lehenengoz eta hiru seme-alaba ekarri zituzten mundura:

Isabel, *Periko* eta Mauricio. Baina alargundu eta bigarrenez Mantxolako Francisca Bergaretxerekin ezkondu zen, honekin beste seme bat edukiz: Felix.

- Isabel Legorburu Agirrezabalek urte batzuetan Bernardo osabari lagundu zion Txuluplantegin; gero Donostiara ezkondu zen.
- *Periko* eta *Maurixio* 20 urte besterik ez zituztela hil ziren, bata «plumoniak» jota eta bestea hagina ateratzearen ondorioz.
- Felix etxera ezkondu zen.

* Felix Legorburu Bergaretxe (Kortaazpikoa 1917) Zaldutxikiko Jesusa Zabala Aramen-direkin ezkondu zen. Zaletasunik handienak **arrantza eta ehiza** izan ditu. Mutikotan aingira harrapatzen makina bat saio egin zuen Marcelino eta Julio Bergaretxe lehengusuekin Pastaingo zubitit Intzaren lizarretara bitartean. Goizeko lauretan jaikitzen ziren errekatik korde-lak ateratzeko, hodei egunak aprobetxatuz. Aingirak oso labainkorrak izanik, txapelarekin harrapatzen omen zituzten. Behin batean, ondo begiratu ez, eta sugea ere atera omen zuten.

Brinkolako sagardoa

Hiru dolare izan dira Brinkolan orain dela gutxi arte: Agirrezabalen, Muntegin eta Kortaazpikoan. Agirrezabalgoa etxekoek besterik ez zuten erabiltzen; Muntegikoa auzokoek ere erabiltzen zuten baina dena norberak eginez; Kortaazpiko dolarean, azkenik, etxeko jauna arduratzen zen etxerako eta auzorako sagardoa egiteaz.

Felix Legorburu mutikoa zela jarri zen dolarea Kortaazpikoan, 1925. urtean edo. Hasieran ez zen kanporako sagardorik egiten baina, denborarekin, Felixen ardurapean Zabaleta, Urtatza, Mirandaola, Igeralde eta abarrerako sagardoa ere egiten hasi ziren.

Udazken aldera egiten zuen lan hori, lanaldi bakoitza egun batean burutuz. Sagarrak eramaten zituenaren laguntza izaten zuen eta ez zuen kobratzen. Baten batek zigarro pake-teren bat edo beste emanez gero, pozik geratzen zen.

Ilbera edo ilgora zen begiratzen zion, noiz egin erabakitzeko; bestela, sagardoak hondatzeko arriskua izaten baitzuen.

20 litro sagardo egiteko sei zaku sagar eta hiru baldekada ur behar izaten ziren. Sagarra norberak eramaten omen zuen, mota guztietakoak, baita erdi ustelak ere behin baino gehiagotan. Gero, sagardoa etxera eramateko barrika ere baserritarraren kontura zen. Batzuetan, barrikaren egurrak gustu txarra ematen zion sagardoari eta jendea kexaka joaten omen zitzaion, Felixen errua ez izan arren.

Sagardoaz gain pitarra ere egiten zuen noizbait. Sagarrak irakiten hasi aurretik sortutako zuku goxo hori egin berritan edan behar zen; haurrek ere edaten zuten.

Sagarrei zukua edo patsa atera eta gero geratzen zen hondarra, berriz, behiei ematen zien, esnearekin nahastuta, baldin eta sagarraren jabeak beretzat erreklamatzeko ez bazuen.

Sagardogintzaren lanik astunena sagarrak txikitzea izaten zen, baina Felix egundoko asmatzailea zenez, tramankulu bat asmatu zuen, motore eta guzti.

Otsailean sagardoa botiletan sartzeko garaia zen eta horretarako ere bazuen tresna txiki baten laguntza, aitak erositako *Paris* markako enkortxadora, alegia.

Kortaazpikoan eskailerapean gordetzen ziren sagardo botilak, inoiz, eguraldiaren arabera, kortxoek ihes egiten zitelarik. Botila horietan zegoena probatzera joaten zirenak ere bazi-ren: *Patxi Mandiola* eta Agirrezabalgo Patxi. Haiek omen ziren dastatzaile onenak.

«Indobak» garbitzeko makina

Felix Legorbururi aitarengandik sortu zitzaion tramankuluak asmatu eta egiteko zaletasuna. Baserrian lanik ez zegoenean, negu partean, etxe aurrean tailer moduan prestatu zuen etxolan sartu eta han ekiten zion buruan zuen guztia errealtate bihurtzeari.

Asmatzen zituen tramankuluek lana erraztea eta arintzea zuten helburu. Zertarako bestela segari eskuare bat erantsiz sortu zuen garia ebakitzeko makina? Edo dolarera botatzeko sagarrak txikitzen zituen motordun beste makina hura? Santuruneako Agustini erosi zion garia jotzeko makinari, berriz, zati bat gehitu eta lana azkarrago egiten zen horrela. Indobak garbitzeko makina, tornua eta beste hainbat gauza ere egin zituen.

Aitaren zaletasuna jaso zuen. Felixek egin zituen Telleriarte eta Muruko bolatokietako bir-lak. Eskuare eta egurrezko karretilak ere egiten zituen, azken horiei neumatikozko gurpilak jartzten zizkielarik. Bere seme-alabei egurrezko trizikloa ere egin zien.

Zorrotzaile ona izan zen gainera. Etxe aurrean, tailerraren ondoan zuen sutegian sardeak eta horrelako tresnak berotu eta mazoarekin emanez punta ateratzen ziren diru pixka baten truke. Brinkola eta Telleriarteko erreminta guztiak pasatzen ziren haren eskuetatik. Azkenak, Pastaingo Ramonenak izan ziren. Astirik ez eta ezin izan zuen, ordea, hark enkargatutako lana burutu. Haserre bizian alde egin omen zuen Kortaazpikotik lana ez ziola egin eta.



Felix Legorburu Bergaretxe.

45. KORTAGARAKOA

* Kortagarakoari buruz topatu dugun aipamen zaharrena 1607. urtekoa da: “*Corta de susso*” (LUA4).

* XIX. mendean bi bizitza zituen, bietan errenteroak: Agirrezabal-Bergaretxe, Andueza-Agirrezabal familiak batean, eta Zabaleta-Arrikruz, Zabaleta-Lekuona, Mendiola-Zabaleta, bestean.

1870 inguruan Bergaretxeko Inurritegi-Agirrezabal familiak Andueza-Agirrezabaldarrak ordezkatu zituen baserrian.

Juan Cruz Inurritegi Agirrezabal (Bergaretxe 1850) gazterik gelditu zen alargun, hiru seme zituela: Julian, *Txomin* eta *Patxi*.

- Julian Kortan hil zen mutilzahar. Karrilean ibili zen lanean.
- *Patxi* itzain ibili zen Oñatira eta, bideko garraioa etengabea baitzen garai hartan. Arotza ere bazen.



Kortagarakoa baserria (PA 1996).



Domingo Inurritegi Inza.



Patxi Inurritegi Inza, Juan Cruz Inurritegi Agirrezabal, andrea eta Jose Ignacio Inurritegi Etxeberria.

– *Txomin* geratu zen baserriaren buru, Olazargo Juana Inurritegi Inurritegirekin ezkonduz. Bi seme izan zituzten: bat jaio eta berehala hil zen, bestea Felix. Txomin estazioan ibili zen «guardagujas» lanetan.

Felix Inurritegi Inurritegi (Kortagarakoa 1905) Elorregiko Candida Etxeberria Guridirekin ezkondu zen eta, aurrekoek bezala, karrileko eta baserriko lanak uztartu zituen.

* «Etxekonean», XVIII. mendearen bukaeran, Juan Ignacio Zabaleta Arrikruz (Kortagarakoa 1780) Telleriarteko Landaeta edo Kantoikoa etxeko Ignacia Lekuona Bastarririkarekin ezkondu zen.

Juan Miguel Zabaleta Lekuonak (Kortagarakoa 1820) segitu zuen baserriaren buru, emaztetzat Maria Josefa Balerdi Guridi (Zatui 1824) hartuz.

Maria Juana Zabaleta Balerdi (Kortagarakoa 1847) etxera ezkondu zen Araiztegiko Pantaleon Mendiola Zabarain harginarekin.

Familia hori, ordea, XX. mendearen hasieran ezkutatu egin zen Kortagarakotik.



Felix Inurritegi Inurritegi eta Candida Etxeberria Guridi.



Simon Odria, Felix Inurritegi eta Marcelino Guridi.

Ezteiak

Lehen, andregaiaren herrian ezkontzeko ohitura egoten zen. Eliz ospakizunak goizean goiz egin eta, senitarteko eta lagunen zorionak jaso ondoren, bazkaltzera abiatzen ziren denak. Banketea ezkonberrietako baten etxean egiten zen, ganbaran normalean, hura izaten baitzen etxeko lehorperik handiena. Jatordurako txahalen bat hil eta nahikoa janari izaten zen. Oilasko, oilo, arrautza, sagar, barazki eta bestelakoak senitartekoei, auzokoei eta lagunek eramaten zituzten. Edateko, ardoa edo sagardoa izaten zen.

Bazkalondoan bat-bateko bertsoak eta dantzaldia ez ziren falta izaten. Soinu-jolea ingurukoa izaten zen normalean.

Eztei-bidaia ezkontzaren hurrengo egunean edo beranduago egiten zen, bi edo hiru egunerako. Ez ziren urrutira joaten, eta normalean familiakoren bat bisitatzeko aprobetxatzen zen.

Andregai senargaiaren etxera joaten baldin bazen bizitzera, ezkondu aurretik arrea eramaten zuen etxe berrira idiek edo behiek tiratutako gurdietan. Horrela egin zuten, besteak beste, honako hauek: Basilia Aztiria Aztiria (Urtatzagarakoa 1880) Igeraldegarakora ezkondu zenean (Estanislao Agirreren lehengusu Daniel Apaolazak alaitu zuen bidaia soinuaz); Petra Guridi Inza (Oñati 1893) Eguzkitzabekora ezkondu zenean (anaiak ekarri zion arrea); Lorenza Ugarte Igartua (Zatui 1917) Igeraldera ezkondu zenean (aitak ekarri zion arrea)...

1894. urteko Legazpiko bizilagunen eroldaren arabera (LUA18) 48 senar-emazte (alargunen ezkontideak ere kontuan hartuz) bizi ziren Brinkolan. Horietatik 34 kasutan ezkontidetako bat bikotea bizi zen baserrian jaioa zen. Gainerako 14 kasutan, berriz, biak kanpotik etorriak, alegia, ez bata ez bestea ez zen baserrian bertan jaioa. 14 bikote horietatik 8 bikote Brinkola-Telleriarteko ezkontideak ziren; 2 Legazpitik kanpokoak; eta 4 mistoak, alegia, bieta-ko bat Legazpitik kanpokoak.

Normalean gizona ezkontzen zen jaiotetxera. Hala, ezkontidetako bat baserrian jaioa zen kasuetan, %79,4tan gizona ezkontzen zen jaiotetxera eta % 20,6tan andrea.

34	Ezkontideetako bat, bikotea bizi zen baserrian jaioa	
	27	Gizona baserrikoa
	7	Andrea baserrikoa
14	Bi ezkontideak beste leku batean jaioak	
	8	Bi ezkontideak auzokoak (Brinkola-Telleriarte)
	4	Ezkontide bat Legazpikoa, bestea Legazpitik kanpokoak
	2	Bi ezkontideak Legazpitik kanpokoak

Beste ikuspegi batetik, zera ikus daiteke: Brinkolako 48 senar-emazteetatik 30 kasutan biak auzotarrak ziren, 4 kasutan, bata Brinkola-Telleriartekoa eta bestea Legazpikoa; 11 kasutan, bata Brinkola-Telleriartekoa eta bestea Goierrikoa (Idiazabal, Zegama, Zerain eta Zumarraga) edo Deba arrokoa (Oñati, Bergara eta Arrasate); eta 3 kasutan, biak kanpokoak.

30	Bi ezkontideak auzokoak (Brinkola-Telleriarte)
11	Ezkontide bat auzokoa eta bestea Goierrri edo Deba Garaikoa
4	Ezkontide bat auzokoa eta bestea Kaleko edo Elbarrenakoa
3	Bi ezkontideak Gipuzkoatik kanpokoak

Datu horiek aztertuta ondoriozta dezakegu Brinkolan bizitzen geratzen zirenek (etxearen oinordekotza hartuz edo beste etxe bat erosi, egin edo errentan hartuz) auzoko ezkontidea aukeratzen zutela gihienetan.



Esteban Agirrezabal Inurritegi eta Margarita Lizarazu Alustizaren ezkontza egunean Zumaiako Etxabe jatetxean: 1. Felix Agirre Andueza / 2. zerbitzaria / 3. Julio Alustiza / 4. Ines Inurritegi Aristimuño / 5. Maria Inurritegi Aristimuño / 6. Andres Agirrezabal Ormazabal / 7. Candida Etxeberria Guridi / 8. Felix Inurritegi Inurritegi / 9. Maria Lekuona / 10. Jose Mari Lizarazu Alustiza / 11. Amparo Agirrezabal Ormazabal / 12. Andres Lizarazu Alustiza / 13. Maria Ugalde Alustiza / 14. Hipolito Madina, *Txurruka* / 15. Eugenia Alustiza / 16. Ramon Agirre Andueza / 17. zerbitzaria / 18. Isabel Legorburu Agirrezabal / 19. Victoriano Agirrezabal Inurritegi / 20. Juana Kortaberria / 21. Julia Agirrezabal Ormazabal / 22. Jose Lizarazu Alustiza / 23. Angel Agirrezabal Ormazabal.



46. ERRAUTEGI

* Gaur egun *Errautegi* izenez ezagutzen dugun baserria *Ernandotegi* da jatorriz, hau da, Hernando edo Fernandoren etxea: *Hernando* + *-tegi*.

S. Telleriak aipatzen du XVI. mendeko baserrien zerrenda batean, «casas de fuego entero»-en artean. Horrek, nolabait, Legazpiko etxerik garrantzitsuenetako bat zela adierazten zuen.

* 1760. urte inguruan Domingo de Guridi-Ernandotegi eta Ana Maria Abalia senar-emazteak bizi ziren. Manuel Guridi-Ernandotegi Abaliak hartu zuen etxearen oinordekotza, Anastasia Inzarekin ezkonduz. Bederatzi seme-alaba izan zituzten: Francisco Antonio «estudiantea», Juan «estudiantea», Miguel, Jose, Isidro, Diego, Maria Antonia, Maria Santuru eta Josefa (GPAH1).

Manuel 1759an hil zen zahartzarora heldu gabe, Anastasia bederatzi seme-alabekin alargun utzita. Familia ugaria aurrera ateratzeko Anastasiak eta Miguel hirugarren semeak,



Errautegi baserria (PA 1996).

100 dukateko «zenso» bat sortu beharra izan zuten, Errautegi etxea, etxaldea eta amak ekarri zuten dotea eta arreo hipotekatuz (GPAH1).

Miguel Guridi-Ernandotegi Inza (Errautegi 1741-1819) geratu zen etxearen buru. Dirudienez diru eskasiari aurre egin eta sekulako ezkontza egin zuen Urtatzaolako Ana Joaquina Aztiria Zabaletarekin. Emaztegaiak, dote gisa, 300 dukat dirutan eta arreo oparoa ekarri zuten; Francisco Antonio Guridi, herriko parroko bikarioak berriz, ezkontzako gastuak ordaintzeko 300 erreale eman zizkion anaiari. Izan ere, gogor lan egin ondoren, Errautegi baserria eta etxaldeari eutsi ez ezik, ondasunak ere «tercio eta quinto» batean hobatu zituzten eta beste senideek, aitak bere testamentuan utzi zien 40 dukaten ordean, dote gisa, 100 dukat jaso zituzten (GPAH15).

Hurrengo belaunaldian Tomas Antonio Guridi Aztiriak jaso zuen Errautegiko oinordekotasuna. Korkostegiko Josefa Joaquina Guridi Guridirekin ezkondu zuen, **trukaketa ezkontza** batean. Izan ere, Korkostegiko neska Errautegira etorri zen eta Errautegiko Beatriz Guridi Korkostegira. Bi ezkontza hauek Legazpiko parrokiaren egun berean ospatu ziren 1826. urtean.

Trukaketa ezkontzetan emaztegaiak ez zuten eramaten dote eta arreorik ezkontzen zenera. Baina, seme-alabarik izan gabe alarguntzea suertatuz gero, oinetxekoek dotea eta arreo eman behar zioten, eta alargunak etxetik irten. Trukaketa ezkontzak etxeoina ez zamatzeko egiten omen ziren eta, normalean, gurasoak moldatuak izaten omen ziren.

* Bartolome Guridi Guridik (Errautegi 1834) segitu zuen baserriaren buru, Garrotxikiko Jacinta Ugalde Gerrarekin ezkonduz. Haien garaian, Errautegi baserri zaharra erabat eraitsi zuten «Norteko» trenbidea egiteko eta Errautegi berria beharxeago eraiki zuten.



Isidra Etxeberria Guridi, Petronila Guridi Ugalde eta Segundo Odria Erostegei.

Bartolomeren arreba Josefa Joaquina, Olazarrera ezkondu zen Jose Mari Zabaleta Oruetarekin.


Bartolome eta Jacintak hiru seme-alaba izan zituzten: Julian, Martina eta Petronila.

- Martina Elorzara ezkondu zen, Jose Aseginolaza Ugarterekin.
- Petronila Elorregira ezkondu zen, Antonio Etxeberria Orueta *Ixuela*-rekin.
- Julian etxera ezkondu zen.

* Julian Guridi Ugaldek (Errautegi 1863) Garrotxoneko Marcelina Inza Azarola hartu zuen emaztetzat eta bi seme-alaba izan zituzten: Marcelino eta Petra.

Julianek karrilean lan egin zuen *Tunelaundi*-ko bokatik Zumarraga bitarteko zatia konpontzen. *Martzelina*, berriz, emagin lanetan aritzen omen zen, besteak beste. Gazteleraz ere oso ondo moldatzen omen zen, Garrotxonean estazio-burua apopilo edukitzen baitzuten. Segan, josten eta «kozinan» ondo egokitzen omen zen.

* Marcelino Guridi Inza (Errautegi 1900-1994) ezkondu zen baserrira Araiztegiko Claudia Agirrezabalekin. Bi seme-alaba izan zituzten: Felisa eta Patxi.



Julian Guridi Ugalde.

Patxineko arrantxoak

Marcelino Guridi Inza (1900-1994), hamalau urterekin Agurainera bidali zuten gurasoek gaztelaniaz ikastera. Hamabost urterekin itzuli eta Brinkolako *Iraulika-fabrikan* hasi zen lanean. "*Hor ibili nintzean, lehenengo zazpi errealekin, goizeko zazpiretatik iluntzeko zazpiretara*". Hango soldatari gutxi irizita, basoan hasi zen "*basoak berez emango zidalako ustetan*". Baina, lanetik itzultzerakoan, goseak amorratzen "*legatzak eta angulak eta jaten genduztan, eta gero zorrak*". Zer edo zer egin beharra zegoela eta, azkenik, karrilean hasi zen lanean hogeitau urte zituela, egunean duroa irabaziz.

Beasain eta Zumarragan lan egin ondoren, laster zen berriro Legazpin, jubilatutako baten lekua hartuz. "*Lehenengo jubilazioa Legazpin orduntxen etorri zian. Motxorroko Krixpolo, Kasetako Gereñu, gure aita zana hemen, Bernabe mikeltea eta Amoixarra kamine-roa, horiek bostak kobratu zien lehenengo jubilazioa*". Haren denboran hogeitau bat lagun eza-gutu zituen karrilean lanean, langile-buru, zaintzaile, «primer obrero», orratz-zain, peoi... Baita Legazpiko lau tren-kasetetan jendea bizitzen ere: Zaldutxikikoan, Motxorrokoan, Elorregikoan eta Arabaolatzoneakoan.

Kobratutako egunean Brinkolako Patxinean egiten zuten arrantxoak Marcelino eta bere lagunek. "*Leenango zopea egiten zagan orko zaarrak, eta gero oiloa. Ez genduan tenadore*

eta istoririk bear izaten; tragatzen genduan nolabait, de-dios, ri-ra, hatzaparrakin txikitu eta barrura. Lauti gainera juntatzen bagiñen, bost edo sei izanez gero, bi oillo iltzen genduztan, orduan biba la pepa egiten genduan”.

Berrogei urterekin «goarda» izendatu zuten, “*karrille ze eratara zegoen ikusi, edo lubizirik, edo rail puskaturik, edo eze bazegoen...*” Gaueko lana izaten zen, “*edurre bazan, bisutse bazan, bere joan-etorriak egin bear*”. Eta hartan bota zituen beste 20 bat urte, «atzaparrak» gogortu eta utzi egin behar izan zuen arte.

Zigarroari, hala ere, ez zion oso berandu arte utzi. “*Amalau-amabost urterako ikasi nuen nik purua erretzen, eta bizi guztian erre izan diat, etengabe, egunean paketea. Azkenangon, larogei bat urterekin utzi eragin zaen*”.

47. LOITZAETA

* Loitzaeta baserria Kortaazpikoa baserriaren parean zegoen, Brinkola aldeko zelaiaren erdian. XIX. mendearen hasieran hustu bazen ere, parajeari *Lotxetaalde* deitzen diote oraindik inguruko baserritarrek.

Kortagarakotik Uarkaldera eta Garroazورا zihoan bide zaharra igarotzen zen ondotik, adinekoek *Peabide* deitzen ziotena. Izan ere, antzina, bide honetatik «mea» edo «pea» ekarzen zuten Mutiloako meatzeetatik Brinkolako burdinoletara.

* XV. eta XVI. mende hasierako agirien arabera bi Loitzaeta ziren, goikoa eta behekoa; baina gerora bakarra egon zela ematen du, 1818. urtera arte.

Agirre-Bergaretxetarrak izan ziren etxe honetako azken bizilagunak.



Loitzaetaalde: lur-sail honetan Loitzaeta baserria zegoen (JLU 1996).



«Peabidea», Mutiloako meatzetatik Brinkolako burdinoletarako bidea (JLU 1996).

VI.

Pertsona izenak eta izengoitiak



PERTSONA IZENAK

Gizonezkoak				Emakumezkoak			
Izenak	1843	1930	Herri-ebakera	Izenak	1843	1930	Herri-ebakera
Abel	–	1		Agustina	1	–	<i>Austiña</i>
Agustin	2	–	<i>Austiñ</i>	Amparo		2	
Agustin Maria	1	–		Anastasia	1	–	<i>Anestaxi</i>
Amador	–	1		Aniceta		1	<i>Anixeta</i>
Andres	–	3	<i>Andrex</i>	Antonia	2	1	<i>Anttoni</i>
Angel	1	1		Basilia		2	<i>Baxili</i>
Antonio	3	1		Beatriz	1	–	
Bartolome	1	–	<i>Martolo</i>	Benigna	–	1	<i>Benina</i>
Basilio	–	1	<i>Baxilio</i>	Benita	–	3	<i>Benitta</i>
Bautista	3	–		Bonifacia	–	1	
Benito	–	4	<i>Benitto</i>	Brigida	1	–	
Bernardo	–	1	<i>Benardo</i>	Carmen	1	1	
Blas	–	1		Catalina	1	1	<i>Kattalin</i>
Carlos	–	1		Cecilia	2	–	<i>Xexili</i>
Casimiro	1	–		Cesarea	–	1	<i>Xexarea</i>
Cecilio	–	1	<i>Xexilio</i>	Clara	–	2	
Ceferino	–	1	<i>Xepeño</i>	Claudia	–	2	
Cristobal	1	–		Crispina	–	1	<i>Krispiña</i>
Cruz	–	2	<i>Kutx</i>	Dionisia	–	1	<i>Deonixi</i>
Demetrio	–	1		Dominica	3	–	
Dimas	–	1		Elena	–	1	
Dionisio	–	1		Emilia	–	1	
Domingo	2	1	<i>Txomin</i>	Estefania	–	1	<i>Estefani</i>
Doroteo	–	1		Eugenia	–	1	<i>Eugeni</i>
Estanislao	–	1	<i>Ixlao</i>	Eulogia	–	1	<i>Eulogi</i>
Esteban	2	2		Eusebia	–	1	<i>Euxebi</i>
Eugenio	–	1		Eustaquia	–	1	<i>Eustaki</i>
Eusebio	–	2	<i>Euxebio</i>	Feliciana	–	2	<i>Felixiana</i>
Eustaquio	–	1	<i>Euxtaxio (sic)</i>	Felisa	–	1	<i>Felixa</i>

Gizonezkoak				Emakumezkoak			
Izenak	1843	1930	Herri-ebakera	Izenak	1843	1930	Herri-ebakera
Facundo	-	1		Filemona	-	1	
Faustino	-	2	<i>Faustiño</i>	Flora	-	2	
Favian	-	1		Florentina	-	1	<i>Plorentiña</i>
Felix	-	3	<i>Felix, Pelix</i>	Francisca	4	7	<i>Prantxixka</i>
Francisco	4	3	<i>Patxi, Patxiko</i>	Francisca Antonia	1	-	<i>Prantxikanttoni</i>
Francisco Antonio	1	-		Francisca Ignacia	3	-	
Francisco Maria	1	-	<i>Prantxikumari</i>	Gregorio	1	-	
Francisco Tomas	1	-		Hermenegilda	-	1	<i>Ermenejilda</i>
Gaspar	-	1		Ignacia	3	2	<i>Iñaxi</i>
German	-	1		Ines	-	1	
Gregorio	-	2	<i>Gergorio</i>	Irene	-	1	
Ignacio	2	4	<i>Iñaxio, Inazio</i>	Isabel	1	3	<i>Ixabel</i>
Ignacio Antonio	2	-		Jacinta	1	-	<i>Kaxinta</i>
Ignacio Maria	1	-		Jeronima	-	1	
Isidro	1	-	<i>Ixidro</i>	Joaquina	5	-	<i>Joakiña</i>
Javier	-	1		Josefa	13	3	<i>Joxepa</i>
Jesus	-	2		Josefa Antonia	3	2	<i>Joxpantoni</i>
Joaquin	-	1	<i>Joakiñ</i>	Josefa Francisca	1	-	
Jose	5	14	<i>Joxe</i>	Josefa Ignacia	6	1	<i>Joxpiñaxi, Joxpiñisi</i>
Jose Andres	-	1		Josefa Joaquina	2	-	
Jose Antonio	7	1	<i>Joxantonio</i>	Juana	3	10	<i>Joana, Juanita</i>
Jose Cruz	-	1		Juana Josefa	1	-	<i>Joanaxepa</i>
Jose Domingo	2	-	<i>Joxamingo</i>	Juana Manuela	1	-	
Jose Francisco	3	-	<i>Joxeprantxiko</i>	Juana Maria	1	-	
Jose Ignacio	9	-		Julia	-	3	<i>Julita</i>
Jose Joaquin	5	-		Justa	-	2	<i>Juxta</i>
Jose Julian	-	1		Leandra	-	1	
Jose Luis	1	-		Luisa	-	4	<i>Luixa</i>
Jose Manuel	3	-		Manuela	6	4	
Jose Maria	8	3	<i>Joxemari</i>	Manuela Ignacia	-	1	
Jose Martin	1	-		Marcelina	-	4	<i>Martxeliña</i>
Jose Matias	2	-		Maria	-	14	
Jose Miguel	1	1	<i>Joxemiel</i>	Maria Agustina	1	-	
Jose Pablo	1	-		Maria Andres	1	-	
Juan	-	8	<i>Joan, Joanito, Joane</i>	Maria Angela	1	-	
Juan Andres	1	-		Maria Antonia	4	-	<i>Mainttoni</i>
Juan Bautista	3	1	<i>Joanbatixta</i>	Maria Bautista	2	-	

Gizonezkoak				Emakumezkoak			
Izenak	1843	1930	Herri-ebakera	Izenak	1843	1930	Herri-ebakera
Juan Cruz	2	–		Maria Carmen	–	1	
Juan Francisco	1	–	<i>Joanpraixko</i>	Maria Cruz	3	–	<i>Marikutx</i>
Juan Ignacio	4	–	<i>Joanixio</i>	Maria Francisca	4	–	
Juan Jesus	–	1		Maria Ignacia	1	–	<i>Marinixi</i>
Juan Jose	5	2	<i>Joanjoxe</i>	Maria Joaquina	4	–	
Juan Miguel	1		<i>Joamiel</i>	Maria Josefa	8	2	<i>Maixopa, Maoxpa</i>
Julian	1	4		Maria Juana	2	–	
Julio	–	3		Maria Luisa	2	1	
Justo	–	2	<i>Juxto</i>	Maria Martina	1	–	
Luciano	–	2	<i>Luxiano</i>	Maria Micaela	9	1	<i>Maimiel</i>
Luis	–	3	<i>Luix</i>	Maria Paula	3		
Manuel	1	1		Maria Pilar	–	2	
Marceliano	–	1		Maria Santos	1	–	
Marcelino	–	2	<i>Martxeliño</i>	Maria Tomasa	2	–	
Martin	–	3		Martina	2	1	
Martin Jose	1	–		Nieves	–	1	
Martin Manuel	1	–		Norberta	–	1	
Martin Maria	1	–		Patricia	–	1	
Mateo	–	2		Paulina	2	–	<i>Pauliña</i>
Matias	1	–	<i>Maties</i>	Prudencia	1	–	<i>Prudentxi</i>
Miguel	1	–	<i>Miel</i>	Rosa	–	1	
Miguel Ignacio	3	–		Rosario	–	1	
Miguel Joaquin	1	–		Rufina	–	2	
Nicolas	1	1	<i>Mikolas</i>	Saturnina	–	1	<i>Xaturdiña</i>
Pablo	1	–	<i>Paulo</i>	Sinforiana	–	1	
Pascual	2	1	<i>Paxkual</i>	Teresa	–	2	
Patricio	–	1		Tiburcia	–	1	
Pedro	1	7	<i>Peru, Periko</i>	Tomasa Antonia	3	–	
Pedro Ignacio	1	–		Ventura	2	–	
Pedro Jose	1	–		Vicenta	–	2	<i>Bixenta</i>
Prudencio	1	–		Victoria	–	1	<i>Bittori</i>
Rafael	–	1		Victoriana	–	2	
Remigio	–	1					
Romualdo	–	1	<i>Erromaldo</i>		–		
Roque	1	–					
Saturnino	–	1	<i>Saturdiño, Xatur</i>				
Sebastian	1	–	<i>Xebastian</i>				

Gizonezkoak			
Izenak	1843	1930	Herri-ebakera
Segundo	–	1	<i>Xegundo</i>
Simon	1	2	<i>Ximon</i>
Teodoro	–	1	
Tiburcio	–	1	<i>Tiburtxio</i>
Tomas	5	2	<i>Tomax</i>
Tomas Antonio	2	–	
Tomas Ignacio	1	–	
Tomas Joaquin	1	–	
Valentin	–	1	<i>Balentiñ</i>
Venancio	–	1	<i>Benantxi</i>
Vicente	–	1	<i>Bixente</i>
Victor	–	3	<i>Bittor, Bitti</i>
Victoriano	–	3	<i>Bitorio</i>
Zacarias	–	1	

1843: 256 bizilagun

1930: 269 bizilagun

IZENGOITIAK

IZENGOITIA	NOR	NOIZ JAIOA	ZERGATIK
<i>Antonio Brinkola</i>	Antonio Zabaleta Kerejeta	1909	
<i>Argindegi</i>	Tomas Telleria Aranburu	1906	
<i>Felix Turbina</i>	Felix Etxeberria Mendiola	1909	
<i>Gibolatxiki, Gibolaxaarra</i>	Juan Luis Zangitu Arsuaga	1909	
<i>Joxe Euzkitza</i>	Jose Etxeberria Apaolaza	1862	
<i>Joxe Turbina</i>	Jose Etxeberria Jauregi	1874	
<i>Justo Euzkitza</i>	Justo Etxeberria Zabaleta	1890	Bizitokia edo
<i>Miel Brinkola</i>	Miguel Zabaleta	XIX hasiera	jaiotetxearengatik
<i>Patxi Arrezal</i>	Patxi Andueza Zangitu	1909	
<i>Patxi Korta, Patxi Taberna</i>	Francisco Inurritegi Inza	1881	
<i>Patxi Mandiola</i>	Patxi Azarola Zabalo	1905	
<i>Pedro Munttei</i>	Pedro Telleria Aztiria	1872	
<i>Tomax Brinkola</i>	Tomas Zabaleta Larrea	1906	
<i>Txomin Korta</i>	Txomin Inurritegi Inza	1877	
<i>Aierdiko jentille</i>			
<i>Amalaunzanko</i>			
<i>Amerikanoa</i>	Isidro Zangitu Arsuaga	1908	Ameriketan ibilia
<i>Anduexa</i>	Valentin Andueza		Deitura

IZENGOITIA	NOR	NOIZ JAIOA	ZERGATIK
<i>Ankazabal</i>	Juan Ignacio Ugalde Etxeberria	1843	
<i>Balastroa</i>	Rafael Gereñu Aranburu	1896	
<i>Barlas</i>	Jose Mari Etxeberria Urzelai	1882	
<i>Brinkolako ttako</i>	Antonio Zabaleta Kerejeta	1909	
<i>Cuatro ojos</i>	Segundo Azurmendi Arrondo	1908	Betaurrekoduna zelako
<i>Endreamakillas, Txapasta</i>	Felix Etxeberria Mendiola	1909	
<i>Errusia, Abadejo</i>	Alejandro Ibañez Onzarain	1909	
<i>Indianoa</i>	Francisco Inurritegi Zangitu	XIX. hasiera	Kuban aberastu zen
<i>Joakin mandazaie</i>	Joaquin Uzkudun Mujika		Lanbidea
<i>Joxe matxeroa</i>	Jose Etxeberria Aldanondo	1879	
<i>Juan flaco, Juan gordo</i>	Juan Galfarsoro Legorburu	1910	
<i>Juan Potto</i>	Juan San Pedro Aizpeolea	1927	
<i>Katxo</i>	Juan Pedro Agirre Aztiria	1911	
<i>Kaxetako hembra</i>	Hermenegilda Odria Erostege	1893	
<i>Koplantea</i>	Manuel Alberro Oderiz		
<i>Makillas</i>	Ezkurrako ikazkin bat		
<i>Manuela kanpanerea</i>	Manuela Aldanondo Esnaola	1850	Kanpaiak jotzen zituelako
<i>Martin pipas</i>	Martin Alustiza Alkorta	1863	Pipa erretzailea zelako
<i>Metro</i>	Demetrio Etxeberria Guridi	1917	
<i>Mixtroa</i>			
<i>Moróa</i>	Tomas Zabaleta Larrea	1906	
<i>Moxo</i>	Saturnino Gereñu Odria		
<i>Paixa</i>	Vicente Kortaberria		
<i>Pottolo</i>	Luciano Balerdi Iarza	1904	
<i>Palazianoa</i>	Duque de Sotomayor		
<i>Piperra</i>	Jose Mari Zabaleta Orueta	1837	
<i>Tantanporru</i>	Jose Domingo Etxeberria	1838	
<i>Tio Potolo,</i>			
<i>Santo Cristo de Barrendiola</i>	Victoriano Pablo Agirre Zangitu	1905	
<i>Tottoa</i>	Jesus Etxeberria Mendiola	1917	
<i>Txarakea</i>	Guillermo Lekuona Barrenetxea	1885	
<i>Txaratsoa</i>	Gertrudis Aierbe Zabaleta	1889	
<i>Txirtxil</i>	Baztandarra		
<i>Xague</i>	Benito Inurritegi Zabaleta	1918	
<i>Xesteroxea</i>	Maria Gereñu Etxeberria	1872	
<i>Ximon Judas</i>	Simon Azarola Zangitu		
<i>Xixiloxea</i>	Benita Aizpeolea Goia	1895	Xixilioren andrea
<i>Zazpi talo</i>	Jose Agirre Telleria	1933	
<i>Zuito</i>	Agapito Gereñu Odria	1931	

VII.

Iturriak



ARTXIBOAK

- BJE: Bergarako jabego erregistroa.
- DEA: Donostiako elizbarrutiko artxiboa.
- LAO: *La oñatiarra* konpainiaren artxiboa.
- LAEA: Lurgain etxeko artxiboa.
- LEA1: Lazarraga etxeko artxiboa / Lazarraga / Ondarearen administrazioa / leg.1, zk.47-3.
- LEA2: Lazarraga etxeko artxiboa / Ondarearen administrazioa / "Venta a Elorregui" / leg.1, zk.12-13.
- LEA3: Lazarraga etxeko artxiboa / Elorregi / Ondarearen administrazioa / "Venta a Elorregui" / Leg.1, zk.7.
- LEA4: Lazarraga etxeko artxiboa / Ondarearen administrazioa / "Transmisión de bienes" / Leg.1, zk.39.
- LEA5: Lazarraga etxeko artxiboa / Elorregi / "Pleitos" / Leg.1, zk.36.
- LEA6: Lazarraga etxeko artxiboa / Elorregi / "Pleitos" / Leg. 2, zk. 75.
- LUA1: Legazpiko udal artxiboa / "Padrón del número de almas de que consta la Villa de Legazpia", 1483 / 95-2.
- LUA2: Legazpiko udal artxiboa / "Convenio entre ferrones y caseros en relación a la explotación de las tierras de Legazpi. 168 /10 (Burdinola eta baserrien lurren bereizketa", 1513 (1483)).
- LUA3: Legazpiko udal artxiboa / "Amojonamiento e apeamiento de las heredades propias de los particulares vecinos del valle de Legazpia que confina con los términos y exido del concejo del valle", 1533 (1532).
- LUA4: Legazpiko udal artxiboa / "Repartación entre vecinos sus moradores del dicho valle la foguera provincial que cabe a pagar a dcho valle con la primera Junta cargando a cada vecino a razón de un real y medio y lo que sobrare a cada de los tres mil maravedis que la ley dispone repartir para negocios del dicho concejo y repartieron en la manera siguiente", 1607 / 47-25.
- LUA5: Legazpiko udal artxiboa / "Relación de mojonos y mapas situación de 1608-1614" / 171-4.
- LUA6: Legazpiko udal artxiboa / "Lista o padrón de los vecinos y moradores hijosdalgo de la villa de Legazpia hecha de conformidad a un acuerdo de las juntas Generales de la Provincia de Guipúzcoa", 1649.

- LUA7: Legazpiko udal artxiboa / "Apeamiento de Legazpi", 1777 / 148-13.
- LUA8: Legazpiko udal artxiboa / "Cuaderno de reparticiones y de montes de esta noble y leal villa de Legazpia", 1777 / 216-3.
- LUA9: Legazpiko udal artxiboa / "Estado General de población de Legazpi", 1787 / 485-14 ("Censo de Floridablanca").
- LUA10: Legazpiko udal artxiboa / "Estado de todas las casas y caserías, tierras sueltas, ferrerías y demás fábricas de la jurisdicción de la Villa de Legazpia con expresión de sus nombres, de los dueños de ellas, y de los inquilinos colonos o arrendatarios de las mismas", 1832 / 212-17.
- LUA11: Legazpiko udal artxiboa / Batzar-agiriak, 1820-1879.
- LUA12: Legazpiko udal artxiboa / "Amojonamiento y apeamiento hecho el 26 de abril", 1843 / 168-10.
- LUA13: Legazpiko udal artxiboa / Bizilagunen errolda, 1843.
- LUA14: Legazpiko udal artxiboa / Bizilagunen errolda, 1857 / 95-3.
- LUA15: Legazpiko udal artxiboa / "Derrama en el vecindario con destino a cubrir el déficit que resulte para completar la dotación de ocho mil reales de la plaza de Médico", 1858 / 870-10.
- LUA16: Legazpiko udal artxiboa / Bizilagunen errolda, 1861.
- LUA17: Legazpiko udal artxiboa / "Rotulación de Calles y plazas públicas y Numeración de casas y caseríos de esta villa de Legazpia hecha por Real orden en 1887", 95-6.
- LUA18: Legazpiko udal artxiboa / Bizilagunen errolda, 1894, 95-7.
- LUA19: Legazpiko udal artxiboa / "Lista que en cumplimiento del artº 7º de la Instrucción de 9 de Noviembre próximo pasado de forma para el repartidor de las cédulas de inscripción del censo de población", 1897 / 95-10.
- LUA20: Legazpiko udal artxiboa / Bizilagunen errolda, 1910 / 96-1.
- LUA21: Legazpiko udal artxiboa / Bizilagunen errolda, 1920 / 96-2.
- LUA22: Legazpiko udal artxiboa / Bizilagunen errolda, 1930 / 77-3.
- LUA23: Legazpiko udal artxiboa / "Compulsa sacada del amojonamiento antiguo de 1532 que trata sobre las jurisdicciones y pertenecidos de las ferrerías de Legazpi", 1770 / 162-1.
- LUA24: Legazpiko udal artxiboa / Udal-administrazioa, 177-1.
- LUA25: Legazpiko udal artxiboa / 179-19.
- LUA26: Legazpiko udal artxiboa / 178-3.
- GPAH1: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / H299.
- GPAH2: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / H299 / 9.or.
- GPAH3: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / H299 / 16.or.
- GPAH4: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / H299 / 18.or.

- GPAH5: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / H299 / 33.or.
 GPAH6: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / H299 / 38.or.
 GPAH7: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / H299 / 39.or.
 GPAH8: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / H299 / 40.or.
 GPAH9: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / H299 / 88.or.
 GPAH10: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / H300.
 GPAH11: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / H301 / 83.or.
 GPAH12: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / 2245 / 269.or.
 GPAH13: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / 2270 / 42.or.
 GPAH14: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / 2270 / 44.or.
 GPAH15: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / 2282 / 30.or.
 GPAH16: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / 2293 / 65.or.
 GPAH17: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / 2295 / 140.or.
 GPAH18: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / 2301.
 GPAH19: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / 3468 / 51.or.
 GPAH20: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / 4543 / 86.or.
 GPAH21: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / 4811 / 742.or.
 GPAH22: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / Escritura de cesión y subrogacion, 1870.
 GPAH23: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / 4088 / 52.or.
 GPAH24: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / 4088 / 59.or.
 GPAH25: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / 2234 / 32.or.
 GPAH26: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / 2237 / 9.or.
 GPAH27: Gipuzkoako protokolo artxibo historikoa / 2781 / 179.or.
 SMA: San Millan etxeke artxiboa.

ETXEETAKO AGIRI ZAHARRAK

- EE1: Guriditegi baserriko agiriak: Aitonon seme-alabatza ziurtagiria, 1654.
 EE2: Guriditegi baserriko agiriak: Testamentua, 1784.
 EE3: Etxeaundi baserriko agiriak: Erosturaren agiria, 1887.
 EE4: Igeraldegarakoa baserriko agiriak: Aitonon seme-alabatza ziurtagiria, 1670.
 EE5: Igeraldegarakoa baserriko agiriak: Ermandadearen sorrera-agiria, 1862.
 EE6: Uarkalde baserriko agiriak: Errenta ordaindutakoaren ziurtagiria, 1873.
 EE7: Uarkalde baserriko agiriak: Eliza eraikitzeke ordaindutakoaren ziurtagiria, 1892.

AHOZKO TESTIGANTZAK

- IIA 1997: Ines Inurritegi Aristimuño (Zubiaur 1914).
IOE 1997: Ignacio Ojanguren Etxeberria (Etxeaundi 1910-1997).
CLM 1997: Constantino Langarika Mantxola (Ermentaria 1927).
MGI 1990: Marcelino Guridi Inza (Errautegi 1990-1994).
FAA 1997: Facundo Agirre Aztiria (Igeraldegarakoa 1913).
EEZ 1996: Eusebio Etxeberria Zaldúa (Barrundiola 1907-1996).

BIBLIOGRAFIA

- ALUSTIZA, J., 1981, *Lihoaren penak eta nekeak*, Arantzazu, Jakin: 106-107.
- ASKOREN ARTEAN, 1995, *Euskal hiztegi enziklopedikoa*, Klaudio Harluxet Fundazioa, 4.tom.: 1602.
- ASKOREN ARTEAN, 1979, *Legazpi*, Gau-eskola elkarte, Legazpiko udala.
- AYERBE, M.R., 1995, *Documentación medieval del Archivo Municipal de Legazpia (1290-1495)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco, Fuentes bilduma 60. zk., Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- CRESPO, M.A. eta beste, *Fuentes documentales medievales del País Vasco. Colección documental del archivo municipal de Bergara, Tomo I (1181-1497)*, Fuentes bilduma 57, Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- DIEZ DE SALAZAR, L.M., 1985, *Colección Diplomática del Concejo de Segura (Guipúzcoa) (1200-1500). Tomo I (1290-1400)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco, nº 6, Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- DIEZ DE SALAZAR, L.M., 1993, *Colección Diplomática del Concejo de Segura (Guipúzcoa) (1290-1450). Tomo II (1401-1450)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco, nº 47, Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- GIPIZKOAKO ALDUNDIA, 1857-1864, *Nomenclátor de la provincia de Guipúzcoa*, argitaragabea.
- ERAUSKIN, J.R., 1975, *Aien garaia*, Auspoa: 23-32 or.
- GUERRA, J.C., 1928, *Ensayo de un Padrón Histórico de Guipúzcoa, según el orden de sus familias y pobladores*, Donostia, J.M.Baroja.
- HERRERAS, B. eta ZALDUA, J. 1994, *Estudio histórico patrimonial del coto minero Katabera-Udana*: argitaragabea.
- HERRERAS, B. eta ZALDUA, J., 1997, *Patrimonio industrial en Legazpi*, Legazpi, Fundación Lenbur.
- INSAUSTI, S., 1964, *Parroquias de Guipúzcoa en 1862*, Donostia, Dip. Prov. de Guipúzcoa.
- JACA, A.C., 1990, *Ensayo para una historia de Legazpia*, 4 tomatan, argitaragabea (Jaka1, Jaka2, Jaka3, Jaka4).
- LASA, J.I., 1977 (1969), "La estación de Bríncola. Divagaciones en torno al ferrocarril del Norte", *Tejiendo historia*, Donostia, Caja de Ahorros Municipal, 130-136, 283-287.
- LOJENDIO, 1915, "Los miqueletes de Guipúzcoa", *Album gráfico del País Vascongado*.
- MADARIAGA, J., 1996, "El contexto de la integración de Oñati en Gipuzkoa: población, economía y sociedad", *Oñati eta Gipuzkoaren bategitea*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, Lankidetzan bilduma: 53-128.

- MARTIN SUKIA, R., 1994, *Notas históricas referentes a la ferrería Olazar - Legazpi*, Burdinola elkartearentzako txostena, argitaragabea.
- MARTINEZ DE ISASTI, L., 1972 (1850), *Compendio Historial de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa (1625)*, Donostia.
- MICHELENA, L., 1973, *Apellidos vascos*, Donostia, Txertoa (AV).
- MUGICA, S., "Provincia de Guipúzcoa", *Geografía general del País Vasco-Navarro*, Barcelona, Alberto Martín.
- PEÑA SANTIAGO, L.P., 1969, *Guipúzcoa paso a paso*, Retana Editor.
- UGARTE, J.L. eta beste, 1994, *Telleriarte etxez etxe*, Legazpi, Telleriarteko auzo elkarte.
- UGARTE, J.L., 1992, *Arriurdingo azken artzaiak*, ENE BADA-ren gehigarria.
- UGARTE, J.L., "Ene bada!" Legazpiko herri-astekaria, 3.aldiko 316 zkia.
- TELLERIA, S., *Historia de Legazpia*, argitaragabea.
- ZUBIA UGARTE, J., "Oñatiko goraberek. Batiburrillo Oñatiarra", argitaragabea. Mende honetako lehen erdiko Oñatiko pasadizoak. 1901ean jaiotako eta 1985. urtean hil zen egilea.
- Gerra aurreko "Argia" aldizkariak.



Constantino Langarika Mantxola, Ines Inurritegi Aristimuño eta Maria Telleria Telleria.




Candida Etxeberria Guridi, Elena Goikoetxea eta Marcelino Guridi Inza.



Margarita Lizarazu Alustiza.



Valentin Etxeberria Guridi.



Juan Ugalde Alustiza.




Felipe Etxeberria Telleria.




Pilar Agirre, Jesusa Agirre, Andres Gereñu, Juanita Agirre eta Ceferino Maritxalar.



Severi Arriaran Igartua.



Pascual Zabaleta Zabaleta.



Tomas Legorburu Murua.



Juliana Zangitu Arsuaga.



Tomasa Arsuaga Lezeta eta Cristina Zeberio.



Luis San Pedro Aizpeolea, Agapito Gereñu Odria eta Patxi Azarola Zabalo.



Ignacio Ojanguren Etxeberria.




Maria Sagastizabal Etxeberria.



Damaso Ugarte Bikuña.




Benito Inurritegi Zabaleta.



Cruz Agirre Aztiria.



Facundo Agirre Aztiria.



Eusebio Etxebarria Zaldua.



Eusebio Zabaleta Oiarbide.



Francisca Beain Barrena eta Asensio Inza Andueza.



Felix Legorburu Bergaretxe.




Marcelino Guridi Inza.




Ines Inurritegi Aristimuño.



Candida Etxeberria Guridi.



Angel Agirrezabal Ormazabal.



Gregorio Zabaleta Larrea.



Justa Beain Arrizabalaga.



Clara Sagastizabal Etxeberria.



Feliciano Zangitu Arsuaga.

VIII.

Izenen aurkibidea



- Abalia, Ana Maria: 46
 Aeta, Maria Miguel de: 20
 Aeta, Maria Miguel: 20
 Agirre Agirrebengoa, Julian: 32, 32A
 Agirre Alzola, Francisco Ignacio: 34
 Agirre Alzola, Ignacio: 34
 Agirre Alzola, Juan Francisco: 19, 23, 25
 Agirre Andueza, Felix: 41, 45A
 Agirre Andueza, Hilario: 14
 Agirre Andueza, Jose Mari: 6, 14, 14A
 Agirre Andueza, Juan: 14
 Agirre Andueza, Ramon: 45A
 Agirre Andueza, Ramon: 44
 Agirre Aranburu, Dominica: 8
 Agirre Aranburu, Jose Ignacio: 42
 Agirre Aranburu, Jose Luis: 14
 Agirre Aranburu, Jose Mari: 18
 Agirre Aseginolaza, Estanislao: 25, 45
 Agirre Aseginolaza, Ignacio: 19A, 25
 Agirre Aseginolaza, Isaac: 25
 Agirre Aseginolaza, Maria Salome: 25
 Agirre Aseginolaza, Martin: 25, 33
 Agirre Aseginolaza, Pedro: 25
 Agirre Aseginolaza, Sebastian: 25
 Agirre Aseginolaza, Teresa: 25, 25A
 Agirre Aztiria, Cruz: 22A, 25, 25A
 Agirre Aztiria, Facundo: 22A, 25, 25A, 28
 Agirre Aztiria, Jose Ignacio: 25
 Agirre Aztiria, Juan Pedro: 19A, 25, 25A, 26A, 28
 Agirre Aztiria, Miguel Ignacio: 25, 33
 Agirre Aztiria, Victoriano: 15A, 25, 25A, 41
 Agirre de Idigoras, Jose Manuel: 27
 Agirre de Idigoras, Lorenzo: 27
 Agirre de Idigoras, Maria Anastasia: 27
 Agirre Etxeberria, Bonifacia: 38
 Agirre Etxeberria, Gregoria: 14
 Agirre Etxeberria, Jose Andres: 4, 18
 Agirre Etxeberria, Leandra: 38
 Agirre Etxeberria, Tomasa Francisca Antonia: 15, 34
 Agirre Goia, Carmen: 14
 Agirre Goia, Faustino: 14, 14A
 Agirre Goia, Felipe: 12, 14
 Agirre Goia, Irene: 14
 Agirre Goia, Prudencia: 14
 Agirre Goia, Rufina: 14
 Agirre Guridi, Ana: 42
 Agirre Iarza, Juan Andres: 38
 Agirre Iturbe, Jose: 7, 14, 14A
 Agirre Mantxola, Faustina: 14
 Agirre Mantxola, Julian: 14
 Agirre Mantxola, Lino: 14
 Agirre Mantxola, Marcela: 14
 Agirre Montegi, Constanza: 25
 Agirre Montegi, Ignacio: 25, 25A
 Agirre Montegi, Maria Carmen: 25
 Agirre Montegi, Severiana: 25
 Agirre Ojanguren, Catalina: 8
 Agirre Plazaola, Jose Mari: 17
 Agirre Raizabal, Jose Ignacio: 25, 32
 Agirre Raizabal, Miguel: 17
 Agirre Telleria, Carmen: 18, 18A
 Agirre Telleria, Ceferino: 17, 18, 18A
 Agirre Telleria, Eugenio: 12, 15, 18, 18A
 Agirre Telleria, Jesusa: 18, 18A
 Agirre Telleria, Jose: 12, 18, 18A
 Agirre Telleria, Josefa: 41
 Agirre Telleria, Juana: 18, 18A
 Agirre Telleria, Pilar: 18, 18A

Agirre Telleria, Teresa: 18, 18A
 Agirre Telleria, Victor: IIIA, 18, 18A, 19A
 Agirre Urmeneta, Ignacio Mari: 14
 Agirre Urmeneta, Juana: 14
 Agirre Urmeneta, Martin Jose: 14
 Agirre Urmeneta, Rafael: 14
 Agirre Urmeneta, Tomas Antonio: 14, 33
 Agirre Zabaleta, Francisca Ignacia: 35
 Agirre Zaldua Francisco: 14
 Agirre Zaldua, Gaspar: 14, 14A
 Agirre Zaldua, Juana: 14, 26A
 Agirre Zaldua, Marcelina: 14, 26A
 Agirre Zaldua, Teodoro: 14, 26A, 30A
 Agirre Zangitu, Andres: 18, 18A, 32, 32A
 Agirre Zangitu, Dionisio: 18, 32
 Agirre Zangitu, Ignacia: 18, 18A
 Agirre Zangitu, Jacinta: 18, 18A
 Agirre Zangitu, Victoriano: 18, 32
 Agirre, Agustin de: 33
 Agirre, Ana Maria: 15
 Agirre, Antonia: 20
 Agirre, Bartolome: 34
 Agirre, Cristobal de: 25
 Agirre, Esteban: 32
 Agirre, Francisco de: 24
 Agirre, Ines de: 33
 Agirre, Jose Antonio: 14
 Agirre, Jose Joaquin: 14
 Agirre, Jose Leon: 7, 14
 Agirre, Jose: 27
 Agirre, Juan Bautista: 33
 Agirre, Juan Francisco: 19
 Agirre, Maria Antonia: 10
 Agirre, Maria Tomasa: 40
 Agirre, Ojer Lopez de: 24
 Agirre, Tomas Antonio: 14
 Agirre, Tomas Francisco: 34
 Agirre, Vicente: 34
 Agirre-Alzola: 25
 Agirre-Andueza: 14
 Agirre-Aranburu: 14
 Agirre-Aseginolaza: 25
 Agirre-Aztiria: 25
 Agirre-Bergaretxe: 47
 Agirre-Etxeberria: 18
 Agirre-Goia: 14
 Agirre-Iribar: 25
 Agirre-Iturbe: 14
 Agirre-Mantxola: 14
 Agirre-Raizabal: 25
 Agirre-Telleria: 18
 Agirre-Urmeneta: 14
 Agirre-Zaldua: 14
 Agirre-Zangitu: 18
 Agirreburualde, Isabela: 3
 Agirreburualde, Josefa: 34
 Agirreburualde, Tomas Antonio de: 33
 Agirretarrak: 24, 25
 Agirretxe: 28
 Agirrezabal Andueza, Esteban: 42
 Agirrezabal Bergaretxe, Jose Mari: 42
 Agirrezabal Etxeberria, Ignacia: 42, 44
 Agirrezabal Etxeberria, Jose Ignacio: 42
 Agirrezabal Etxeberria, Jose Mari: IIIA, 22A, 31, 31A, 42
 Agirrezabal Etxeberria, Simon: 13, 42, 42A
 Agirrezabal Ezpeleta, Gabriel: 42
 Agirrezabal Guridi, Florentina: 31
 Agirrezabal Guridi, Valentin: 1
 Agirrezabal Inurritegi, Esteban: 42, 42A, 45A
 Agirrezabal Inurritegi, Victoriano: 42, 45A
 Agirrezabal Lizarazu, Asensio: 42
 Agirrezabal Lizarazu, Eulali: 42
 Agirrezabal Lizarazu, Faustino: 42
 Agirrezabal Lizarazu, Ignacio: 42
 Agirrezabal Lizarazu, Lourdes: 42
 Agirrezabal Lizarazu, Maria Angeles: 42
 Agirrezabal Ormazabal, Amparo: 19A, 31, 31A, 45A
 Agirrezabal Ormazabal, Andres: 31, 31A, 45A
 Agirrezabal Ormazabal, Angel: IIIA, 14A, 31, 31A, 45A
 Agirrezabal Ormazabal, Jose: 31
 Agirrezabal Ormazabal, Julia: 19A, 31, 31A, 45A
 Agirrezabal Zabaleta, Felix: 42
 Agirrezabal Zabaleta, Jose: 31, 38, 42
 Agirrezabal Zabaleta, Josefa Ignacia: 42
 Agirrezabal Zabaleta, Josefina Antonia: 34, 42
 Agirrezabal Zabaleta, Lino: 42
 Agirrezabal, Claudia: 46
 Agirrezabal, Prudenciana: 40, 42
 Agirrezabal-Bergaretxe: 45
 Agirrezabal: 30
 Agirrezabaldarrak: 42
 Aguirre Vengoa: 25

- Aguirre, Xptoual de: 25
 Aguirreçaval, Miquel de: 40
 Aierbe Zabaleta, Gertrudis: 29
 Aierdi-Ilturbe: 7
 Aizpeolea Goia, Benita: 11, 11A
 Alberdi Aranguren, Gracian: 15, 32
 Alberdi Garcia, Juan: 32
 Alberdi Garcia, Luis: 32
 Alberro Oderiz, Manuel: 19, 26, 26A
 Albisu Etxeberria, Emeterio: 10, 19
 Aldanondo Esnaola, Manuela: 26, 32
 Aldasoro, Claudia: 1
 Alfonso XIII: 40, 43
 Altube Errasti, Evarista: 8
 Altube, Jose: 15
 Altube, Juan: 15
 Altzin, Tomas: 28
 Alustiza Alkorta, Martin: 4, 7, 7A
 Alustiza Gereñu, Estefania: 7, 7A
 Alustiza Gereñu, Eusebia: 7
 Alustiza Gereñu, Marcelino: 7
 Alustiza Gereñu, Maria: 7
 Alustiza Guridi, Jose Joaquin: 1
 Alustiza Guridi, Jose Manuel: 1
 Alustiza Lekuona, Catalina: 15, 15A
 Alustiza, Blas: 16
 Alustiza, Eugenia: 42A
 Alustiza, Garçhot de: 1
 Alustiza, Jose Mari: 16
 Alustiza, Julio: 45A
 Alustiza, Miguel de: 24
 Alustiza, Zacarias: 16
 Alzelai Guridi, Lupe: 18A
 Alzola Montegi, Elisa: 25
 Alzola Montegi, Francisco: 25
 Alzola Montegi, Wenceslao: 25
 Alzola Pildain, Maria Micaela: 25
 Alzola, Juan Francisco: 25
 Alzola, Maria: 34
 Amiano Albisu, Nicolasa: 25
Amoixarra: 46
 Andres kotxeroa: 28
 Andueza Agirrezabal, Faustino: 4, 40
 Andueza Agirre, Andres: 40
 Andueza Agirre, Francisco: 40, 40A
 Andueza Agirre, Jose Joaquin: 40
 Andueza Agirre, Juan Jose: 40
 Andueza Agirre, Maria Miguel: 40
 Andueza Agirrezabal, Gregorio: 40
 Andueza Agirrezabal, Maria Josefa: 14, 14A, 40
 Andueza Agirrezabal, Maria: 40
 Andueza Inza, Jose Antonio: 40
 Andueza Jauregi, Francisca Ignacia: 40
 Andueza Jauregi, Jose Francisco: 40, 42
 Andueza Oiarbide, Maria Josefa: 42
 Andueza Zangitu, Francisco: IIIA, 30A, 31, 40, 44
 Andueza Zangitu, Jose: 40
 Andueza Zangitu, Juana: 40
 Andueza Zangitu, Maria Josefa: IIIA, 40
 Andueza Zangitu, Victor: 28, 34, 40, 40A
 Andueza, Valentin : 17, 19, 30A
 Andueza-Agirre: 40
 Andueza-Agirrezabal: 40, 45
 Andueza-Arsuaga: 40
 Andueza-Bergaretxe: 8
 Andueza-Inza: 40
 Andueza-Jauregi: 40
 Andueza-Zangitu: 8
 Antigua Zabaleta, Luis: 41
 Apaolaza Andueza, Maria Josefa: 44
 Apaolaza Aseginolaza, Daniel: 25, 45
 Apaolaza-Enparanza: 40
 Apaolaza-Zabaleta: 25
 Arabaolaça, Martin de: 8, 7
 Arabaolaza, Martin Sanches de: 7
 Araiztegui, Pedro de: 8, 7
 Arakama, Juan: 22
 Arana, Antolin: 28
 Aranburu Iparragirre, Jose Antonio: 1A
 Aranburu Telleria, Rosa: 6, 6A
 Aranburu, Ceferino: 1
 Aranburu, Maria Bautista: 10
 Aranburu, Petra: 43
 Aranguren Mendizabal, Daniel: 25A, 30, 31
 Aranguren Mujika, Juana: 30
 Aranguren, Juan Jose: 44
 Areizaga Soraluze, Juan Francisco: 18
 Areizaga, Julian: 40
 Aristimuño Lardizabal, Carmen: 13, 13A
 Aristimuño Lardizabal, Maria: 13A
 Aristizabal Irizar, Josefa: 8, 8A
 Aristizabal, Juan: 24

Arizkorreta de Artola, Joaquin Bautista: 19
 Arizti, Mari Tere: 19A
 Arizti, Miguel de: 42
 Arrazola, Doroteo: IIIA
 Arregi, Geronimo: 28
 Arregi, Romualdo: 28
 Arriaran Igartua, Severiana: 18A, 39
 Arriaran Irizar, Manuel: 28
 Arriaran, Angela de: 42
 Arrieta Agirre, Anastasia: 3, 7
 Arrizabalaga Arrondo, Filomena: 30
 Arrizabalaga Arrondo, Maria: 30
 Arrizabalaga Gabiria, Francisco: 13A
 Arrizabalaga Otegi, Josefa: 29, 30
 Arrizabalaga Otegi, Manuela: 40, 40A
 Arrizabalaga, Dominica: 4
 Arrizabalaga, Donato: 4
 Arrondo Enparanza, Margarita: 15, 25
 Arrondo, Ignacio Mari: 16
 Arrondo, Juan Mari: 16
 Arrondo, Juan: 39
 Arrondo, Nartzi: 28
 Arsuaga Alzola, Marcelina: 4, 4A
 Arsuaga Lezeta, Tomasa: 40, 42
 Arsuaga, Pedro: 30A
 Artakoztarrak: 4
 Aseginolaza Ugarte, Bernarda: 25
 Aseginolaza Ugarte, Jose: 46
 Aseginolaza, Pedro de: 16
 Aseginolaza, Tomas: 15
Asteasu: 30
 Astiazaran, Domingo de: 34
Ataungo artza: 17
 Atin Altolagirre, Quintin: 17
Attaun: 30
 Atxaiz, Maria de: 8
 Axaraga, Jose Maria de: 18
 Azarola Zabalo, Patxi: 4, 44
 Azarola Zabalo, Tomas: 6, 21
 Azkarate, Dolores: 28
 Azkarraga, Pedro: 14
 Azkoitia, Jose: 22
 Aztiria Aztiria, Basilia: 25, 45
 Aztiria Larrañaga, Juan: 13A
 Aztiria Mantxola, Manuela: 25
 Aztiria Mantxola, Maria Luisa: 19A
 Aztiria Mantxola, Maria Magdalena: 19
 Aztiria Zabaleta, Ana Joaquina: 46
 Aztiria, Francisca Ignacia: 15
 Aztiria: 15
 Azurmendi Arrondo, Celestino: 25
 Azurmendi Arrondo, Dionisia: 25
 Azurmendi Arrondo, Segundo: 25, 25A
 Azurmendi Azurmendi, Bernabe: 25, 28, 46, 43
 Azurmendi Etxeberria, Antonia: 4
 Azurmendi Etxeberria, Damaso Ignacio: 5
 Azurmendi Etxeberria, Paula Antonia: 4, 5
 Azurmendi Galfarsoro, Carmen: 5
 Azurmendi Galfarsoro, Francisca Antonia: 4, 5
 Azurmendi Galfarsoro, Jose Mari: 4, 5
 Azurmendi Galfarsoro, Josefa Ignacia: 5
 Azurmendi Galfarsoro, Pablo: 5
 Azurmendi, Antonio: 5
 Azurmendi, Gregorio: 25
 Azurmendi, Leoncia: 25
 Azurmendi, Tiburcia: 25
 Azurmendi-Arrondo: 25
 Bähr, Friedrich: 44
 Balerdi Arriaran, Mari Carmen: 19A
 Balerdi Guridi, Maria Josefa: 45
 Balerdi larza, Casimira: 39, 39A
 Balerdi larza, Celestina: 37A, 39
 Balerdi larza, Francisca: 37A, 39
 Balerdi larza, Luciano: 18, 18A, 22A, 37, 39, 39A
 Balerdi larza, Petra: 39
 Balerdi Inurritegi, Josefa: 39
 Balerdi Inurritegi, Juan Francisco: 19, 23, 39
 Balerdi, Jose Mari: 39
 Balerdi, Juan Francisco: 23
 Balmaseda Miguel, Lorenzo: 28
 Barandiaran, Felipe: 22
 Barrena Markuleta, Manuela: 40
 Barrena-Arrieta: 41
 Bartolo: 15
 Beain Arrizabalaga, Angel: 40
 Beain Arrizabalaga, Benito: 40
 Beain Arrizabalaga, Jesusa: 40
 Beain Arrizabalaga, Josefa: 40
 Beain Arrizabalaga, Justa: 15, 40
 Beain Barrena, Benito: 20, 31, 40, 40A
 Beain Barrena, Damian: 40
 Beain Barrena, Francisca: IIIA, 40, 40A

- Beain Barrena, Gregorio: 37, 40, 40A
 Beain Barrena, Mauricia: 40, 40A
 Beain Barrena, Polonia: 40, 40A
 Beain Barrena, Santiago: 33, 40
 Beain Barrena, Tiburcio: IIIA, 15, 19A 37, 40, 40A
 Belez, Fabian: 31
 Berasaluze-Ugarte: 6
 Berasategi Aierbe, Anacleto: 42
 Bergara Zabaleta, Basilio: 1
 Bergara Zabaleta, Jose Manuel: 1
 Bergara, Cipriano: 1
 Bergara, Miquell de: 21
 Bergara-Zabaleta: 1
 Bergaratarrak: 41
 Bergaretxe Galparsoro, Juana: 42
 Bergaretxe, Francisca: 44
 Bergaretxe, Julio: 44
 Bergaretxe, Marcelino: 44
 Bikuña, Eustaquia: 20
 Bikuña, Jose de: 34
 Bikuña, Juan Bautista de: 34
 Bikuña, Maria: 19
 Bikuña, Miguel Martinez de: 40
 Bikuña, Pedro Martinez de: 34
 Bikuñatarrak: 34, 42
 Castillo, Andres: 39
 Conde de la Cañada Alta: 18
 Cuevas, Jose Luis: 14A
 Dominguez, Antonio: 15
 Dona Juana: 37
 Duque de Sotomayor: 15, 18, 24
 Eizagirre: 25
 Eizmendi, Eusebio: 30
 Elizburu -Elorza: 25
 Elizburu Kruzeta, Jose: 20
 Elkorobarrutia, Juana: 41
 Elorregi, Miguel Ibañez de: 15, 24
 Elorregi-Lazarraga: 18
 Elorregitarak: 4, 41
 Elorregui, Catalina de: 8, 7, 18
 Elorregui, Miguel Ibañez de: 8, 7
Elorrixo: 30
 Elorza Aeta, Asencio: 20
 Elorza Agirre, Andres: 20
 Elorza Agirre, Antonia: 20
 Elorza Agirre, Cayetano: 13
 Elorza Agirre, Diego: 20
 Elorza Agirre, Francisca: 20
 Elorza Agirre, Juana: 20
 Elorza Agirre, Magdalena: 20
 Elorza Agirre, Maria: 19, 20
 Elorza Agirre, Miguel: 20
 Elorza Eguzkiza; Juan: 20
 Elorza Gaztañaga, Ignacio Mari: 44
 Elorza, Antonia: 19
 Elorza, Eguzkiza, Juan: 20
 Elorza, Florencio: 28
 Elorza, Ignacio Mari: 44
 Enatarriaga Aramendi, Donato: 6
 Enatarriaga Aramendi, Martin: 6, 40
 Erostarbe, Ricardo: IIIA
 Errasti Agirre, Feliciano: 13
 Errasti, Josefa de: 26, 27
 Errasti, Maria de: 10
 Etxaburu, Juan de: 42
 Etxeberria Aldanondo, Francisca: 26
 Etxeberria Aldanondo, Jose: 26, 26A, 32
 Etxeberria Aldanondo, Lorenzo: 26
 Etxeberria Aldanondo, Luisa: 26, 26A
 Etxeberria Apaolaza, Jose Antonio: 16
 Etxeberria Apaolaza, Jose: 20
 Etxeberria Elorza, Patricio: 8, 12, 25, 25A, 41, 39, 40
 Etxeberria Etxeberria, Marcelina: 19, 19A
 Etxeberria Gorospe, Josefa Ignacia: 15, 38
 Etxeberria Guridi, Candida: 19, 45, 45A
 Etxeberria Guridi, Demetrio: 21
 Etxeberria Guridi, Isidra: 46A
 Etxeberria Guridi, Valentin: 15, 21
 Etxeberria Guridi, Victoriana: 10, 37A
 Etxeberria Idigoras, Manolo: 38
 Etxeberria Inurritegi, Isabel: 39, 39A
 Etxeberria Inurritegi, Maria Andres: 34
 Etxeberria Inurritegi, Pedro: IIIA, 32, 32A, 39
 Etxeberria Inurritegi, Tomasa Antonia: 18
 Etxeberria Jauregi, Jose Ignacio: 21
 Etxeberria Jauregi, Jose: 12
 Etxeberria Jauregi, Josefa Antonia: 8, 12A, 15
 Etxeberria Jauregi, Maria Micaela: 1, 13, 13A
 Etxeberria Jauregi, Tomasa: 42
 Etxeberria Mendiola, Felix: 9, 12, 12A
 Etxeberria Mendiola, Jesus: 12
 Etxeberria Mendiola, Teresa: 12

Etxeberria Orueta Romualdo: 37
 Etxeberria Orueta, Antonio: 46
 Etxeberria Orueta, Jose: 12
 Etxeberria Pagola, Juan Bautista: 20
 Etxeberria Pagola, Nicolas: 20
 Etxeberria Pagola, Pantaleon: 20, 32
 Etxeberria Pagola, Tomas: 20
 Etxeberria Pagola, Vicente: 20
 Etxeberria Pagola, Victor: 20
 Etxeberria Plazaola, Pedro Mari: 43
 Etxeberria Telleria, Castora: 43
 Etxeberria Telleria, Faustino: 43
 Etxeberria Telleria, Felipe: 43, 43A
 Etxeberria Telleria, Jose Domingo: 7, 18, 23, 39, 40
 Etxeberria Telleria, Jose Francisco: 18
 Etxeberria Telleria, Jose: 43
 Etxeberria Telleria, Josefa: 38
 Etxeberria Telleria, Juan: 22A, 43, 43A
 Etxeberria Telleria, Juana Maria: 42, 43
 Etxeberria Telleria, Manuela: 43
 Etxeberria Telleria, Maria Isabel: 43, 43A
 Etxeberria Telleria, Maria Luisa: 18A, 43, 43A
 Etxeberria Telleria, Matias: 26, 32, 32A
 Etxeberria Telleria, Pilar: 43, 43A
 Etxeberria Urzelai, Jose Mari: 19
 Etxeberria Urzelai, Maria Josefa: 18, 34
 Etxeberria Urzelai, Simon: 18, 19
 Etxeberria Zabaleta, Cecilia: 4, 5
 Etxeberria Zabaleta, Francisca: 21
 Etxeberria Zabaleta, Francisco: 6, 10, 21, 32
 Etxeberria Zabaleta, Josefa Ignacia: 21, 33
 Etxeberria Zabaleta, Justo: 21, 21A, 32, 32A
 Etxeberria Zabaleta, Simon: 21
 Etxeberria Zabaleta, Tecla: 21
 Etxeberria Zaldua, Eusebio: 18, 18A, 32
 Etxeberria Zaldua, Jose Andres: 18, 32
 Etxeberria Zaldua, Leon: 18
 Etxeberria Zaldua, Maria: 18
 Etxeberria Zubia, Ignacio: 18
 Etxeberria Zubia, Jose Mari: 18
 Etxeberria Zubia, Josefa: 18, 18A
 Etxeberria Zubia, Maria Angeles: 18
 Etxeberria Zubia, Milagros: 18
 Etxeberria, Andres de: 26
 Etxeberria, Catalina de: 35
 Etxeberria, Eugenio: 38
 Etxeberria, Francisco de: 26
 Etxeberria, Jose Ignacio: 23
 Etxeberria, Jose Mari: 19A
 Etxeberria, Jose: 39
 Etxeberria, Magdalena de: 10
 Etxeberria, Maria Ascension: 10
 Etxeberria, Maria de: 35
 Etxeberria, Maria Miguel: 14
 Etxeberria, Tomas: 12
 Etxeberria, Valentina: 18A
 Etxeberria-Apaolaza: 20
 Etxeberria-Aztiria: 44
 Etxeberria-Inurritegi: 20
 Etxeberria-Jauregi: 20
 Etxeberria-Pagola: 20
 Etxeberria-Pildain: 20
 Etxeberria-Telleria: 20
 Etxeberria-Urzelai: 18
 Etxeberria-Zabaleta: 20
 Etxeberria-Zabaleta: 44
 Etxeberria-Zaldua: 18
 Etxeberria-Zangitu: 20
 Etxeberria-Zubia: 18
 Etxeberriatarrak: 26
 Etxezarreta Ansotegi, Inocencio: 4
Eztena: 15
Frantsesa: 30
 Furundarena, Jose Maria de: 18
 Gabiria Inurritegi, Maria Joaquina: 15
 Gabiria Inurritegi, Maria Josefa: 15
 Gabiria Inurritegi, Prudencio: 15, 39
 Gabiria Makibar, Justa: 9A
 Gabiria, Jose Antonio: 15
 Gabiriatarak: 15
 Galardi, Maria Feliciana: 10
 Galarrey Alfonso, Joaquin: 14
 Galarza, Jose Cirilo: 22
 Galarza, Maria Feliciana: 10
 Galdos, Gregorio: 4
 Galdos-Jaunoro: 2
 Galfarsoro Agirre, Jose Manuel: 39
 Galfarsoro Inurritegi, Juan Mari: 29, 29A, 30, 44
 Galfarsoro Inurritegi, Ladislao: 28
 Galfarsoro Legorburu, Juan: 29, 29A, 44
 Galfarsoro Legorburu, Pedro: 29, 29A, 37, 44
 Galfarsoro Urzelai, Eleuterio: 39A

- Galfarsoro Zabaleta, Maria Francisca: 1
 Galfarsoro, Angelita: 19A
 Galfarsoro, Francisca de: 38
 Galfarsoro, Jose Joaquin: 39
 Galfarsoro, Juana: 15
 Galfarsoro, Mari Tere: 19A
 Galfarsoro, Teresa Ignacia: 5
 Garate, Miguelico: 25
 Garcia de Jauregi, Pero: 1
 Garcia de Zerain, Ana: 1
 Garcia de Zerain, Juan: 4
 Garin, Martin: 22
 Garmendia, Juana: 43
 Garro, Andres de: 24, 37
 Garro, Cristobal de: 25
 Garro, Iohan Sanches de: 34
 Garro, Joan Morron de: 34
 Garro, Juan Çentol de: 34
 Garro, Juan Sayns de: 34
 Garro, Juan: 34
 Garro, Maria Miguel de: 25
 Garro, Martin de: 24
 Garro, Pedro de: 34
 Garro, Sancho de: 34
 Gaztañaga Zabalo-Zuazola, Casimira Josefa: 34, 34A
 Gaztañaga Zangitu, Jose: 17, 25A
 Gaztañaga, Paulo: 4
 Gebaratarrak: 4
 Gereñu Aranburu, Agapito: 6
 Gereñu Aranburu, Esteban: 6, 33
 Gereñu Aranburu, Jose: 6
 Gereñu Aranburu, Luis: 6
 Gereñu Aranburu, Rafael: 6
 Gereñu Aranburu, Vicenta: 6, 21
 Gereñu Egizabal, Juan Bautista: 6, 6A, 46
 Gereñu Etxeberria, Maria: 7, 7A, 26
 Gereñu Odria, Agapito: IIIA, 6, 12, 14A
 Gereñu Odria, Aniceta: 6, 15A
 Gereñu Odria, Ignacia: 6
 Gereñu Odria, Jose: 6
 Gereñu Odria, Maria: 6
 Gereñu Odria, Saturnino: 6, 12
 Gereñu-Agirre: 18
 Gereta Idiazabal, Prudencio: 13A
 Gereta, Prudencio: 13
 Gerra Aztiria, Josefa Ignacia: 38
 Gerra Laspiur, Basilia: 15A
 Gerra, Lorenzo: 44
 Gerra, Miguel: 19
 Gibelalde Aranguren, Agustina: 30
 Gibelalde Aranguren, Doroteo: 30, 30A, 37
 Gibelalde Aranguren, Eustaquio: 30, 31
 Gibelalde Aranguren, Francisca: 30
 Gibelalde Aranguren, Lucio: 30
 Gibelalde Aranguren, Pedro: 30
 Gibelalde Aranguren, Vicente: 15, 19, 30, 30A, 37
 Gibelalde Malkorra, Jose: 28, 30
 Gibelola, Pedro de: 1
 Goia Osinalde, Luisa: 14
 Goia, Jose: 22
 Goiburu, Josefa: 26
 Goitia, Manuel: 15
 Gonzalez Arriluzea, Carmen: 13A
 Gonzalez Arriluzea, Felisa: 13A
 Gonzalez, Cipriano: 35
 Gordo, Juan: 18
 Gordo, Paco: 30A
 Gordoatarak: 25
 Gorosabel Dominguez, Pedro: 38
 Gorosabel, Isabel Juliana: 10
 Gorosabel, Jose Joaquin: 38
 Gorosabel, Juan de: 38
 Gorosabel, Juan Francisco: 44
 Gorospizear, Maria Andres de: 34
 Gorrotxategi, Ignacio: 22
 Gorrotxategi, Jose Antonio: 14A, 24A
 Guerra, Tomas Joaquin de: 36
 Guridi Agirre, Antonio de: 8
 Guridi Agirre, Francisca Antonia: 10
 Guridi Agirre, Jose Ignacio: 10
 Guridi Agirre, Juan Agustin: 10, 33
 Guridi Agirre, Juan Ignacio: 9, 10
 Guridi Agirre, Juan Pablo: 10, 33
 Guridi Agirre, Miguel Ignacio: 10
 Guridi Agirrebengoa, Tomas Ignacio: 10
 Guridi Agirrezabal, Felisa: 46
 Guridi Agirrezabal, Patxi: 46
 Guridi Altzuetza, Martina: 42
 Guridi Aranburu, Josefino: 10
 Guridi Aranburu, Pedro Antonio: 10
 Guridi Aranburu, Sebastian: 10, 33
 Guridi Aranburu, Simona: 10

Guridi Aranburu, Sotero:10
 Guridi Aztiria, Tomas Antonio: 46
 Guridi Campos, Manuela Ignacia: 3, 15
 Guridi de Igeralde, Juan de: 26
 Guridi Guridi, Bartolome: 28, 38, 46
 Guridi Guridi, Josefa Joaquina: 15, 46
 Guridi Guridi, Juan Bautista: 15
 Guridi Guridi, Julian: 46
 Guridi Guridi, Martina: 46
 Guridi Guridi, Petronila: 46
 Guridi Igaralde, Juan: 10, 27
 Guridi Igaralde, Simon:10, 26, 27
 Guridi Igeralde, Martin: 10
 Guridi Inza, Marcelino: 6, 19, 22,28, 32, 45A, 46
 Guridi Inza, Petra: 21, 21A, 45, 46
 Guridi Kortaberria, Jose Mari: 34
 Guridi Mujika, Ignacio Mari:10
 Guridi Mujika, Manuela Francisca:10
 Guridi Mujika, Maria Luisa:10
 Guridi Mujika, Pedro Jose:10
 Guridi Mujika, Simon:10, 22
 Guridi Ojanguren, Carlos: 6, 10, 10A, 19A
 Guridi Ojanguren, Gregoria: 10, 10A
 Guridi Ojanguren, Justa: 10, 10A
 Guridi Ojanguren, Maria: 10, 10A, 33
 Guridi Ojanguren, Valerio: 6, 10, 10A, 19A 33
 Guridi Raizabal, Agustin:10, 18
 Guridi Raizabal, Cipriano:10
 Guridi Raizabal, Jose Miguel:10
 Guridi Raizabal, Juan Ignacio:10
 Guridi Raizabal, Juana Leona:10
 Guridi Raizabal, Maria Ignacia:10
 Guridi Raizabal, Victor: 8, 10, 10A, 33
 Guridi Ugalde, Julian: 6, 46, 46A
 Guridi Ugalde, Martina: 46
 Guridi Ugalde, Petronila: 46A
 Guridi, Beatriz: 46
 Guridi, Catalina: 34
 Guridi, Domingo de: 10
 Guridi, Felipe: 33
 Guridi, Francisco Antonio: 46
 Guridi, Francisco: 20
 Guridi, Juan Bautista: 9
 Guridi, Juan de: 7, 8, 10
 Guridi, Magdalena de: 26, 27
 Guridi, Maria Andresa:10
 Guridi, Miguel de: 8
 Guridi, Petra: 28
 Guridi, Saturnino: 40
 Guridi, Serapio: 22
 Guridi-Ernandotegi Abalia, Manuel: 46
 Guridi-Ernandotegi Inza, Diego: 46
 Guridi-Ernandotegi Inza, Francisco Antonio: 46
 Guridi-Ernandotegi Inza, Isidro: 46
 Guridi-Ernandotegi Inza, Jose: 46
 Guridi-Ernandotegi Inza, Josefa: 46
 Guridi-Ernandotegi Inza, Juan: 46
 Guridi-Ernandotegi Inza, Maria Antonia: 46
 Guridi-Ernandotegi Inza, Maria Santuru: 46
 Guridi-Ernandotegi Inza, Miguel: 46
 Guridi-Ernandotegi, Domingo de: 46
 Guridi-Igeralde: 26
 Guridi-Zaldua, Ignacio: 20
 Heriz Beitia, Jose Ramon: 22
 Heriz, Leandro: 28
 Hernandez, Nieves: 40
Hernani: 30
 Hombrados Oñatibia, Cesar: 26, 33
 Hombrados Oñatibia, Gregorio: 26
 Hombrados, Pablo: 26
 Huarkalde, Machin de: 39
 Huarkalde, Martin de: 24
 Iarza Zabaleta, Maria: 39
 Ibañez Alustiza, Juana: 7
 Ibañez Alustiza, Lourdes: 7
 Ibañez Alustiza, Maria Angeles: 7
 Ibañez Alustiza, Pilar: 7, 7A
 Ibañez de Elorregi, Miguel: 4
 Ibañez, Alejandro: 7, 17
 Idigoras Agirre, Juliana: 38
 Idigoras Agirre, Patricio: 37, 38, 38A
 Idigoras Enparanza, Jose Miguel: 32, 32A, 38
 Idigoras Ormazabal, Arantxa: 38
 Idigoras Ormazabal, Gema: 38
 Idigoras Ormazabal, Jesus Mari: 38
 Idigoras Ormazabal, Jose Antonio: 38
 Idigoras Ormazabal, Maria Jose: 38
 Idigoras Ormazabal, Rufino: 38
 Idigoras, Antonio: 8
 Idigoras, Catalina de: 27
 Idigoras, Francisco de: 25, 27
 Idigoras: 18

- Igaralde, D^ñ Franca: de: 25
 Igaralde, Miguel: 24
 Igaralde, Pedro de: 24, 25
 Igaralde, Magdalena de: 10
 Igaralde, María de: 24
 Igaralde, Martin de: 24, 25
 Igaralde, Sancho de: 24, 25
 Inurritegi Agirrezabal, Juan Cruz: 45, 45A
 Inurritegi Aristimuño, Ines: 13, 13A, 45A
 Inurritegi Aristimuño, María: 13, 45A
 Inurritegi Aristimuño, Segundo: 13
 Inurritegi Aristimuño, Victoriana: 13, 13A
 Inurritegi Arrizabalaga, Carmen: 19A, 30
 Inurritegi Arrizabalaga, Ignacio: 28, 30, 34
 Inurritegi Arrizabalaga, Luis: 30
 Inurritegi Arrizabalaga, Pilar: 18A, 30
 Inurritegi Arrizabalaga, Sebastian: 14A, 30
 Inurritegi Aztiria, Jose Domingo: 15
 Inurritegi Aztiria, Juan Jose: 15
 Inurritegi Etxeberria, Agapito: 10, 13
 Inurritegi Etxeberria, Gregoria: 13
 Inurritegi Etxeberria, Ignacio: 6, 9, 13, 13A, 14A
 Inurritegi Etxeberria, Jose Ignacio: 45A
 Inurritegi Etxeberria, Maria Pilar: 13, 42, 42A
 Inurritegi Gerra, Faustino: 19A
 Inurritegi Goia, Jose Joaquin: 15
 Inurritegi Guridi, Jose Manuel: 15
 Inurritegi Inurritegi, Benita: 19A
 Inurritegi Inurritegi, Eusebia: 15
 Inurritegi Inurritegi, Felix: 45, 45A
 Inurritegi Inurritegi, Jose Mari: 24A
 Inurritegi Inurritegi, Juan Jose: 15, 32, 32A
 Inurritegi Inurritegi, Juana: 15, 45
 Inurritegi Inurritegi, Maria Clara: 15, 24, 24A
 Inurritegi Inza, Domingo: 15, 45, 45A
 Inurritegi Inza, Francisco: 28, 30, 33, 34, 37, 45, 45A
 Inurritegi Inza, Julian: 45
 Inurritegi Inza, Txomin: 15
 Inurritegi Makibar, Eugenia: 1A, 9A
 Inurritegi Plazaola, Dominica: 15
 Inurritegi Plazaola, Joaquina Ignacia: 15
 Inurritegi Plazaola, Josefa Ignacia: 15
 Inurritegi Plazaola, Juan: 15, 16
 Inurritegi Plazaola, Juana Mari: 15
 Inurritegi Plazaola, Manuel Antonio: 15
 Inurritegi Plazaola, Maria Josefa: 15, 36, 44
 Inurritegi Plazaola, Maria Justa: 15
 Inurritegi Zabaleta, Amparo: 15, 19A
 Inurritegi Zabaleta, Benita: 15, 24
 Inurritegi Zabaleta, Benito: 14A, 15, 24, 24A
 Inurritegi Zabaleta, Dominica: 1, 15
 Inurritegi Zabaleta, Jose Joaquin: 1, 4, 13, 13A, 15, 19, 23
 Inurritegi Zabaleta, Jose Luis: 1, 1A, 15
 Inurritegi Zabaleta, Sebastiana: 15
 Inurritegi Zabarain, Maria Micaela: 39
 Inurritegi Zangitu, Francisco: 15, 33
 Inurritegi Zangitu, Jose Ignacio: 1, 15
 Inurritegi Zangitu, Josefa Antonia: 15
 Inurritegi, Andres de: 34
 Inurritegi, Juan de: 34
 Inurritegi, Julian: 45
 Inurritegi, Serapio: 28
 Inurritegi-Agirrezabal: 41, 45
 Inurritegi-Aztiria: 15
 Inurritegi-Etxeberria: 41
 Inurritegi-Guridi: 15
 Inurritegi-Inurritegi: 15
 Inurritegi-Inza: 41
 Inurritegi-Plazaola: 15
 Inurritegi-Zangitu: 15
 Inza Azarola, Marcelina: 13, 46
 Inza Azarola, Tomas: 15, 37
 Inza Guridi, Marzelina: 8
 Inza Orueta, Emilio: 37
 Inza Orueta, Rufina: 19, 37, 37A
 Inza, Anastasia: 46
 Inza, Asensio: 40
 Inza, Clemente de: 37
 Inza, Joaquin de: 36
 Inza, Juan de Oria de: 37
 Inza, Juan: 13
 Inza, Joaquin de Oria de: 37
 Inza, Martin: 13
 Inza, Narciso de: 37
 Inza, Pedro de Oria de: 37
 Inza-Azarola: 37
 Inza-Dorronsor: 37
 Inza-Galfarsoro: 37
 Inza-Guridi: 37
 Inza-Orueta: 37
 Inza-Urzelai: 9

Iraegi, Miguel de: 35
 Irastorza Etxeberria, Pacifico: IIIA, 39A
 Irastorza Mendia, Jose: 43
 Iribar, Agustina: 25
 Iturbe Agirreburualde, Jose Martin: 3
 Iturbe Arrieta, Bernarda: 7, 14
 Iturbe Berasategi, Miguel: 22
 Iturbe Ormazabal, Francisco Mari: 3, 15
 Iturbe Ormazabal, Jose Mari: 3, 33
 Iturbe Ormazabal, Manuela: 2, 3
 Iturbe Ormazabal, Nicolas: 1, 3
 Iturbe Plazaola, Juan Jose: 3, 7
 Iturbe Ugalde, Juan: 3A
 Iturbe Urzelai, Josefa: 33
 Iturbe-Arrieta: 2
 Izagirre Amenabar, Aquilino: 30
 Izuzkiza, Francisco Domingo: 10
 Jauregi Askibel, Maria Ignacia: 2
 Jauregi Etxeberria, Jose Ignacio: 34, 36, 44
 Jauregi Legorburu, Petra: 36
 Jauregi Telleria, Francisca: 34
 Jauregi Telleria, Tomas Ignacio: 34
 Jauregi-Askibel: 2
 Jauregi-Gorospe: 8
 Jauregi-Guridi: 8
 Jauregi-Ormazabal: 8
 Jauregitarrak: 11
 Juan el Viejo: 8
 Juaristi, Jose: 22
 Julia: 25
 Kerejeta Galardi, Juliana: 1, 3, 17
 Kerejeta Garmendia, Jose Luis: 42
 Korta: 28
 Kortaberria, Ceferina: 18
 Kortaberria, Juana: 42A
 Kortazar, Mikel: 10
 Langarika Mantxola, Constantino: 17, 36
 Langarika Mantxola: 14
 Langarika Vivar, Manuel: 14A
 Lardizabal, Juan Antonio de: 18
 Lardizabal: 34
 Larrañaga, Francisca: 26
 Larrañaga, Josefa: 26
 Larrea Ormazabal, Petra: 1, 1A
 Larrea, Hermenegildo: 17
 Lasa Iturbe, Manuela: 40
 Lasa, Ana Maria: 12
 Lazarraga, Cristobal Perez de: 8, 7
 Lazarraga, Juan Perez de: 15, 24
 Lazarragatarrak: 4, 24, 41
 Lazkanoiturburu, Jose Miguel: 18
 Lazkanoiturburu, Mariano: 8
 Legazpia, Bernarda: 15
 Legorburu Agirrezabal, Isabel: IIIA, 44, 45A
 Legorburu Agirrezabal, Mauricio: 44
 Legorburu Agirrezabal, Periko: 44
 Legorburu Apaolaza, Agustin: 15, 44
 Legorburu Apaolaza, Francisco Mari: 44
 Legorburu Apaolaza, Jose Pablo: 33, 44
 Legorburu Apaolaza, Juana Josefa: 44
 Legorburu Apaolaza, Juana: 4, 44
 Legorburu Apaolaza, Maria Ignacia: 34, 36, 44
 Legorburu Apaolaza, Pedro: 33, 44
 Legorburu Bergaretxe, Felix: 44, 44A
 Legorburu Etxeberria, Roque: 44
 Legorburu Inurritegi, Bernarda: 28A, 29, 44
 Legorburu Inurritegi, Bernardo: 36, 36A, 44
 Legorburu Inurritegi, Jose Mari: 42, 44
 Legorburu Inurritegi, Juan: 44
 Legorburu Inurritegi, Nicolas: 36, 44
 Legorburu Inurritegi, Roman: 44
 Legorburu Inurritegi, Saturnino: 33, 44
 Legorburu Murua, Juan Mari: 36
 Legorburu Murua, Tomas: 36
 Legorburu-Apaolaza: 41
 Legorburu-Etxeberria: 41
 Legorburutarrak: 44
Lekaixo: 17
 Lekuona Aierbe, Teresa: 29
 Lekuona Barrenetxea, Guillermo: 29
 Lekuona Bastarrika, Ignacia: 45
 Lekuona, Maria: 42A
 Lesarri, Diego de: 18
 Linazasoro, Carlos: 31
 Lizarazu Alustiza, Andres: 45A
 Lizarazu Alustiza, Jose Mari: 45A
 Lizarazu Alustiza, Jose: 45A
 Lizarazu Alustiza, Margarita: 42, 45A
 Lizarazu, Carmen: 4
 Lizarazu, Martin de: 42
 Lizarazu, Pedro: 18
 Lizardi, Jose de: 24

- Longa, Lucas de: 24
 Lontxo : 15
 Lopez, Vicente: 14
 Lorentxo: 28
 Luluaga, Magdalena: 40
 Madariaga, Nicolas Antonio de: 44
 Madina Agirre, Sinforosa: 41
 Madina Aldanondo, Pablo: 28
 Madina, Carlos: 28
 Madina, Fernando: 28
 Madina, Hipolito: 28, 45A
 Madina, Javier: 28
 Madina, Ricardo: 28
 Madina, Santiago: 22
 Madina, Vicente: 28
 Madina-Agirre: 41
 Madinabeitia Altube, Jose Mari: 13, 15
 Madinabeitia Altube, Pedro: 8
 Madinabeitia, Mari Tere: 18A, 19A
 Makibar Agirre, Marcelina: 1, 1A
Makillas: 17
Maleta: 15
 Manjondarrak: 6A
 Mantxola Agirre, Vicenta: 14A
 Mantxola, Josefa Ignacia: 14
 Maritxalar Agirre, Jesus Mari: 18A
 Maritxalar Lastra, Ceferino: 18A
 Maritxalar, Salustiano: 15
 Maritxalar, Tiburcio: 14A
 Marqués de San Millan: 18
 Marquesa de Villalegre y de San Millán: 42
 Marroqui, Jesus: 14A
 Martin de Araoz y Urrutia, María: 8
 Martinez de Bikuña, Juan: 1
Maximiano amezkoanoa: 17
 Medina, Longinos: 40
 Mendia Leunda, Francisco: 13, 25
 Mendiola Guridi, Vicenta: 12, 12A
 Mendiola Zabarrain, Pantaleon: 45
 Mendiola, Manuela: 12
 Mendiola-Zabaleta: 45
 Mendizabal, Joan: 11
 Mendizabal, Maria Ana: 34
 Mendizabal, Severiano: 22
 Miguel: 8
 Miguelez, Maria: 8, 7
 Mitxelena: 30
 Molina, Maria Dolores: 1
 Mondragon, Felipe: 34
 Montegi Markaide, Carmen Gregoria Francisca: 25
 Mujika, Juana: 10
 Muñagorri, Lazaro: 40A
 Murua Alkorta, Angel: 30A
 Murua Manterola, Angel: 30A
 Murua Sarobe, Modesta: 36
 Narbaiza, Ignacio: 20
 Narbaiza, Ignacio: 20
 Odría Erostege, Gregorio: 32
 Odría Erostege, Hermenegilda: 6
 Odría Erostege, Segundo: 17, 19A 39, 46A
 Odría Erostege, Simon: 19A, 32, 45A
 Odría Etxeberria, Isabel: 18A, 19A
 Odría Etxeberria, Juan: 17
 Oiarbide Lizarazu, Juana: 34
 Oiarbide, Jose: 24A
 Ojanguren Agirre, Catalina: 8
 Ojanguren Agirre, Justo: 6, 8, 10, 28
 Ojanguren Agirre, Saturnina: 8, 10, 10A
 Ojanguren Enparanza, Martin: 8
 Ojanguren Etxeberria, Domingo: 8
 Ojanguren Etxeberria, Francisca: 8
 Ojanguren Etxeberria, Francisco: 6, 8, 32
 Ojanguren Etxeberria, Ignacio: 6, 8
 Ojanguren Etxeberria, Julian: 8, 8A
 Ojanguren Etxeberria, Luisa: 8
 Ojanguren Etxeberria, Martin: 6, 8
 Ojanguren Etxeberria, Victoriana: 8
 Olabide Plazaola, Jose Miguel: 13A, 42
 Olan, Jose Mari: 40
 Olmo, Emiliano: 33
 Olmo, Ignacio: 19A
 Oñatibia, Francisca: 26
 Orbegozo, Esteban: 17
 Orbegozo, Felisa: 4
 Oria Ormazabal, Matias: 12
 Oria, Magdalena de: 37
 Oria, Miguel Antonio de: 18
 Orikain, Marcelino: 12
 Ormazabal Galfarsoro, Cesarea: 31, 31A, 42
 Ormazabal Galfarsoro, Joaquin: 19A
 Ormazabal Ormazabal, Antonia: 1
 Ormazabal Ormazabal, Josefa Antonia: 3

Ormazabal Ormazabal, Maria: 38, 38A
 Ormazabal Telleria, Carmen: 18A, 19A
 Ormazabal, Ignacia: 1
 Ormazabal, Isidro: 22
 Ormazabal, Monica: 25, 30
 Orueta Mendiola, Basilia: 37
 Orueta Zabaleta, Jose Miguel: 15
 Orueta, Angela de: 44
 Orueta, Josefa Antonia: 15
 Pagola Telleria, Julia: 20
 Parra, Francisco: 25
 Peña Etxeberria, Conchita: 26, 26A
 Peña Etxeberria, Jesus: 26, 26A
 Peña Etxeberria, Jose: 26
 Peña Etxeberria, Lorenzo: 26
 Peña Etxeberria, Maria Cristina: 6, 28A
 Peña Etxeberria, Nati: 26
 Peña Etxeberria, Rufino: 26
 Peña, Isabel: 4
 Peña, Lucia: 26A
 Peña, Nicolas: 26, 28A
 Peña: 15
 Peñagarikano, Carmen: 19A
 Peñagarikano, Ignacio: 19A
 Perez de Erzilla, Juan: 40
 Perez de Lazarraga, Juan: 1
 Plaza, Francisco Manuel de: 24
 Plaza, Joaquin de: 18
 Plazaola Enparantza, Josefa: 35
 Plazaola Guridi, Maria Cruz: 17
 Plazaola, Andres de: 39
 Plazaola, Andres Lopez de: 39
 Plazaola, Dominica: 15
 Plazaola, Juan de: 44
 Plazaola, Luisa de: 39
 Plazaola, Magdalena de: 44
 Plazaola, Maria Francisca: 15
 Plazaola, Pedro: 35
 Plazaolatarrak: 26
 Plazatarrak: 4, 24
 Porcell, Andres: 18
 Porcell, Blanca: 42
 Porcell, Luciano: 18
 Porcell: 39
 Puergui Perez, Toribio: 14
 Raizabal Guridi, Victor: 8
 Raizabal Irazabal, Manuela Antonia: 10
 Rekondo, Pedro Alejandrino de: 16
Remigio Naparra: 30A
 Rexil, Miguel de: 8, 7
 Rodriguez Agirre, Alvaro: 25
 Ruiz Igaralde, Juan: 24
 Ruiz, Juan: 24
 Sagastizabal Agirre, Martin Manuel: 33
 Sagastizabal Etxeberria, Benigna: 33, 41
 Sagastizabal Etxeberria, Clara: 33
 Sagastizabal Etxeberria, Fermin: 33
 Sagastizabal Etxeberria, German: 33
 Sagastizabal Etxeberria, Juana: 6, 33
 Sagastizabal Etxeberria, Maria: 20, 33
 Sagastizabal Etxeberria, Narcisa: 33
 Sagastizabal Iturbe, Eustaquio: 21, 28, 33, 37
 Sagastizabal Iturbe, Feliciano: 33
 Sagastizabal Iturbe, Juana: 33
 Sagastizabal Iturbe, Martina: 33
 Sagastizabal Iturbe, Patricia: 33
 Sagastizabal Iturbe, Petra: 33
 Sagastizabal Iturbe, Sinforoso: 33
 Sagastizabal Telleria, Ignacio Antonio: 33
 Sagastizabal, Lorenzo: 33
 San Juan: 8
 San Pedro Aizpeolea, Catalina: 11
 San Pedro Aizpeolea, Feliciano: 11, 11A
 San Pedro Aizpeolea, Francisco: 11, 11A
 San Pedro Aizpeolea, Jose: 11, 11A
 San Pedro Aizpeolea, Juan: 11, 11A, 13A
 San Pedro Aizpeolea, Juana: 11
 San Pedro Aizpeolea, Juliana: 11, 11A
 San Pedro Aizpeolea, Luis: 11, 11A, 13A
 San Pedro Aizpeolea, Mari Cruz: 11, 11A
 San Pedro Aizpeolea, Martin: IIIA, 11, 11A
 San Pedro Jauregi, Candido: 2
 San Pedro Jauregi, Cecilio: 2, 11
 San Pedro Jauregi, Leandro: 2
 San Pedro Jauregi, Maria Francisca: 2
 San Pedro Jauregi, Modesto: 2
 San Pedro Jauregi, Sebastian: 2
 San Pedro, Roque: 2
 Sanchez de Oñatibia, Martin: 7
 Sanchez, Pablo: 26
 Sarasola, Bernardo: 10, 13
 Sarasola, Jose: 43

- Sarriegi, Jeronimo: 22, 22A, 40
 Segura, Pedro: 25
 Segura, Ubaldo: 12
 Segurajauregi, Bernardo: 15
 Sukia, Eugenia: 28
 Telleria Agirre, Jose Francisco: 19, 19A, 23
 Telleria Aranburu, Tomas: 1, 1A, 7, 14A, 17
 Telleria Aztiria, Pedro: 19, 19A, 23
 Telleria Berasategi, Juan: 42
 Telleria Etxeberria, Antonia: 19, 19A
 Telleria Etxeberria, Eulogia: 19, 19A
 Telleria Etxeberria, Francisca: 19, 19A
 Telleria Etxeberria, Julio: 19, 22A
 Telleria Etxeberria, Martin: 19
 Telleria Garro, Domingo: 20
 Telleria Telleria, Jesusa: 18A
 Telleria Telleria, Jose Ignacio: 18A
 Telleria Telleria, Jose Mari
 Telleria Telleria, Maria: 18, 18A, 43, 43A
 Telleria Telleria, Patricia: 43
 Telleria Zabaleta, Saturnino: 13, 42
 Telleria, Agustin: 44
 Telleria, Antonio: 17, 18, 19
 Telleria, Domingo: 20
 Telleria, Josefa: 39
 Telleria, Julian de: 18
 Telleria-Agirre: 19
 Telleria-Apaolaza: 40
 Telleria-Aztiria: 19
 Telleria-Etxeberria: 19
 Telleria-Guridi: 19
 Telleria-Zeberio: 19
 Telleriatarrak: 42
 Ubitarte, Catalina de: 4
 Ubitarte, Domingo de: 4
 Ugalde Alustiza, Jose: 15, 41
 Ugalde Alustiza, Juan: 15, 15A
 Ugalde Alustiza, Maria: 15, 45A
 Ugalde Eizabal, Pascual: 38
 Ugalde Etxeberria, Cecilia: 15
 Ugalde Etxeberria, Jose Francisco: 15
 Ugalde Etxeberria, Juan Ignacio: 15
 Ugalde Gerra, Jacinta: 38, 46
 Ugalde Guridi, Alejandro: 15
 Ugalde Guridi, Antonia: 15
 Ugalde Guridi, Jose Joaquin: 38
 Ugalde Guridi, Josefa: 3, 15
 Ugalde Guridi, Luciano: IIIA, 15, 15A, 32, 32A, 37
 Ugalde Guridi, Pedro: 15, 38
 Ugalde, Felix: 30
 Ugalde, Rufina: 25
 Ugalde-Gerra: 38
 Ugalde-Guridi: 38
 Ugaldetarrak: 12
 Ugarte Agirre, Martina: 26
 Ugarte Azurmendi, Juana: 40
 Ugarte Azurmendi, Martin: 40
 Ugarte Bikuña, Claudia: 20, 40
 Ugarte Bikuña, Damaso: 20, 33
 Ugarte Bikuña, Pedro: 20
 Ugarte Elkorobarrutia, Isabel: 41
 Ugarte Elkorobarrutia, Juan: 41, 41A
 Ugarte Elkorobarrutia, Lucio: 41, 41A
 Ugarte Elkorobarrutia, Luis: 41, 41A
 Ugarte Elkorobarrutia, Norberto: 33, 41, 41A
 Ugarte Elkorobarrutia, Pilar: 15A, 25, 41
 Ugarte Elkorobarrutia, Vicenta: 15, 15A, 41
 Ugarte Gereñu, Crispina: 26, 26^a, 28A
 Ugarte Gereñu, Juana: 26
 Ugarte Igartua, Lorenza: 25, 45
 Ugarte Larrañaga, Jose: 26, 32
 Ugarte Larrañaga, Tomas: 26
 Ugarte Zabarrain, Basilio: 26, 32
 Ugarte Zabarrain, Crispolo: 6, 26, 46
 Ugarte, Andres de: 26, 27
 Ugarte, Benito: 20
 Ugarte, Jose Domingo: 26
 Ugarte, Jose Francisco de: 18
 Ugarte, Martin de: 26, 27
 Ugarte, Nicolas: 41
 Ugartetarrak: 26
 Urdingio, Francisca: 25
 Urkiola, Emilio: 22A
 Urmeneta Alzueta, Genoveva: 24A
 Urmeneta Alzueta, Marceliano: 15, 24, 24A, 32, 32A
 Urmeneta Inza, Maria Josefa: 14
 Urmeneta, Isidoro de: 18, 38
 Urmeneta-Alzueta: 24
 Urmeneta-Inurritegi: 24
 Urmeneta-Inza: 24
 Urteaga Juaristi, Aquilino: 6
 Urzelai Etxeberria, Miguela: 18

Urzelai, Maria Josefa: 36
 Urzelai, Pedro: 40
 Urzelai-Etxeberria: 18
 Uzkudun Aizpurua, Maritxu: 18A
 Uzkudun Mujika, Joaquin: 17, 17A, 36
 Uzkudun Mujika, Maria: 1
 Uzkudun Mujika, Tomas: 17
 Zabala Aramendi, Jesusa: 44
 Zabala, Leon: 22A
 Zabaleta Agirre, Antonia: 35
 Zabaleta Agirre, Catalina Ignacia: 15
 Zabaleta Agirre, Jose Francisco: 15
 Zabaleta Agirre, Jose Mari: 23, 34, 42
 Zabaleta Agirre, Josefa: 35, 35A
 Zabaleta Agirre, Juan Jose: 15, 34
 Zabaleta Agirre, Pascual: 32, 35, 35A
 Zabaleta Agirrezabal, Cruz: 34
 Zabaleta Agirrezabal, Jose Antonio: 34
 Zabaleta Agirrezabal, Josefa Antonia: 21
 Zabaleta Agirrezabal, Maria Josefa: 34
 Zabaleta Agirrezabal, Maria Luisa: 31
 Zabaleta Agirrezabal, Maria Pilar: 31
 Zabaleta Arrikruz, Juan Ignacio: 45
 Zabaleta Balerdi, Maria Juana: 45
 Zabaleta Galfarsoro, Diego: 1
 Zabaleta Galfarsoro, Josefa Ignacia: 1
 Zabaleta Galfarsoro, Maria Antonia: 1
 Zabaleta Galfarsoro, Maria Micaela: 1
 Zabaleta Galfarsoro, Tomas: 1
 Zabaleta Gaztañaga, Jose Ignacio: 34
 Zabaleta Gaztañaga, Maria Angeles: 34
 Zabaleta Guridi Juan Jose: 1
 Zabaleta Guridi, Dimas: 31, 32
 Zabaleta Guridi, Francisca: 15
 Zabaleta Guridi, Luis: 15, 18
 Zabaleta Guridi, Maria Eugenia: 15
 Zabaleta Kerejeta, Antonio: 1, 6, 17, 32
 Zabaleta Kerejeta, Jose: 1, 33
 Zabaleta Kerejeta, Maria: 1
 Zabaleta Kerejeta, Mateo: 1
 Zabaleta Larrea, Blas: 1, 1A
 Zabaleta Larrea, Cruz: 1, 1A, 33
 Zabaleta Larrea, Gregorio: 1, 1A
 Zabaleta Larrea, Jose: 1, 1A
 Zabaleta Larrea, Pedro: 1, 1A, 32
 Zabaleta Larrea, Tomas: 1, 1A, 6, 17A
 Zabaleta Lekuona, Antonia Juana: 42
 Zabaleta Lekuona, Juan Miguel: 45
 Zabaleta Oiarbide, Benito: 34
 Zabaleta Oiarbide, Eugenio: 30A, 34, 37
 Zabaleta Oiarbide, Eusebio: 34, 34A
 Zabaleta Ormazabal, Isabel: 1, 35, 35A
 Zabaleta Ormazabal, Jose Luis: 1
 Zabaleta Ormazabal, Juan Mari: 1
 Zabaleta Ormazabal, Mateo: 1
 Zabaleta Ormazabal, Romualdo: 1
 Zabaleta Ormazabal, Telesforo: 1
 Zabaleta Orueta, Jose Mari: 15, 46
 Zabaleta Orueta, Josefa Ignacia: 15
 Zabaleta Orueta, Maria Miguel: 15
 Zabaleta Plazaola, Jose Francisco: 35
 Zabaleta Plazaola, Josefa Francisca: 15
 Zabaleta Plazaola, Josefa Joaquina: 35
 Zabaleta Plazaola, Josefa: 1
 Zabaleta Plazaola, Marcelina: 1
 Zabaleta Telleria, Emilio: 40A
 Zabaleta Zabaleta, Francisco Javier: 32, 35, 35A
 Zabaleta Zabaleta, Pascual: 35A
 Zabaleta Zangitu, Francisco: 15
 Zabaleta Zangitu, Jose: 15
 Zabaleta Zangitu, Juan Bautista: 15
 Zabaleta Zangitu, Ramona: 15
 Zabaleta, Braulio: 25
 Zabaleta, Ignacio Antonio de: 18
 Zabaleta, Jose Ignacio: 35
 Zabaleta, Juan Bautista: 15
 Zabaleta, Miguel: 1
 Zabaleta, Pedro: 19
 Zabaleta, Ramon: 4
 Zabaleta, Tomasa de: 33
 Zabaleta-Agirreburualde: 1
 Zabaleta-Arrikruz: 45
 Zabaleta-Galfarsoro: 1
 Zabaleta-Guridi: 1
 Zabaleta-Kerejeta: 1
 Zabaleta-Larrea: 1
 Zabaleta-Lekuona: 45
 Zabaleta-Ormazabal: 1
 Zabaleta-Plazaola: 1
 Zabaleta-Uzkudun: 1
 Zabarain, Manuela: 26
 Zaldua Ibarguren, Eugenia: 18

Zaldua Iburguren, Maria Eugenia: 14
Zangitu Arsuaga, Benita: 4, 4A, 33
Zangitu Arsuaga, Feliciana: 4, 4A
Zangitu Arsuaga, Isidro: IIIA, 1, 4, 4A, 31, 32, 33
Zangitu Arsuaga, Jose: 4, 4A, 30A
Zangitu Arsuaga, Juan: 4, 4A, 17, 30, 30A, 34, 36, 40A
Zangitu Arsuaga, Juliana: 4, 4A
Zangitu Arsuaga, Venancio: 4, 4A
Zangitu Azurmendi, Dominica: 4, 5
Zangitu Azurmendi, Jose Antonio: 4, 5, 7, 19, 23, 44
Zangitu de Garro, Juan: 37
Zangitu Inurritegi, Jose Mari: 4, 5
Zangitu Legorburu, Francisca: 4, 18
Zangitu Legorburu, Ignacio: 4, 4A
Zangitu Legorburu, Joaquin: 4
Zangitu Legorburu, Joaquina: 4, 15A
Zangitu Legorburu, Victoriana: 4, 40
Zangitu Zabaleta, Maria Josefa: 18
Zangitu, Josefa de: 37
Zangitu, Maria Josefa: 15
Zangitu, Martin de: 37
Zangitu, Paulina: 25
Zangitu-Jauregi: 18
Zangitu-Zabaleta: 18
Zeberio, Maria: 19
Zelaia, Javier: 15
Zubia, Eustaquio: 8
Zubia, Francisca: 18
Zubia, Juan de Dios: 22
Zubia, Juan: 28
Zubia, Pedro: 15
Zufiria, Jose: 8